AMERIKAKO DEMOKRAZIA II

Alexis de Tocqueville

OHARRA

Amerikarrek duten gizarte-egoera demokratikoak zenbait lege eta zenbait ohitura politiko iradoki dizkie berez.
Gizarte-egoera honek beronek, gainera, sentimendu eta iritzi asko sortarazi ditu haien artean, Europako gizarte aristokratiko zaharretan ezezagun zirenak. Antzina zeuden harremanak suntsitu edo aldarazi ditu, eta berriak ezarri. Gizarte zibilaren itxura ez da politika-munduaren fisionomia baino gutxiago aldatu.

Lehen gaia duela bost urte argitara eman nuen obran jorratu nuen, demokrazia amerikarrari buruzkoan. Bigarrena liburu honen gaia da. Bi zati hauek elkar osatzen dute eta obra bat bakarra eratzen.

Berehala ohartarazi behar dut irakurlea oso kaltegarri gertatuko litzaidakeen errakuntza baten kontra.

Berdintasunari honenbeste ondorio ezberdin egozten diodala ikustean, baliteke irakurleak ondorioztatzea nik berdintasuna jotzen dudala gaur egun gertatzen den guztiaren kausa bakartzat. Oso ikuspegi estua dudala uste izatea litzateke hori.

Gure garaiotan iritzi, sentimendu eta joera asko dago, berdintasunarekin zerikusirik ez duten edota beraren aurkako diren egitateek sortaraziak. Honela, adibidetzat Estatu Batuak hartuz gero, erraz frogatuko dut herrialdeko naturak, biztanleen jatorriak, lehen fundatzaileen erlijioak, haiek lortutako jakintzargiek eta aurretik zituzten azturek, demokraziaz aparte, ikaragarrizko eragina zertu dutela, eta zertzen dutela oraindik, beraien pentsaeran eta sentitzeko eran. Europan kausa ezberdinak, baina halaber berdintasunaren egitatetik independenteak, aurkituko lirateke, eta bertan gertatzen denaren zati handi bat esplikatuko.

Aitortzen dut kausa ezberdin hauen guztien existentzia eta indarra, baina nire helburua ez da hauetaz hitz egitea. Ez dut gure joera eta ideia guztien arrazoia azaltzeko asmorik; batzuk eta besteak berdintasunak zenbateraino aldatu dituen ikusarazi nahi dut bakarrik.

Ikusten ari garen iraultza demokratikoa egitate jarkiezina dela eta berorren kontra borrokatzea ez dela ez desiragarria, ez zentzuzkoa, sendo uste dudan arren, harrigarria gertatuko da agian liburu honetan sarri hitz gogorrak erabiltzea iraultza horrek sortu dituen gizarte demokratikoen aurka.

Zera bakarrik esango dut: hain zuzen ere, demokraziaren etsai ez naizelako nahi izan dudala berorrekiko zintzo izan.

Jendeak ez du egia bere arerioengandik hartzen, eta adiskideek ere nekez eskaintzen diote; horregatik azaldu dut nik.

Pentsatu dut asko arduratuko direla berdintasunak jendeari agintzen dizkion ondasun berriak iragartzeaz, baina gutxi ausartuko direla zer-nolako arriskuez mehatxu egiten dien urrutitik seinalatzera. Beraz, arrisku hauetarantz zuzendu dut, batez ere, nire begirada, eta argi eta garbi aurkitu ditudalakoan nagoenez, ez naiz isiltzeko bezain koldarra izan.

Bigarren obra honetan ere lehenengoan ohartu bide den inpartzialtasuna aurkituko dela espero dut. Banatzen gaituzten iritzi kontraesankorren erdian kokatua, horietako bakoitzak sortzen dizkidan aldeko sinpatiak edo kontrako jarrerak neure bihotzean suntsitzen saiatu naiz momentuz behintzat. Nire liburua irakurtzen dutenek esaldi bakar bat aurkitzen badute gure herrialdea astindu duten alderdi handietakoren bat edota gaur egun oztopoak jartzen dizkion eta ahultzen duten fakzio txikietakoren bat lausengatzeko helburua duena, irakurle horiek ozen hitz egin eta salatu nazatela.

Jorratu nahi izan dudan gaia ikaragarri zabala da, zeren eta munduaren egoera berriak sortarazten dituen sentimendu eta ideia gehienak hartzen baititu bere barne. Honelako gai batek ziur aski gainditu egiten ditu nire indarrak; saiatu naizelarik, ez naiz asebeteta gelditu.

Baina nahi nuen helburua ezin izan badut erabat lortu ere, irakurleek onartuko didate, behintzat, duintasunez lortzeko moduan planteatu eta garatu dudala neure zeregina.

LEHEN ZATIA
Demokraziaren eragina Estatu Batuetako mugimendu intelektualen

I
Amerikarren metodo filosofikoaz

Uste dut mundu zibilizatuan ez dagoela herrialderik Estatu Batuak baino gutxiago arduratzen denik filosofiaz.

Amerikarrek ez dute beren filosofi eskola berezirik, eta oso gutxi kezkatzen dira Europa banatzen duten eskola guztiez; apenas dakiten hauen izenik ere.

Erraza da ikustea, ordea, Estatu Batuetako biztanle gehientsuenek era berean zuzentzen dutela bere izpiritua, eta erregela berberen arabera gidatzen; alegia, haiek badute guztientzat komuna den nolabaiteko metodo filosofikoa, nahiz eta sekula ez duten horren erregelak zehazteko lanik hartu.

Hona hemen nik amerikarren metodo filosofikoa deituko nukeenaren ezaugarri nagusiak: sistema-izpirituri k, azturen uztarririk, famili maximetatik, klase-iritzietatik eta, puntu bateraino, nazio-aurreiritzietatik ihes egitea; tradizioa informazio-bidetzat bakarrik hartzea, eta egungo egitateak beste era batera eta hobeto jokatzeko ikasbide onuragarritzat hartzea; nork bere kabuz eta beregan bakarrik bilatzea gauzen arrazoia, bitartekoaren menpe gelditu gabe emaitzarantz jotzea eta formaren bitartez hondora jotzea.

Oraindik urrutirago joan eta ezaugarri ezberdin horien artean nagusiena eta ia beste guztiak labur ditzakeena bilatzen badut, izpirituaren eragiketa gehientsuenetan amerikar bakoitza bere arrazoimenaren ahalegin indibidualaz bakarrik baliatzen dela topatzen dut.

Amerika da, beraz, Descartesen printzipioak gutxien aztertu eta ongien jarraitzen dituzten munduko herrialdeetako bat. Honek ez gaitu harritu behar.

Amerikarrek ez dituzte irakurtzen Descartesen obrak, beren gizarte-egoerak aldendu egiten dituelako espekulaziozko azterlanetatik; baina hemen maximak jarraitzen dituzten, gizarte-egoera horrek berez eramaten dituelako maxima horiek onartzera.

Gizarte demokratikoaren baitan nagusi den etengabeko mugimenduaren erdian, belaunaldiak elkarren artean batzen dituen lokarria lasaitu edo eten egiten da; bakoitzak erraz galtzen du arbasoen ideien arrastoa, edo apenas kezkatzen den horietaz.

Horrelako gizarte batean bizi direnek ezin dituzte sineskizunak beren klasekoen iritzietatik atera, zeren eta, nolabait esateko, ez baita jada klaserik existitzen, eta oraindik badirenak ere hain elementu mugikorrez osaturik daudenez, gorputz orokorrak ezin du benetako botererik zertu bere atalen gain.

Gizaki baten adimenak beste batenaren gain izan lezakeen eragina, halabeharrez oso murritza da herrialde batean, non hiritarrek, gutxi gora-behera antzeko bilakatuak, oso hurbiletik ikusten duten elkar, eta non, handitasun eta nagusitasun ukaezinaren aztarnarik beren arteko inorengan sumatzen ez dutenez, etengabe beren arrazoimen propiorantz eramanak diren, egiaren sorbururik nabarien eta hurbilekoena bailitzan. Ez da, orduan, gizaki jakin batenganako konfiantza bakarrik suntsitzen, baita edozeini bere hitzagatik sinesteko zaletasuna ere.

Bakoitza bere baitan ixten da estu-estu eta handik epaitu nahi izaten du mundua.

Judizio-erregela beren baitan bakarrik bilatzeko amerikarrek duten usadio horrek beste aztura batzuetara eramaten du haien izpiritua.

Bizitza praktikoan azaltzen zaizkien zailtasun txiki guztiak laguntzarik gabe konpontzea lortzen dutela ikustean, hortik erraz ondorioztatzen dute munduan dena dela esplikagarri eta ezerk ez dituela gainditzen adimenaren mugak.
Honela, gogotik uko egiten diote ulertu ezin dutenari. Honek fede gutxi ematen die ohikoa ez denarekiko eta ia gaindiezina den nazka naturaz gaindikoarekiko.

Beren lekukotasun propiora jotzeko ohitura dutenez, aztergaia oso garbi ikustea gustatzen zaie; ahal duten guztia kentzen diote gainazala, gai horretatik banatzen dituen guztia baztertzen dute eta bistatik ezkutatzen dien guztia kentzen, hurbilagotik eta argi-argitan ikusi ahal izateko. Izpirituaren jarrera horrek berehala eramaten ditu formak gutxiestera, beren eta egiaren artean jarritako alferrikako estalki ezerosoak iruditzen baitzaizkie.

Amerikarrek ez dute, beraz, beren metodo filosofikoa liburuetatik atera beharrik izan; beren baitan aurkitu dute. Beste horrenbeste esango nuke Europan gertatu denaz.

Metodo hau berau Europan ezarri eta bulgarizatu bada, baldintzak berdinago eta jendea antzekoago bihurtu diren neurrian bakarrik izan da.

Azter dezagun une batez zikloen katea:

XVI. mendean, erreformatzaileek arrazoi indibidualaren menpe jarri zituzten antzinako fedearen dogmetako batzuk; baina ez zioten utzi beste guztien eztabaidan sartzen. XVII.ean Baconek, natur zientzietan, eta Descartesek, filosofian, abolitu egin zituzten hartutako formulak, tradizioen agintea suntsitu eta maisuaren autoritatea irauli zuten.

XVIII. mendeko filosofoak, azkenean printzipio bera orokortzean, beren sineskizun guztien gaia gizaki bakoitzaren azterketa indibidualaren menpe jartzen hasi ziren.

Nork ez du ikusten Luther, Descartes, eta Voltaire metodo berberaz baliatu zirela, eta haien arteko alde bakarra metodoa gehiago edo gutxiago erabiltzeko asmoan zegoela?

Erreformatzaileak zergatik itxi ote ziren hain estu erlijiozko ideien esparruan? Descartesek –bere metodoaz gai jakin batzuetan bakarrik baliatu nahi izanik, nahiz eta guztiei aplikatzeko egoeran prestua eduki-, zergatik aitortu ote zuen nork bere kabuz filosofi gauzetan bakarrik epaitu behar zuela eta ez politikakoetan? Nola gertatu zen XVIII. mendean metodo berorretatik bat-batean aplikazio orokorrak ateratzea, Descartesek eta haren aurrekoek ohartu ez edota aurkitu nahi izan ez zituenak? Azkenik, hizpide dugun metodoa, zergatik irten ote zen garai hartan bat-batean eskoletatik, gizartean sartu eta adimenaren arau komun bihurtzeko? Eta zergatik, frantsesen artean oso herrikoi izan ondoren, Europako herri guztiek ageri-agerian onartu edo ezkutuan jarraitu ote zioten?

Metodo filosofiko hori XVI. mendean sortu zen, eta XVII.ean zehaztu eta orokortu; baina ezin izan eskuarki onartua izan bi mende haietan. Lehen kausa hauetatik sorturiko lege politikoak, gizarte-egoeran, izpiritu-azturak horren kontra zeuden.

Gizakiak berdintzen eta elkarren artean antzekotzen hasita zeuden garaian aurkitu zen. Baina orokorki jarraitua, baldintzak gutxi gorabehera antzeko bilakatu eta jendea ere ia berdintsua zen mendeetan bakarrik izan zitekeen jarraitua.

XVIII. mendeko metodo filosofikoa ez da, beraz, frantsesa bakarrik, baita demokratikoa ere, eta honek esplikatzen du zergatik izan den hain erraz onartua Europa osoan, beronen itxura aldatzen hain eragin handia izan duelarik. Frantsesek mundua irauli badute ez da beren antzinako sineskizunak aldatu eta antzinako ohiturak mudatu dituztelako, baizik eta lehenengoak izan zirelako metodo filosofiko bat orokortzen eta argitara ematen, metodo horren laguntzaz erraz eraso zekiekeelarik antzinako gauza guztiei eta bidea ireki berri guztiei.

Orain galdetzen badidate gaur egun zergatik den metodo hori berori zorrotzago jarraitua eta sarriago aplikatua frantsesen artean amerikarren artean baino, nahiz eta hauen artean ere berdintasuna erabatekoa eta zaharragoa izan, hori neurri batean bi zirkunstantziaren ondorio dela erantzungo dut, ongi ulertarazi behar direnak.

Erlijioak sortarazi ditu gizarte angloamerikarrak; hau ez da inoiz ahaztu behar. Estatu Batuetan erlijioa nahastu egiten da, beraz, aberriak sortarazten dituen aztura nazional eta sentimendu guztiekin. Indar berezia ematen dio honek.
Arrazoi indartsu honi beste hau ere erantsi behar zaio, ahulagoa ez dena; Amerikan, nolabait esateko, erlijioak bere buruari jarri dizkio mugak; bertan ordena erlijiosoa eta ordena politikoa erabat ezberdinak dira, eta honela erraz aldatu ahal izan dira antzinako legeak, antzinako sineskizunak astindu gabe.

Kristautasunak, beraz, aginte handia gorde du amerikarren izpirituan eta –nik hau azpimarratu nahi dut bereziki- ez du bakarrik aztertu ostean onartzen den filosofiak bezala agintzen, baizik eta eztabaidatu gabe sinesten den erlijioak bezala.

Estatu Batuetan, kristau-sekten ugaritasuna mugagabea da eta etengabe aldatzen dira, baina kristautasuna bera egitate ongi ezarria eta geldiezina da, ez zaio ez erasotzen, ez defendatzen.

Amerikarrek, kristau-erlijioaren dogma nagusienak azterketarik gabe onartu dituztenez, beharturik daude era berean hartzera horietatik datozen eta horietan oinarritzen diren egia moral asko. Honek muga estuen barnean ixten du azterketa indibidualaren ekintza, eta giza iritzi garrantzitsuenetako batzuk azterketa horretatik kanpo uzten ditu.

Aipatu dudan beste zirkunstantzia hauxe da:

Amerikarrek gizarte-egoera eta konstituzio demokratikoak dituzte, baina ez dute iraultza demokratikorik izan. Gutxi gora-behera guk orain ikusten ditugun bezalaxe iritsi ziren okupatzen duten lurraldera. Oso kontuan hartzekoa da hau.

Ez dago iraultzarik antzinako sineskizunak mugiarazten ez dituenik, aginpidea ahuldu eta ideia komunak iluntzen ez dituenik. Iraultza ororen ondorio da gehixeago edo gutxixeago gizakiak beren kasa uztea eta bakoitzaren izpirituaren aurrean espazio huts eta ia mugagabea irekitzea.

Gizarte zaharra osatzen zuten klase ezberdinen arteko borroka luzearen ondoren baldintzak berdindu egiten direnean, inbidia, gorrotoa eta auzokoaganako mesprezua, harrokeria eta nork bere buruarekiko konfiantza exageratua sartzen dira, nolabait esateko, giza bihotzean, bertan ezarriz beren agintea aldi baterako. Honek, berdintasunetik aparte, eragin handia du jendearen zatiketan, batzuek besteen judizioaz mesfidatzen eta argia beren baitan bakarrik bilatzen dutelarik.

Bakoitzak bere buruaz aski nahi du izan eta gauza guztiei buruz bere iritzi propioak eratzean jartzen du bere aintza. Interesek bakarrik elkarlotzen dituzte gizakiak eta ez ideiek; eta giza iritziek, alde guztietatik astintzen den halako hauts intelektual bat baizik ez dutela osatzen esan liteke, inon biltzen eta finkatzen ez dena.

Honela, berdintasunak iradokitzen duen izpiritu-independentziak handiena eta larregizkoena berdintasuna ezartzen hasten den momentuan ematen du, eta berdintasun hori finkatzeko lan neketsuan zehar. Beraz, arretaz bereizi behar da berdintasunak eman dezakeen askatasun intelektuala, iraultzak ekartzen duen anarkiatik. Bi gauza hauetako bakoitza aparte hartu behar da kontuan, etorkizunerako larregizko itxaropen edo beldurrik ez izateko.

Gizarte berrietan biziko direnek arrazoi indibiduala sarritan erabiliko dutela uste dut; baina ez dut inola ere uste sarri abusatuko dutenik horretaz.

Herrialde demokratiko guztiei orokorkiago aplika dakiekeen kausa bati zor zaio hori, pentsamenduaren independentzia indibiduala luzarora muga finkoen, eta batzuetan estuen, artean edukiaraziko duena.
Ondorengo kapituluan azalduko dut.

II

Sineskizun sorburu nagusia herrialde demokratikoetan

Sineskizun dogmatikoak ugariago edo urriagoak izaten dira, garaien arabera. Era ezberdinetan sortzen dira eta beren forma eta edukia alda ditzakete; baina ezinezkoa da sineskizun dogmatikoak, hau da, jendeak konfiantzaz eta eztabaidatu gabe hartzen dituen iritziak, desagerraraztea. Bakoitzak bere iritzi guztiak bere kabuz eratu eta nork berak bakarrik zabaldutako bideetatik egia bilatu nahi izango balu, ziur aski sekula ez litzateke jende-kopuru handia bilduko sineskizun komun baten inguruan.

Nolanahi ere, erraza da ikustea ez dagoela gizarterik antzeko sineskizunik gabe aurrera egin dezakeenik, edota, hobeto esanda, ez dagoela gizarterik horrela irauten duenik; zeren eta, ideia komunik gabe, eta ekintza komunik gabe, oraindik bada gizakirik, baina ez gizarte-gorputzik. Gizarteak existitzeko, eta are gehiago gizarte horrek aurrera egiteko, beharrezkoa da hiritarren izpiritu guztiak beti bildurik eta elkartuta egotea ideia nagusi batzuen bidez; eta hau ezinezkoa litzateke horietako bakoitzak ez balitu batzuetan bere iritziak sorburu beretik aterako eta aurrez moldaturiko sineskizun batzuk bereganatzea ez balu onartuko.

Orain gizakia aparte kontsideratzen badut, konturatzen naiz sineskizun dogmatikoak bakarrik bizitzeko bezain beharrezkoak zaizkiola bere hurkoekin komunean jarduteko ere.

Gizakiak bere buruari frogatu beharko balizkio egunero erabiltzen dituen egia guztiak, sekula ez luke bukatuko; atariko frogapenetan ahituko litzateke, aurrera egin gabe; bere bizialdi laburragatik astirik ez duenez, ezta bere izpirituaren mugengatik horrela jokatzeko ahalmenik ere, beharturik dago ziurtzat hartzera egitate eta iritzi-pila bat, bere kabuz aztertzeko eta egiaztatzeko astirik eta ahalmenik izan ez badu ere, beste iaioago batzuek aurkitu dituztenak edo jendeak onartzen dituenak. Lehen oinarri honen gainean eraikitzen du berak bere pentsamendu propioen eraikina. Ez da bere borondatea honela jokatzera bultzatzen duena; bere izaeraren lege aldagaitzak behartzen du horretara.

Ez dago munduan hain filosofo handirik, milaka gauza beste baten fedean oinarrituz sortzen ez duenik, eta berak ezarriak baino askoz egia gehiago suposatzen ez dituenik.

Hori beharrezkoa ez ezik, desiragarria ere bada. Dena bere kabuz aztertu nahi lukeenak, denbora eta arreta gutxi eskaini ahal izango lioke gauza bakoitzari; lan honek asaldura etengabean edukiko luke haren izpiritua, egia bakar batean ere sakontzea eta ziurtasun bakar batean ere sendo finkatzea eragotziko liokeelarik. Haren adimena independentea eta ahula izango litzateke aldi berean. Beharrezkoa zaio, beraz, giza iritzien eduki ezberdinen artean aukeraketa bat egitea eta sineskizun asko eztabaidatu gabe onartzea, berak bakarrik aztertzeko gordetako gauza gutxi batzuetan hobeto sakondu ahal izan dezan.

Egia da beste baten hitzean oinarrituz iritzi bat hartzen duenak esklabo bihurtzen duela bere izpiritua; baina esklabutza hori osasungarria da, askatasunaren erabilera ona egiteko aukera ematen diona.

Edozein zirkunstantziatan beti da beharrezkoa autoritatea nonbait egotea adimen eta moralaren munduan. Leku hori alda daiteke, baina derrigorrez nonbait egon behar du. Norbanakoaren independentzia handiago edo txikiagoa izan daiteke, baina ezin da mugagabea izan. Honela, arazoa ez da demokrazi mendeetan autoritate intelektualik badagoen ala ez jakitea, baizik eta non kokatua dagoen eta zein neurritakoa den.

Aurreko kapituluan erakutsi dut baldintza-berdintasunak nola sortarazten duen gizakiengan halako sinesgogortasun bat naturaz gaindikoarekiko, eta ideia oso jasoa eta exageratua sarri giza arrazoimenarekiko.

Berdintasun-garaiotan bizi direnek, beraz, nekez jotzen dute autoritate intelektuala, zeinetara makurtzen baitira beraiek, gizadiaz kanpo gainetik jartzera. Beren baitan edota beren antzekoengan bilatzen dituzte normalean egiaren sorburuak. Hau aski litzateke frogatzeko honelako mendeetan ezin dela erlijio berririk ezarri eta sortarazteko ahalegin guztiak inpioak ez ezik, barregarri eta zentzugabeak ere izango liratekeela. Pentsa daiteke herri demokratikoek ez dutela erraz jainko-misioetan sinetsiko, gogotik barre egingo dutela profeta berriez eta gizadiaren mugen barnean, eta ez harantzago, aurkitu nahiko dutela beren sineskizunen arbitro nagusia.

Baldintzak berdinak ez eta gizakiak ere antzekoak ez direnean, beti izaten dira gizabanako batzuk oso ilustratuak, oso jakintsuak, bere adimenagatik oso ahaltsuak, eta jendetza handi bat oso ezjakina eta oso mugatua. Beraz, aristokrazi garaietan bizitzen direnek berez jotzen dute pertsona edo klase baten arrazoi

nagusia beren iritzien gidaritzat hartzera, eta aldi berean ez dira prest egoten masaren infalibilitatea onartzeko.

Kontrakoa gertatzen da berdintasun-mendeetan.

Hiritarrak berdinago eta antzekoago bilakatu ahala, pertsona edo klase jakin batengan itsu-itsuan sinesteko bakoitzak izan lezakeen joera murriztu egiten da. Masari sinesteko jarrera areagotu egiten da, eta gero eta gehiago iritzi publikoa izaten da mundua gidatzen duena.
Iritzi komuna da bakoitzaren arrazoimenari herri demokratikoetan gelditzen zaion gidari bakarra; baina gainera iritzi horrek askoz ere ahalmen handiagoa du horrelako herrietan beste inon baino. Berdintasun-garaietan, gizakiek, beren antzekotasunagatik, ez dute inolako federik batzuek besteengan; baina antzekotasun horrek berorrek konfiantza ia mugagabea ematen die iritzi publikoan; ez baitzaie sinesgarria iruditzen, guztiek antzeko jakintzargiak izanik, egia ez egotea gehiengoaren aldean.

Herrialde demokratikoetan bizi denak bere burua inguruko guztiekin konparatzen duenean, hauetako bakoitzaren berdina dela sentitzen du harrotasunez; baina bere antzeko guztien aurrez aurre jartzen denean eta gorputz handi horren ondoan bere burua jartzen duenean, berehala abailtzen dute bere ezerezak eta ahuleziak.

Bere herrikide bakoitzagandik independente bihurtzen duen berdintasun honek beronek gehiengoaren ekintzaren esku uzten du, isolatua eta babesgabe.

Herri demokratikoetan publikoak botere berezia du, nazio aristokratikoetan imajinatu ere egin ezina. Ez da saiatzen bere sineskizunei buruz jendea konbentzitzen; inposatu egiten ditu eta arimetan sarrazten, guztien izpirituak bakoitzaren adimenean zertzen duen presio ikaragarriaren bidez.

Estatu Batuetan gehiengoa arduratzen da aurretiaz moldaturiko iritzi-pila bat gizabanakoei emateaz, eta iritzi propioak eratu beharraren zama kentzen die gainetik. Filosofi, moral- edo politika-gaietan teori kopuru handia dago, bakoitzak, inolako azterketarik gabe, iritzi publikoan duen fedean oinarrituz onartzen duena; eta hurbil-hurbiletik begiratzen bada, ikusiko da han erlijioa bera nagusi dela, gutxiago doktrina errebelatu izateagatik iritzi komun izateagatik baino.

Badakit amerikarren artean, lege politikoak diren bezalakoak direlako, gehiengoak subiranoki arautzen duela gizartea, eta honek asko areagotzen du han gehiengoak adimenaren gain berez zertzen duen agintea. Zeren eta ezer ez baitzaio gizakiari ohikoago bera zapaltzen duenari jakinduria handiagoa aitortzea baino.

Izan ere, gehiengoak Estatu Batuetan duen ahalguztiduntasun politiko honek areagotu egiten du publikoaren iritziek, ahalguztiduntasun hori gabe, hiritar bakoitzaren izpirituan zertuko luketen eragina, baina ez da eragin honen oinarria. Berdintasunean bertan bilatu behar dira eragin honen sorburuak, eta ez maila bereko jendeak beretzat ezar ditzakeen erakunde –gehixeago edo gutxixeago- herritarretan. Pentsatzekoa da gehiengoaren aginte intelektuala ez litzatekeela erregearen menpeko herri demokratiko batean demokrazia huts batean bezain absolutua izango; baina oso absolutua izango da betiere, eta, berdintasun-mendeetan gizakien gobernurako lege politikoak edonolakoak izanik ere, aurreikus daiteke iritzi komuneango fedea nolabaiteko erlijio bilakatuko dela, eta gehiengoa berorren profeta.

Honela, autoritate intelektuala ezberdina izango da, baina ez txikiagoa; eta, desagertu egin behar duenik inola ere pentsatu gabe, iragartzen dut handiegi bilakatuko dela erraz, eta gerta litekeela giza espeziearen handitasun eta zorionari komeni baino muga estuagoetan ixtea arrazoimen indibidualaren ekintza. Argi eta garbi bi joera ikusten ditut berdintasunean: bata, pertsona bakoitzaren izpiritua pentsamendu berrietara eramaten duena; eta bestea, gehiago ez pentsatzera gogotsu murriztuko lukeena. Eta ikusten dut demokraziak, zenbait legeren agintepean, iraungi egingo lukeela gizarte-egoera demokratikoak bultzatzen duen askatasun intelektuala, eta honela, antzina klaseek edo pertsonek jartzen zizkioten traba guztiak apurtu ondoren, giza izpiritua estu kateatuko litzaiokeela gehiengoaren borondate orokorrari.

Arrazoimen indibidualaren aurrerapena neurriz gain oztopatzen edo atzeratzen duten indar ezberdin guztien lekuan, herri demokratikoek gehiengoaren botere absolutua jarriko balute, gaitzak ez luke izaeraz aldatu baino egingo. Gizakiek ez lukete independente bizitzeko biderik aurkituko; aurkituriko gauza bakarra, gauza zaila, joputzaren fisionomia berri bat litzateke. Hor badago, ez dut inoiz gehiegi errepikatuko, adimenaren askatasunean gauza santu bat ikusten dutenei eta despota ez ezik despotismoa ere gorrotatzen dutenei sakon gogoeta eragiteko motiborik. Niri dagokidanez, bekokian boterearen

eskuaren pisua sumatzen dudanean, gutxi axola dit nork zanpatzen nauen jakiteak, eta ez nago prestago lepoa uztarpean jartzera, milioi bat besok aurkezten didatelako.

III

Zergatik duten amerikarren ideia orokorretarako gaitasun eta gustu gehiago, arbaso ingelesek baino

Jainkoak ez du gizadian orokorrean pentsatzen. Begiratu bakar batez eta banaka ikusten ditu gizadia osatzen duten izaki guztiak, eta bakoitza beste guztiengana hurbiltzen duten antzekotasunekin eta besteengandik isolatzen duten ezberdintasunekin ikusten du.

Jainkoak ez du, beraz, ideia orokorren beharrik; alegia, ez du inoiz gauza-kopuru handi bat forma bat beraren menpe jarri beharrik sentitzen, horietan erosoago pentsatu ahal izateko.

Ez zaio berdin gertatzen gizakiari. Giza izpirituak aurrean jartzen zaizkion kasu partikular guztiak banaka aztertu eta epaitu nahi izango balitu, laster galduko litzateke xehetasunen ugaritasunean eta ez luke ezer ikusiko; egoera honetan, prozedura akasdun baina beharrezko batez baliatzen da, beraren ahulezia lagundu eta frogatzen duena.

Gauza-kopuru jakin bat gaingiroki aztertu eta antzekoak direla ohartu ondoren, izen bera ematen die guztiei, aparte utzi eta bere bideari jarraitzen dio.

Ideia orokorrek ez dute giza adimenaren indarra adierazten, honen gutxiegitasuna baizik, naturan ez baitago zehatz-mehatz antzeko den izakirik, ezta egitate identikorik edo, bereizgabe eta era berean, hainbat gauzari aldi berean aplika dakiokeen erregelarik ere.

Ideia orokorrek zera dute miresgarri: gauza-kopuru handi bati buruz aldi berean eta bizkor iritziak sortzeko aukera ematen diotela giza izpirituari; baina, bestalde, nozio osagabez bakarrik hornitzen dute, eta beti zehaztasunean galarazten diote zabaleran ematen diotena.

Gizarteek, zahartu ahala, egitate berriak ezagutzen dituzte, eta, ia oharkabean, egia partikularren batzuen jabe egiten dira egunero.

Horrelako egia gehiagoren jabe den neurrian, gizakia bultzatua sentitzen da berez gero eta ideia orokor gehiago asmatzera. Ezin da egitate partikular asko banaka ikusi, azkenean aurkitu gabe elkartzen dituen lokarri komuna. Banako batzuek espeziearen nozioa ulertarazten dute; espezie batzuek generoaren noziora eramaten dute derrigorrez. Herri baten jakintzargiak zenbat eta antzinakoagoak eta ugariagoak izan, orduan eta handiagoa izango da bertan ideia orokorren aztura eta gustua.

Baina badira beste arrazoi batzuk ere jendea bere ideiak orokortzera edota honetatik urruntzera bultzatzen dutenak.

Amerikarrek askoz sarriago erabiltzen dituzte ideia orokorrak ingelesek baino, eta askoz atsegin handiagoa hartzen dute horiekin; honek oso bitxia dirudi lehen begiratuan, kontuan izanik jatorri bera dutela bi herriek, lege berberen menpe bizi izan direla mendeetan zehar eta oraindik ere etengabe trukatzen dituztela beren iritzi eta ohiturak. Kontrasteak are harrigarriagoa dirudi gure Europari begiratzen zaionean eta bertan bizi diren bi herri ilustratuenak alderatzen direnean.

Esan liteke ingelesen artean giza izpirituak nekez eta saminez baino ez diola uzten egitate partikularren kontenplazioari, hortik kausetara igotzeko, eta gogoz kontra bakarrik egiten duela orokortzea.

Gure artean, aitzitik, badirudi ideia orokorretarako gustua grina bortitz bihurtu dela, kosta ahala kosta asetu behar dena. Goizero, esnatzerakoan, lege orokor eta betikoren bat aurkitu dela jakiten dut, nik ordura arte inoiz entzun gabea. Ez dago idazlerik, erdipurdikakorik ere, bere lehen saioan nahikoa duenik erresuma handi bati aplikatzeko moduko egiak aurkitzearekin, eta bere buruaz atsekabetuta gelddituko ez denik, ezin izan badu bere diskurtsoaren gaian gizadi osoa sartu.

Horrelako desberdintasuna bi herri oso ilustraturen artean harrigarria gertatzen zait. Azkenik, nire izpiritua Ingalaterrara zuzentzen badut eta azken mende erdian bere baitan zer gertatzen den azaldu nahi

badut, esan dezakedala uste dut ideia orokorretarako gustua garatzen ari dela bertan, herrialdearen antzinako konstituzioa ahuldu ahala.

Beraz, jakintzargiak aurreraxeago edo atzeraxeago egotea ez da aski esplikatzeko zerk iradokitzen dion giza izpirituari ideia orokorrekiko atxikimendua, edota horietatik aldentzea.

Baldintzak oso desberdinak eta desberdintasunak iraunkorrak direnean, poliki-poliki gizabanakoak hain desberdin bihurtzen direnez, zenbat klase hainbat gizadia ezberdin dagoela esan liteke; aldi bakoitzean sekula ez da bat baino gehiago aurkitzen, eta, gizadiaren altzo zabalean guztiak elkartzen dituen lokarri orokorra bistatik galtzean, pertsona batzuk bakarrik ikusten dira eta ez gizakia.

Gizarte aristokratikoetan bizi direnek inoiz ez dute, beraz, oso ideia orokorrik zertzen beren buruez, eta hau aski izaten da ideia horiekiko ohiko mesfidantza eta instintuzko nazka sortzeko.

Aitzitik, herrialde demokratikoetan bizi denak ez ditu bere inguruan antzeko samarrak diren izakiak baizik aurkitzen; ezin du, beraz, gizadiaren zati batean bakarrik pentsatu, bere pentsamena handitu edo zabaldu ez bada egiten multzo guztia hartu arte. Berari aplika dakizkiokeen egia guztiak, iruditzen zaio berdin edo era berean aplika dakizkiokeela bere herrikide edo hurkoetako bakoitzari. Gehien saiatzen den eta gehien interesatzen zaizkion azterlanetan ideia orokorretarako aztura bereganatu ondoren, aztura hau berau beste guztietara eramaten du, eta honela, gauza guztietan erregela komunak aurkitu beharra, gauza-kopuru handi bat forma bat berean itxi beharra eta egitate-multzo bat kausa bakar baten bidez esplikatu beharra, giza izpirituaren grina sutsu eta sarritan itsu bilakatzen dira.

Aurreko hori egia dela ezerk ez du hobeto erakusten esklaboei buruz antzinatean zeuden iritziek baino.

Erroma eta Greziako jeinurik zabal eta sakonenak ezin izan ziren iritsi hain orokor eta aldi berean hain sinplea den ideia honetara: gizakien antzekotasuna eta bakoitzak, jaiotzerakoan, askatasunerako duen eskubide berdina; eta esklabutza naturan zegoela frogatzen saiatu ziren, eta beti iraungo zuela. Are gehiago, aske bilakatu aurretik esklabo izan ziren antzinakoetako haiek ere, batzuek idazki ederrak utzi dizkigutenak, joputzari buruz ikuspegi berbera zutela adierazten du orok.

Antzinateko idazle handi guztiak ugazaben aristokraziaren parte ziren, edo gutxienez aristokrazia hori protestarik gabe ezarria ikusten zuten beren aurrean; haien izpiritua, hainbat aldetara zabaldu ondoren, puntu horretan mugatua aurkitu zen, eta Jesukristok etorri behar izan zuen mundura gizadiko kide guztiak berez antzeko eta berdinak zirela ulertarazteko.

Berdintasun-mendeetan, gizaki guztiak independenteak dira elkarren artean, isolatuak eta ahulak; ez da egoten inor bere borondatearen bidez iraunkorki gidatzen dituenik jendetzaren mugimenduak; honelako garaietan, gizadiak beti bere kabuz ibiltzen dela ematen du. Munduan gertatzen dena esplikatzeko, kausa handi batzuk ikertzera mugaturik gaude, zeinek, gure hurkoetako bakoitzarengan era berean eragitean, guztiak nor bere borondatez bide berari jarraitzera bultzatzen baitituzte. Honek ere berez eramaten du giza izpiritua ideia orokorrak zertzera eta horietarako zaletasuna izatera.

Lehen erakutsi dut baldintza-berdintasunak nola bultzatzen zuen bakoitza egia bere kabuz bilatzera. Erraza da ikustea horrelako metodo batek ohartzeke bultzatu behar duela giza izpiritua ideia orokorretarantz. Neure arrazoiaren ahaleginen bidez bakarrik jarraibidea bilatzeko klase-, lanbide- edo famili tradizioak baztertzen ditudanean, aurreko ereduaren aginteari ihes egiten diodanean, neure iritzien zioak gizakiaren izaeratik bertatik ateratzeko joera izaten dut, eta honek derrigorrez eramaten nau, ia oharkabean, oso orokorrak diren nozioen kopuru handi baterantz.

Aurreko honek guztiak esplikatzen du ingelesek zergatik duten ideien generalizaziorako askoz gaitasun eta gustu gutxiago beren ondorengo amerikarrek baino, eta batez ere beren auzoko frantsesek baino, baita gaur egungo ingelesek zergatik duten beren arbasoak baino gehiago ere.

Ingelesak oso herri ilustratua eta aldi berean oso aristokratikoa izan dira luzaroan; jakintzargiek ideia oso orokorretarantz bultza egiten zieten etengabe, eta aztura aristokratikoek ideia oso partikularretan eusten. Hortik sortu da filosofia bat, aldi berean ausart eta herabea, zabal eta estua, orain arte Ingalaterran nagusi izan dena, eta oraindik ere hainbat izpiritu zanpatuta eta mugiezinik dauzkana.

Gorago aipatu ditudan kausa horietaz gain, badira beste batzuk ere, ez hain nabariak, baina ez eraginkortasun gutxiagokoak ere, ia herri demokratiko guztietan ideia orokorretarako gustua, eta sarri grina, sortarazten dutenak.

Ongi bereizi beharra dago horrelako ideien artean. Badira adimenaren lan geldo, zehatz eta arduratsuaren emaitza direnak, eta hauek zabaldu egiten dute giza ezagupenen esparrua.

Badira beste batzuk izpirituaren lehen ahalegin bizkor batetik erraz sortzen direnak, eta oso nozio axaleko eta zehaztugabeak baino eragiten ez dituztenak.
Berdintasun-mendeetan bizi direnek jakingura handia izaten dute eta denbora libre gutxi; bizitza hain praktikoa, hain konplikatua, hain asaldatua eta hain aktiboa dutenez, asti gutxi gelditzen zaie pentsatzeko. Demokrazi mendeetakoek gogoko izaten dituzte ideia orokorrak, honela ez baitute kasu partikularrak aztertu beharrik; zilegi bazait honela esatea, gauza asko dute bolumen txikian eta emaitza handia sortzen dute denbora laburrean. Arretarik gabeko azterketa labur baten ondoren, zenbait gauzaren artean erlazio komun bat hautematen dutela iruditzen zaienean, ez dute beren bilaketa urrutiago eramaten, eta, gauza horien arteko antzekotasun edo ezberdintasunak zehatz-mehatz aztertu gabe, guztiak formula beraren menpe sailkatzen dituzte bizkor, beste zerbaiti ekin ahal izateko.

Demokrazi mendeen bereizgarrietako bat, arrakasta erraz eta oraingo gozamenetarako guztiek sentitzen duten zaletasuna da. Hau lanbide intelektualetan nahiz beste guztietan aurkitzen da. Berdintasun-garaietan bizi diren gehienek gutizia bizi eta aldi berean motel batez beteak daude; arrakasta handiak lortu nahi izaten dituzte berehala, baina ahalegin handirik egin beharrik gabe. Kontrako joera hauek ideia orokorrak bilatzera eramaten dituzte zuzenean, eta harrotu egiten dira ideia hauen laguntzaz oso gai zabalak deskribatzen dituztelako kostu txikiz, eta publikoaren begirada erakartzen dutelako, nekerik gabe.

Ez dakit ez ote dabiltzan oker honela pentsatzean; zeren eta haien irakurleak ere beraiek bezain beldur baitira sakontzeaz, eta izpirituaren lanetan ez dute normalean atsegin erraz eta lanik gabeko informazioa baino bilatzen.

Nazio aristokratikoek ez badituzte ideia orokorrak behar beste erabiltzen, sarritan begirunerik gabeko mesprezua erakutsiz, alderantziz gertatzen da herri demokratikoetan, hauek beti prest egoten baitira honelako ideiez abusatzeko eta beroriengatik zentzugabeki berotzeko.

IV

Amerikarrak zergatik ez diren inoiz politika-arloan frantsesak bezain grinatsuak izan ideia orokorretarako

Esan dut lehen amerikarrek frantsesek baino zaletasun gutxiago zutela ideia orokorretarako. Hori, batez ere, politikari buruzko ideia orokorretan da egia.

Nahiz eta amerikarrek ingelesek baino askoz ere ideia orokor gehiago sarrarazi legerian, eta askoz ere gehiago arduratu arren giza arazoen praktika teoriara moldatzeko, Estatu Batuetan sekula ez da ikusi ideia orokorren zaleago den gorputzik gure artean Batzar Konstituziogilea eta Konbentzioa izan ziren baino; nazio amerikar osoa sekula ez da horrelako ideiekin grinatu XVIII. mendeko herri frantsesa bezala, eta sekula ez du izan hain fede itsurik inolako teoriaren ontasunean eta egia absolutuan.

Amerikarren eta gure arteko diferentzia hau hainbat kausatatik sortua da, baina, batez ere, ondorengo honetatik:

Amerikarrek arazo publikoak beti beren kabuz gidatu dituen herri demokratiko bat osatzen dute; eta gu, berriz, arazo horiek gidatzeko modurik onenean luzaroan pentsatu baino egin ez duen herri demokratiko bat gara.

Jadanik gure gizarte-egoerak oso ideia orokorrak sortarazten zizkigun gobernu-gaietan, baina orduan gure konstituzio politikoak eragotzi egiten zigun ideia horiek esperientziaz zuzentzea eta poliki-poliki horien gutxiegitasunaz ohartzea; amerikarren artean, ordea, bi gauza horiek etengabe orekatzen dira eta elkar zuzentzen.

Lehen begiratuan badirudi hau aurrez esan dudanaren kontra-kontrakoa dela, alegia, nazio demokratikoek beren bizitza praktikoko asalduretatik beretatik ateratzen zutela teorietarako azaltzen duten zaletasuna. Azterketa arretatsuagoak erakusten du ez dagoela batere kontraesanik horretan.

Herrialde demokratikoetan bizi direnak ideia orokorren gose izaten dira, asti gutxi dutelako eta ideia hauei esker ez dutelako kasu partikularrak aztertzen denborarik galdu behar; hori egia da, baina beren ohiko eta beharrezko gogoeta-gai ez diren gauzei dagokienez bakarrik. Merkatariek lehiatsu eta zehatz aztertu gabe onartuko dituzte filosofia, politika, zientzia eta arteei buruz aurkezturiko ideia orokor guztiak; baina ondo aztertuta bakarrik hartuko dituzte merkataritzari buruzkoak eta kontu handiz bakarrik onartuko.
Gauza bera gertatzen zaie estatu-gizonei, politikari buruzko ideia orokorrak, jokoan daudenean.

Beraz, gai bat dagoenean, zeinetan bereziki arriskutsua den herri demokratikoak itsu-itsuan eta neurriz kanpo ideia orokorretara dedikatzea, erabil daitekeen zentzabiderik egokiena, berorretaz praktikoki egunero ardurararztea da; orduan derrigorrez sartu beharko dute xehetasunetan, eta xehetasunek teoriaren alde ahulak ikusaraziko dizkiete.

Erremedioa mingarria da sarritan, baina, ziur egon, izango du ondoriorik.

Erakunde demokratikoek, hiritar bakoitza gobernuaz praktikoki arduratzera behartzen dutelarik, honela moderatzen dute politika-arloan berdintasunak sortarazten duen teoria orokorretarako gehiegizko zaletasuna.

V

Nola Estatu Batuetan erlijioa baliatzen den joera demokratikoez

Aurreko kapituluetako batean frogatu dut jendea ezin dela bizi sineskizun dogmatikorik gabe, eta oso desiragarria ere badela horrelakoak izatea. Erantsi behar dut orain, sineskizun dogmatiko guztien artean, desiragarrienak erlijio-arloko sineskizun dogmatikoak iruditzen zaizkidala; oso garbi deduzitzen da hau, baita mundu honetako interesak bakarrik aztertzen badira ere.

Ia ez dago giza ekintzarik, oso partikularra izanda ere, gizakiek Jainkoaz, honek gizadiarekin dituen harremanez, arimaren izaeraz edo hurkoekiko betebeharrez zertu duten ideia oso orokor batetik sortzen ez denik. Ezinbestekoa da ideia horiek izatea gainerako guztiaren sorburu komuna.

Beraz, gizakiei biziki axola zaie Jainkoari, beren arimari, beren egilearekiko eta hurkoekiko betebehar orokorrei buruz ideia oso finkoak izatea, zeren eta lehen puntu hauei buruzko zalantzak zoriaren esku utziko bailituzke haien ekintza guztiak, desordena eta ezintasunera kondenatuak, nolabait ere.

Beraz, gai horretan du garrantzirik handiena gutariko bakoitzak ideia finkoak izatea, eta zoritxarrez berorretan da zailena bakoitza, bere kasa utzia eta bere arrazoimenaren ahaleginez bakarrik, bere ideiak finkatzera iristea.

Bizitzako kezka arruntetatik oso aske dauden izpirituak, oso sarkorrak, oso sotilak, oso trebatuak bakarrik sar daitezke hain beharrezkoak diren egia horietaraino, denbora eta arreta handiaren laguntzaz.

Hala ere, ikusten dugu filosofo horiek beroriek ziurtasunik ezaz inguraturik daudela ia beti; pauso bakoitzean ilundu eta itzaltzeko mehatxua egiten die argitzen dituen argitasun naturalak, eta, berorien ahalegin guztiak gora-behera, ezin izan dute oraindik aurkitu nozio kontraesankorren kopuru txiki bat baino, hauen artean etengabe dabilelarik giza izpiritua milaka urtetan, egiari tinko heldu ahal izan gabe eta errakuntza berririk ere aurkitu gabe. Horrelako azterlanak gizakien batezbesteko gaitasunaren oso gainetik daude, eta, gizaki gehienek, horietan murgiltzeko gai izango balira ere, garbi dago ez luketela astirik izango.

Jainkoari eta giza izaerari buruzko ideia finkoak nahitaezkoak zaizkie gizakiei beren bizitzako eguneroko praktikan, baina praktika honek beronek eragozten die ideia horiek lortzea.

Honek ez duela parekorik iruditzen zait. Zientzien artean badira batzuk, jendearentzat onuragarriak eta bere irispidean daudenak; beste batzuk gutxi batzuen eskura bakarrik daude eta ez ditu gehiengoak

lantzen, horien aplikaziorik urrutikoenak bakarrik behar baititu; baina mintzagai dudan honen eguneroko praktika ezinbestekoa da guztientzat, nahiz eta hori aztertzea ez egon gehiengoaren eskumenean.

Beraz, ideia guztien artean, Jainkoari eta giza izaerari buruzko ideia orokorretan da komenigarriena horiek arrazoi indibidualaren ohiko jardueratik kanpo uztea, autoritate bat onartuz ere horietantxe baitago irabazteko gehien eta galtzeko gutxien.

Lehen helburua, eta erlijioen abantaila nagusienetako bat, funtsezko arazo hauetako bakoitzean jendeari irtenbide garbi, zehatz, ulergarri eta oso iraunkorra ematea da.

Badira erlijioak oso faltsuak eta zentzugabeak; hala ere, adierazi dudan esparruaren barruan gelditzen den erlijio orok eta hortik irteteko asmorik ez badu –batzuk saiatu diren bezala, giza izpirituaren garapen askea alde guztietatik gerazten-, esan daiteke uztarri osasuntsua ezartzen diola adimenari; eta onartu beharra dago, gizakiak beste munduan salbatzen ez baditu, gutxienez oso onuragarria dela hemengo honetan berorien zorion eta handitasunerako.

Hau herrialde askeetan bizi direnentzat da, batez ere, egia.

Herri batean erlijioa suntsitzen denean, zalantzan nagusitzen da adimenaren parterik gorenenez eta erdizka geldiarazi egiten ditu beste guztiak. Bakoitza ohitu egiten da bere hurkoei eta berari gehien axola zaizkion gaietan nozio nahasi eta aldakorrak izaten; gaizki defendatzen ditu bere iritziak edota bertan behera uzten, eta, giza destinoak planteatzen dituen arazorik handienak berak bakarrik konpondu ahal izateaz etsi egiten duenez, horietan pentsatu ere ez egitera mugatzen da koldarkeriaz.

Horrelako egoerak derrigorrez ahuldu behar arimak; lasaitu egiten ditu borondatearen eragingarriak eta joputzarako prestatzen ditu hiritarrak.

Orduan, gertatzen da, beraiei askatasuna ken diezaieten uzteaz gain, sarritan baita entregatu ere egiten dutela haiek berek.

Erlijio-gaietan jada autoritaterik ez dagoenean, ezta politikagaietan ere, gizakiak laster izutzen dira mugarik gabeko independentzia honen itxuraz. Gauza guztien etengabeko astinketa honek kezkatu eta nekatu egiten ditu. Adimen-mailan dena mugitu egiten denez, maila materialean gutxienez dena tinko eta egonkorra izatea nahi dute, eta, jada beren lehengo sineskizunak berrartu ezin dituztenez, ugazaba bat ematen diote beren buruari.

Nik neuk zalantza dut gizakiak inoiz jasan ote dezakeen erabateko erlijio-independentzia eta aldi berean askatasun politiko osoa; eta joera dut pentsatzeko, federik ez badu, jopu izan behar duela, eta, aske bada, sinetsi egin behar duela.

Ez dakit, hala ere, erlijioen onura handi hau ez ote den are nabariagoa baldintzak berdinak dituzten herrietan beste guztietan baino.

Onartu beharra dago berdintasunak, mundura gauza on asko ekartzen duenak, hala ere oso joera arriskutsuak sortzen dizkiela gizakiei, aurrerago erakutsiko dudan bezala; batzuk besteengandik isolaraztera jotzen du, eta bakoitza bere buruaz bakarrik arduratzera bultzatzen du.

Neurrigabe irekitzen die arima gozamen materialen zaletasunera.

Erlijioen abantailarik handiena kontra-kontrako instintuak sortaraztea da. Ez dago erlijiorik gizakiaren nahien helburua lurreko ondasunez harantzago eta gainetik jartzen ez duenik, eta arima zentzumenena baino askoz goragoko eskualdeetara jasotzen ez duenik berez. Ez dago ere erlijiorik bakoitzari jartzen ez dionik gizadiarekiko –edo beronekin komunean- nolabaiteko betebeharrik, honela, noizean behin, bere buruaren kontenplaziotik atereaz. Hau erlijiorik faltsuen eta arriskutsuenetan ere ikusten da.

Beraz, herri erlijiosoak indartsuak dira berez, hain zuzen ere herri demokratikoak ahulak diren puntu horretantxe; eta honek garbi ikusarazten du zein garrantzitsua den jendeak bere erlijioari eustea berdinak bilakatzen.

Ez dut eskubiderik, ez gogorik ere, gizakiaren bihotzean erlijio sineskizun bat nagusiarazteko Jainkoak erabiltzen dituen naturaz gaindiko baliabideak aztertzeko. Une honetan giza ikuspegi hutsetik aztertzen ditut erlijioak; hurbiltzen ari zaizkigun demokrazi mendeotan beren aginteari erarik errazenean nola euts ote diezaioketen ikertzen ari naiz.

Ikusarazi dut, jakintzargien eta berdintasunaren garaietan, giza izpirituak nekez ametitzen duela sineskizun dogmatikoak hartzea, eta hauen premia bizia erlijio-gaietan bakarrik sentitzen duela. Honek esan nahi du lehenik, horrelako mendeetan erlijioek beste guztietan baino askoz zuhurtzia handiagoz jokatu behar dutela dagozkien mugen barnean, horietatik irteten saiatu gabe; zeren eta, beren boterea erlijio-gaietatik urrutiago zabaldu nahi izatean, sinesgarritasuna gai guztietan galtzeko arriskua baitute. Arretaz mugarritu behar dute, beraz, giza izpiritua geldi edukitzeko behar duten esparrua, eta hortik kanpo erabat libre utzi bere kabuz ibili ahal izateko.

Mahomak zerutik jaitsarazi zituen, eta Koranean ezarri, doktrina erlijiosoak ez ezik, baita maxima politikoak, lege zibil eta kriminalak, eta teoria zientifikoak ere. Ebanjelioak, ordea, jendeak Jainkoarekin eta elkarren artean izan beharreko harreman orokorrez soilik hitz egiten du. Hortik kanpo, ez du ezer irakasten, ezta ezer sinestera behartzen ere. Beste hamaika arrazoiren artean, hau bakarrik aski da erakusteko bi erlijio horietako lehenak ezin duela luzaroan nagusi izaten jarraitu jakintzargi eta demokrazi garaietan, bigarrena honelako mendeetan nahiz beste guztietan ere nagusi izatera destinatua dagoen bitartean.

Ikerketa honetan aurrerago jarraitzen badut, konturatzen naiz, gizakien eran hitz eginez, erlijioek demokrazi mendeetan iraun ahal izateko, ez dela nahikoa erlijio-gaien esparruan kontu handiz babestuta egotea; horien boterea aitortzen dituzten sineskizunen, hartzen dituzten kanpo-formen eta inposatzen dituzten betebeharren izaeran ere badatza, neurri handi batean.

Lehen esan dudana, hots, berdintasunak oso ideia orokor eta zabaletara eramaten duela jendea, erlijio-arloan ulertu behar da, batez ere. Antzeko eta berdinak diren pertsonek erraz zertzen dute Jainko bakarraren nozioa, bakoitzari arau berberak ezarri eta geroko zoriona prezio berean ematen dien Jainko bakarrarena; gizadiaren batasun-ideiak Egilearen batasun-ideiara eramaten ditu etengabe. Aitzitik, elkarren artean oso banaturik eta oso desberdinduta daudenek gogo onez onartzen dituzte herri, kasta, klase eta familia adina jainko, eta zerura joateko mila bide partikular trazatzen.

Ezin da ukatu kristautasunak berak ere jasan duela nolabait gizarte- eta politika-egoerak erlijio-sineskizunetan zertzen duen eragin hau.

Kristau-erlijioa munduan agertu zen momentuan, Probidentziak, zalantzarik gabe munduan beraren etorrerarako prestatzen ari zenak, bildua zuen gizadiaren zati handi bat, artalde zabal bat bezala, zesarren aginte-makilaren menpe. Jendetza hura osatzen zutenek ezberdintasun handiak zituzten beren artean; baina, hala ere, bazuten puntu komun bat: guztiek lege berberei obeditzen zieten; eta haietako bakoitza hain ahul eta txikia zenez printzearen handitasunaren aldean, guztiek berdinak ziruditen harekin konparatzen.

Aitortu beharra dago gizadiaren egoera berri eta berezi honek prestatu egin zuela jendea kristautasunak erakusten dituen egia orokorrak onartzera, eta orduan giza izpirituan zein erraz eta bizkor sartu zen esplikatzeko balio du.

Kontra-froga inperioa suntsitu ondoren gertatu zen.

Erromatarren mundua, nolabait esateko, mila zatitan apurtu zelarik, nazio bakoitza bere aurreko banakotasunera itzuli zen. Laster, nazio haien barnean, klaseak mugagabeki mailakatu ziren; arrazak bereizi egin ziren, kastek hainbat herritan zatibanatu zuten nazio bakoitza. Gizarteak beren burua imajinatu ahal beste puskatan zatibanatzera bultzatzen zituen ahalegin komun honen erdian, kristautasunak ez zituen bistatik galdu argitara ateraraziak zituen ideia orokor nagusienak. Baina, hala ere, bazirudien, bere esku zegoen neurrian, gizadiaren zatiketak sortarazten zituen joera berriak onartzeko prest zegoela. Gauza guztien egile eta iraunarazle den Jainko bakar bat gurtzen jarraitu zuten gizakiek; baina herri bakoitzak, hiri bakoitzak eta, nolabait esateko, gizaki bakoitzak aparteko pribilegioren bat lor zezakeela pentsatu zuen, eta ugazaba subiranoaren ondoan babesle partikularrak sortarazi. Jainkotasuna banatzerik ez zegoenez, gutxienez ugaldu eta neurrigabe handitu zituzten beraren agenteak; aingeru eta

santuei zor zaien omena ia kultu idolatra bihurtu zen kristau gehienentzat, eta kristau-erlijioak, berak menperaturiko erlijioetarantz, atzera egingo ote zuen beldurra sortu zen momentu batean.

Nabarmena iruditzen zait gizadiaren baitan nazioak, eta herri bakoitzaren barnean hiritarrak, elkarren artean banatzen dituzten hesiek desagertzera egiten duten neurrian, are gehiago jotzen duela giza izpirituak, bere kabuz, izaki bakar eta ahalguztidunaren ideiarantz, honek berdin eta era berean lege berberak ematen dizkiolarik gizaki bakoitzari. Beraz, demokrazi mendeotan axola da, batez ere, bigarren mailako agenteei emandako omena ez nahastea Egileari bakarrik zor zaion kultuarekin.

Beste egia bat ere oso argi dagoela iruditzen zait: demokrazi garaietan erlijioek kanpo-praktikez gutxiago arduratu behar dute beste guztietan baino.
Amerikarren metodo filosofikoa dela eta, ikusarazi dut, berdintasun-garaietan formetara makurtu behar izatea dela giza izpirituarentzat gogaikarriena. Garai hauetan bizi direnek ezinegonez jasaten dituzte irudiak; sinboloak ume-artifizioak iruditzen zaizkie, zenbait egia haien begietara ezkutatzeko edo apaintzeko erabiltzen direnak, nahiz eta naturalagoa izango litzatekeen estalkirik gabe eta egun-argitan erakustea; zeremonien itxurak hotz uzten ditu eta badute berezko joera kultuko xehetasunei bigarren mailako garrantzia besterik ez emateko.

Demokrazi mendeetan erlijioen kanpo-forma arautzeko ardura dutenek oso kontuan hartu behar dituzte giza adimenaren berezko joera hauek, berauen aurka premiarik gabe borrokan ez egiteko.

Nik sendo sinesten dut formen beharrean; badakit egia abstraktuen kontenplazioan edukitzen dutela giza izpiritua, eta, egia horiei tinko atxikitzen laguntzen diotela izpirituari, honek gogo beroz onar ditzan. Ez dut imajinatzen erlijio batek iraun dezakeenik kanpo-praktikarik gabe; baina, bestalde, pentsatzen dut, hurbiltzen ari zaizkigun mendeotan, bereziki arriskutsua izango litzatekeela praktika horiek neurri gabe ugaltzea; aitzitik, murriztera jo behar dela uste dut, eta dogmaren beraren betiko iraupenerako behar-beharrezkoak bakarrik mantendu behar direla, dogma baita erlijioen funtsa[1], eta kultua horren forma besterik ez. Gizakiak berdinago bilakatu ahala, zehatzago, zurrunago eta betebehar txikiz zamatuago egongo litzatekeen erlijio bat, laster mugatuko litzateke defendatzaile sutsuen talde bat izatera jendetza sinesgabe handiaren erdian.

Badakit eragozpen gisa aipatuko zaidala erlijioak, guztiek izanik xedetzat egia orokor eta betikoak, ezin direla honela makurtu mende bakoitzeko joera aldakorretara, ziurtasuna galdu gabe jendearen aurrean. Hala ere, erantzungo diot horri oso kontuz bereizi behar direla sineskizun bat osatzen duten iritzi nagusiak –teologoen esanetan, fede-artikuluak direnak- eta horiei erantsitako nozio akzesorioak. Erlijioak beharturik daude lehenengoei tinko eustera beti, nolanahikoa izanik ere garaiko izpiritu berezia; baina ez zaizkie inola ere era berean atxiki behar bigarrenei, etengabe dena lekuz aldatzen den mendeetan eta izpirituak, giza gauzen ikuskizun aldakorrera ohitua, geldi geratu beharra nekez pairatzen duen mendeetan. Mugiezintasuna kanpoko eta bigarren mailako gauzetan ez zait iruditzen iraupenerako mesedegarri denik, gizarte zibila bera ere mugiezina denean baizik, beste edonoiz, arrisku bat dela pentsatuko nuke.

Ikusiko dugu, berdintasunak sorrarazten edo bultzatzen dituen grina guztien artean, badela eta bereziki bizia eta aldi berean gizaki guztien bihotzetan jartzen duena: ongizatearen maitasuna da hori. Ongizatearen zaletasuna da aro demokratikoen ezaugarri nabari eta ezabaezina.

Pentsa daiteke grina nagusi hori suntsitu egin nahiko balu erlijio batek, azkenean grinak erlijio hori berori suntsituko lukeela. Erlijio horrek gizakiak mundu honetako ondasunen kontenplaziotik erabat atera eta beste mundukoen hausnarketara bakarrik eraman nahi izango balitu, aurreikus daiteke azkenean arimek ihes egingo lioketela esku artetik, beragandik urruti, gozamen material eta oraingoen artean soilik murgiltzeko.

Berdintasun-garaietan gizakiek sentitzen duten ongizatearen zaletasun sutsuegi eta esklusiboegia araztu, arautu eta murriztea da erlijioen eginkizun nagusia; baina iruditzen zait oker jokatuko luketela erabat menperatzen eta suntsitzen saiatuko balira. Ez dute lortuko jendea aberastasunen maitasunetik aldentzerik, baina konbentzi dezakete baliabide zintzoz bakarrik aberats dadin.

---

[1] Erlijio guztietan, badira sinesmenaren substantziari datxezkion zeremoniak, eta horietan ez da ezer aldatu behar. Hau, batez ere, katolizismoan ikusten da, non sarri formak eta hondoak, hain estu elkarturik daudenez, bat egiten baitute.

Honek azken gogoeta batera narama, nolabait ere beste guztiak barne hartzen dituena. Gizakiak antzekoago eta berdinago bihurtu ahala, are garrantzizkoagoa da erlijioak, arazoen eguneroko zurrunbilotik kontu handiz aldenduz, beharrik gabe ez tupust egitea orokorrean onarturiko ideien kontra eta masan nagusi diren interes iraunkorren aurka; zeren eta iritzi publikoa baita gero eta gehiago botereetako lehena eta jarkiezinena; hortik kanpo ez dago berorren kolpeak luzaroan erresistitzeko bezain euskarri sendorik. Hau errepublikan bezain egia da despotaren menpe dagoen herri demokratikoan. Berdintasun-mendeetan, erregeek sarri lortzen dute agindua betearaztea, baina beti gehiengoa izaten da sinestarazten duena; hortaz, gehiengoari eman behar zaio atsegin fedearen kontrako ez den guztian.

Erakutsi nuen lehen liburuan apaiz amerikarrak nola aldentzen ziren arazo publikoetatik. Hori da haien zuhurtziaren adibiderik nabarmenena, baina ez bakarra. Amerikan erlijioa aparteko mundu bat da, non apaiza baita nagusi, baina kontuz ibiltzen da handik ez irteteko; mundu horren mugetan, berak gidatzen du adimena; hortik kanpo, gizakiak beren kasa uzten ditu eta beren izaerari eta garaiari dagozkion independentzia eta ezegonkortasunaren menpe uzten ditu. Inon ez dut ikusi kristautasuna forma, praktika eta irudi gutxiagoz inguratua Estatu Batuetan baino, ezta giza izpirituari ideia garbiago, sinpleago eta orokorragorik aurkezten dion herrialderik ere. Nahiz eta Amerikako kristauak sekta askotan banaturik egon, guztiek ikuspegi honetatik hartzen dute beren bezalaxe. Ez dago apaiz katolikorik norberaren betekizun txikiekiko edo salbamena lortzeko metodo aparteko eta partikularrekiko zaletasun gutxiago duenik Estatu Batuetako apaiz katolikoa baino, ezta legearen izpirituari atxikiago eta letrari gutxiago dagoenik ere; Jainkoari dagokion kultua, santuei ematea debekatzen duen eliz doktrina hori, inon ez da argiago irakasten eta hobeto jarraitzen. Hala ere, Amerikako katolikoak oso apalak eta oso zintzoak dira.

Beste oharpen bat ere egin daiteke konfesio guztietako kleroaz: apaiz amerikarrak ez dira saiatzen gizakiaren begirada guztiak geroko bizitzara bideratzen eta han finkatzen; gogotsu ematen dute bihotzaren zati bat oraingo arduretara; badirudi munduko ondasunak gauza garrantzizkotzat dauzkatela, nahiz eta bigarren mailakotzat; haiek berak ez badira industrigintzan sartzen ere, gutxienez arduratzen dira horren aurrerapenez eta txalotu egiten dituzte, eta fededunei beren beldur- eta itxaropen-gai handia beste mundua dela etengabe erakutsi arren, ez diete debekatzen ongizatea zintzoki bilatzea mundu honetan. Bi gauza hauek banatuta daudela eta kontrako direla erakusten saiatu gabe, zein puntutan elkar ukitzen eta lotzen diren aurkitzera dedikatzera dira.

Apaiz amerikar guztiek dakite gehiengoak zertzen duen aginte intelektuala, eta errespetatu egiten dute. Beharrezko borrokak bakarrik egiten dituzte berorren aurka. Sekula ez dira sartzen alderdien liskarretan, baina gogotsu onartzen dituzte beren herrialdeko eta garaiko iritzi orokorrak, eta beren inguruan gauza guztiak arrastaka daramatzan sentimendu eta ideien korrontearen norabidean lagatzen dituzte beren buruak, aurka egin gabe. Beren garaikideak zentzarazten saiatzen dira, baina ez dira hauengandik banatze. Beraz, inoiz ez dute iritzi publikoa etsai izaten; honek lagundu eta babestu gehiago egiten ditu, eta haien sineskizunak nagusi izaten dira bai beraiek duten indarragatik, baita gehiengoari hartzen diotenagatik ere.

Honela, bada, kontrako ez zaizkion joera demokratiko guztiak errespetatuz eta horietako batzuen laguntzaz, erlijioa arrakastaz borrokatzen da jarrera guztien artean beretzat arriskutsuena denaren kontra, independentzia indibidualarenaren kontra, alegia.

VI

Katolizismoaren aurrerapena Estatu Batuetan

Amerika da munduko eskualderik demokratikoena, eta aldi berean, albiste sinesgarrien arabera, erlijio katolikoak aurrerapen handiena egiten duen herrialdea. Honek harrigarria dirudi lehen begiratuan.

Bi gauza bereizi behar dira ongi: berdintasunak gizakiak bere kabuz epaitu nahi izatera bultzatzen ditu; baina, bestalde, gizarte-botere bakar, sinple eta guztientzako berberaren gustua eta ideia ere ematen dizkie. Demokrazi mendeetan bizi direnek joera handia dute, beraz, erlijio-aginte orotatik ihes egiteko. Eta, antzeko aginte baten menpe jartzea onartzen badute, hau bakar eta uniformea izatea nahi dute gutxienez; erdigune bat bererantz ez doazen botere erlijiosoek haien adimenarekin tupust egiten dute, noski, eta ia erlijiorik ez egotea bezain erraz onartzen dute asko egotea.

Gaur egun, aurreko garaietan baino gehiago, sinesgabe bihurtzen diren katolikoak eta katoliko bihurtzen diren protestanteak ikusten dira. Katolizismoa barnetik aztertuz gero, galtzen ari dela dirudi; kanpotik begiratzen bazaio, irabazten ari dela. Honek badu esplikaziorik.

Gaur egungo jendeak berez joera txikia du sinesteko; baina, erlijioren bat duen momenturik, berehala aurkitzen du beregan ezkutuko joera bat oharkabean katolizismorantz bultza egiten diona. Erromako Elizaren zenbait doktrina eta usadio harrigarri gertatzen zaio; baina haren gobernua miretsi egiten du ezkutuan, eta haren batasun handiak, erakarri.

Katolizismoak lortuko balu, noizbait, sortarazi dituen gorroto politikoetatik ihes egitea, zalantza gutxi dut hain kontrako duela ematen duen mende-izpiritu hori berori oso aldeko bihurtuko litzaiokeela, bat-batean konkista handiak egingo lituzkeelarik.

Giza adimenari ohikoen zaion ahulezietako bat kontrako printzipioak adiskidetu nahi izatea da, eta bakea erostea logika sakrifikatuz. Beraz, beti izan dira eta izango dira gizakiak, beren erlijio-sineskizunetako batzuk autoritateren baten menpe jarri ondoren, besteren batzuk beraren menpetik atera nahiko dituztenak, eta beren izpirituari obedientziaren eta askatasunaren artean batetik bestera kulunkatzen utziko diotenak. Baina iruditzen zait hauen kopurua txikiagoa izango dela demokrazi mendeetan beste mendeetan baino, eta gure bilobek gero eta joera handiagoa izango dutela bi zatitan soilik banatzeko: batzuk kristautasunetik erabat atereaz, eta besteak Erromako Elizaren baitan sartuz.

VII

Herri demokratikoen izpiritua panteismorantz makurrarazten duena

Geroago erakutsiko dut ideia oso orokorretarako gustua, herri demokratikoetan nagusi dena, politikan ere aurkitzen dela; baina orain filosofian duen ondorio nagusia azaldu nahi dut.

Ukaezina da panteismoak aurrerapen handiak egin dituela gaur egun. Europako zati bateko idazkiek nabarmen daramate horren marka. Alemanek filosofian sartzen dute, eta frantsesek literaturan. Frantzian argitara ematen diren irudizko obretan, gehienek dituzte doktrina panteistetatik hartutako iritzi edo deskribapenen batzuk, edota autoreen baitan doktrina horietarako nolabaiteko joera dagoela erakusten dute. Ez zait iruditzen hau akzidentala bakarrik denik, kausa iraunkor baten ondorio baizik.

Baldintzak berdinago bilakatu ahala, gizaki partikular bakoitza beste guztien antzekoago, ahulago eta txikiago bihurtzen da; hiritarrak ez, baizik eta herria bakarrik kontuan hartzera ohitzen da; banakoez ahaztu egiten da eta espeziean bakarrik pentsatzen du.

Honelako denboretan giza izpirituak aldi berean gauza ezberdin asko besarkatzea izaten du atsegin; ondorio-pila bat kausa bakar bati lotzea lortu nahi izaten du etengabe.

Batasunaren ideiak obsesionatu egiten du, alde guztietan bilatzen du, eta aurkitu duela uste duenean, beraren baitan gogotsu etzan eta atseden hartzen du. Munduan kreazio eta kreatzailea aurkitu bezain laster, gauzen lehen zatiketa honek ere gogait eragiten dio, eta gogotsu saiatzen da bere pentsamena zabaldu eta sinplifikatzen, Jainkoa eta unibertsoa osotasun bakar batean sartuz. Aurkitzen badut sistema filosofiko bat, zeinen arabera munduan dauden gauza material eta inmaterialak, ikuskorrak eta ikusezinak, izaki neurrigabe baten zati ezberdintzat bakarrik hartzen diren –izaki honek bakarrik irauten duelarik betiko, bere osagai guztien aldaketa iraunkor eta eraldaketa etengabearen erdian-, orduan ez dut eragozpenik izango ondorioztatzeko horrelako sistema batek, nahiz eta giza banakotasuna suntsitu, edota suntsitzen duelako hain zuzen, ezkutuko xarmak izango dituela demokrazian bizi denarentzat; bere aztura intelektual guztiek horretarako prestatzen dute, eta hori onartzeko bidean jartzen. Naturalki erakartzen du horien adimena eta finkatu egiten; izpirituaren harrotasuna elikatzen dio eta nagikeria lausengatzen.

Unibertsoa esplikatzen saiatzeko filosofiak lagungarri erabiltzen dituen sistema ezberdinen artean, panteismoa iruditzen zait egokienetako bat demokrazi mendeetan giza izpiritua seduzitzeko; sistema honen kontra elkartu eta borroka egin behar dute gizakiaren benetako handitasunaz liluraturik dauden guztiek.

VIII

Nola berdintasunak iradokitzen dien amerikarrei gizakiaren

hobegarritasun mugagabearen ideia

Berdintasunak hainbat ideia iradokitzen dio giza izpirituari, hori gabe bururatuko ez litzaizkiokeenak, eta aurretiaz zeuzkan gehientsuenak aldarazten dizkio. Adibide gisa, giza hobegarritasunaren ideia hartuko dut, berau baita adimenak zertu dezakeen garrantzitsuenetako bat, eta teoria filosofiko handi bat bera bakarrik, honen ondorioak uneoro ikusten direlarik arazoen praktikan.

Gizakia hainbat puntutan animalien antzeko izan arren, bada ezaugarri bat berak bakarrik duena: gizakia hobetu egiten da, eta animaliak ez. Gizadiak etengabe topo egin du hasieratik diferentzia horrekin. Hobegarritasunaren ideia, beraz, mundua bezain zaharra da; berdintasunak ez du sortarazi, baina izaera berria eman dio.

Hiritarrak gizarte-mailaren, lanbidearen, jaiotzaren arabera sailkaturik daudenean eta zoriak jarri dituen bidean guztiak aurrera joatera beharturik daudenean, bakoitzak uste izaten du berengandik hurbil hautematen dituela giza ahalmenaren azken mugak, eta inor ez da saiatzen ekidinezinezko destinoaren kontra borrokatzen. Honek ez du esan nahi herri aristokratikoek erabat errefusatzen diotenik gizakiari hobetzeko ahalmena. Ez dute uste hau mugagabea denik; ulertzen dute hobekuntza, baina ez aldaketa; etorkizuneko gizarteen egoera hobea imajinatzen dute, baina ez erabat bestelakoa; eta gizadiak aurrerapen handiak egin dituela eta oraindik egin ditzakeela onartuta ere, halako muga gaindigaitz batzuen artean ixten dute aurrez.

Ez dute uste ongi goren eta egia absolutura iritsi direnik (zein pertsona edo zein gizarte izan ote daiteke hori pentsatzeko bezain zentzugabea?), baina beren burua konbentzitu nahi izaten dute lortu dutela gutxi gora-behera gure izaera akasdunaz lor daitekeen handitasun eta jakintza-maila: eta, beraien inguruan ezer mugitzen ez denez, dena bere lekuan dagoela imajinatzen dute gogotsu. Orduan legegileak betiko legeak promulgatu nahi izaten ditu, herriak eta erregeek mendeetan irauteko monumentuak bakarrik eraiki nahi izaten dituzte eta oraingo belaunaldiak geroko belaunaldiei beren destinoak arautzeko ardura ebitatu nahi izaten die.

Kastak desagertu, klaseak elkarrengana hurbildu eta jendea zalapartatsu nahastu ahala, usadioak, ohiturak eta legeak aldatu egiten dira; egitate berriak gertatu, egia berriak argitara eman, antzinako iritziak desagertu eta haien ordez beste batzuk sortu ahala, perfekzio ideal eta beti iheskor denaren irudia agertzen zaio giza izpirituari.

Orduan etengabeko aldaketak gertatzen dira uneoro pertsona bakoitzaren aurrean. Batzuen egoera gaizkoatu egiten da, eta oso ongi ulertzen dute herri bat, edo gizabanako bat, oso ilustratua izan arren, ez dela infaliblea. Beste batzuek hobetu egiten dute beren zoria, eta ondorioztatzen dute gizakia, oro har, hobetzeko ahalmen mugagabeaz hornitua dagoela. Bere zorigaitzek ikusarazten diote inor ezin dela harrotu ongi absolutua aurkitu izanaz; bere arrakastek, berriz, atsedenik gabe ongi horren bila jarraitzera bultzatzen dute. Honela gizakiak, beti bila, eroriz, altxatuz, sarri etsita, inoiz ez bihozgabetuta, etengabe jotzen du gizadiak oraindik egin behar duen lasterketa luzearen amaieran zirriborrotsu sumatzen duen handitasun ikaragarri horretarantz.

Zail da sinesten zenbat egitate ondorioztatzen den berez teoria filosofiko honetatik, gizakia mugagabeki hobegarria delako teoriatik, alegia; baita zein eragin harrigarria zertzen duen ere, jarduteaz bakarrik arduratu direlarik beti –eta pentsatzeaz batere ez-, ezagutu gabe beren ekintzak teoria horretara moldatzen dituztenengan.

Marinel amerikar bat aurkitu eta galdetzen badiot haren herrialdeko ontziak zergatik dauden gutxi irauteko moduan eraikita, zalantzarik gabe erantzungo dit nabigazioaren arteak egunetik egunera hain aurrerapen handiak egiten dituenez, ontzirik ederrena ere laster ia erabiltezin geldituko litzatekeela urte batzuk baino gehiago iraungo balu.

Gizon zahar batek eta egitate partikular bati buruz ustekabean botatako hitz horietan, nik ideia orokor eta sistematikoa hautematen dut, honen arabera gidatzen dituelarik herri handi batek gauza guztiak.

Nazio aristokratikoek berezko joera dute giza hobegarritasunaren mugak gehiegi estutzeko, eta nazio demokratikoek neurriz gain zabaltzen dituzte batzuetan.

IX

Nola amerikarren kasuak ez duen frogatzen herri demokratiko batek ezin duenik zientzia, literatura eta arteetarako gustu eta gaitasunik izan

Aitortu beharra dago gaur egungo herri zibilizatuen artean goimailako zientziek gutxitan egin dutela Estatu Batuetan baino aurrerapen txikiagorik, eta gutxik eman dutela artista handi, poeta distiratsu eta idazle ospetsu gutxiago.

Zenbait europarrek, ikuskizun honekin harrituta, berdintasunaren emaitza natural eta ezinbestekotzat jo dute, eta pentsatu dute gizarte-egoera eta erakunde demokratikoak noizbait munduan nagusituz gero, giza izpirituari pixkanaka ilundu egingo litzaizkiokeela dituen argiak, eta gizakia ilunpetan jausiko litzatekeela berriro.

Honela arrazoitzen dutenek, nire ustez, hainbat ideia nahasten dituzte, garrantzizkoa litzatekeelarik bereizi eta aparte aztertzea. Demokratikoa dena amerikarra baizik ez denarekin nahasten dute nahigabe. Lehen migrariek bizi izan zuten eta ondorengoei utzi zieten erlijioa –sinplea bere kultuan, latza eta ia basatia bere printzipioetan, kanpo-zeinuen eta zeremonia arranditsuen etsai- ez da berez arte ederren oso aldeko eta gogoz kontra baino ez ditu onartzen plazer literarioak.

Amerikarrena oso antzinako herria da eta oso ilustratua, lurralde berri eta oso zabala aurkitu duena –bertan bere nahierara zabal daitekeelarik- eta nekerik gabe emankortzen duena. Ez dago honelako beste kasurik munduan. Amerikan beste edonon ez dauden erraztasunak aurkitzen ditu bakoitzak aberasteko edota aurretikoa areagotzeko. Gutizia beti irrikaz egoten da, eta giza izpiritua, irudimenaren plazeretatik eta adimenaren lanetatik uneoro aldendua, aberastasunaren bila bakarrik saiatzen da. Estatu Batuetan, beste herrialde guztietan bezalaxe, industriari eta merkatari-klaseak ikusten dira; baina gainera, inoiz ikusi gabeko zerbait, han guztiek dihardute aldi berean industrian eta merkataritzan.

Hala ere, ni konbentziturik nago, unibertsoan amerikarrak bakarrik egon izan balira, haien arbasoek lorturiko askatasun eta jakintzargiekin eta beraiei zegozkien grinekin, berandura gabe konturatuko ziratekeela ez dagoela zientzigintzan luzaroan aurrera egiterik teoria landu gabe; arte guztiek perfekzionatzen dutela elkar; eta, beren desira-gai nagusia lortzeari erabat emanak egon arren, laster onartuko zuketela noizean behin horretatik urrundu beharra dagoela hobeto lortu ahal izateko.

Bestalde, izpirituaren plazeretarako gustua gizaki zibilizatuaren bihotzari hain berezkoa zaionez, kultura handiko nazioetan ere –plazer horietarako joera txikiena dutenak- beti aurkitzen da hiritar-kopuru bat gustu hori baduena. Premia intelektual hau, behin sentitu ondoren, laster izango da asebetea.

Baina amerikarrek zientziari aplikazio partikularrak eta arteei bizimodua eroso bihurtzeko baliabideak bakarrik eskatzeko joera naturala zuten aldi berean, Europa jakintsu eta literarioak egiaren sorburu orokorretara jotzen zuen, eta aldi berean perfekzionatu egiten zuen plazeretarako lagungarri izan litekeen guztia, baita gizakiaren premietarako baliagarri izan behar duen guztia ere.

Antzinako Munduko nazio ilustratuen buruan, batez ere bat bereizten zuten Estatu Batuetako biztanleek, berarekin estu lotzen zituztelarik jatorri komunak eta antzerako azturek. Herrialde hartan jakintsu ospetsuak, artista trebeak eta idazle handiak aurkitzen zituzten, eta adimenaren altxorrak bil zitzaketen, horiek metatzeko lan egin beharrik gabe.

Zatitzen dituen ozeanoa egon arren, ezin dut onartu Amerika Europatik banatzea. Estatu Batuetako herria Mundu Berriko oihanak ustiatzeko ardura duen herri ingelesaren parte bat bezala hartzen dut, bitartean nazio honen beste parteak, asti gehiago eta bizitzako premia materialekiko ardura gutxiagorekin, pentsaketara eman eta giza izpiritua zentzu guztietan garatu dezakeelarik.

Amerikarren egoera erabat salbuespenezkoa da, eta pentsatzekoa da beste herri demokratiko bat ez dela inoiz egoera berean aurkituko. Haien jatorri erabat puritanoa, haien aztura komertzial hutsak, bizi direneko herrialdea bera –haien adimena zientzia, letra eta arteen azterketatik desbideratzen duela ematen duena-; Europarekiko auzotasuna, azterketa horiek ez egiteko aukera ematen diena, berriro barbarotasunean jausi gabe; mila kausa partikularrek, hauetatik nagusienak bakarrik azaldu ditudalarik, izpiritu amerikarra era berezian bideratu bide dute gauza erabat materialez arduratzera. Grinek, premiek, heziketak, zirkunstantziek, badirudi orok bultzatzen duela lurrerantz Estatu Batuetako biztanlea. Tarteka-marteka erlijioak bakarrik altxarazten dizkio begiak, pasakor eta arretarik gabe, zerurantz.

Utz diezaiogun, beraz, nazio demokratiko guztiak herri amerikarraren ikuspegitik ikusteari, eta saia gaitezen bakoitza bere ezaugarrien arabera kontuan hartzen.

Imajina daiteke herri bat ez kastarik, ez hierarkiarik, ez klaserik gabea; non legeak, pribilegiorik ez onartzean, berdin banatuko lituzkeen ondareak, eta aldi berean jakintzargi eta askatasunik gabea izango litzatekeena. Hau ez da hipotesi hutsala: despota batek izan dezake interesa menpekoak berdintzeko eta ezjakintasunean uzteko, esklabutzan errazago eduki ahal izateko.

Horrelako herri demokratiko batek ez du inolako gaitasun eta gusturik izaten zientzia, literatura eta arteetarako, baina gainera pentsa daiteke ez duela inoiz ere izango.

Oinordetza-legea bera arduratuko litzateke belaunaldi bakoitzean aberastasunak suntsitzeaz, eta inork ez luke berririk sortuko. Behartsuak, jakintzargirik eta askatasunik gabe, aberastasunerantz igotzeko ideia bera ere ez luke zertuko, eta aberatsak bere buruari pobretzen utziko lioke, nola defendatu ez dakiela. Bi hiritar horien artean laster ezarriko litzateke erabateko berdintasun garaiezina. Inork ez luke orduan ez astirik, ez gusturik izango adimenaren lan eta plazeretara dedikatzeko. Guztiak gelduiko lirateke sorgortuta, ezjakintasun berean eta joputza berean.

Horrelako gizarte demokratiko bat imajinatzen dudanean, berehala sentitzen naiz behe-zokoetako leku ilun eta ito horietakoren batean, non kanpotik ekarritako argiak laster moteltzen eta itzaltzen baitira. Iruditzen zait bat-bateko astuntasun batek zanpatzen nauela, eta inguratzen nauten ilunpeetan arrastaka nabilela, aire zabalera eta egun-argitara eraman nezakeen irteeraren bila. Baina hau guztia ezin dakieke aplika jada ilustratuak direnei, ondasunak haien artean zenbait pertsona edo gorputzen eskuetan betiko finkatzen zituzten eskubide partikular eta ondarezkoak suntsitu ondoren, aske jarraitzen dutenei.

Gizarte demokratiko batean bizi direnak, ilustratuak direnean, erraz ohartzen dira ezerk ez dituela mugatzen, ez finkatzen, ez behartzen ere oraingo aberastasunarekin konformatzera.

Beraz, guztiek dute aberastasun hori areagotzeko ideia eta, aske badira, guztiak saiatzen dira lortzen, baina ez dute guztiek era berean lortzen. Egia da legeriak ez duela jada pribilegiorik ematen, baina naturak bai. Desberdintasun naturala hain handia izanik, aberastasunak ere desberdindu egiten dira, aberasteko bakoitzak bere ahalmen guztiak erabiltzen dituen momenturik.

Gainera, oinordetza-legea familia aberatsak sortzearen kontrakoa da oraindik, baina ez du eragozten aberatsak existitzea. Etengabe eramaten ditu hiritarrak maila komun batera, zeinetatik etengabe ihes egiten baitute;beraien jakintzargiak zenbat eta zabalagoak izan eta askatasuna handiagoa, orduan eta desberdinago bihurtzen dira ondasunetan.

Gaur egun sekta bat sortu da, bere jeinu eta nabarmenkeriengatik ospetsua; honek ondasun guztiak botere zentral baten esku bildu nahi zituen, gero botere hau arduratuko litzatekeelarik partikular guztiei banatzeaz, merituaren arabera. Honela ihes egingo omen litzaioke gizarte demokratikoak mehatxatzen dituen erabateko eta betiko berdintasunari.

Bada beste erremedio bat sinpleagoa eta hain arriskutsua ez dena: inori pribilegiorik ez ematea, baizik eta guztiei jakintzargi berdinak eta independentzia berdina eman eta bakoitzari uztea bere lekua aurkitzen. Berezko desberdintasuna laster azalduko da argitara, eta aberastasuna iaioenen aldera pasatuko da berez.

Gizarte demokratiko eta askeek beti edukiko dute beren baitan jende aberats edo bizimodu erosoko asko. Aberats hauek ez dira beren artean antzinako aristokrazi klaseko kideak bezain estu loturik egongo; joera ezberdinak izango dituzte eta ez dute ia inoiz haiek bezain aisialdi seguru eta erabatekoa izango; baina klase hura osatzen zuten kideen kopurua hamaika bider gainduiko dute. Pertsona hauek ez dira bizitza materialaren arduretan oso mugatua gelduiko eta, maila ezberdinetan bada ere, adimenaren lan eta plazeretara dedikatu ahal izango dira. Eta bai dedikatuko ere, zeren eta, egia izanik giza izpirituak alde batetik gauza mugatu, material eta erabilgarrietara jotzen duela, bestetik gauza mugagabe, inmaterial eta ederretara jotzen baitu berez. Premia fisikoek lurrari atxikitzen dute, baina, bertan eusten ez dioten momentuan, bere kasa goratzen da.

Izpirituaren egintzez ardura daitezkeenen kopurua handiagoa izango da; baina, gainera, gozamen intelektualetarako zaletasuna poliki-poliki jaitsi egingo da, gizarte aristokratikoetan, dirudienez, horietarako astirik eta gaitasunik ez dutenen mailaraino.

Jada herentziazko aberastasunik ez dagoenean, ezta klase-pribilegiorik eta jaiotzagatiko prerrogatibarik ere, eta indarra nork bere baitatik bakarrik ateratzen duenean, garbi ikusten da jendearen aberastasunen artean ezberdintasun nagusia adimenak ezartzen duela. Adimena sendotu, hedatu eta apaintzeko baliagarri den guztia ere oso baliotsu bihurtzen da berehala.

Jakitearen onuragarritasuna oso argi azaltzen da jendetzaren begietara ere. Horren xarmak gogoko ez dituztenak ere ohartzen dira berorren ondorioez, eta zenbait ahalegin egiten dute lortzeko.

Mende demokratiko, ilustratu eta askeetan, gizakiek ez dute ezer beren postutik aldentzen edo bertan eusten dienik; berebiziko bizkortasunez goratzen edo beheratzen dira. Klase guztiek etengabe ikusten dute elkar, oso hurbil baitaude. Egunero komunikatzen eta nahasten dira elkarrekin, baita elkar imitatzen eta inbidiatzen ere; honek ideia, nozio eta desira-pila bat iradokitzen dio herriari, mailak finkatuak eta gizartea mugiezina balitz izango ez lituzkeenak. Nazio horietan, zerbitzariak ez du bere burua inoiz erabat arrotz jotzen ugazabaren plazer eta lanekiko, ezta behartsuak ere aberatsarenekiko; landan bizi dena hirian bizi denaren antzeko izaten saiatzen da, eta probintziak metropoliaren antzeko.

Honela, inork ez du erraz onartzen bizitzako ardura materialetara bakarrik mugatzea, eta artisaurik sinpleenak ere noizean behin begiratu irrikatsu eta ezkutukoak egiten dizkio adimenaren goi-munduari. Ez da herri aristokratikoetako izpiritu berberaz eta era berean irakurtzen, baina irakurleen zirkulua etengabe zabaltzen da eta azkenerako hiritar guztiak barne hartzen ditu.

Jendea izpirituaren jardueretan interesatzen hasten den momentutik, aintza, boterea edo aberastasunak lortzeko bide handienetako bat jarduera horietakoren batean nabarmentzea dela konturatzen da. Berdintasunak sortarazten duen guztia egonezina berehala zuzentzen da alde horretara, beste guztietara bezala. Zientziak, letrak eta arteak lantzen dituztenen kopurua ikaragarri hazten da. Bizitasun miresgarria agertzen da adimenaren munduan; guztiak saiatzen dira bideren bat irekitzen eta publikoaren begirada nor beregana erakartzen ahalegintzen da. Estatu Batuetan gizarte politikoan gertatzen denaren antzeko zerbait gertatzen da; egintzak sarri ez dira biribilak han, baina bai zenbatezinak; eta gizabanakoen ahaleginen emaitzak normalean oso txikiak izan arren, emaitza orokorra oso handia izaten da beti.

Ez da, beraz, egia demokrazi mendeetan bizi direnei berez ez zaizkiela zientziak, letrak eta arteak axola; aitortu beharra dago beren erara lantzen dituztela eta, alde horretatik, bere-bereak dituzten koalitate eta akatsen ekarpena egiten dutela.

X

Zergatik diren amerikarrak zientzien praktikara emanagoak teoriara baino

Gizarte-egoera eta erakunde demokratikoek giza izpirituaren aurrerabidea ez badute gelditzen ere, ukaezina da behintzat alde batera gehiago zuzentzen dutela bestera baino. Haien ahaleginak, honela mugatuak, oso handiak dira hala ere, eta espero dut barkatuko zaidala une batean gelditzea horiei begiratu bat egiteko.

Amerikarren metodo filosofikoaz jardutean hainbat oharpen egin dut, hemen aprobetxatu beharrekoak.

Berdintasunak dena bere kabuz juzgatu nahia garatzen du gizaki bakoitzarengan; ukigarri eta errealaren zaletasuna ematen dio gauza guztietan, eta tradizio eta formen mesprezua. Joera orokor hauek kapitulu honetako aztergai berezian azaltzen dira, batez ere.

Herri demokratikoetan zientziak lantzen dituztenak utopietan galtzeko beldur izaten dira beti. Sistemekiko mesfidantza dute, egitateetatik oso hurbil egon eta beren kabuz aztertu nahi izaten dituzte; beren hurkoetako inor gailentzerik erraz onartzen ez dutenez, sekula ez daude prest maisuaren esana autoritatetzat hartzeko, baizik eta, alderantziz, horren doktrinaren alde ahula bilatzen saiatzen dira etengabe. Tradizio zientifikoek aginpide gutxi dute haien gain; sekula ez dute denbora luzerik ematen eskola baten sotiltasunetan eta nekez erabiltzen dituzte hitz arranditsuak; ahal duten beste sartzen dira

aztergaiaren zati nagusienetaraino, eta herri-hizkeran azaltzea gustatzen zaie. Horrela zientziek ibilera askeago eta ziurragoa izaten dute, baina ez hain jasoa.

Iruditzen zait izpirituak hiru zatitan banatzen duela zientzia.

Lehenak printzipiorik teorikoenak dauzka, noziorik abstraktuenak, aplikazioa ezezaguna edo oso urrutikoa dutena.

Bigarrenean egia orokorrak sartzen dira, teoria hutsaren mailakoak izan arren, hala ere bide zuzen eta laburretik praktikara daramatenak.

Aplikazio-prozedurek eta egikaritza-bideek osatzen dute hirugarrena.

Zientziaren zati ezberdin hauetako bakoitza aparte landu daiteke, nahiz eta arrazoiak eta esperientziak erakusten duten horietako bakoitzak ezin duela luzaroan aurrera egin, beste bietatik erabat bananduz gero.

Amerikan, soil-soilik praktikoa den zientzi zatia miresgarriro lantzen da, eta aplikaziorako berehala behar den zati teorikoaz ere arretaz arduratzen dira; alde honetatik amerikarrek izpiritu argi, aske, orijinal eta emankorra erakusten dute; baina Estatu Batuetan ia ez dago inor giza ezagupenetan, batez ere, teoriko eta abstraktua den arloa lantzen duenik. Honetan, nire ustez, maila txikiagoan bada ere herri demokratiko guztietan aurkituko den joera baten gehiegikeria erakusten dute amerikarrek.

Goimailako zientziak, edo zientzien zatirik gorena, lantzeko ez dago ezer meditazioa baino beharrezkoagorik, eta meditaziorako ez dago ezer desegokiagorik gizarte demokratiko baten barrua baino. Hor ez da aurkitzen, herri aristokratikoetan bezala, klase kopurutsu bat atsedenean dagoena, ongi sentitzen delako, eta beste bat mugitu ere egiten ez dena, hobetzeko itxaropenik ez duelako. Gizarte demokratikoetan guztiak mugitzen dira: batzuek agintea eskuratu nahi dute, besteek aberastasunez jabetu. Zirriparra unibertsal, behin eta berriro tupust egiten duten kontrako interes, gizakiek aberastasunerantz daramaten etengabeko martxa honen erdian, non aurkitu adimenaren konbinazio sakonetarako beharrezko baretasuna? Nola geldiarazi pentsamena puntu jakin batean, inguruan dena mugitzen ari denean eta guztia aurrera daraman korronte oldartsu horrek norbera ere egunero herrestatzen eta zabunkatzen duenean?

Ongi bereizi beharra dago lasai eta jada eratua dagoen demokraziaren baitako mugimendu etengabearen, eta gizarte demokratikoaren sorrera eta garapenean ia beti izaten diren mugimendu zirriparratsu eta iraultzaileen artean.

Oso herri zibilizatu batean bortxazko iraultza gertatzen denean, ezinbestean bat-bateko bulkada ematen zaie sentimendu eta ideiei.

Hau iraultza demokratikoetan da batez ere egia: herri bat osatzen duten klase guztiak aldi berean mugiaraztean, aldi berean hiritar bakoitzaren bihotzean ere ikaragarrizko handinahiak sortarazten baitituzte.

Frantsesek, antzinako gizarte feudalaren hondarrak suntsitzen zituzten une berean, bat-batean zientzia zehatzetan hain aurrerapen miresgarriak egin badituzte, bat-bateko emankortasun hori ez zaio demokraziari egotzi behar, honen garapenarekin batera eman zen eredurik gabeko iraultzari baizik. Orduan zertu zena gertaera berezi bat izan zen; ez litzateke zuhurra izango hartan lege orokor baten arrastoa ikustea.

Iraultza handiak ez dira ohikoagoak izaten herri demokratikoen artean beste herrien artean baino; gutxiago direla ere esango nuke. Baina nazio hauen baitan bada mugimendu txiki ezeroso bat, pertsona batzuen eta besteen arteko joan-etorri etengabe bat, izpiritua, adoretu eta jaso ordez, nahastu eta distraitzen duena.

Gizarte demokratikoetan bizi direnak meditazioan nekez hasteaz gain, baina gainera berez ere ez dute asko estimatzen. Gizarte-egoera eta erakunde demokratikoek etengabe jardutera bultzatzen dituzte gizaki gehienak; nolanahi ere, ekintzari komeni zaizkion izpiritu-azturak ez zaizkio pentsamenari beti komeni izaten. Jardunean dabilenak gutxi gora-beherakoarekin konformatu behar izaten du sarri, xehetasun bakoitza perfekzionatu nahi izanez gero ez bailitzateke inoiz bere xedearen helmugara iritsiko. Sakontzeko astirik izan ez duen ideietan oinarritu behar izaten du etengabe, berarentzat lagungarriago

baita darabilen ideiaren egokitasuna, beraren zehaztasun zorrotza baino; eta, edonola ere, arrisku gutxiago dago harentzat printzipio faltsu batzuen erabileran, printzipio guztien egia ezartzen denbora ematean baino. Mundua ez da gobernatzen demostrazio sakon eta jakintsuen bidez. Gertaera berezi baten ikuskizun lasterrak, jendearen grina aldakorren eguneroko azterketak, momentuko kasualitateak eta honi heltzeko abileziak erabakitzen dituzten arazo guztiak.

Ia mundu guztia jardunean aritzen den mendeetan, normalean adimenaren bulkada bizkorrei eta axaleko ideiei gehiegizko balioa egozteko joera izaten da, eta, aitzitik, adimenaren lan sakon eta geldoa neurriz kanpo gutxiestekoa.

Iritsi publiko honek zientziak lantzen dituztenen irizpidean eragina izaten du; meditaziorik gabe ere helburuetan arrakasta izan dezaketela konbentzitzen ditu, edota meditazioa eskatzen dutenetatik aldentzen ditu.

Era asko daude zientziak aztertzeko. Jende-multzo batengan zaletasun egoista, merkantil eta industriala dago izpirituaren aurkikuntzekiko, baina hau ez da nahastu behar gutxi batzuen bihotzean pizten den grina desinteresatuarekin; gauza bat da ezagupenak erabiltzeko nahia, beste bat ezagutzeko desira hutsa. Ez dut dudan jartzen, tarteka-marteka, eta batzuengan, egiaren maitasun sutsu eta agortezina sortzen dela, bere baitatik elikatzen dena eta etengabe gozatzen duena sekula asetu ahal izan gabe. Egiaren maitasun sutsu, harro eta desinteresatua da, gizakiak egiaren sorburu abstraktuetaraino eramaten dituena, handik oinarrizko ideiak ateratzeko.

Pascalek probetxu handiren bat bakarrik espero izan balu, edota ospearen desira hutsak bakarrik mugiarazi balu, ez dut uste bere adimenaren ahalmen guztia bildu ahal izango zuenik, egin zuen bezala, Egilearen sekreturik ezkutukoenak hobeto aurkitu ahal izateko. Eta ikerlan honetara erabat dedikatzeko, bere arima bizitzako arduretarik atera zuela eta, gorputzarekin lotzen zuten lokarriak garaiz lehen apurtuz, berrogei urte bete gabe zaharrez hil zela ohartzean, txundituta gelditzen naiz orduan, eta ulertzen dut hain ahalegin ezohikoak eragin ditzakeen kausa ezin dela ohikoa izan.

Etorkizunak frogatuko du grina hauek, hain bakanak eta emankorrak, gizarte demokratikoen erdian aristokrazien baitan bezain erraz sortzen eta garatzen diren ala ez. Sinestea kosta egiten zaidala aitortzen dut nik.

Gizarte aristokratikoetan, iritzia gidatzen eta arazoez arduratzen den klaseak, iraunkorki eta herentziaz jendearen gainetik kokatua dagoenez, ideia paregabea zertzen du naturaltasun osoz bere buruaz eta gizakiaz. Honentzat gozamen loriatsuak imajinatzen ditu gogotsu eta helmuga zoragarriak ezartzen dizkie berorren gurariei. Aristokraziek ekintza oso tiranikoak eta ankerrak egiten dituzte sarri, baina oso nekez izaten dituzte behe-mailako pentsamenduak eta halako destaina harro bat agertzen dute plazer txikiekiko, nahiz eta berauetan murgildu. Honek oso goi-mailara altxatzen ditu arima guztiak. Aristokrazi garaietan gizakiaren duintasun, ahalmen eta handitasunari buruz ideia oso zabalak zertzen dira normalean. Iritzi hauek zientziak lantzen dituztenengan nahiz beste guztiengan eragiten dute; izpirituaren berezko abiadari pentsamenaren eremu gorenetarantz bultza egiten diote, eta egiaren maitasun sublime eta ia jainkozkoa zertzera prestatzen dute naturalki.

Garai hauetako jakintsuak, beraz, teoriarantz eramanak dira, eta sarritan praktikarekiko mesprezu begirunegabea zertzea ere iristen dira. “Arkimidesek, dio Plutarkok, bihotza hain goian izan zuenez, ez zuen inoiz idatziz utzi nahi izan gerra-makina horiek guztiak eraikitzeko erari buruzko obrarik; eta makinak asmatu eta osatzeko zientzia hori eta, oro har, praktikan jartzean onuraren bat dakarren arte oro zital, kaskar eta mertzenariotzat zeukanez, bere izpiritua eta azterlana, beharrarekin inolako zerikusirik gabeko edertasun eta sotiltasuna duten gauzak idazteko erabili zituen”. Hona hemen zientzien ikuspegi aristokratikoa.

Ezin gauza bera gertatu nazio demokratikoetan.

Nazio hauek osatzen dituztenetako gehienek irrika bizia dute oraingo gozamen materialetarako; dagokien posizioaz sekula pozik ez daudenez eta uzteko beti libre, beren aberastasuna aldatzeko edota gehitzeko eran bakarrik pentsatzen dute.

Honelako jarrera duten izpirituei, bide laburragorik aberastasunera daraman metodo berri oro, lanaldia laburtzen duen makina oro, produkzio-gastuak gutxitzen dituen tresna oro, plazerak erraztu eta areagotzen

dituen aurkikuntza oro, giza adimenaren ahaleginik zoragarriena iruditzen zaie. Herri demokratikoak batez era alde honetatik atxikitzen zaizkie zientziei, alde honetatik ulertzen eta ohoratzen dituzte. Aristokrazi mendeetan, batez ere izpiritu mailako gozamenak eskatzen zaizkie zientzien; demokrazietan, gorputz mailakoak.

Nazio bat zenbat eta demokratikoago, ilustratuago eta askeagoa izan, hainbat eta gehiago haziko da jeinu zientifikoa interesen arabera baloratzen dutenen kopurua, eta industrian berehala aplikatzeko moduko aurkikuntzek orduan eta probetxu, aintza eta botere gehiago emango diete aurkitzaileei; zeren eta demokrazietan, lan egiten duen klaseak parte hartzen baitu arazo publikoetan, eta klase horren zerbitzura daudenek ohorea nahiz dirua espero dezakete berorrengandik.

Erraz imajina daiteke horrela antolaturiko gizarte batean giza izpirituak teoria baztertzera joko duela oharkabean, eta, aitzitik, kemen paregabeaz bultzatua sentituko dela aplikaziorantz, edota behintzat aplikatzen dutenentzat beharrezkoa den teori zati horretarantz.

Instintuzko joera batek giza izpiritua adimenaren eremu gorenetarantz jasotzen du alferrik, interesak erdi-mailakoetara ekartzen baitu berriro. Hor hedatzen du bere indarra eta jarduera pausagabea, gauza miresgarriak sortaraziz. Amerikar horiek beroriek, mekanikaren lege orokorretako bat bakarra ere aurkitu ez dutenek, munduaren itxura aldatzen ari den makina berri bat sartu dute nabigazio-arloan.

Jakina, ez dut inola ere esan nahi egungo herri demokratikoek giza izpirituaren argi traszendenteak itzaltzen ikusi beharko dituztenik, ezta horien baitan berririk piztuko ez denik ere. Gu bizi garen munduaroan, eta industri irrikak etengabe asaldatzen dituen hainbeste nazio ilustraturen artean, zientziaren zati ezberdinak elkarren artean batzen dituzten lokarriak ezin dira begi-bistatik desagertu; eta praktika-zaletasunak berak, ilustratua bada, teoria ez baztertzera eraman behar ditu gizakiak. Hainbeste aplikazio-saio eta egunero errepikaturiko hainbeste esperientziaren artean, ia ezinezkoa da, sarri ez agertzea, lege oso orokorrak; honela aurkikuntza handiak sarri egingo dira, nahiz eta asmatzaile handiak bakanak izan.

Bestalde, nik sinesten dut bokazio zientifiko handietan. Demokraziak ez badu jendea zientziak –zientzia hutsaren ikuspegitik- lantzera eramaten, bestalde ikaragarri gehitzen du horiek lantzen dituztenen kopurua. Ezin da sinetsi, hain jendetza handiaren artean, noizean behin jeinu espekulatzaileren bat sortuko ez denik, egiaren maitasunak bakarrik pizten duena. Ziurta daiteke hau ahaleginduko dela naturako misteriorik sakonenetan sartzen, edozelakoa izanik ere bere herrialdeko eta garaiko izpiritua. Ez dago horren garapenari lagundu beharrik; aski da ez geldiaraztea. Esan nahi dudan guztia hauxe da; baldintzen desberdintasun iraunkorrak egia abstraktuen bilatzen harro eta antzuan ixtera eramaten du gizakia; aitzitik, gizarte-egoera eta erakunde demokratikoek zientziei aplikazio berehalako eta erabilgarriak bakarrik eskatzeko prestatzen dute gizaki hori.

Joera hau berezkoa eta ekidinezina da. Bitxia da ezagutzea, eta beharrezkoa izan daiteke erakustea.

Egungo nazioak gidatu behar dituztenak argi eta urrutitik ohartuko balira joera berri hauetaz, laster ekidinezinak izango direnak, beraiek ulertuko lukete demokrazi mendeetan bizi direnek, jakintzargi eta askatasunarekin, derrigorrez perfekzionatu behar dutela zientzien industri arloa, eta aurrerantzean gizarte-boterearen ahalegin guztia goi-mailako ikasketak bultzatzera eta zientzi grina handiak sortzera bideratu behar dela.

Gaur egun giza izpirituari teoriaren esparruan eutsi behar zaio; bere kabuz praktikara doa lasterka, eta, bigarren mailako ondorioen azterketa zehatzera etengabe eraman ordez, on da batzuetan hortik desbideraraztea, lehen kausen kontenplaziora goratu ahal izateko.

Erromako zibilizazioa barbaroen inbasio ostean hil zenez, agian gehiegizko joera dugu pentsatzeko zibilizazioa ezin dela beste era batera hil.

Argitzen gaituzten argiak inoiz itzaliko balira, pixkanaka ilunduko lirateke, eta beren kabuz bezala. Aplikazioan ixtearen poderioz, printzipioak galduko lirateke bistatik, eta, printzipioak erabat ahaztu ondoren, gaizki aplikatuko lirateke haietatik ateratako metodoak; ezingo litzateke berririk asmatu, eta buruargitasunik eta arterik gabe erabiliko lirateke jada ulertu ere egingo ez liratekeen zientzi prozedurak.

Duela hirurehun urte europarrak Txinara iritsi zirenean, han ia arte guztiak nolabaiteko perfekzio-mailara iritsiak aurkitu zituzten, eta, puntu hartara iritsi ondoren, aurrerago ez joan izanaz harritu ziren. Geroago,

ezagutza handiago batzuen aztarna galduak aurkitu zituzten. Nazioa industriala zen; metodo zientifiko gehientsuenek irauten zuten artean haren baitan, baina zientzia bera ez zen jada existitzen. Honek esplikatu zien hango mugigaiztasun berezi hura, non aurkitu baitzuten murgildua herri haren izpiritua. Txinatarrek, arbasoen arrastoari jarraitzean, haientzat gidari izandako arrazoiak ahaztu zituzten. Oraindik formulaz baliatzen ziren, baina zentzua bilatu gabe; tresna gordetzen zuten, eta ez zeukaten hura aldatzeko eta berregiteko artea. Txinatarrek ezin zuten, beraz, ezer aldatu. Hobekuntzari uko egin beharrean zeuden. Beti eta edozertan arbasoak imitatzera beharturik zeuden, azken hauek irekitako bidetik izpitxo bat ere aldenduz gero, ilunperik beltzenean ez erortzeko. Giza ezagupenen sorburua ia agorturik zegoen; eta, artean ibaian ura joan arren, honek ezin zuen bere emaria gehitu edo bidea aldatu.

Hala ere, Txinak mendeak zeramatzan bake-bakean bizitzen; konkistatzaileek hartuak zituzten bertako ohiturak; ordena zen han nagusi. Nolabaiteko ongizate materiala ikusten zen han alde guztietan. Iraultzak oso bakanak ziren, eta gerra ia ezezaguna, nolabait esateko.

Ez da, ordea, lasaitu behar barbaroak oraindik gugandik urruti daudela pentsatuz; zeren eta, jakintzargia eskuetatik ken diezaieten uzten duten herri batzuk badiren arren, badira beste batzuk beren oinpean itotzen dutenak.

XI

Zelako izpirituz lantzen dituzten amerikarrek arteak

Irakurleen eta neure denbora galduko nukeela uste dut saiatuko banintz frogatzen, aberastasunen kaskarkeria orokorrak, alferrikakorik ezak, ongizatearen desira unibertsalak eta hau eskuratzeko bakoitzak egiten dituen ahalegin unibertsalek erabilgarriaren zaletasuna sortzen dutela giza bihotzean, edertasunarekiko maitasunaren gainetik. Nazio demokratikoek, zeinetan aurkitzen baitira gauza hauek guztiak, bizitza eroso bihurtzeko balio duten arteak landuko dituzte, helburutzat edertasuna daukatenen aurretik behintzat; normalean nahiago izango dute zerbaitetarako erabilgarri dena ederra dena baino, eta ederra erabilgarri izatea nahiko dute.

Baina aurrerago joan nahi dut, eta, lehen ezaugarria aipatu ondoren, beste zenbait azaldu.

Gertatzen da normalean, pribilegio-mendeetan, arte gehientsuenen egikaritza pribilegio bihurtzen dela, eta lanbide bakoitza aparteko mundu bat dela, non ezin izaten baita jende guztia sartu. Eta, industria libre denean ere, nazio aristokratikoek berezkoa duten mugiezintasunaren ondorioz, arte bat berean diharduten guztiek azkenerako klase berezi bat osatzen dute, beti familia berberek osatua, non kide guztiek ezagutzen baitute elkar eta non laster sortzen baita iritzi orokor eta “corpus” edo kidego-harrotasuna. Horrelako klase industrial batean, artisau bakoitzak ez du aberastea bilatu behar bakarrik, baita begirunea gorde ere. Arautzat ez du bere interesa bakarrik, ezta eroslearena ere, kidegoarena baizik, eta kidegoaren interesa artisau bakoitzak maisulanak egitea da. Aristokrazi mendeetan, arteen goiburua ahalik eta ongien egitea da, ez ahalik eta bizkorren eta merkeen egitea.

Aitzitik, lanbide bakoitza guztiengana irekita dagoenean, horietan jendea etengabe sartu-irtenean dabilenean, eta kide ezberdinak –beren ugaritasunagatik- elkarrekiko arrotz, axolagabe eta ia ikusezin bihurtzen direnean, elkarte-lokarria suntsitu egiten da, eta langile bakoitzak, bere baitan itxita, gasturik txikienaz ahalik eta dirurik gehien irabaztea bilatzen du; kontsumitzailearen borondateak bakarrik mugatzen du. Nolanahi ere, eta aldi berean, azken honek ere jasaten du dagokion iraultza.

Aberastasuna, boterea bezala, esku batzuetan bildua eta horietatik irten gabe dagoen herrialdeetan, mundu honetako ondasun gehienen erabilera pertsona-kopuru txiki bati egokitzen zaio, beti berberari; premiek, iritziek, desiren moderazioak beste guztiak baztertzen dituzte horietatik.

Klase aristokratiko hau mugitu gabe –ez murriztu, ez handitu gabe- gelditzen denez kokaturik dagoeneko handitasun-puntuan, beti premia berberak sumatzen ditu eta era berean sentitzen. Klase hori osatzen duten pertsonek, herentziaz dagokien goi-mailako posizioagatik, naturalki lortzen dute ongi-ongi egina eta iraunkor denaren zaletasuna.

Honek jite orokor bat ematen die nazioaren ideiei arte-kontuan.

Herri hauetan sarri gertatzen da nekazariak berak ere nahiago duela irrikatzen duen gauzarik batere gabe gelditu, akatsen batekin eskuratu baino.

Aristokrazietan, langileek erosle-kopuru mugatuarentzat bakarrik lan egiten dute; hauek oso zailak direlarik pozik uzten. Lanaren perfekzioaren arabera dago, batez ere, espero duten irabazia.

Ez da gauza bera gertatzen, pribilegio guztiak suntsituak izan ondoren, gizarte-mailak elkarrekin nahastu eta gizakiak etengabe gora eta behera ibiltzen direnean gizarte-eskalan.

Herri demokratiko baten baitan beti aurkitzen da hiritar-kopuru handi bat, zeinen ondarea zatitu eta urritu egiten baita. Garai hobeetan berenganatuak dituzte premia batzuk, asetzeko gaitasuna galdu ondoren ere bizirik dituztenak, eta kezkati bilatzen dituzte zeharkako baliabideren batzuk premia horiek hornitzeko.

Bestalde, demokrazietan beti ikusten da pertsona-kopuru handi bat, zeinen aberastasuna hazi egiten den, baina haien desirak aberastasuna baino askoz bizkorrago hazten dira eta aberastasun honek agintzen dizkien ondasunak begiez irensten dituzte, eman baino ere askoz lehenago. Alde guztietatik bide laburragoak bilatzen dituzte hurbileko gozamen horietarako. Bi kausa hauen elkartzeak eragiten du demokrazietan beti egotea hiritar asko, baliabideak baino premia handiagoak dituztenak eta gutiziatzen duten horri erabat uko egin baino lehen osagabeki asetzea gogotsu onartuko luketenak.

Langileak erraz ulertzen ditu grina hauek, berak ere badituelako. Aristokrazietan, bere produktuak, oso garesti, banaka batzuei saltzen saiatzen zen; orain, aberasteko bide laburragoa ere egon daitekeela ohartzen da: guztiei saltzea, merke.

Nolanahi ere, bi era bakarrik daude salgai baten prezioa jaitsi ahal izateko.

Lehena, produzitzeko bide hobeak, laburragoak eta zentzuzkoagoak aurkitzea. Bigarrena, antzera samarreko gauzak askoz ugariago egitea, baina balio txikiagokoak. Herri demokratikoetan, langilearen adimen-gaitasun guztiak bi puntu horietara bideratzen dira.

Hobeto ez ezik, bizkorrago eta gastu gutxiagoz ere lan egiteko aukera emango dioten prozedurak asmatzen ahalegintzen da, eta, hori ezin badu lortu, egiten duen gauzaren koalitate intrinsekoak murrizten saiatzen da, izango duen erabilerarako zeharo desegoki bihurtu gabe. Erlojuak aberatsek soilik erabiltzen zituztenean, ia guztiak izaten ziren paregabeak. Gaur egun erdipurdikoak egiten dira, baina mundu guztiak du bat. Honela demokraziak giza izpiritua arte erabilgarrietara bideratu ez ezik, gauza inperfektu asko oso bizkor egitera ere bultzatzen ditu artisauak, eta kontsumitzailea, gauza horiekin konformatzera.

Behar izanez gero, demokrazietan artea gai da gauza miragarriak sortzeko. Hau ikusten da batzuetan, denbora eta nekea ordaintzeko prest dauden erosleak agertzen direnean. Industria guztien borroka honetan, ikaragarrizko lehia honen eta hainbeste saiakuntzaren erdian, langile paregabeak prestatzen dira, beren lanbidearen azken mugetaraino iristen direnak; baina hauek nekez izaten dute egiten dakitena erakusteko aukera. Arretaz ekonomizatzen dituzte ahaleginak; bere burua epaitzen duen kaskarkeria trebean mantentzen dira eta, daukan xedea baino harantzago joan ahal izango litzatekeelarik, lortzen dutena baino gehiago ez dute nahi izaten. Aristokrazietan, aitzitik, langileek dakiten guztia egiten dute beti, eta, gelditzen direnean, beren jakintzaren mugara iritsi direlako izaten da.

Herrialderen batera iritsi eta arteek sorturiko emaitza miresgarriak ikusten ditudanean, honek ez dit ezer erakusten herrialde horretako gizarte-egoera eta konstituzio politikoaz. Baina ikusten badut arte-ekoizpenak orokorrean behar bezala burutugabeak, oso ugariak eta merkeak direla, ziur egoten naiz hori gertatzen den herrian pribilegioak ahultzen ari direla, gizarte-mailak nahasten hasiak direla eta laster batu egingo direla.

Demokrazi mendeetan bizi diren artisauek ez dute beren produktu erabilgarriak hiritar guztien irispidean jarri nahi izaten bakarrik, baita ere saiatzen dira beren produktu guztiei berez ez dituzten koalitate distiratsuak ematen.

Klase guztien nahasmenean, ez den bezalakoa agertu ahal izatea espero du bakoitzak, eta ahalegin handiak egiten ditu horretara iristeko. Demokraziak ez du sortarazten sentimendu hori, giza bihotzari oso berezkoa zaiona; baina gauza materialei aplikatzen die. Bertutearen hipokresia garai guztietakoa da; luxuarena, demokrazi mendeetakoa, batez ere.

Giza harrotasunaren premia berri hauek asetzeko, arteek amarrukeria guztietara jo izan dute; batzuetan, industria hain urruti joaten denez bide honetatik, kalte egiten dio bere buruari. Diamantea hain bikain imitatzera iritsi direnez, erraza da nahastea. Sasi-diamanteak, benetakoetatik ez bereizteko moduan, fabrikatzeko artea asmatzen den momentuan, ziur aski baztertu egingo dira batzuk eta besteak, eta harkoskor bilakatuko dira.

Honek arte ederrak deitzen diren horietaz hitz egitera narama.

Ez dut uste gizarte-egoera eta erakunde demokratikoen beharrezko ondorioa arte ederrak lantzen dituztenen kopurua murriztea denik; baina kausa hauek eragin ahaltsua dute arte horiek lantzeko eran. Arte ederretarako zaletasuna kutsaturik zeuden gehienak behartsu bilakatzen, eta, bestalde, oraindik aberats ez direnetako asko, imitazioz, arte-edarretarako zaletasuna sentitzen hastean, kontsumitzaileen kopurua hazi egiten da oro har, eta kontsumitzaile oso aberats eta oso finak bakanago bihurtzen. Orduan, arte erabilgarriez hitz egiterakoan azaldu dudanaren antzeko zerbait gertatzen da arte ederretan ere. Beren obrak ugaltzen dituzte eta bakoitzaren meritua gutxitzen.

Handia lortzera jo ezin denez, dotorea eta polita dena bilatzen da; eta gutxiago jotzen da errealitatera, itxurara baino.

Aristokrazietan koadro handi batzuk pintatzen dira, eta herrialde demokratikoetan koadro txiki asko. Lehenengoetan brontzezko estatuak eraikitzen dira, eta bigarrenetan igeltsuzko estatuak husten.

New Yorkera lehen aldiz iritsi nintzenean, East River deritzan Atlantiar ozeanoaren aldetik, harrituta gelditu nintzen, hiritik halako tarte batera, ibaiertzean marmol zurizko hainbat jauregi txiki zuri ikustean, haietako zenbaitek antzinako arkitektura zutelarik; biharamunean, nire begirada bereziki erakarri zuena hurbilagotik ikustera joan nintzenean, hormak adreilu zuriztatuz eta kolumnak zur pintatuz eginak zituela konturatu nintzen. Gauza bera gertatzen zen bezperan miretsitako monumentu guztiekin.

Gainera, gizarte-egoera eta erakunde demokratikoek halako joera berezi batzuk ematen dizkiete imitazio-arte guztiei, erraz adieraz daitezkeenak. Sarritan urrundu egiten dituzte arima errepresentatzetik gorputzarenera bakarrik aplikatzeko; eta sentimenduen eta ideien errepresentazioaren ordez mugimenduen eta sentsazioena egiten dute; azken batean, idealaren lekuan erreala jartzen dute.

Ez dut uste Rafaelek gaur egungo marrazkilariek bezain azterketa sakonik egin zuenik giza gorputzaren xehetasunik txikienez. Puntu honetan, hark ez zion egungoek bezalako garrantzirik ematen zehaztasun zorrotzari, gainditu egin nahi baitzuen natura. Gizakia, gizakia bera baino gehiago izango zen zerbait egin nahi zuen; edertasuna bera edertzen saiatu zen.

David eta haren ikasleak, aitzitik, anatomista bezain pintore onak ziren. Izugarri ongi errepresentatzen zituzten begi-bistan zeuzkaten ereduak, baina nekez imajinatzen zuten ezer harantzago; haiek naturari jarraitzen zioten zehatz-mehatz, Rafaelek zerbait hobea nahi zuen bitartean. Haiek gizakiaren erretratu zehatza utzi digute, baina honek jainkotasuna sumarazten digu bere obretan.

Gaiaren aukeraketari berari aplika dakioke tratatzeko erari buruz esan dudana.

Errenazimentuko pintoreek normalean beren gainetik edo beren garaitik urrun bilatzen zituzten gai handiak, beren irudimenari eremu zabala eskainiko ziotenak. Gure pintoreek etengabe aurrean duten bizitza pribatuko xehetasunak zehatz-mehatz berregiten jartzen dute sarri beren talentu, eta alde guztietatik kopiatzen dituzte objektu txikiak, bestela ere naturan gehiegi dauden horietakoak.

XII

Zergatik eraikitzen dituzten amerikarrek aldi berean hain monumentu txiki eta handiak

Esan berri dut demokrazi mendeetan arte-monumentuak ugariagoak izaten zirela eta txikiagoak. Berehala esango dut erregela honek bere salbuespena duela.

Herri demokratikoetan, gizabanakoak oso ahulak dira; baina Estatua, guztiak ordezkatzen eta guztiak bere esku dituena, oso indartsua da. Hiritarrek inon ez dirudite txikiagoak nazio demokratikoetan baino. Nazioak berak inon ez dirudi handiagoa eta izpirituak inon ez du nazioaren ikuspegi zabalik errazago zertzen. Gizarte demokratikoetan, jendearen irudimena murriztu egiten da bere buruaz pentsatzen duenean; eta mugagabeki hedatzen da Estatuaz pentsatzen duenean. Horregatik gertatzen da egoitza estuetan apal-apal bizi den jende berberak sarri gauza erraldoietara jotzen duela monumentu publikoak egin behar direnean.

Amerikarrek, beren hiriburua egin nahi zuten lekuan, ikaragarrizko hiri baten esparrua jarri dute, gaur egun oraindik Pontoise baino askoz jendeztatuago ez dagoena, baina haien arabera egunen batean milioi bat biztanle izango dituena; dagoeneko erauzi dituzte zuhaitzak inguruko hamar legoatan, irudizko metropoli horretan etorkizuneko hiritarrentzat oztopo izan ez daitezen. Hiriaren erdian jauregi zoragarri bat eraiki dute Kongresuaren egoitza izan dadin, eta Kapitolio izen arranditsua eman diote.

Egunero estatu partikularrek berek eginkizun miresgarriak asmatzen eta gauzatzen dituzte, Europako nazio handien jeinua harrituko luketenak.

Honela, demokraziak ez du jendea obra txiki asko egitera bakarrik bultzatzen; monumentu oso handien kopuru txiki bat eraikitzera ere eramaten du. Baina bi mutur hauen artean ez dago ezer. Oso eraikin handien aztarna sakabanatu batzuek ez dute ezer adierazten eraiki dituen herriaren gizarte-egoera eta erakundeei buruz.

Nire gaitik kanpo badago ere, erantsiko dut ez dutela hobeto ezagutarazten herri horren handitasun, jakintzargi eta benetako oparotasuna.

Edozein botere, herri oso bat eginkizun bakar batera bideratzeko gai den guztietan, jakintza gutxi eta denbora luzez zerbait izugarria lortzera iritsiko da hain ahalegin handien bategiteaz, nahiz eta horretatik ez egon ateratzerik herria oso zoriontsu, oso ilustratu edo oso indartsu denik. Espainolek tenplu zoragarriz eta egundoko jauregiz betea aurkitu zuten Mexikoko hiria; baina horrek ez zion Cortesi eragotzi seiehun oinezko gerlari eta hamasei zaldirekin Mexikoko inperioa konkistatzea.

Erromatarrek hidraulikaren legeak hobeto ezagutu balituzte, ez zituzketen egingo beren hirien hondakinak inguratzen dituzten akueduktu horiek guztiak, eta beren botere eta aberastasuna hobeto erabiliko zituzketen. Lurrunezko makina asmatu izan balute, agian ez zituzketen beren inperioaren muturretaraino hedatuko erromatar bideak deritzen harritoki artifizial luze horiek.

Gauza horiek haien ezjakintasunaren eta aldi berean haien handitasunaren lekuko paregabeak dira.

Bere igarotzearen aztarna bakartzat lur barruan berunezko hodi batzuk eta gainean burdinazko barra batzuk bakarrik utzitako herriak erromatarrek baino hobeto kontrola zezakeen natura.

XIII

Mende demokratikoen fisionomia literarioa

Estatu Batuetan liburu-saltzaile baten dendara sartu eta apaletan dauden liburu amerikarrak ikustean, obra-kopuruak oso handia ematen du, eta autore ezagunen kopuruak, ordea, oso txikia.

Lehenik, giza ezagupenen hastapenak emateko oinarrizko tratatu-pila aurkitzen da. Hauetako gehienak Europan eginak dira. Amerikarrek berrinprimatu egin dituzte beren erabilerara egokituz. Ondoren, ia zenbatu ezin beste, erlijio-liburuak, bibliak, sermoiak, anekdota jainkozaleak, eztabaidak eta karitateko elkarteen txostenak. Azkenik, panfleto politikoen katalogo luzea agertzen da: Amerikan alderdiek, elkarri erasotzeko, ez dituzte liburuak egiten, liburuxkak baizik, ikaragarrizko arintasunez zirkulatzen dutenak, egun bateko bizia baino ez dutenak.

Giza izpirituaren produkzio ilun hauen guztien artean, europarrek ezagutzen dituzten edo ezagutu beharko lituzketen autore gutxi batzuen obrarik azpimarragarrienak agertzen dira.

Gaur egun literaturaz gutxien arduratzen den herri zibilizatua agian Amerika izango den arren, bertan, hala ere, jende-kopuru handia dago izpirituko gauzez arduratzen dena, eta gai hauek, beren bizitza osoko

aztergai bihurtzen ez badituzte ere, bai behintzat beren aisialdiko gozagai. Baina Ingalaterrak hornitzen ditu eskaturiko liburu gehientsuenez. Obra ingeles handi gehientsuenak berrargitaratzen dira Estatu Batuetan. Britainia Handiko jeinu literarioak Mundu Berriko oihanen barreneraino bidaltzen ditu bere izpiak. Esplorazio-aitzindarien etxola gehienetan aurkitzen dira Shakespeareren liburuki solteren batzuk. Gogoan dut *Henri V* drama feudala *log house* (enbor-etxe) batean irakurri nuela lehen aldiz.

Amerikarrek egunero jotzen dute literatura ingeleseko altxorretara, baina gainera, egia esateko, beren lurrean bertan aurkitzen dute Ingalaterrako literatura. Estatu Batuetan literatur obrak egitera emana den kopuru txiki horretan, gehienak ingelesak dira funtsagatik eta, batez ere, formagatik. Honela, eredutzat hartua duten nazio aristokratikoaren baitan indarrean dauden ideia eta usadio literarioak demokraziaren baitara eramaten dituzte. Mailegaturiko kolorez pintatzen dituzte atzerriko ohiturak; ia inoiz ez dutenez sorterria bere errealitatean errepresentatzen, ez dira oso ezagunak izaten bertan.

Estatu Batuetako hiritarrek hain konbentziturik ematen dutenez liburuak ez direla beraientzat argitaratzen, beren idazleetako baten meritua aitortu aurretik, Ingalaterran probatu arte itxaroten dute normalean. Beraz, koadroekin egin ohi den bezala, orijinalaren egileari gogotsu uzten zaionean kopiaz bere epaia emateko eskubidea.

Zehatz hitz eginda, beraz, Estatu Batuetako biztanleek oraindik ez dute literaturarik. Amerikartzat jotzen ditudan autore bakarrak kazetariak dira. Hauek ez dira idazle handiak, baina bertako hizkeran mintzatzen dira, eta ulertarazi egiten. Besteak atzerritarrak iruditzen zaizkit. Errenazimentu garaian greziar eta erromatarren imitatzaileak guretzat izan zirena, hala dira hauek amerikarrentzat: jakingura sortzen dute, baina ez begikotasun orokorra. Izpiritua entretenitzen dute, eta ez dute ohituretan eragiten.

Dagoeneko esan dut gauzen egoera hau inola ere ez dagokiola demokraziari bakarrik, eta honekin zerikusirik ez duten hainbat zirkunstantzia partikularretan bilatu behar direla kausak.

Amerikarrek, bere gizarte-egoera eta legeak gordez, beste jatorri bat balute eta beste herrialde batera eramanak izango balira, ziur nago izango luketela literatura. Diren bezalakoak izanda ere, ziur nago izango dutela azkenerako; baina gaur egungo idazki amerikarretan agertzen denaz bestelako izaera izango du, bere-berea. Ez da ezinezkoa izaera hori nolakoa izango den aurrez esatea.

Demagun herri aristokratiko bat, letrak lantzen dituena; bertan adimen-lanak, gobernu-arazoak bezalaxe, klase subirano batek arautzen ditu. Literatura, izate politikoa bezalaxe, ia erabat mugatua dago klase honetara edota hurbilen dituenetara. Hau nahikoa dut gainerako guztiaren giltza izateko.

Pertsona-kopuru txiki bat, beti bera, aldi berean gauza berberez arduratzen denean, erraz ulertzen dute elkar eta elkarren artean erabakitzen dituzte kide bakoitza gidatuko duten arau nagusiak. Jende honen arreta literaturak erakartzen badu, izpirituko lanak ere laster jarriko dituzte lege jakin batzuen menpe, eta ez da onartuko horietatik aldentzea.

Jende hauek herentziazko posizioa baldin badute beren herrialdean, berezko joera izango dute ez bakarrik arau finkoen kopuru bat berentzat hartzeko, baita arbasoek berentzat ezarritakoei jarraitzeko ere; haien legeria zorrotza eta tradiziozkoa izango da aldi berean.

Gauza materialengatik derrigorrez kezkatuta ez daudenez –eta ez dira inoiz egon, eta beren gurasoak ere ez ziren askoz gehiago egon-, izpirituko lanez arduratu ahal izan dira hainbat belaunalditan zehar. Ulertu egiten dute literatur artea eta azkenerako maitatu egiten dute bere horretan eta atsegin errefinatua sentitzen dute beraren arauak bete egiten direlako.

Hala ere, hori ez da dena. Aipatzen ari naizen hauek bizitza hasi eta bukatu aisetasun edo aberastasunean egiten dute; hortaz, berez zertu dute gozamen aukeratuen zaletasuna eta atsegin fin eta delikatuen maitasuna.

Are gehiago, izpiritu eta bihotzaren halako fauntasun batek, hainbeste ondasunen erabilera luze eta baketsuaren artean sarri berenganatzen dutena, beren plazeretan ezustekoegi edo biziegitzat egon litekeena urruntzera eramaten ditu. Nahiago dute entretenimendua hunkipen biziak baino; interesa sor diezaieten nahi dute, baina ez arrastaka eramatea.

Orain, imajinatu literatur lan-pila, aipatu berri ditudan hauek eginak, edota berauentzat eginak, eta erraz imajinatuko duzue literatura guztiz erregularra eta aurretiaz koordinatua. Obrarik txikiena xehetasunik txikienetan zainduko dute haiek; artea eta lana gauza guztietan agertuko dira han; genero bakoitzak bere erregela partikularrak izango ditu, ezinezkoa izango zaio erregela horietatik aldentzea, eta beste guztietatik isolatuko dute.

Estiloa ideia bezain garrantzizkotzat joko da, forma fondoa bezain garrantzizkotzat, tonua leundua, neurritsua, uniformea izango da. Izpirituak han ibilera duina izango du beti, nekez martxa bizia, eta idazleek gehiago jardungo dute perfekzionatzen ekoizten baino.

Batzuetan, klase letraduneko kideek, beti elkarren artean bizi izan direlarik eta berentzat bakarrik idatziz, erabat galduko dute bistatik munduaren gainerakoa, eta honek arazeriara eta faltsura bultzatuko ditu; arau literario txikiak ezarriko dituzte berek bakarrik erabiltzeko, eta honek oharkabean zentzutasunetik aldendu eta azkenean naturatik kanpo eramango ditu.
Herri xeheak ez bezala hitz egin nahi izatearen poderioz, halako jerga aristokratiko batera iritsiko dira, herriaren *patois* bezain urruti dagoena hizkera ederretik.

Hauek dira literaturaren berezko arriskuak aristokrazietan.

Herritik erabat aparte gelditzen den aristokrazia oro ezintasunera iristen da. Hau egia da letretan politikan bezalaxe[2].

Orain koadroa atzekoz aurrera jarri eta azter dezagun beste aldea.

Eraman dezagun orain geure burua antzinako tradizioek eta oraingo jakintzargiek izpirituko gozamenetarako sentibera bihurtu duten demokrazia batera. Bertan nahasturik eta bat eginda daude gizartemailak; ezagupenak, boterea bezalaxe, mugagabeki zatiturik daude, eta, ausartzen banaiz esatera, alde guztietan sakabanatua.

Horra hor premia intelektualak asetu behar zaizkion jendetza nahastu bat. Izpirituko atseginen maitalea berri hauek ez dute guztiek heziketa bera hartu; ez dituzte jakintzargi berberak, ez dute arbasoen antzik, eta uneoro ezberdintzen dira beren artean ere, etengabe aldatzen baitira lekuz, sentimenduz eta aberastasunez. Horietako bakoitzaren izpiritua ez dago, beraz, beste guztienarekin elkartuta tradizioz eta aztura komunez, eta ez dute inoiz izan ez ahalik, ez borondaterik, ez astirik ere, elkar ulertzeko.

Hala ere, jendetza inkoherente eta asaldatu honen baitan autoreak sortzen dira, eta berak ematen dizkie mozkinak eta aintza.

Gauzak honela, erraz ulertzen dut horrelako herri baten literaturan zer aurkituko dudan: aristokrazi mendeetan irakurle eta idazleek identifikatzen dituzten konbentzionalismo hertsi horietako gutxi batzuk bakarrik. Garai bateko jendea bat etorriko balitz ere horietako zenbaitetan, honek ez luke ezer esan nahiko hurrengo garairako; zeren eta, nazio demokratikoetan, belaunaldi berri bakoitza herri berri bat izaten baita. Nazio hauetan, letrak nekez makurraraz daitezke arau estuetara, eta ia ezinezkoa da arau iraunkorren menpe egotea.

Demokrazietan, literaturaz arduratzen diren guztiek ez dute heziketa literariorik izaten, eta, letra ederren berniz pixka bat dutenen artean, gehienek karrera politikoa egiten dute, edota, izpirituko atseginez isilka gozatzeko, unetxo batzuetan bakarrik utz dezaketen lanbideren bat hartzen dute. Ez dituzte, beraz, plazer hauek beren bizitzako xarma nagusi bihurtzen; baizik eta atseden iragankor eta beharrezkotzat hartzen dituzte bizitzako lan serioen artean. Horrelakoek ezingo dute edertasunik delikatuenak preziatzeko behar bezain ezagutza sakona lortu literatur arteaz; ñabardura txikiek ihes egiten diete. Letretarako oso denbora laburra dutenez, ahalik eta probetxurik handiena atera nahi izaten diote. Nekerik gabe eskuratzen diren

---

[2] Hau dena, batez ere, luzaroan eta bake-bakean errege baten agintearen menpe egon diren herri aristokratikoetan da egia.
Aristokrazia batean askatasuna dagoenean, goiko klaseek etengabe baliatu behar izaten dute behekoez, eta, horietaz baliatzean, beroriengana hurbiltzen dira. Honek, sarritan, espiritu demokratikoaren zerbait sarrarazten du haien baitan. Bestalde, gobernatzen du haien baitan. Bestalde, gobernatzen duen gorputz pribilegiatu baten baitan enpresa-aztura eta kemena garatzen dira, mugimendu eta zaratotsaren gustua, literatura-lanetan derrigorrez eragiten duena.

liburuak nahi dituzte, bizkor irakurtzen direnak, ulertu ahal izateko ikerketa sakonik eskatzen ez dutenak. Edertasun errazak eskatzen dituzte, berez zuzenean adierazten direnak, eta momentuan bertan gozatu ahal izateko modukoak; ezustekoa eta berria behar dute, batez ere. Bizimodu praktikora, zail eta monotonora ohituak, zirrara bizi eta bizkorrak behar dituzte, bat-bateko argitasunak, egia edo errakuntza distiratsuak, beren baitatik lipar batean atera eta bat-batean, bortxaz bezala, gaian sarraraziko dituztenak.

Zer gehiago esan behar dut? Nork ez du ulertzen ondorengoa, nik azaldu gabe ere?

Oro har, demokrazi mendeetako literaturak ezin du ordena-erregulartasun-, zientzi eta arte-irudirik eman, aristokrazi mendeetakoak bezala; normalean formarekiko axola gutxi agertuko da, eta mesprezua batzuetan. Sarritan idazkera arraroa izango da, ez zuzena, kargatuegi eta belaxka, ausart eta sutsua ia beti. Autoreek gehiago joko dute gauzak bizkor egitera xehetasunen perfekziora baino. Idazki txikiak ugariagoak izango dira liburu lodiak baino, izpiritua erudizioa baino, irudimena sakontasuna baino; pentsamenaren arloan indar landugabe eta ia basatia izango da nagusi, eta sarritan barietate oso handia eta emankortasun berezi bat haren ekoizpenetan. Atsegin ematea baino harritzea gehiago bilatuko da, eta grinak pizteko ahalegin handiagoa egingo da gustuari atsegin emateko baino.

Noski, tarteka-marteka aurkituko da beste bideren batetik ibili nahi duen idazlerik ere, eta hauek, aparteko meritua baldin badute, lortuko dute irakurriak izatea, beren akatsak eta koalitateak gora-behera; baina salbuespen hauek bakanak izango dira, eta beren obretan oro har usadio komunetik aldendu diren horiek beroriek, beti itzuliko dira berriro zenbait xehetasunetan.

Muturreko bi egoera azaldu ditut; baina nazioak ez dira bat-batean lehenengotik bigarrenera igarotzen; mailaz maila eta amaigabeko ñabarduretan zehar iristen dira. Herri eskolatu bat egoera batetik bestera eramaten duen pasabidean, ia beti iristen da momentu bat, zeinetan nazio demokratikoen jeinu literarioak aristokrazienarekin topo egin eta biek adostasunean giza izpirituan agindu nahi dutela ematen duen.

Garai iragankorrak izaten dira horiek, baina oso distiratsuak. Emankortasuna izaten da orduan, joritasunik gabe; eta mugimendua, nahasmenik gabe. Honelakoa izan zen Frantziako literatura XVIII. mendean.

Pentsatzen dudana baino urrutirago joango nintzateke nazio bateko literatura beti bere gizarte-egoera eta eraketa politikoaren menpeko dela esango banu. Badakit, kausa hauetaz aparte, badirela beste batzuk literatur lanei ezaugarri jakin batzuk ematen dizkietenak, baina niri beste haiek iruditzen zaizkit garrantzizkoenak.

Herri baten gizarte- eta politika-egoeraren eta bere idazleen jeinuaren arteko erlazioak oso ugariak izaten dira beti; bata ezagutzen duenari sekula ez zaio beste erabat ezezagun gertatzen.

XIV

Literatur industriaz

Demokraziak ez du bakarrik letretarako zaletasuna klase industrialetan sarrarazten; industri izpiritua literaturaren baitan ere sartzen du.

Aristokrazietan, irakurleak zailak izaten dira eta urriak; demokrazietan, ez da zaila horiei atsegin ematea eta kopuruz asko izaten dira. Ondorioz, herri aristokratikoetan, ahalegin izugarrien bidez bakarrik espero daiteke arrakasta izatea, eta ahalegin horiek, ospe handia eman dezaketen arren, ez dute inoiz diru asko ematen; aitzitik, nazio demokratikoetan, idazle bat harro egon daiteke erdipurdiko ospea eta aberastasun handia merke-merke lortzeaz. Horretarako ez da beharrezkoa miretsia izatea, aski da gustukoa izatea.

Beti gehituz doan irakurle-kopuruak eta hauek duten gauza berrien premia etengabeak gutxi estimaturiko liburuaren salmenta ziurtatzen du.

Demokrazi garaietan, publikoak sarri jokatzen du autoreekin, erregeek normalean beren gortesauekin bezala; aberastu eta gutxietsi egiten ditu. Zer gehiago behar dute gorteetan jaiotzen diren edo horietan bizitzea merezi duten arima salkorrek?

Literatura demokratikoak, letretan industria baino ikusten ez duten autorez beteta egoten dira beti, eta, idazle handiren batzuk aurkitzen direnerako, milaka ideia-saltzaile ikusten da horietan.

XV

Literatura greko eta latindarraren azterketa, zergatik den bereziki onuragarria gizarte demokratikoetan

Antzinateko errepublikarik demokratikoenetan herria zeritzonak ez zuen ia antzik guk herria deitzen dugunarekin. Atenasen hiritar guztiek esku hartzen zuten arazo publikoetan; baina hogei mila hiritar bakarrik zeuden hirurehun eta berrogeita hamar mila biztanle baino gehiagoren artean; beste guztiak esklaboak ziren eta gaur egun herriari, eta klase ertainei ere, dagozkien funtzio gehienak betetzen zituzten.

Atenas, bere sufragio unibertsalarekin, ez zen, azken finean, errepublika aristokratiko bat baino, non noble guztiek baitzuten gobernatzeko eskubide bera.

Ikuspegi beretik hartu behar da Erromako patrizioen eta plebeioen arteko borroka, hau ez baitzen familia bereko gazteenen eta zaharrenen arteko barne-liskarra baizik. Izan ere, guztiak ziren aristokraziakoak eta honen izpiritua zeukaten.

Gainera, azpimarratu behar da antzinate osoan liburuak bakanak eta garestiak zirela, eta zailtasun handia zegoela kopiak egin eta zirlukazioan jartzeko. Zirkunstantzia hauen ondorioz pertsona-kopuru txiki batek biltzen zuen letra-zaletasun eta erabilera, eta aristokrazia politiko handiaren baitan eliteko aristokrazia literario txiki bat bezalakoa osatzen zuen. Beraz, ezerk ez du adierazten greziar eta erromatarren artean letrak industriatzat hartu zirenik.

Herri hauek, aristokraziak eratzeaz gain, oso nazio zibilizatu eta askeak ere bazirenak, aristokrazi mendeetan literaturaren ezaugarri diren akats partikular eta koalitate bereziak eman behar izan zizkieten beren ekoizpen literarioei.

Antzinateak utzi dizkigun idazkiei begiratu bat ematea aski da ohartzeko idazleei batzuetan barietatea eta emankortasuna falta izan bazitzaizkien gaietan, edo ausardia, mugimendua eta generalizazioa pentsamenduan, betiere arte eta ardura miresgarria erakutsi zutela xehetasunetan; haien obretan ezerk ez du ematen presaka edo ausaz egina; han dena dago adituentzat idatzia, eta edertasun idealaren bilaketa etengabe agertzen da. Antzinakoen literatura da gehien nabarmenarazten dituena demokrazietako idazleei berez falta zaizkien koalitateak. Demokrazi mendeetan, beraz, ez dago beste literaturarik aztertzea komenigarriago denik. Azterketa hori da, guztien artean, mende hauei datxezkien akats literarioen aurka borrokatzeko egokiena; beren koalitate naturalei dagokienez, berez sortuko dira, lortzen ikasi beharrik gabe.

Hau ongi ulertu behar da.

Azterketa bat izan daiteke onuragarria herri baten literaturarako, eta ez egokia haren gizarte- eta politika-beharretarako.

Jendea bere aberastasuna gehitu edo mantentzeko normalean ahalegin bortitzak egitera behartua legokeen gizarte batean, letra ederrak bakarrik irakasten saiatuz gero setati, hiritar oso zibilizatuak eta oso arriskutsuak sortuko lirateke; zeren eta, egoera sozial eta politikoak egunero premia batzuk sortu eta hauek asetzen hezkuntzak ez liekeenez erakutsiko, greziarren eta erromatarren izenean Estatua asaldatuko bailukete, beren lanaren bidez emankortu ordez.

Nabaria da gizarte demokratikoetan gizabanakoen interesak, baita Estatuaren segurtasunak ere, gehiengoaren heziketa literarioa baino gehiago zientifikoa, komertziala eta industriala izatea eskatzen dela.

Grekoa eta latina ez dira eskola guztietan irakatsi behar; baina garrantzizkoa da beren izaera edo aberastasunagatik letrak lantzera destinatuek edota horietarako joera dutenek eskolak aurkitu ahal izatea antzinako literaturaz bete-betean jabetu ahal izateko, haren izpirituz erabat blai eginez. Helburu hori lortzeko, unibertsitate bikain batzuk hobeak lirateke ikastetxe kaskar asko baino, non gaizki egindako ikasketa hutsalek beharrezko ikasketak ongi egitea eragozten baitute.

Nazio demokratikoetan, letretan nabarmendu nahi duten guztiek antzinateko obrez elikatu behar dute sarri. Higiene osasungarria da.

Ez dut esan nahi antzinakoen literatur ekoizpenak akasgabetzat dauzkadanik. Soil-soilik uste dut koalitate bereziak dituztela, gure akats partikularren kontrapisu izateko balio izan dezaketenak. Erortzeko joera dugun aldetik eusten digute

XVI

Nola demokrazia amerikarrak aldatu duen hizkuntza ingelesa

Orain arte letrei buruz oro har esan dudana irakurleak ongi ulertu badu, erraz imajinatuko du gizarte-egoera eta erakunde demokratikoek zer-nolako eragina izan dezaketen pentsamenduaren lehen tresna denaren gain, hau da, hizkuntzaren beraren gain.

Egia esateko, autore amerikarrak Ingalaterran gehiago bizi dira beren herrialdean baino, idazle ingelesak etengabe aztertu eta eredutzat hartzen baitituzte egunero. Ez da gauza bera gertatzen jendearekin berarekin, honek mendetasun zuzenagoa baitu Estatu Batuetan eragina izan lezaketen kausa partikularrekiko. Ez da, beraz arreta lengoaia idatzian jarri behar, mintzatuan baizik, herri aristokratiko baten hizkuntza demokrazia baten hizkuntza bilakatzean jasan ditzakeen aldaketak hauteman nahi badira.

Ingeles ikasi batzuek, ñabardura sotil horiek nik baino gaitasun handiagoz preziatzen zituztelarik, sarri ziurtatu zidaten Estatu Batuetako klase ilustratuak aski ezberdinak zirela, beren hizkeragatik, Britainia Handiko klase ilustratuen aldean.

Haiek ez ziren amerikarrak hitz berri asko erabiltzen hasi zirelako bakarrik kexatzen –herrialdeen arteko ezberdintasuna edo urruntasuna aski zatekeen hori esplikatzeko-, baizik eta, batez ere, hitz horiek edo alderdien jergatik, edo arte mekanikoetatik, edota negozioen hizkuntzatik hartu zituztelako. Gaineratzen zuten antzinako hitz ingelesei adiera berri bat ematen zietela amerikarrek. Azkenik, esaten zuten Estatu Batuetako jendeak era berezian nahasten zituela estiloak, eta, batzuetan, ama aberriko hizkeran banandu egin ohi ziren hitzak elkarrekin jartzen zituztela haiek.

Ohar hauek, sinesgarritasuna merezi zuela iruditzen zitzaidan jendeak behin baino gehiagotan eginak, gaiaz gogoeta egitera eraman ninduten neu, eta nire gogoetek, teoriaren bidetik, haiek praktikaren bidetik iritsiak ziren puntu berera eraman ninduten.

Aristokrazietan, gauza guztiek berez duten gelditasun-egoera horretan parte hartu behar du hizkuntzak ere. Hitz berri gutxi asmatzen da, gauza berri gutxi egiten delako; eta gauza berriak egingo balira ere, ezagun diren eta tradizioak zentzua finkatua dien hitzez deskribatzen saiatuko lirateke.

Halako batean, gertatzen bada giza izpiritua astindu egiten dela berez, edota argiak, kanpotik sartzean, iratzarri egiten duela, orduan sortzen diren adierazpide berriek izaera eruditu, intelektual eta filosofikoa izaten dute, honek adierazten duelarik ez direla demokraziak sortarazitakoak. Konstantinoplaren erorketak zientzia eta letrei mendebalderantz bultza egin zienean, ia bat-batean hitz berri ugari sartu zen frantses hizkuntzan, guztiak grekoan eta latinean sustraituak. Orduan neologismo erudituak agertu ziren Frantzian, klase ilustratuek bakarrik erabiliak, eta haien eragina sekula ez zen herriarengan sumatu edota luzarora bakarrik iritsi zen honengana.

Europako nazio guztiek, batak bestearen ondoren, ikuskizun berbera eman zuten. Miltonek bakarrik seiehun hitz baino gehiago sartu zituen ingelesean, ia guztiak latin, greko edo hebraieratik hartuak.

Demokraziaren baitan beti nagusi den mugimenduak, aitzitik, etengabe berritzera jotzen du hizkuntzaren itxura nahiz arazo publikoena. Asaldura orokor eta izpiritu guztien lehia honen erdian, ideia berri asko sortzen da; antzinako ideiak galdu edo berragertu egiten dira; edota mugagabeki azpizatitzen dira ñabardura txikitan.

Beraz, sarri aurkitzen dira erabiltzeari utzi beharreko hitzak, eta beste batzuk berriro sarrarazi beharrekoak.

Bestalde, mugimendua berez dute gogoko nazio demokratikoek. Hau hizkuntzan ikusten da politikan bezalaxe. Hitzak aldatzeko beharrik ez badute ere, horretarako gogoa sentitzen dute batzuetan.

Herri demokratikoen jeinua ez da erabilerarako prestatzen duen hitz berrien kopuru handian bakarrik agertzen, baita hitz berri hauek errepresentatzen dituzten ideien izaeran ere.

Herri hauetan gehiengoak egiten du legea hizkuntza-arloan, gainerako guztian bezalaxe. Nolanahi ere, gehiengoa gehiago arduratzen da negozioez ikasketez baino, politika eta merkataritzako interesez gehiago espekulazio filosofiko edo literaturaz baino. Berak sorturiko edo onarturik hitz gehienek eramango dute aztura hauen marka; batez ere, industriaren premiak, alderdien grinak edo administrazio publikoko xehetasunak adierazteko balioko dute. Hizkuntza alde honetatik zabalduko da etengabe, eta aldi berean pixkana-pixkana urrundu egingo da metafisika eta teologiaren arlotik.

Nazio demokratikoak beren hitz berriak nondik ateratzen dituzten eta nola eratzen dituzten esatea erreza da.

Herrialde demokratikoetan bizi direnek ia ez dakite Erroman eta Atenasen mintzatzen zen hizkuntza, eta ez dira antzinatera jotzeaz arduratzen, falta zaien adierazpidea han aurkitzeko. Batzuetan etimologia erudituetara jotzen badute, normalean harropuzkeriak eramaten ditu hizkuntza hilen hondoan bilatzera, eta ez izpirituari berez eskaintzen dion erudizioak. Batzuetan zera ere gertatzen da, haien arteko ezjakinenak direla horrelakoak gehien erabiltzen dituztenak. Beren esparrutik irteteko desira guztiz demokratikoak eramaten ditu lanbide arrunt-arrunt bat izen greko edo latindarrez goratu nahi izatera. Lanbidea zenbat eta apalagoa izan eta zientziatik urrutirago egon, orduan eta arranditsuagoa eta erudituagoa izena. Honela gure soka gaineko dantzari edo txerpolariak akrobata eta funanbulu bihurtu dira.

Hizkuntza hilik ezean, herri demokratikoek gogotsu mailegatzen dituzte hitzak hizkuntza bizietatik; etengabe komunikatzen baitira elkarren artean, eta herrialde ezberdinetako jendeak elkar imitatzen du gogotsu, egunetik egunera elkarren antz handiagoa dutelako.

Baina herri demokratikoek beren hizkuntzan bilatzen dituzte, batez ere, berrikuntza-bideak. Tarteka-marteka, hiztegian sartzen dituzte berriro argitara atera dituzten ahazturiko adierazpideak, edota hiritarmota partikular bati berari dagokion termino bat kentzen diote, zentzu figuratuz ohiko hizkeran sarrarazteko; honela, hasiera batean alderdi edo lanbide baten hizkuntza berezian bakarrik zeuden adierazpide asko zirkulazio orokorrera pasarazten dituzte.

Hizkuntza arloan berrikuntzak egiteko herri demokratikoek erabiltzen duten biderik ohikoena, jadanik erabilia den adierazpide bati erabili gabeko esanahia ematea da. Metodo hau oso sinplea, bizkorra eta erosoa da. Ez da jakintzarik behar horretaz ongi bailatzeko; eta ezjakintasunak berak erraztu egiten du erabilera. Baina hizkuntza bera arrisku handian jartzen du. Herri demokratikoek, hitz baten esanahia honela bikoiztean, batzuetan zalantzazko bihurtzen dute bai lehendikakoa, baita berria ere.

Autore bat pixka bat desbideratzen hasten da adierazpide ezagun bat bere hasierako esanahitik, eta, honela aldatu ondoren, ahalik eta ongien moldatzen du bere gaira. Beste batek esanahia beste alde batetik hartzen dio; hirugarrenak bide berri batetik eramaten du berekin; eta arbitro komunik ez dagoenez, ezta epaimahai iraunkorrik ere, hitzaren zentzua behin-betiko finkatuko duenik, hau batetik bestera ibiltzen da. Ondorioz, ematen du idazleak ez zaizkiola inoiz pentsamendu bakar bati atxikitzen, baizik eta ideia-multzo baten erdira apuntatzen dutela, horietatik zien harrapatu den epaitzeko ardura irakurleari utziz.

Hau demokraziaren ondorio tamalgarri bat da. Nik nahiago nuke hizkuntza hitz txinatar, tatariar edo huroiez betetzea, hitz frantsesen zentzua zalantzazko bihurtzea baino. Harmonia eta homogeneotasuna lengoaiaren bigarren mailako edertasunak baino ez dira. Honelakoetan konbentziozko gauza asko dago, eta, estu-estuan, egin daiteke aurrera horiek gabe. Baina ez dago hizkuntza onik termino argirik gabe.

Berdintasunak beste zenbait aldaketa ere ekartzen dio, halabeharrez, lengoaiari.

Aristokrazi mendeetan, nazio bakoitzak beste guztietatik aparte gelditzera jotzen duenean eta bere-berea izango duen fisionomia eduki nahi izaten duenean, sarri gertatzen da jatorri komuna duten zenbait herri oso arrotz bihurtzen direla elkarrekiko, eta, elkar ulertu ahal izateari utzi gabe, ez dute guztiek ere berean hitz egiten.

Mende horietan berorietan, nazio bakoitza hainbat klasetan zatiturik egoten da, elkar gutxi ikusi eta batere nahasten ez diren klaseetan; hauetako bakoitzak hartu eta aldatu gabe kontserbatzen ditu berari bakarrik dagozkion aztura intelektualak, eta hitz eta termino jakin batzuk bereganatzen ditu lehentasunez, ondoren belaunaldiz belaunaldi pasatzen direnak, ondareak bezala. Orduan lengoaia berean behartsuen hizkuntza eta aberatsen hizkuntza aurkitzen dira, plebeioen hizkuntza eta nobleen hizkuntza, hizkuntza kultua eta hizkuntza arrunta. Zenbat eta sakonagoak izan zatiketak eta gaindigaitzagoak hesiak, are gehiago izan behar horrela. Gogotsu apustu egingo nuke Indiako kasten artean baietz ikaragarri ezberdindu lengoaia, eta paria baten hizkuntzaren eta brahman batenaren artean baietz egon ia beraien jantzien artean adinako ezberdintasuna.

Aitzitik, jendea bere postuan egotera beharturik ez dagoenean etengabe elkar ikusi eta komunikatzen duenean, kastak suntsitu eta klaseak berritu eta elkarrekin bat egiten direnean, hizkuntzaren hitz guztiak nahastu egiten dira. Gehiengoari komeni ez zaizkionak galdu egiten dira; gainerakoek masa komun bat osatzen dute, non bakoitzak ausaz aukeratzen duen gutxi gora-behera. Europako hizkuntzak zatitzen zituzten dialekto ezberdin gehientsuenek joera nabaria dute desagertzeko; ez dago *patois*-ik Mundu Berrian, eta egunetik egunera desagertuz doaz Zaharrean ere.

Gizarte-egoeraren iraultza honek hizkuntzan nahiz estiloan du eragina.
Ez bakarrik mundu guztia baliatzen da hitz berberez, baita horietako bakoitza bereizgabe erabiltzera ere ohitzen da gainera. Estiloak sortuak zituen erregelak ia suntsitu egiten dira. Ia ez da aurkitzen adierazpiderik bere izaeraz arrunt dirudienik, edota bikain ematen duenik. Gizarte-maila ezberdinetatik irtendakoek, erabiltzen zituzten adierazpideak eta terminoak, joan diren alde guztietara berekin eraman dituztenez, hitzen jatorria galdu egin da gizakiena bezalaxe, eta nahasmena sortu da lengoaian gizartean bezalaxe.

Badakit hitzen sailkapenean badirela erregela batzuk, ez dagozkionak gizarte-mota bati beste bati baino gehiago, baizik eta gauzen izaeraren ondorio direnak. Badira adierazpideak eta esaerak arruntak direnak, horiek adierazi behar dituzten sentimenduak benetan kaskarrak direlako, eta beste batzuk bikainak direnak, deskribatu nahi dituzten gauzak berez oso jasoak direlako.

Gizarte-mailek, elkarren artean nahastean, sekula ez dituzte ezberdintasun horiek desagerraraziko. Baina berdintasunak ezin du suntsitu gabe utzi pentsamenaren formetan konbentziozkoa eta arbitrarioa soilik dena. Ez dakit beharrezko sailkapena, gorago aipatu dudana, ez ote den beti herri demokratiko batean gutxiago errespetatuko beste batean baino; zeren eta, horrelako herri batean, ez baitago inor bere heziketa, jakintzargi eta aisialdiagatik prest dagoenik lengoaiaren lege naturalak iraunkorki aztertzeko eta lege horiek, berak betez, errespetarazteko.

Ez dut gai honekin bukatu nahi hizkuntza demokratikoen azken ezaugarri bat azaldu gabe, agian beste guztiek baino gehiago bereizten baititu honek.

Erakutsi dut lehen herri demokratikoek ideia orokorren zaletasuna, eta sarritan grina, zutela; bere-bereak dituzten koalitate eta akatsek eragiten diete hau. Ideia orokorren maitasun hau, hizkuntza demokratikoetan, termino generiko eta hitz abstraktuen erabilera iraunkorrean agertzen da, eta horiek erabiltzeko eran. Hori da hizkuntza hauen meritu handia eta ahulezia handia.

Herri demokratikoek grinatsu maite dituzte termino generikoak eta hitz abstraktuak, adierazpide hauek pentsamena zabaltzen dutelako, eta, espazio txikian objektu asko ixteko aukera ematean, adimenaren lanean lagungarri direlako.

Idazle demokratiko batek era abstraktu batean gogotsu esango du *gaitasunak* gai diren pertsonak aipatzeko, gaitasun hori aplikatzen zaien gauzak xehekatzen hasi gabe. *Gaurkotasunaz* hitz egingo du momentu horretan bere begien aurrean gertatzen diren gauzak kolpe batean deskribatzeko, eta *ebentualitate* hitzean sartuko du bera hitz egiten ari den momentutik aurrera unibertsoan gerta litekeen guztia.

Idazle demokratikoek etengabe sortzen dituzte horrelako hitz abstraktuak, gero eta zentzu abstraktuagoan hartuz hizkuntzako hitz abstraktuak.

Are gehiago, diskurtsoa bizkorrago bihurtzeko, idazleek pertsonifikatu egiten dute hitz abstraktu horien objektua eta benetako pertsona bat bailitzan jardunarazten diote. *Gauzen indarrak gaitasunek goberna dezaten nahi duela* esango dute.

Pentsatzen dudana neure adibide batez baino hobeto ezin dut azaldu:

Sarri erabili dut berdintasun hitza zentzu absolutuan; gainera, hainbat lekutan pertsonifikatu dut berdintasuna, eta honela iritsi naiz esatera berdintasunak zenbait gauza egiten zituela, edota beste batzuk ez. Esan daiteke Luis XIV.aren mendeko jendeak ez zuela horrela hitz egingo; haietako inori ez zitzaion bururatuko berdintasun hitza gauza partikular bati aplikatu gabe erabiltzea, eta lehenago uko egingo ziokeen hitzaz baliatzeari berdintasuna pertsona bizidun bihurtu baino.

Hizkuntza demokratikoak betetzen dituzten hitz abstraktu hauek, inolako egitate partikularri lotu gabe etengabe erabiltzen direlarik, handitu eta estali egiten dute pentsamendua; adierazpidea bizkorrago bihurtzen dute, eta ideia ilunago. Baina, lengoaia kontuan, herri demokratikoek nahiago dute iluntasuna lana baino.

Bestalde, nik ez dakit zehaztugabetasunak ez ote duen halako xarma ezkutu bat herri horietan hitz egin eta idazten dutenentzat.

Horietan bizi direnak, sarri beren adimenaren ahalegin indibidualetara emanak daudelarik, zalantzak atsekabetuta edukitzen ditu ia beti. Gainera, haien egoera etengabe aldatzen denez, inoiz ez ditu finko egonarazten iritzietan beren zoriaren mugigaiztasunak.

Beraz, herrialde demokratikoetan bizi direnek dudaz beteriko pentsamenduak izaten dituzte sarri; oso adierazpide zabalak behar izaten dituzte horiek laburtzeko. Sekula ez dakitenez gaur adierazitako ideia bihar izango duten egoera berriari egokituko zaion ala ez, termino abstraktuen zaletasuna sortzen zaie berez. Hitz abstraktu bat hondo bikoitzeko kaxa bezala da: nahi diren ideiak sartzen dira bertan, eta inork ikusten ez duelarik ateratzen dira gero.

Herri guztietan, termino generiko eta abstraktuek osatzen dute lengoaiaren funtsa; ez dut esan nahi, beraz, hitz horiek hizkuntza demokratikoetan bakarrik aurkitzen direnik, zera bakarrik diot: gizakien joera berdintasun-garaietan horrelako hitzen kopurua bereziki gehitzekoa izaten dela; beti isolatuta beren adierarik abstraktuenean hartzekoa, eta horiek etengabe erabiltzekoa, diskurtsoak eskatzen ez duenean ere.

XVII

Nazio demokratikoetako poesi iturri batzuei buruz

Hainbat esanahi oso desberdin eman izan zaio poesia hitzari. Irakurleak nekatu egingo nituzke zentzu ezberdin horietatik zein komeni den aukeratzea aztertzen hasiko banintz beraiekin; nahiago dut oraintxe bertan esatea nik aukeratu dudana.

Niri iritziz, idealaren bilakuntza eta pintaketa da poesia.

Existitzen denari zati bat kenduz, koadroari irudizko marra batzuk erantsiz, berez elkarturik egoten ez diren benetako zirkunstantzia batzuk konbinatuz natura osatu eta handiagotzen duena, hori da poeta. Honela, poesiaren helburua ez da egia errepresentatzea izango, baizik eta apaindu eta izpirituari irudi hobea eskaintzea.

Bertsoak lengoaiaren edertasun ideala irudituko zaizkit, eta, zentzu honetan, poetikoak izango dira zalantzarik gabe; baina, beren kabuz bakarrik, ez dira poesia izango.

Herri demokratikoen ekintza, sentimendu eta ideien artean ideala imajinatzeko balio duenik, eta arrazoi horregatik berezko poesi iturritzat hartu behar denik, ba ote den ikertu nahi dut.

Lehenik aitortu beharra dago idealaren gustua eta horren errepresentazioa ikusteak ematen duen atsegina ez direla inoiz aristokrazian bezain bizi eta hedatuak izaten herri demokratikoen baitan.

Nazio aristokratikoetan, gorputzak bere kabuz bezala jarduten du batzuetan, arima pisutsu zaion atsedenean murgildua dagoen bitartean. Nazio horietan, herriak berak agertzen ditu sarri gustu poetikoak, eta haren izpirituak bere ingurukoaren gainetik eta harantzago jotzen du batzuetan.

Baina demokrazietan, gozamen materialen maitasuna, hobeagoaren ideia, konkurrentzia edo arrakastaren xarma hurbila beste hainbat akuilu dira, gizon bakoitzak bidean ematen dituen urratsak bizkortzen dituztenak, eta unetxo batez ere desbideratzea eragozten diotenak. Arimaren ahalegin nagusia alde horretatik doa. Irudimena ez dago itzalita, baina erabilgarri denaz pentsatzera eta erreala errepresentatzera dedikatzen da ia soil-soilik.

Berdintasunak urrundu egiten ditu gizakiak idealaren errepresentaziotik; gainera, gutxitu egiten du deskribagaien kopurua.

Aristokraziak, gizarte mugitu gabe edukiz, erlijio positiboen irmotasuna eta iraupena bultzatzen ditu, erakunde politikoen egonkortasuna bezalaxe.

Giza izpiritua fedean eutsi ez ezik, fede jakin bat hartzera ere bultzatzen du beste baten aurretik. Herri aristokratikoak beti izango du Jainkoaren eta gizakiaren artean bitarteko botereak jartzeko joera.

Horretan aristokrazia poesiaren oso aldeko agertzen dela esan daiteke. Unibertsoa zentzumenek hautematen ez dituzten baina izpirituak aurkitzen dituen naturaz gaindiko izakiz populatua dagoenean, irudimena eroso sentitzen da, eta poetek, hainbat pintagai ezberdin aurkitzean, ikusle-kopuru zenbatezina aurkitzen dute beren koadroetan interesatua.

Demokrazia mendeetan, aitzitik, batzuetan sineskizunak flotatzen ibiltzen dira legeak bezalaxe. Orduan, zalantzak lurrera eramaten du poeten irudimena, eta ikusten den mundu errealean ixten ditu.

Nahiz eta berdintasunak ez suntsitu erlijioak, sinplifikatu egiten ditu; arreta desbideratu egiten du bigarren mailako agenteengandik, jaun subiranoagana bideratzeko, batez ere.

Aristokraziak iraganaren kontenplaziora eramaten du berez giza izpiritua, eta han finkatzen du. Demokraziak, aitzitik, gizakiei instintuzko nazka bat sortzen die antzinakoarekiko. Honetan, poesiaren askoz aldekoago da aristokrazia, zeren eta normalean gauzak handitu eta ilundu egiten baitira, urrundu ahala; eta bi ezaugarri horiekin egokiago gertatzen dira ideala errepresentatzeko.

Poesiari iragana kendu ondoren, berdintasunak oraina kentzen dio neurri batean.

Herri aristokratikoetan, izaten da pribilegiatu-kopuru bat, beren existentzia, nolabait esateko, giza egoeraz kanpo eta gainetik dutena; boterea, aberastasuna, aintza, izpiritua, delikadeza eta gauza guztietan bikaintasuna bere-berak dituztela ematen du. Jendeak sekula ez ditu hurbiletik ikusten, edo ez die xehetasunetan jarraitzen; ez du lan handirik ematen pertsona horien pintaketa poetiko bihurtzeak.

Bestalde, herri horietan berorietan badira klase ezjakinak, apalak eta jopu bihurtuak; eta hauek, beren zabarkeria eta miseriaren gehiegikeriagatik beragatik poesiarako aukera ematen dute, besteek beren finezia duten klase ezberdinak elkarrengandik oso banaturik daudenez eta elkar gaizki ezagutzen dutenez, irudimenak, horiek errepresentatzean, beti erants edo ken diezaioke zerbait errealari.

Gizarte demokratikoetan, non gizakiak guztiak baitira oso txikiak eta oso antzekoak, bakoitzak, bere burua ikustean, beste guztiak ikusten ditu berehala. Demokrazi mendeetan bizi diren poetek sekula ez lukete pertsona jakin bat hartuko beren lan poetikoaren gaitzat, zeren eta handitasun kaskarra duen gauza bat, eta alde guztietatik garbi bereizten dena, sekula ez baita idealerako egokia izango.

Honela bada, berdintasunak, lur gainean ezartzean, poesiaren antzinako sorburu gehienak agortzen ditu.

Saia gaitezen berriak nola aurkitzen dituen erakusten.

Dudak zerua despopulatu zuenean, eta berdintasunaren aurrerapenek gizaki bakoitza hobeto ezaguturiko proportzio txikiagoetara murriztu zutenean, poetek, aristokraziarekin batera ihesi zihoazen gai handi horien ordez zer ipin zezaketen imajinatu ezinik, natura bizigaberantz itzuli zituzten begiak. Heroiak eta jainkoak bistatik galtzean, lehenik ibaiak eta mendiak deskribatzeari ekin zioten.

Horrek sortarazi zuen, joan zen mendean, berez deskriptiboa deitu izan den poesia.

Batzuek pentsatu izan dute lurra estaltzen duten gauza material eta bizigabeen deskribapen edertu hori demokrazi mendeei berez zegokien poesia zela; baina nire ustez ez da egia. Uste dut garai iragankor bat bakarrik errepresentatzen duela.

Konbentziturik nago, luzarora, gizakiari kanpoko zaion guztitik irudimena desbideratu eta gizakiaren baitan bakarrik finkatzen duela demokraziak.

Herri demokratikoak diberti daitezke pixka batean natura aztertzen; baina beren buruak ikustean bakarrik animatzen dira benetan. Alde honetatik bakarrik aurkitzen dira poesiaren berezko sorburuak herri horietan, eta pentsa daiteke horietatik edan nahi ez duten poeta guztiek aginte osoa galduko dutela liluratu nahi dituztenen gain, eta azkenerako beren eldarnioen lekuko hotzak besterik ez dituztela aurrean izango.

Ikusarazi dut aurrerapenaren eta gizadiaren hobegarritasun mugagabearen ideia demokrazi garaiei dagokiena dela.

Herri demokratikoak gutxi arduratzen dira izan denaz, baina gogotsu amets egiten dute izango denaz, eta, alde horretatik, haien irudimenak ez du mugarik; neurririk gabe zabaltzen eta handitzen da.

Honek lan-arlo zabala eskaintzen die poetei, eta beren koadroari urrutitik begiratzeko aukera ematen die. Demokraziak poesiari iragana ixten dio, eta etorkizuna zabaltzen.

Gizarte demokratiko bat osatzen duten hiritar guztiak berdintsu eta antzeko samarrak izatean, poesia ezin da haietako batean bakarrik oinarritu; baina nazioa bera dauka pintzelaren aurrean. Gizabanako guztien antzekotasunak, bakoitza banaka hartuta poesi gai izateko desegoki bihurtzen duenak, guztiak irudi bat berean ixteko eta azkenean herria bera kontuan hartzeko aukera ematen die poetei. Nazio demokratikoek beste guztiek baino garbiago ikusten dute beren irudia, eta irudi handi hau oso egokia da ideala deskribatzeko.

Erraz onar dezaket amerikarrek ez dutela poetarik, baina ez, ordea, ideia poetikorik ez dutenik.

Europan asko jarduten dute Amerikako basa eremuez, baina amerikarrek berek ia ez dute horietan pentsatzen. Ez dira arduratzen natura bizigabeko gauza miresgarriez, eta inguruan dituzten oihan miragarriez ez dira ohartzen aizkora-kolpez eraitsi arte. Beste ikuskizun batek betetzen dizkie begiak. Herri amerikarrak basa eremu horietan zehar ikusten du bere burua, padurak lehortzen, ibaiak birbideratzen, bakarlekuak jendeztatzen eta natura menperatzen. Beren buruaren ideia zoragarri hori ez zaio noizean behin bakarrik aurkezten amerikarren irudimenari; esan daiteke ekintzarik txikienetan nagusienetan bezalaxe jarraitzen diola haietako bakoitzari, eta beti zintzilika egoten dela haien adimenaren aurrean.

Ezin da ezer txikiagorik, ilunagorik, interes kaskarrez beteagorik, hitz batean antipoetikoagorik, imajinatu, Estatu Batuetako pertsona baten bizitza baino, baina, gidatzen duten pentsamenduen artean, bada bat beti poesiaz betea dagoena, eta gainerako guztiari indarra ematen dion zain ezkutua bezala da hori.

Demokrazi mendeetan, jendea, bere mugikortasun izugarri eta desira urduriengatik, lekuz aldatzen da etengabe, eta herrialde ezberdinetako jendea elkarrekin nahasten da, elkar ikusi, entzun eta imitatu egiten du. Beraz, ez dira nazio bat bereko kideak bakarrik antzeko bihurtzen direnak; nazioak berak ere antzekotu egiten dira, eta guztiak batera demokrazia zabal bat osatzen dute ikuslearen ikuspegirako, bertan hiritar bakoitza herri bat delarik. Honek lehen aldiz ateratzen du argitara gizadiaren figura.

Gizadi osoaren existentziari, beraren gora-behera eta etorkizunari dagokion guztia, meategi emankor bihurtzen da poesiarentzat.

Aristokrazi garaietan bizi izan ziren poetek kontaketa-lan miragarriak egin zituzten, herri edo pertsona baten bizitzako gora-behera jakin batzuk gaitzat hartuta; baina haietako inor ez zen ausartu bere koadroan gizadiaren destinoak sartzera; demokrazi garaietan idazten duten poetek, ordea, egin dezakete hori.

Bakoitza, bere herrialdearen gainetik begiratuz, gizadia bera ikusten hasten den aldi berean, Jainkoa gero eta gehiago azaltzen zaio giza izpirituari bere maiestate bete eta osoan.

Demokrazi mendeetan, erlijio positiboekiko fedea sarri kolokan egon eta botere bitartekarienganako –zeinahi izen ematen zaiela- sinesmena ilundu egiten bada ere, bestalde jendea prest egoten da jainkotasunaren beraren ideia askoz zabalagoa zertzeko, eta beraren eskuartzea giza arazoetan argitasun berri eta handiago batez agertzen zaie.

Gizadia osotasun bakar bezala hartzean, erraz ulertzen dute egitasmo bat bera izatea nagusi gizadiaren destinoetan, eta, gizaki bakoitzaren ekintzetan, gizadia gidatzeko Jainkoak erabiltzen duen plan orokor eta iraunkor horren arrastoa aitortzera jotzen dute.

Hau ere poesi sorburu oso emankorra gertatzen da mende horietan.

Poeta demokratikoek txiki eta hotz emango dute beti jainko, demonio edo aingeruei gorputz-formak ematen saiatzen badira, edota zerutik jaitsarazi nahi badituzte munduaz nagusitzen saiatzeko.

Baina Jainkoak unibertsoarekiko dituen egitasmo orokorrak eta beraiek deskribatzen dituzten gertakari handiak lotu nahi badituzte, eta, maisu subiranoaren eskua erakutsi gabe, beraren pentsamendua azaldu nahi badute, miretsiak eta ulertuak izango dira, garaikideen irudimenak ere bide horri jarraitzen baitio bere kabuz.

Halaber, aurreikus daiteke garai demokratikoetan bizi diren poetek grinak eta ideiak gehiago deskribatuko dituztela pertsonak eta egintzak baino.

Demokrazietako jendearen hizkerak, janzkerak eta eguneroko ekintzek uko egiten diote ideala errepresentatzeari. Gauza hauek ez dira poetikoak berez, eta, izango balira ere, utzi egingo liokete izateari, ondoegi ezagutzen dituztelako horietaz hitz egin nahi zaien guztiek. Honek etengabe behartzen ditu poetak zentzuek hautemandako gainazalaren azpian sakontzera, arima bera ikusi ahal izateko. Nolanahi ere, ideala deskribatzeko ez dago gauza egokiagorik, honela bere izaera inmaterialaren sakontasunean harturiko gizakia baino.

Ez daukat zeru-lurretan zehar ibili beharrik gauza miragarri bat aurkitzeko, kontrastez, handitasun eta txikitasun mugagabez, iluntasun sakon eta argitasun bereziz betea, aldi berean errukia, miresmena, mesprezua eta izua sortarazteko gai dena. Aski dut neure burua kontuan hartzea. Gizakia ezerezetik irteten da, denbora zeharkatu eta Jainkoaren baitan desagertzen da betiko. Une batez bakarrik ikusten da noraezean, galtzen deneko bi leizeen mugan.

Gizakiak bere buruaz ezertxo ere ez baleki, ez litzateke poetikoa izango; ezin baita gauza bat pintatu, hartaz ideiarik ere ez baduzu. Bere burua garbi ikusiko balu, irudimena zereginik gabe egongo litzateke eta ez luke koadroari zer erantsirik izango. Baina gizakia aski agerian dago bere buruaz zerbait hauteman ahal izateko, eta aski estalia gainerakoa ilunperik beltzenean sartuta izateko, ilunpe horretan murgiltzen delarik etengabe, beti alferrik, ea behingoz bere burua ulertzen duen.

Beraz, herri demokratikoetan ez da espero behar poesia kondairatatik bizitzea, tradizioz eta antzinako oroitzapenez elikatzea, unibertsoa naturaz gaindiko izakiz betetzen saiatzea –jada ez baitute hauengan sinesten ez irakurleek, ez poetek-, ezta beren forma propioaz ikus daitezkeen bertuteak eta bizioak hotz-hotzean pertsonifikatzea ere. Baliabide hauek guztiak falta zaizkio; baina gizakia gelditzen zaio, eta aski da berarentzat. Giza destinoak, gizakia –bere garai eta herrialdetik aparte hartuta, eta naturaren eta Jainkoaren aurrean bere grina, zalantza, sekulako oparotasun eta miseria ulertezinekin jarrita- poesi gai nagusi eta ia bakar bihurtuko dira herri hauentzat. Eta hori ia ziurta daitekeen zerbait da, mundua demokraziarantz jiratu ondoren agertu diren poetarik handienek idatzi dutena kontuan hartzen badugu.

Gaur egun Childe-Harold, René eta Jocelynen ezaugarriak hain miresgarriro errepresentatu dituzten idazleek ez dituzte pertsona baten ekintzak kontatu nahi izan; giza bihotzean oraindik ilunak diren zenbait alde argitu eta zabaldu nahi izan dituzte.

Horra hor demokraziaren poemak.

Beraz, berdintasunak ez ditu poesiaren gai guztiak suntsitzen. Kopuruz urritu eta zabalago bihurtzen ditu.

XVIII

Idazle eta hizlari amerikarrak zergatik diren sarri hain hanpatuak

Sarri ohartu naiz amerikarrek –oro har arazoak hizkera argi eta lehorrez, batere apaingarririk gabe eta sarritan arrunta den sinpletasun ikaragarriz tratatzen dituztelarik- gogotsu jotzen dutela hanpatzera, estilo poetikoa erabili nahi dutenean. Orduan arranditsu agertzen dira etenik gabe diskurtsoaren mutur batetik besteraino, eta, barra-barra irudiak erabiltzen ikustean, pentsa liteke sekula ez dutela ezer sinpleki esan.

Ingelesak askoz nekezago erortzen dira horrelako akatsean.

Eragozpen handirik gabe adieraz daiteke honen zergatia.

Gizarte demokratikoetan, hiritar bakoitza gauza txiki bati begira egoten da normalean, bere buruari alegia. Gorago begiratzen badu, gizartearen irudi neurrigabeaz ohartzen da orduan, edo are handiago den gizadiaren figuraz. Oso ideia partikularrak eta argiak bakarrik izaten ditu, edota nozio oso orokorrak eta zehaztugabeak; tarteko espazioa hutsik dago.

Beren baitatik atera dutenean, beti espero du gauza harrigarriren bat eskainiko zaiola ikusteko, eta prezio horretan bakarrik onartzen du bizitza astintzen eta alaitzen dioten ardura txiki konplikatuetatik pixka batean aldentzea.

Iruditzen zait horrek aski ongi esplikatzen duela demokrazietako jendeak, orokorrean hain arazo kaxkarrak eduki arren, zergatik eskatzen dizkien poetei hain kontzepzio zabalak eta deskribapen neurrigabeak.

Beren aldetik, idazleek obeditu egiten diete beraienak ere badiren joera horiei. Etengabe puzten dute irudimena eta, neurriz gain hedatzean, erraldoizkoa iristarazten diote, horretarako sarri baztertuz handia dena.

Honela, momentuan bertan jendearen begirada erakarri eta beren inguruan erraz finkatzea espero dute, eta lortu ere lortzen dute sarri; zeren eta jendeak, poesian oso gai zabalak bakarrik bilatzen dituelarik, ez du astirik zehatz-mehatz neurtzeko aurkezten zaizkion gai guztien proportzioak, ezta ere gustu behar hainbat ziurrik proportziogabeak zertan diren erraz bereizteko. Autoreak eta publikoak elkar usteltzen dute.

Ikusi dugu, bestalde, herri demokratikoetan poesiaren sorburuak ederrak zirela, baina ez oso ugariak. Laster agortzen dituzte. Erreal eta egian idealaren errepresentazioarako gai gehiago aurkitzen ez dutenez, poetak erabat irteten dira horietatik eta munstroak sortzen dituzte.

Ez dut uste herri demokratikoen poesia herabe azalduko denik, ezta ere lurretik oso hurbil geratuko denik. Areago uste dut hodei artean galduko ote den une oroz eta azkenean ez ote dituen erabat irudizko eskualdeak deskribatuko. Beldur naiz poeta demokratikoen obrek ez ote dituzten sarri irudi neurrigabe eta inkoherenteak eskainiko, deskribapen gainkargatuak, konposizio arraroak, eta beraien izpiriturik ateratako izaki fantastikoek ez ote duten batzuetan mundu errealaren falta sentiaraziko.

XIX

Herri demokratikoen teatroari buruzko zenbait oharpen

Herri aristokratiko baten egoera sozial eta politikoa aldatu duen iraultza literaturan agertzen hasten denean, oro har teatroaren bidez agertzen da lehenik, eta hor irauten du beti agerian.

Antzezlan dramatiko baten ikuslea nolabait ere ustekabean harrapatzen du iradokitzen zaion inpresioak. Ez du bere oroimenera jotzeko astirik, ezta iaioak kontsultatzeko ere; ez du beregan agertzen hasi diren joera literario berrien kontra borrokatzerik pentsatzen; ezagutu aurretik ematen die amore.

Autoreak laster ohartzen dira zein aldetara jotzen duen isilean publikoaren gustuak. Alde horretan bideratzen dituzte beren obrak. Eta antzezlanek, prestatzen ari den iraultza literarioa ikusarazteko balio

izan ondoren, hori gauzatu egiten dute laster. Demokraziarantz jotzen ari den herri baten literatura aurrez epaitu nahi baduzue, azter ezazue beraren teatroa.

Bestalde, nazio aristokratikoetan ere antzezlanak izaten dira literaturaren zatirik demokratikoena. Ez dago gozamen literariorik, jendeak eskurago duenik, eszenatokiaren aurrean sentitzen dena baino. Ez da prestakuntzarik, ez ikasketarik, behar horiek sentitzeko. Zeuen kezka eta zeuen ezjakintasunaren erdian harrapatzen zaituztete gozamen horiek. Izpirituko plazeretarako zaletasuna, oraindik zabar samarra, hiritarren klase batean sartzen hasten denean, teatrora bultzatzen du berehala. Nazio aristokratikoetako antzokiak, aristokrata ez ziren ikuslez beterik egon izan dira beti. Goi-klaseak antzokian bakarrik nahastu izan dira erdiko eta beheko mailakoekin eta antzokian bakarrik ametitu izan dute, azken hauen iritzia onartzea ez bada ere, bai behintzat hauek iritzia eman ziezaieten jasatea. Eruditu eta eskolatuek teatroan izan dute bete nekerik handiena beren gustua herriarenaren gain jartzeko, eta haren indar erakargarririk defendatzeko. Sarritan galeriakoek ezarri diete legea palkoetakoei.

Aristokraziari zaila gertatzen bazaio herria antzokian sar dadin eragoztea, erraz ulertuko da herria jaun eta jabe izango dela bertan, printzipio demokratikoak lege eta ohituretan sartu ondoren, gizarte-mailak nahastu egiten direnean, eta adimenak, aberastasunak bezalaxe, hurbildu egiten direnean, eta goi-klaseak, herentziazko aberastasunekin, bere boterea, tradizioak eta aisialdiak galtzen dituenean.

Herri demokratikoen berezko gustu eta joerak, literatur arloan, lehenik teatroan azalduko dira, eta bertan bortxaz sartuko direla aurreikus daiteke. Idazkietan, aristokraziaren lege literarioak pixkanaka aldatuko dira, mailaz maila eta, nolabait esateko, legezko eran. Teatroan, zalapartatsu irauliko dituzte.

Teatroak literatura demokratikoei dagozkien koalitate gehientzuenak eta ia bizio guztiak nabarmenarazten ditu.

Herri demokratikoek gutxi estimatzen dute erudizioa, eta ia ez dira arduratzen Erroman eta Atenasen gertatzen zenaz; beren buruez hitz egin diezaieten nahi dute, eta orainaren deskribapena da eskatzen dutena.

Horregatik, antzinako heroi eta ohiturak eszenatokian sarri antzezten direnean, eta antzinako tradizioekiko oso leial irauteko ardura dagoenean, aski da hori ondorioztatzeko klase demokratikoak ez direla oraindik teatroan nagusi.

Racine apaltasun handiz desenkusatzen da, *Britannicus*-en hitzaurrean, Junia bestalen sartu izanaz, non, Aulo Gelioren arabera, berak zera baitio: “ez zen inor onartzen ez sei urtez azpikorik, ez hamarrez gainekorik”. Gaur egun idatzi izan balu, ez zukeen pentsatu ere egingo horrelako krimen batez bere burua akusatu edo defendatzerik.

Horrelako egitate batek argitu egiten dit, ez bakarrik literaturaren egoera Racineren garaian, baita gizartearen beraren egoera ere. Teatro demokratikoak ez du frogatzen nazioa demokrazian dagoenik; zeren eta, oraintxe ikusi dugun bezala, aristokrazietan ere gerta baitaiteke gustu demokratikoek eszenatokian eragina izatea. Baina teatroan aristokraziaren izpiritua bakarrik bada nagusi, horrek argi eta garbi erakusten du gizarte osoa dela aristokratikoa, eta ausarki ondoriozta daiteke autoreen gidari den klase eruditu eta ikasi horrek berorrek gobernatzen dituela hiritarrak eta zuzentzen arazo publikoak.

Teatroa aristokraziak gobernatzen duenean, oso arraroa da beraren gustu errefinatuek eta handiusteko joerek ez bultzatzea, nolabait esateko, giza izaeran aukeraketa bat egitera. Gizarte-egoera jakin batzuk interesatzen zaizkio batez ere, eta atsegin du horien deskribapena eszenatokian aurkitzea. Iruditzen zaio bertute jakin batzuek, baita bizio jakin batzuek ere, bereziki merezi dutela antzeztuak izatea. Pozik onartzen du hauen errepresentazioa, beste guztiak bere aurretik urruntzen dituen bitartean. Teatroan, beste edonon bezalaxe, gizon handiak bakarrik aurkitu nahi ditu, eta erregeek bakarrik eragiten diote zirrara. Gauza bera estiloetan. Aristokraziak gauzak esateko modu jakin batzuk ezartzen dizkie autore dramatikoei, eta guztia tonu horretan esan dezaten nahi du.

Honela, teatroa gizakiaren alde bat bakarrik adieraztera iristen da sarri, edo batzuetan baita giza izaeran aurkitzen ez dena errepresentatzera ere. Izaera honen gainetik goratu egiten da eta irten.

Gizarte demokratikoetan, ikusleek ez dute horrelako preferentziarik, eta nekez agertzen dute antzerako ezinikusirik ere. Eszenatokian ere, aurrean ikusten dituzten egoera, sentimendu eta ideien nahasketa aurkitzea gustatzen zaie. Teatroa zirraragarriago, arruntago eta egiazkoago bilakatzen da.

Batzuetan, ordea, demokrazietan teatrorako idazten dutenak ere irten egiten dira giza izaeratik, baina beren aurrekoena ez bezalako bide batetik. Zehatz-mehatz antzeztu nahi dituztenez oraingo momentuko berezitasun txikiak eta pertsona jakin batzuen fisionomia partikularra, ahaztu egiten zaie espeziaren ezaugarri orokorrak trazatzea.

Teatroan klase demokratikoak nagusi direnean, gai tratatzeko eran adina askatasun sartzen dute gai horren aukeraketan bertan.

Gustu literario guztien artetik, teatroaren zaletasuna izanik herri demokratikoetan naturalena, autoreen eta ikusleen kopurua etengabe hazten da herri horietan, baita ikuskizunen kopurua ere. Horrelako jendetza batek, hain elementu ezberdinez osatua eta hainbeste leku ezberdinetan sakabanatua, ezin ditu erregela berberak onartu, ezta lege berberetara makurtu ere. Akordia ezinezkoa da hainbeste epaileren artean, eta, elkarrekin non topo egin ez dakitenez, bakoitzak bere aldetik ematen du epaia. Demokraziaren efektua, oro har, erregela eta konbentzio literarioak dudazko bihurtzea baldin bada, teatroan erabat deuseztatzen ditu, eta horien ordez autore bakoitzaren eta publiko bakoitzaren kapritxoak ezartzen ditu.

Halaber, teatroan ikusten da, batez ere, dagoeneko beste nonbait orokorki esan dudana literatura demokratikoetako estilo eta arteari buruz. Luis XIV.aren mendeko antzezlan dramatikoek sortarazten zituzten kritikak irakurtzen direnean, harrigarria gertatzen da publikoak egiantzarekiko zuen estima handia, eta zelako garrantzia ematen zion pertsonak –beti bere buruarekin bat etorriz- erraz esplikatu eta ulertzeko modukoa ez zen gauzarik ez egiteari. Harrigarria da, halaber, zenbat balio ematen zitzaien orduan hizkuntza formei eta nola sor zitezkeen, hitzak zirela eta, autore dramatikoen aurkako auzi literario txikiak.

Ematen du Luis XIV.aren mendeko jendeak oso balio exageratua ematen ziela xehetasun hauei, irakurgelan ohartzen direnak, baina ez eszenatokian. Zeren eta, azken finean, antzezlan baten helburu nagusia antzeztua izatea da, eta bere meritu nagusia hunkiaraztea. Garai hartako ikusleak aldi berean irakurle ere izateak eragiten zuen hau. Teatrotik irtetean, testu idatzia irakurtzen zuten etxean, azken epaia eman ahal izateko.

Demokrazietan entzun egiten dira antzezlanak, baina ez irakurri. Antzezjokoetara joaten diren gehientsuenek ez dituzte han izpirituko atseginak bilatzen, bihotzaren zirrara biziak baizik. Ez dute espero bertan literatur obrarik aurkitzea, ikuskizuna baizik, eta, ulertarazteko behar hainbat zuzen hitz egiten badu autoreak herrialdeko hizkuntza, eta haren pertsonaiek jakinmina eta sinpatia sortzen badituzte, ikusleak pozik. Fikzioari ezer gehiago eskatu gabe, berehala itzultzen dira mundu errealera. Estilo ez da, beraz, hain beharrezkoa, zeren eta, eszenatokian, ez baita hain garbi ohartzen erregelak betetzen diren ala ez.

Egiantzari dagokionez, ezinezkoa gertatzen da sarri gauza berriak, ezustekoak eta bizkortasuna eskaintzea, egiantzik galdu gabe gainera. Hau bazter uztea, ikus-entzuleak barkatu egiten du. Pentsa daiteke ez dela kezkatuko zein bidetatik eramaten duzuen, azkenean hunkituko duen zerbaiten aurrera eramaten baduzue. Sekula ez dizue aurpegiratuko erregelak hautsiz hunkiarazi duzuela.

Azaldu berri ditudan joera ezberdinak amerikarrek argi eta garbi erakusten dituzte teatrora doazenean. Baina onartu beharra dago haien arteko kopuru txikia joaten dela oraindik. Nahiz eta Estatu Batuetan ikusleak eta ikuskizunak ikaragarri hazi diren azken berrogei urteotan, oraindik oso uzkur agertzen da jendea entretenimendu-mota horretarako.

Honek bere kausa bereziak ditu, dagoeneko irakurleak ezagutzen dituenak, eta aski da bi hitzetan gogoraraztea.

Puritanoak, errepublika amerikarrak sortu zituztenak, ez ziren bakarrik plazerren etsai; gainera, bereziki izutzen zituen teatroak. Denborapasa higuingarritzat jotzen zuten, eta, haien izpiritua jaun eta jabe izan den bitartean, antzezpenak erabat ezezagunak izan dira haien artean. Koloniako lehen gurasoen ideia hauek arrasto sakonak utzi dituzte ondorengoen izpirituan.

Bestalde, Estatu Batuetan ikusten diren aztura-erregulartasun izugarria eta ohitura-zurruntasun handia orain arte ez dira oso mesedegarriak izan teatro-artearen garapenerako.

Ez dauka dramak egiteko gairik katastrofe politiko handirik bizi izan ez duen herri batek, eta bertan maitasunak bide zuzen eta errazetik beti ezkontzara eramaten badu. Asteko egun guztiak dirua metatzen eta igandea Jainkoari otoitz egiten ematen duen jendea ez da egokiena musa komikoarentzat.

Egitate bakar bat aski da erakusteko teatroa ez dela oso herrikoia Estatu Batuetan.

Amerikarrek, zeinen legeek adierazpen-askatasun eta lizentzia osoa onartzen duten gauza guztietan, hala ere, nolabaiteko zentsurapean jarri dituzte autore dramatikoak. Udalerriko administratzaileek baimendutakoan bakarrik egin daitezke antzezpenak. Honek garbi erakusten du gizabanakoak bezalakoak direla herriak. Erreparorik gabe ematen dute beren burua grina nagusietara, baina kontu handia izaten dute ezagutzen ez dituzten gustuetara gehiegi ez lerratzeko.

Ez dago literatur zatirik lokarri estuago eta ugariagoen bidez gizartearen egungo egoerari lotzen zaionik teatroa baino.
Garai bateko teatroa ez da inoiz hurrengo garairako egokia izango, bien artean garrantzizko iraultza batek ohiturak eta legeak aldatu baldin baditu.

Oraindik ere aztertu egiten dira beste mende bateko idazle handiak. Baina inor ez da joaten beste publiko batentzat idatzitako antzezlanetara. Iraganeko autore dramatikoak liburuetan bakarrik bizi dira.

Pertsona batzuen gustu tradizionalak, harropuzkeriak, modak eta aktore baten jeinuak aldi batez eutsi edo berreskuratu egin dezakete teatro aristokratikoa demokraziaren baitan; baina bere kabuz erortzen da laster. Ez da botatzen; bertan behera uzten da.

XX

Demokrazi mendeetako historialarien joera berezi batzuk

Aristokrazi mendeetan idazten duten historialariek, normalean, pertsona jakin batzuen borondate partikular eta umorearen menpe jartzen dituzte gertakari guztiak, eta gora-beherarik txikienei iraultzarik garrantzizkoenak egozten dizkiete. Zolitasunez azpimarratzen dituzte kausarik txikienak, eta sarri ez dira handienez ohartzen.

Demokrazi mendeetan bizi diren historialariek guztiz kontrako joerak agertzen dituzte.

Gehienek ez diote gizabanakoari ia inolako eraginik egozten espeziearen destinoan, ezta hiritarrei ere herriaren zorian. Baina, aldiz, kausa orokor handiak bilatzen dizkiete egitate partikular txiki guztiei. Kontrako joera hauek badute esplikazioa.

Aristokrazi mendeetako historialariek begiratu bat egiten diotenean munduko teatroari, lehenik aktore nagusien kopuru txiki-txiki bat ikusten dute, obra osoa zuzentzen dutenak. Pertsonaia handi hauek, eszenatokiaren aurreko aldean daudelarik, historialarien begirada erakarri eta beregan finkatzen dute. Pertsonaia horiei jokarazi eta hitz eragiten dieten ezkutuko zioak aurkitzen diharduten bitartean, ahaztu egiten dute gainerakoa.

Pertsona batzuek egiten dituzten gauzen garrantziak pertsona batek zertu dezakeen eraginaren ideia exageratua ematen die, eta jendetzaren mugimenduak esplikatzeko beti gizabanakoren baten ekintza partikularrera jo beharra dagoela sinestarazten die berez.

Aitzitik, hiritar guztiak independenteak direnean batzuk besteengandik, eta bakoitza ahula denean, masarengan ez da aurkitzen inor oso botere handia, eta are gutxiago iraunkorra, zertzen duenik. Lehen begiratuan gizabanakoek zeharo indargabeak, ematen dute masaren aurrean, eta esan liteke gizartea bere kabuz dabilela, osatzen duten gizaki guztien eskuartze aske eta espontaneoz.

Honek, jakina, hainbeste adimen batera astindu eta aldi berean alde bererantz bideratzea posible egin duen arrazoi orokorra ikertzera eramaten du giza izpiritua.

Oso konbentziturik nago, nazio demokratikotan beretan ere, zenbait pertsonaren jeinuak, bizioek edo bertuteek atzeratu edo aurreratu egiten dutela herriaren destinoaren berezko martxa; baina ausazko eta bigarren mailako kausa hauek askoz ere bariatuagoak, ezkutuagoak, konplikatuagoak, ahulagoak, eta ondorioz bereizteko eta jarraitzeko zailagoak dira berdintasun-garaietan aristokrazi mendeetan baino, azken hauetan, egiten den gauza bakarra, egitate orokorren artean, pertsona bakar baten edo batzuen ekintza partikularra analizatzea baita.

Historialaria laster nekatzen da horrelako lanarekin; haren izpiritua galdu egiten da labirinto horren erdian, eta, eragin indibidualak garbi bereiztera eta behar hainbat argitzera iritsi ezin denez, ukatu egiten ditu. Nahiago izaten du arrazen ezaugarriez, herrialdearen eraketa fisikoaz edo zibilizazioaren izpirituaz hitz egin. Horrek laburtu egiten dio lana eta, neke gutxiagoz, hobeto asetzen du irakurlea.

M. de Lafayettek nonbait esana du bere Oroitzapenetan kausa orokorren sistema exageratuak kontsolamendu miragarriak ematen zizkiela pertsona publiko kaskarrei. Nik erantsiko dut historialari kaskarrei eta kontsolamendu miresgarriak ematen dizkiela. Arrazoi bikainak ematen dizkie bere liburuko pasarterik zailenean korapilotik aise irteteko, eta izpirituaren ahulezia edo nagikeriarako bide ematen die beren sakontasunari ohore eginez betiere.
Niri dagokidanez, uste dut ez dagoela garairik non mundu honetako gertakarien parte bat ez zaien egitate oso orokorrei egotzi behar, eta beste zati eragin oso partikularrei. Bi kausa hauek beti topo egiten dute elkarrekin; erlazioa bakarrik aldatzen da. Egitate orokorrek gauza gehiago esplikatzen dute demokrazi mendeetan aristokrazi mendeetan baino, eta eragin partikularrak gutxiago. Aristokrazi garaietan, alderantziz; eragin partikularrak indartsuagoak dira, eta kausa orokorrak ahulagoak, ez bada behintzat kausa orokortzat hartzen baldintza-ezberdintasuna bera, honek pertsona batzuei aukera ematen dielarik beste guztien berezko joerei aurka egiteko.

Gizarte demokratikoetan gertatzen dena azaldu nahi duten historialariek arrazoi dute, beraz, zati handi bat kausa orokorrei egozterakoan, eta batez ere horiek aurkitzen saiatzerakoan; baina oker dabiltza gizabanakoen ekintza partikularra erabat ukatzerakoan, zaila omen delako aurkitu eta jarraitzea.

Demokrazi mendeetan bizi diren historialariak, egitate bakoitzari kausa handi bat bilatu ez ezik, egitateak beren artean lotu eta hortik sistema bat atera beharrean ere aurkitzen dira.

Aristokrazi mendeetan, historialarien arreta uneoro gizabanakoengana zuzendua dagoenez, ez dira ohartzen gertakarien kateamenduaz, edota, hobeto esanda, ez dute sinesten horrelako kateamenduan. Historiaren bilbe edo trama pertsona baten presentziak apurtu egiten duela iruditzen zaie une oro.

Demokrazi mendeetan, ordea, aktoreak askoz gutxiago eta ekintzak askoz gehiago ikustean, historialariak erraz ezar dezake hauen artean segida eta ordena metodiko bat.

Antzinako literaturak, hain istorio ederrak utzi dizkiguna, ez digu sistema historiko handi bakar bat ere eskaintzen, literatura moderno ziztrinenek ere ugari dituzten bitartean. Badirudi antzinako historialariek ez zituztela aski erabiltzen teoria orokor horiek, gure artekoak beti prest daudelarik berorietaz abusatzeko.

Demokrazi mendeetan idazten dutenek beste joera bat dute, are arriskutsuagoa.

Gizabanakoek nazioetan zerturiko ekintzaren arrastoa galtzen denean, sarri gertatzen da mundua mugitzen ikusten dela, baina motorea aurkitu gabe. Hiritar bakoitzaren borondatean aparte jardunez azkenean herriaren mugimendua eragiten duten arrazoiak hauteman eta aztertzea oso zail gertatzen denez, tentazioa egoten da sinesteko mugimendu hau ez dela borondatezkoa, eta gizarteek, menpean dauzkan indar handiago bati obeditzen diotela, ohartu gabe.

Gizabanako guztien borondate partikularra gidatzen duen kausa orokorra munduan aurkitu behar bada ere, honek ez du giza askatasuna ziurtatzen. Aldi berean milioika pertsonari aplikatu ahal izateko behar hainbat kausa zabalak, eta guztiak batera alde bererantz makurrarazteko behar hainbat indartsua denak, jarkiezina ematen du erraz; berari amore ematen zaiola ikusi ondoren, normala da sinestea ez dagoela hari aurre egiterik.

Demokrazi garaietan bizi diren historialariek, herriaren destinoaren gain eragiteko ahalmena hiritarren batzuei ukatu ez ezik, herriei berei ere kentzen diete beren zoria aldatzeko ahalmena, eta probidentzia zurrun edo fatalitate itsuren baten menpe jartzen dituzte. Historialari horien arabera, nazio bakoitza estu-

estu lotua dago bere posizio, jatorri, aurrekari eta izaeragatik destino jakin bati, eta ahalegin guztiek ezingo lukete hori aldatu. Belaunaldien arteko elkartasuna sortzen dute eta, honela, aroz aro eta erabakigarriak izan diren gertakariz gertakari munduaren jatorriraino iristean, gizadi osoa biltzen eta lotzen duen katea estu eta neurtezina egiten dute.

Ez zaie aski egitateak nola gertatu diren erakustea; atsegin dute ikusaraztea ezin zitezkeela beste era batera gertatu. Bere historian puntu jakin bateraino iritsi den nazio bat aztertzen dute, eta horraino ekarri duen bideari derrigorrez jarraitu behar izan diola baieztatzen dute. Hori errazagoa da, bide hobea nola har ote zezakeen erakusten baino.

Aristokrazi garaietako, eta batez ere antzinateko, historialariek idatzia irakurtzean, ematen du gizakiak, bere zoriaren jabe bihurtu eta bere hurkoak gobernatzeko, bere burua dominatzen baino ez duela jakin behar. Gure garaiotan idatzitako historiak aztertzean, berriz, esan liteke gizakiak ezin duela ezer egin, ez bere gain, ez bere inguruan. Antzinateko historialariek agintzen irakasten zuten, gaur egunekoek ia obeditzen bakarrik irakasten dute. Beren idazkietan, autoreak handia ematen du sarri, baina gizadia txikia da beti.

Fatalitatearen doktrina hau, demokrazi garaietan historia idazten dutenentzat hain erakargarria dena, idazleengandik irakurleengana igarotzean, hiritarren masa osoan sartuko balitz, pentsa daiteke laster geldiaraziko lukeela gizarte berrien mugimendua eta kristauak turkiar bihurtuko lituzkeela.

Gauden garaian horrelako doktrina bereziki arriskutsua dela gaineratuko dut; gure garaikideek gehiegizko joera dute aukeramena zalantzan jartzeko, bakoitza alde guztietatik mugatua sentitzen baita bere ahuleziagatik, baina oraindik gogotsu aitortzen diete indarra eta independentzia gizarte-gorputzean elkarturiko gizakiei. Ez da ilundu behar ideia hau, arimak animatzea baita kontua eta ez erabat lur joaraztea.

XXI

Elokuentzia parlamentarioa Estatu Batuetan

Herri aristokratikoetan, jende guztia dago harremanetan eta batzuk besteen menpe; guztien artean lotura hierarkiko bat dago, honen bidez bakoitzari bere lekuan eta gorputz osoari obedientzian eusten zaiolarik. Antzerako zerbait aurkitzen da beti herri horietako batzar politikoen baitan. Alderdiak zerbait aurkitzen da beti herri horietako batzar politikoen baitan. Alderdiak buruzagi batzuen menpe jartzen dira berez, eta hauek esandakoa egiten dute, beste nonbait harturiko azturen ondorio den joeragatik. Gizarte handiko ohiturak txikira aldatzen dituzte.

Herrialde demokratikoetan, sarri gertatzen da hiritar-kopuru handi bat puntu bererantz bideratzen dela; baina bakoitza bere kabuz joaten da, edo behintzat horretaz harrotzen da. Bere mugimenduak bere bulkada pertsonalen arabera bakarrik arautzen ohitua, nekez makurtzen da arauak kanpotik hartzera. Independentziaren gustu eta erabilera hori nazio-kontseiluetara ere eramaten du. Proiektu bera gauzatzeko beste batzuekin elkartzea onartzen badu ere, arrakasta komunean bere erara esku hartzeko gai izaten jarraitu nahi du gutxienez.

Hortik dator, herrialde demokratikoetan, alderdiek nekez jasatea inork zuzen ditzan, eta ez dira inoren menpe jartzen arriskua oso handia denean izan ezik. Hala ere, buruzagien aginpidea, zirkunstantzia hauetan haien ekintza eta hitzetaraino irits daitekeena, ia sekula ez da iristen isilarazi ahal izateraino.

Herri aristokratikoetan, batzar politikoetako kideak aristokraziako kide izaten dira aldi berean. Bakoitzak du berez goi-maila egonkor bat, eta batzarrean duen postua bere ikuspegitik garrantzi gutxiagokoa da sarri, herrialdean daukana baino. Horrek kontsolatzen du arazo publikoen eztabaidan inolako paperik ez izatetik, eta paper kaskar baten bila irrika gehiegiz ez ibiltzera bultzatzen du.

Amerikan, normalean diputatua batzarrean daukan posizioa bera besterik ez da. Hortaz, etengabeko egonezina sortzen dio garrantzia lortu beharrak, eta une oroz bere ideiak agertzeko desira harroputza sentitzen du.

Horretara bultzatzen du, ez bakarrik bere harrotasunak, baita bere hautesleenak ere, eta hauei etengabe atsegin eman beharrak.

Herri aristokratikoetan, legebiltzarreko kidea nekez egoten da hautesleen oso menpe; sarritan, nolabait ere beharrezko ordezkari izaten da haientzat; batzuetan, honek haiek edukitzen ditu bere menpe-menpean, eta azkenean haiek botoa ukatzen badiote, erraz lortzen du beste nonbait izendatua izatea; edota, karrera publikoari uko eginez, oraindik distira den aisialdian murgiltzen da.

Estatu Batuak bezalako herri demokratiko batean, diputatuak ez du ia inoiz iraunkortasun-sentipenik sortzen hautesleen izpirituan. Hautesleria oso txikia izan arren, egonkaiztasun demokratikoak itxuraz aldarazten du etengabe. Egunero liluratu behar du, beraz. Inoiz ez dago haietaz ziur; eta, bertan behera uzten badute, berehala izaten da baliabiderik gabe; zeren eta, ez baitu berez aski maila alturik, berarengandik hurbil ez daudenek ere erraz ezagut dezaten; eta, hiritarrak independentzia osoan bizi direlarik, ezin du espero izan adiskideek edo gobernuak erraz lortuko dutenik bera ezagutu ere egiten ez duen hautesleria bati ezartzea. Hortaz, berak ordezkatzen duen kantonamenduan daude jarrita haren zoriaren hazi guztiak; lur-bazter horretatik irten behar du herriari agintzera eta munduaren destinoetan eragitera igotzeko.

Horrela, normala da, herrialde demokratikoetan, batzar politikoetako kideek beren hautesleengan gehiago pentsatzea alderdiarengan baino; aristokrazietan, ordea, beren alderdiaz gehiago arduratzen dira hautesleez baino.

Nolanahi ere, hautesleei atsegin emateko esan beharrekoa beti ez dator bat, daukaten iritzi politikoa ongi zerbitzatzeko egitea komeniko litzatekeenarekin.

Sarritan, alderdi baten interes orokorra zera izaten da: bere kide den diputatuak ez dezala inoiz hitz egin gaizki ulertzen dituen arazo handiez; gutxi hitz egin dezala arazo txikiez, hauek handien martxa eragozten dutenean, eta gehienetan isil dadila erabat. Isilik egotea da hizlari kaskar batek gauza publikoari egin diezaiokeen zerbitzurik onuragarriena.

Baina hautesleek ez dute horrela ulertzen.

Kantonamenduko bizilagunek hiritar bati ematen diote Estatuko gobernuan esku hartzeko ardura, pertsona horren merituaren iritzi bikaina dutelako. Pertsonek, gauza txikiagoz inguraturik dauden neurrian, handiagoak ematen dutenez, pentsatzekoa da, agintariak ordezkatzen dituenen artean zenbat eta txikiagoak izan talentuak, orduan eta hobea izango dela berari buruzko iritzia. Hortaz, sarri gertatuko da hautesleek zenbat eta gutxiago espero beharko luketen, orduan eta gehiago espero izatea beren diputatuarengandik, eta, hau oso ezgai izanda ere, beroni eman dioten mailaren araberako ahalegin bereziak eskatzea etengabe.

Estatuko legegileaz aparte, kantonamenduak legebiltzarrean duen babesle naturala ikusten dute hautesleek beren ordezkariarengan; eta ia-ia, aukeratu dutenetako bakoitzaren ahalduntzat ere hartzen dute, eta harro daude ez duelako hotzago jokatuko beraien interes partikularrak defendatzen herrialdearen interesak defendatzea baino.

Honela, hautesleak ziur daude aurrez beraiek aukeratuko duten diputatua hizlari trebe izango dela; ahal badu sarri hitz egingo duela, eta, mugatu beharra izaten badu, gutxienez saiatuko dela hitzaldi bakan horietan Estatuko arazo handi guztien azterketa egiten, beraiek dauzkaten kexa txiki guztien azalpenarekin batera; honela, ezingo duelarik sarri bere burua agertu, zer egiten dakien erakutsiko du aukera bakoitzean, eta, etengabe luzatu ordez, noizean behin oso-osorik kontzentratuko du esan beharrekoa bilduma txiki batean, honela bere ordezkatuen eta bere buruaren laburpen distiratsu eta betea eskainiz. Trukea, hautesleek hurrengo botoak agintzen dizkiote.

Honek etsipenera bultzatzen ditu pertsona zintzo baina talentu kaskarrekoak, beren burua ezagutzen dutelako, berez aurrera egingo ez luketenak. Diputatuak, honela xaxatua, hitza hartzen du adiskideen atsekabe handiz, eta, hizlaririk ospetsuenen artean zuhurtzia gutxiz jokatuz, debatea nahaspilatzen eta batzarra nekarazten du.

Aukeratua hauteslearen menpekoago bihurtzen duten lege guztiek ez dute legegileen portaera bakarrik aldatzen, beste nonbait adierazi dudan bezala, baita horien hizkera ere. Arazo publikoetan eta hitz egiteko eren eragiten dute aldi berean.

Nolabait esateko, ez dago Kongresuan kiderik etxera itzuliko denik aurrez hitzaldi bat gutxienez egin gabe, ezta ere etenaldirik jasango duenik Batasuna osatzen duten hogeita lau estatuei, eta batez ere berak ordezkatzen duen barrutiari, onuraz esan dakiekeen guztia bere hitzaldi sutsuaren mugetan sartu gabe. Beraz, entzuleen izpirituaren aurrean egia orokor handiak pasarazten ditu, sarri berak ere ulertzen ez eta nahasgarriro adierazten dituenak, edo ongi ezagutu beharko lituzkeen xehetasun txikiak, hauek aurkitzeko eta azaltzeko erraztasun handiegirik ez badu ere. Horregatik sarri gertatzen da gorputz handi honen baitan zehaztugabe eta gogaikarri bihurtzen dela eztabaida, lortu nahi den helbururantz normal joan ordez, arrastaka joango balitz bezala.

Demokrazietako batzar publikoetan beti antzerako zerbait ikusiko dela iruditzen zait.

Zirkunstantzia zoriontsuek eta lege onek lor lezakete herri demokratiko baten legebiltzarrera amerikarrek Kongresura bidaltzen dituztenak baino askoz pertsona bikainagoak erakartzea; baina sekula ez dute eragotziko bertan dauden gaitasun gutxikoek beren burua gogotsu erakustea gai guztietan.

Gaitza ez zait iruditzen erabat sendagarria, ez baitago batzarreko araudiarekin bakarrik lotuta, baita beraren eraketarekin eta herrialdearenarekin ere.

Estatu Batuetako jendeak berak ere badirudi ikuspegi honetatik ikusten duela gauza, eta bizitza parlamentario luzea izan dutela erakusten dute, ez hitzaldi txarrik egiten ez dutelako, horrelakoak entzutea adoretsu onartzen dutelako baizik. Etsipenez hartzen dute, ekidinezina den gaitza dela esperientziak erakutsi izan balie bezala.

Orain arte, eztabaida politikoek demokrazietan duten bazter txikia erakutsi dugu; orain ikusaraz dezagun alde bikaina.

Azken ehun eta berrogeita hamar urteotan Ingalaterrako parlamentuan gertatu denak sekula ez du oihartzun handirik izan kanpoan; hizlariek adierazitako ideia eta sentimenduek sinpatia gutxi aurkitu izan dute beti britainiar askatasunaren teatro handitik hurbilen zeuden herrietan beretan ere; aitzitik, Iraultza garaian Amerikako batzar kolonial txikietan eman ziren lehenengo debateek astindu egin zuten Europa.

Hori ez zuten zirkunstantzia partikular eta ausazkoek bakarrik eragin, baita kausa orokor eta iraunkorrek ere.

Nik ez dakusat ezer miresgarri eta ahaltsuagorik hizlari handi bat arazo handiei buruz batzar demokratiko batean hitz egiten baino. Han sekula ez dagoenez klaserik bere interesak defenditzeko ardurarekin bere ordezkariak dituenik, nazio osoari, eta nazio osoaren izenean, hitz egiten zaio beti. Honek bikaindu egiten du pentsamendua eta jite jasoa ematen hizkerari.

Han aurrekariek aginte gutxi dutenez, eta jada ez dagoenez ondasun jakin batzuei loturiko pribilegiorik, ezta gorputz edo pertsona jakin batzuei atxikiriko eskubiderik ere, izpiritua behartuta egoten da giza izaeratik ateratako egia orokorretaraino igotzera, mintzagai duen arazo partikularra aztertzeko. Horregatik izaten dute herri demokratikoetako eztabaida politikoek, oso txikia izan arren herri hori, orokortasun-izaera, gizadiarentzat erakargarri bihurtzen dituena sarri. Jende guztiak du interesa horietan, gizakia dutelako aztergai, eta gizakia berdina delako alde guztietan.

Herri aristokratiko handietan, aitzitik, arazorik orokorrenak garai bateko usadioetatik edo klase baten eskubideetatik ateratako arrazoi partikularren batzuetan oinarrituz tratatzen dira ia beti; eta hori, hain zuzen, klase horri bakarrik interesatzen zaio, edota gehienez ere klase hori bere baitan daukan herriari.

Nazio frantsesaren handitasunari eta entzuten duten herrien aldeko jarrera onari beste, kausa horri egotzi behar zaio gure eztabaida politikoek batzuetan munduan izaten duten eragin handia.

Gure hizlariek gizaki guztiei hitz egiten diete sarri, nahiz eta beren herrikideei bakarrik zuzendu.

BIGARREN ZATIA
Demokraziaren eragina amerikarren sentimenduetan

I
Zergatik azaltzen duten herri demokratikoek maitasun sutsu eta iraunkorragoa berdintasunarekiko askatasunarekiko baino

Baldintza-berdintasunak sortarazten duen lehenengo grina eta biziena, ez dago esan beharrik, berdintasun berorrekiko maitasuna da. Ez da harritzekoa, beraz, nik horretaz hitz egitea beste guztiez baino lehen.

Mundu guztiak ohartarazi du, gure garaiotan, eta batez ere Frantzian, berdintasunaren grina honek egunetik egunera leku handiagoa hartzen duela giza bihotzean. Hamaika aldiz esan da gure garaikideek maitasun askoz sutsuago eta setatiagoa dutela berdintasunarekiko askatasunarekiko baino; hala ere, ez zait iruditzen oraindik inork behar hainbat aztertu dituenik egitate horren kausak. Horretan saiatuko naiz ni.

Imajina daiteke muturreko puntu bat, non askatasunak eta berdintasunak elkar ukitu eta bat egiten duten.

Demagun hiritar guztiek parte hartzen dutela gobernuan eta guztiek eskubide berdina dutela partehartze horretarako.

Orduan, inor ez delarik bere hurkoekiko ezberdin, inork ezingo du aginte tiranikorik zertu; jendea erabat aske izango da, guztiak berdin-berdinak direlako; eta guztiak berdin-berdinak izango dira, erabat aske direlako. Ideal honetarantz jotzen dute herri demokratikoek.

Horra hor berdintasunak munduan har dezakeen formarik beteena; baina badira beste asko, hain osabeteak izan gabe ere, aipaturikoa bezain gogoko dituztenak herri horiek.

Gerta liteke berdintasuna gizarte zibilean ezartzea, eta politika-arloan nagusi ez izatea. Eduki daiteke plazer berberetara dedikatzeko eskubidea, lanbide berberetan sartzekoa, leku berberetan elkartzekoa; labur esanda, eduki daiteke ere berean bizi eta aberastasuna baliabide berberez lortu nahi izateko eskubidea, guztiek parte berbera izan gabe gobernuan.

Politika-arloan ere ezar daiteke nolabaiteko askatasuna, bertan ez egon arren askatasun politikorik. Bakoitza bere herrikide guztien berdina da, batena izan ezik; hau guztien nagusi da, bereizketarik gabe, eta era berean, guztien artetik, bere boterearen agenteak aukeratzen ditu.

Erraza litzateke beste hainbat hipotesi egitea, horien arabera erraz konbinatu ahal izango litzatekeelarik berdintasun oso handia askatasun gehixeago edo gutxixeago erakundeekin, edo baita batere askatasunik gabekoekin ere.

Nahiz eta jendea ezin den iritsi erabat berdin izatera guztiz aske izan gabe, eta ondorioz berdintasuna, bere azken-azken mailan, askatasunarekin batu egiten den arren, beharrezkoa da bata eta bestea bereiztea.

Jendeak askatasunarekiko duen gustua eta berdintasunarekiko sentitzen duena bi gauza bereizgarri dira, egia esateko; eta gainera esango nuke, herri demokratikoetan, bi gauza ezberdin direla.

Arretaz aztertzen bada, mende bakoitzean egitate berezi eta nagusi bat aurkitzen dela ikusiko da, horri lotzen zaizkiolarik besteak; egitate horrek pentsaera nagusi bat, edo grina printzipal bat, sortarazten du ia beti, gero beregana erakartzen eta bere bidean arrastaka eramaten dituelarik sentimendu eta ideia guztiak. Ibai handia bezala da, eta inguruko erreka guztiak bertarantz doazela ematen du.

Askatasuna garai ezberdinetan eta forma ezberdinekin agertu izan zaio jendeari; ez zaio lotu gizarte-egoera bakar bati soilik, eta demokrazietatik kanpo ere aurkitzen da. Ezin da, beraz, demokrazi mendeen ezaugarri izan.

Mende horiek bereizten dituen egitate partikular eta nagusia baldintza-berdintasuna da; garai horietan jendea mugiarazten duen grina nagusia berdintasun horren maitasuna da.

Ez galdetu zer xarma berezi aurkitzen dion demokrazi garaietako jendeak berdintasunean bizitzeari, ezta ere zer arrazoi berezi ote duen gizarteak aurkezten dizkion beste ondasunei baino lehen berdintasunari hain temati atxikitzeko. Berdintasuna da beraiek bizi diren garaiko ezaugarria; hori bakarrik ere aski da esplikatzeko beste guztia baino nahiago izatea haiek.

Baina arrazoi honetaz gain, badira beste batzuk, edozein garaitan jendea bultzatuko dutenak askatasuna baino berdintasuna nahiago izatera normalean.

Herri batek inoiz lortu ahal izango balu bere baitan nagusi den berdintasuna suntsitu edo murriztea, ahalegin luze eta neketsuen bidez bakarrik egingo luke hori. Bere gizarte-egoera aldatu beharko luke, legeak abolitu, ideiak berritu, azturak aldatu eta ohiturak mudatu. Baina askatasun politikoa galtzeko, aski zaio ez eustea, eta ihes egingo dio.

Jendea ez zaio berdintasunari atxikitzen maite duelako bakarrik; baita betiko iraun behar duela uste duelako ere.

Askatasun politikoak bere gehiegikerietan partikularren lasaitasuna, ondarea eta bizia konprometi ditzakeela, ez dago pertsonarik horretaz ez ohartzeko bezain mugatu eta kaskarinik. Aitzitik, pertsona arretatsu eta buruargiek bakarrik hautematen dituzte berdintasunaren mehatxu-arriskuak, eta normalean ekidin egiten dute seinalatzea. Badakite beraiei beldurra ematen dieten ezbeharrak –oraingo belaunaldia apenas kezkatzen duten horiek- urruti daudela, eta etorkizuneko belaunaldiek bakarrik jasango dituztelakoan daude. Askatasunak ekartzen dituen gaitzak berehalakoak izaten dira batzuetan; guztiek ikus ditzakete eta, gutxi-asko, guztiek sentitzen dituzte. Erabateko berdintasunak eragin ditzakeen gaitzak pixkanaka baino ez dira agertzen, poliki-poliki iradokitzen dira gizarte-gorputzean; noizean behin baino ez dira ikusten, eta, gogorren izatera iristen diren momentuan, jada ez dira azturagatik sentitzen.

Askatasunak ematen dituen ongiak luzarora bakarrik agertzen dira, eta ez da beti erraza gertatzen zein kausak sortarazten dituen jakitea.

Berdintasunaren abantailak berehala sentiarazten dira, eta egunez egun beren sorburutik irteten ikusten dira.

Askatasun politikoak, lantzean behin, plazerik bikainenak ematen dizkio hiritarren kopuru jakin bati.

Berdintasunak gozamen txiki ugari ematen dizkio egunero pertsona bakoitzari. Berdintasunaren xarmak une oro sentitzen dira, eta irispidean daude, bihotzik bikainenak ez dira horiekiko axolagabeak, eta arimarik arruntenek ere bere atsegin bihurtzen dituzte. Berdintasunak sortarazten duen grinak, beraz, kementsua eta orokorra izan behar du aldi berean.

Jendeak ezin du askatasun politikoaz gozatu sakrifizioren batzuen bidez lortu gabe, eta sekula ez dira berorren jabe egiten ahalegin handirik gabe. Baina berdintasunak ematen dituen atseginak berez eskaintzen dira. Bizitza pribatuko gora-behera txiki bakoitzak sortarazten dituela ematen du, eta, horietaz gozatzeko, bizi baino ez da egin behar.

Herri demokratikoak garai guztietan maite izaten dute berdintasunak, baina aro batzuetan eldarnioraino eramaten dute berarekiko grina. Hau gertatzen da antzinako gizarte-hierarkia, luzaroan mehatxatua, azken barne-borrokaren ondoren suntsitu egiten denean, eta hiritarrak banatzen zituzten hesiak azkenean eraisten direnean. Orduan, jendea berdintasunaren gain oldartzen da konkista baten gain bezala, eta kendu nahi zaien ondasun preziatu bati bezala atxikitzen zaizkio berari. Berdintasunaren grina alde guztietatik sartzen da giza bihotzean, bertan hedatu eta oso-osorik betetzen du. Ez iezaiezue esan gizakiei, hain itsuki grina esklusibo bati beren buruak ematean, beren interesik kutunenak konprometitzen ari direla; gortuta daude. Ez iezaiezue erakuts beste aldera begira dauden bitartean eskuetatik ihes egiten dien askatasuna; itsu daude, edo hobeto esanda, unibertso osoan ez dute ikusten inbidiagarri izan daitekeen ondasun bakarra baino.

Esan dudana nazio demokratiko guztiei aplikatzen zaie. Ondorengoa guri bakarrik dagokigu.

Nazio moderno gehienetan, eta Europako kontinenteko herri guztietan bereziki, faktore baldintzatzaileak berdintzen hasi zirenean, berdintasun horren berorren ondorioz bakarrik hasi ziren sortzen eta garatzen askatasunaren gustua eta ideia. Errege absolutuak izan ziren lan handiena egin zutenak menpekoen artean gizarte-mailak berdintzeko. Herri horietan, berdintasuna askatasunaren aurretik ibili da; berdintasuna antzinako gauza zen, askatasunaren aurretik ibili da; berdintasuna antzinako gauza zen, askatasuna, gauza berria; batak sortuak zituen bere iritziak, usadioak, legeak, eta bestea, berriz, bakarrik irteten zen eta lehen aldiz egun-argitara. Honela, askatasuna ideietan eta gustuetan bakarrik zegoen artean, eta berdintasuna, berriz, sartua zen azturetan, jabetua zen ohiturez eta emana zien halako ukitu berezi bat bizitzako ekintzarik txikienei ere. Nola harritu gaur egungo jendeak bata nahiago izatea bestea baino?

Uste dut herri demokratikoek askatasunaren berezko gustua dutela; beren kasa utziak, bilatu eta maitatu egiten dute, eta saminez hartzen dute berorretatik banatzea. Baina berdintasunarekiko grina sutsu, aseezin, betiko eta garaiezina dute; berdintasuna askatasunean nahi dute eta, ezin badute lortu, esklabutzan ere nahi izatea dute. Pobrezia, joputza, barbarotasuna jasango dituzte, baina ez dute aristokrazia jasango.

Hau garai guztietan da egia, eta batez ere gurean. Indar jarkiezin honen aurka borrokatu nahi duten gizaki eta botere guztiak irauli eta suntsitu egingo ditu horrek. Gaur egunean, askatasuna ezin da ezarri horren laguntzarik gabe, eta despotismoa bera ere ezingo litzateke nagusitu hori gabe.

II

Indibidualismoa herrialde demokratikoetan

Erakutsi dut nola, berdintasun-mendeetan, pertsona bakoitzak bere baitan aurkitzen zituen bere sineskizunak; orain erakutsi nahi dut nola, horrelako mendeetan, beregana bakarrik bideratzen dituen sentimendu guztiak.

Indibidualismoa adierazpide berria da, ideia berri batek sortarazia. Gure arbasoek berekoikeria bakarrik ezagutzen zuten.

Berekoikeria norbereganako maitasun grinatsu eta exageratua da, den-dena nork bere buruari lotzera eta gizakia oroz gain bere burua nahi izatera eramaten duena.

Indibidualismoa sentimendu hausnartu eta baketsua da, hiritar bakoitza bere hurkoen artetik isolatzera eta bere familia eta adiskideekin aparte egotera bultzatzen duena; horrela, bere erabilerarako gizarte txiki bat sortu ondoren, gogotsu uzten du gizarte handia bere kasa.

Berekoikeria joera itsu batetik sortzen da; indibidualismoa, iritzi oker batetik gehiago sentimendu gaizto batetik baino. Izpirituaren akatsetan nahiz bihotzaren bizioetan dauka sorburua.

Berekoikeriak bertute guztien hazia ihartzen du. Indibidualismoak hasieran bertute publikoen sorburua bakarrik lehortzen du; baina, luzarora, beste guztiei ere eraso egin eta suntsitu egiten ditu eta azkenean berekoikerian murgiltzen da.

Berekoikeria mundua bezain bizio zaharra da. Ez dagokio gizarte-mota bati beste bati baino areago.

Indibidualismoak jatorri demokratikoa du, eta garatzeko arriskua du baldintzak berdindu ahala.

Herri aristokratikoetan, familiek egoera berean jarraitzen dute mendez mende, eta sarri leku berean. Horrek, nolabait esateko, garaikide bihurtzen ditu belaunaldi guztiak. Pertsona batek ia beti ezagutzen ditu bere arbasoak eta errespetatu egiten ditu; jada birlobak ere sumatzen ditu, eta maitatu egiten. Gogotsu ezartzen dizkio bere buruari batzuen nahiz besteenganako betebeharrak, eta sarri bere gozamen pertsonalak sakrifikatzen ditu jada existitzen ez diren edota oraindik sortu ez diren izaki horiengatik.

Erakunde aristokratikoek, gainera, pertsona bakoitza bere herrikideetako batzuekin lotzen dute estu-estu.

Herri aristokratikoaren baitan klaseak oso ezberdinak eta mugigaitzak izanik, horietako bakoitza aberri txiki bat bezala bihurtzen da osatzen dutenentzat, aberri handia baino nabariagoa eta maitatuagoa.

Gizarte aristokratikoetan, hiritar guztiak postu finkoetan daudenez, batzuk besteen gain, gertatzen da bakoitzak beti ikusten duela bera baino gorago norbait, zeinen babesa beharrezko baitzaio, eta bera baino beherago besteren bat, zeinen laguntza eska baitezake.

Aristokrazi mendeetan bizi direnak ia beti daude estu lotuta beraiengandik kanpo dagoen zerbaiti, eta prest egoten dira sarri beren buruaz ahazteko. Egia da, mende horietan, *hurkoaren* nozio orokorra iluna izaten dela, eta nekez pentsatzen dela nork bere burua horretara ematerik gizadiaren kausagatik; baina pertsona jakin batzuengatik sarritan sakrifikatzen da jendea.

Demokrazi mendeetan, aitzitik, non banako bakoitzak espeziarekiko dituen betebeharrak askoz garbiago baitaude, pertsona batenganako atxikimendua arraroagoa izaten da. Giza afektuen lokarria hedatu egiten da eta lasatu.

Herri demokratikoetan, familia berriak etengabe irteten dira ezerezetik, beste batzuk etengabe erortzen dira bertan, eta irauten duten guztiak itxuraz aldatzen dira; garaien bilbaketa edo trama apurtu egiten da une oro, eta belaunaldien arrastoa ezabatu. Erraz ahazten ditugu geure aurrekoak, eta ez dugu batere ideiarik jarraituko digutenez. Hurbilenekoak bakarrik interesatzen zaizkigu.

Klase bakoitza besteengana hurbildu eta hauekin nahasten denean, horietako kideak axolagabe bihurtzen dira, elkarren artean arrotz baliran. Aristokraziak katea luze bat egina zuen hiritar guztiekin, laborariagandik erregeaganaino; demokraziak katea hori apurtu eta kate maila bakoitza aparte ipintzen du.

Baldintzak berdindu ahala, gero eta pertsona gehiago aurkitzen da, hurkoen zorian eragin handia zertzeko behar hainbat aberats edo ahaltsu izan gabe ere, badutenak nahikoa jakintzargi eta ondasun beren buruaz aski izateko. Hauek ez diote inori ezer zor, ez dute inorengandik ezer espero; beren burua, bakarrik baleude bezala, hartzen ohitzen dira, beren destinoa oso-osorik beren esku dutela imajinatzen dute atseginez.

Honela, demokraziak ez dio bakarrik pertsona bakoitzari bere arbasoak ahantzarazten, ondorengoak ezkutatu ere egiten dizkio eta garaikideengandik banatu ere bai; bere baitara itzularazten du etengabe eta azkenean bere bihotzaren bakardadean erabat itxita uzteaz mehatxatzen du.

III

Nola indibidualismoa handiagoa den iraultza demokratikotik irtetean beste garai batzuetan baino

Aristokraziaren hondakinetan gizarte demokratikoa eratzen den momentuan izaten da, batez ere, nabarien gizakien arteko isolamendu hori eta horren ondorio den berekoikeria.

Horrelako gizarteek ez dute bakarrik hiritar independenteen kopuru handia izaten; gainera, independentziara iritsi berri-berriak izanik, beren botere berriaz hordituta dauden pertsonaz beterik egoten dira egunero. Hauek konfiantza harroa izaten dute beren indarretan, eta, aurrerantzean hurkoen laguntza eskatu beharra izan dezaketenik imajinatu ere egin gabe, beren buruaz bakarrik pentsatzen dutela erakusten dute eragozpenik gabe.

Aristokrazia batek borroka luzearen ondoren bakarrik lur jotzen du, eta borroka horretan gorroto gupidagabeak pizten dira klase ezberdinen artean. Grina horiek garipenaren ondoren ere irauten dute, eta ondorengo nahasmendu demokratikoaren erdian ere jarrai dakioke horien arrastoari.

Suntsituriko hierarkian lehenengo ziren hiritarrek ezin dute hain arin ahaztu antzinako handitasuna; luzaroan arrotz sentitzen dira gizarte berrian. Gizarte horrek ematen dizkien parekide guztiengan zapaltzaileak ikusten dituzte, hauen destinoak ezin dielarik begikotasunik sortu; bistatik galduak dituzte antzinako parekideak eta interes komunak ez ditu jada haiekin lotzen; aparte erretiratu eta bere buruaz baino ez duela arduratu behar uste du bakoitzak. Aitzitik, lehen gizarte-eskalaren barrenean kokaturik zeudenek eta bat-bateko iraultzari esker maila komunera hurbildu direnek halako kezka ezkutu batez gozatzen dute independentzia lortu berriaz; antzinako nagusietakoren batzuk aurkitzen badituzte ondoan, garaipen eta beldurrezko begiratuak egiten dizkiete, eta beraiengandik urruntzen dira.

Beraz, gizarte demokratikoen hasieran agertzen dute hiritarrek isolatzeko joerarik handiena.

Demokraziak hurkoengana ez hurbiltzera eramaten du jendea; baina iraultza demokratikoek elkarrengandik ihes eragiten diete eta desberdintasunak sortutako gorrotoak iraunarazten dituzte berdintasunaren baitan.
Iraultza demokratikorik jasan beharrik gabe demokraziara iritsi izana da amerikarren abantaila handia, eta berdintasunean jaio izana horretara iritsi beharrik gabe.

IV

Nola erasotzen dioten amerikarrek indibidualismoari erakunde askeen bidez

Despotismoak, izaeraz beldurtia, gizakien isolamenduan ikusten du iraupenaren garantiarik ziurrena eta, normalean, jendea isolatzera bideratzen du ardura guztia. Ez du giza bihotzaren beste biziorik berekoikeria bezain atsegin duenik. Despotak erraz barkatzen die gobernatuei bera ez maitatzea, elkar ere maitatzen ez badute behintzat. Ez die eskatzen estatua gidatzen lagun diezaioten; aski da haiek berek ere gidatu nahi ez izatea. Izpiritu zurrunbilotsu eta artega deitzen die oparotasun komuna sortzeko beren ahaleginak elkartu nahi dituztenei, eta, hitzen berezko esanahia aldatuz, hiritar on deitzen die estu-estu beren baitan ixten direnei.

Honela, despotismoak sortarazten dituen bizioak berdintasunak bultzatzen dituenak dira, hain zuzen. Bi gauza hauek elkar osatzen dute eta elkarri laguntzen oso era txarrean.

Berdintasunak elkarren ondoan jartzen ditu gizakiak, eutsiko dien lokarri komunik gabe. Despotismoak hesiak eraikitzen ditu jendearen artean eta banatu egiten. Hark hurkoengan ez pentsatzera bultzatzen du jendea, eta despotismoak bertute publiko bihurtzen du axolagabezia.

Despotismoa, garai guztietan arriskutsua, batez ere demokrazi mendeetan gertatzen da beldurgarri.

Erraz ikusten da jendeak askatasunaren premia berezia duela mende horietan.

Hiritarrek, arazo publikoez arduratu behar dutenean, beren interes indibidualetatik irten egin behar izaten dute halabeharrez eta beren buruari begira egoteari ere utzi, noizean behin.

Arazo komunak komunean tratatzen diren momentutik, pertsona bakoitza ohartzen da ez dela hasieran uste zuen bezain independentea hurkoekiko, eta, hauen laguntza bereganatzeko, sarritan bere laguntza eman behar diela berak.

Publikoak gobernatzen duenean, ez da inor egoten onginahi publikoaren balioa ezagutzen ez duenik eta hori lortzen saiatzen ez denik ingurukoen estima eta afektua beregana erakarriz.

Orduan, bihotzak izoztu eta zatitzen dituzten grinetako batzuk arimaren barrenera erretiratu eta bertan ezkutatu beharrean aurkitzen dira. Harrokeria disimulatu egiten da; mesprezua ez da agertzera ausartzen. Berekoikeria bere buruaren beldur da.

Gobernu aske baten menpe funtzio publiko gehienak hautapenezkoak direnez, beren arimaren goitasun edo desiren egonezinagatik bizitza pribatuan estu dauden pertsonek inguruko jenderik gabe ezin direla bizi sentitzen dute egunero.

Gertatzen da orduan gutiziagatik pentsatzen dutela hurkoengan, eta sarritan nolabait ere beren buruaz ahaztean datzala haien interesa.

Badakit hauteskunde batek sortarazten dituen azpikeria guztiak aipa daitezkeela hemen, hautagaiek maiz erabiltzen dituzten baliabide lotsagarriak eta haien arerioek zabaltzen dituzten kalumniak. Gorrotorako okasioak izaten dira, zenbat eta sarriago egin hauteskundeak orduan eta maizago agertzen direnak.

Gaitz hauek handiak dira, zalantzarik gabe, baina igarokorrak, horiekin batera sortzen diren gauza onek iraun egiten duten bitartean.

Aukeratua izateko gogoak momentuz elkarri gerra egitera eraman dezake zenbait jende; baina desira horrek berorrek luzarora guztiak eramaten ditu elkarri laguntzera; eta, hauteskunde batek bi adiskide banatzen baditu ere halabeharrez, hauteskunde-sistemak hiritar asko hurbiltzen du iraunkorki, bestela elkarrekiko arrotz izaten jarraituko zuketenak. Askatasunak gorroto partikularrak sortzen ditu, baina despotismoak axolagabetasun orokorra.
Amerikarrek askatasunaren bidez borrokatu dute berdintasunak sortarazten duen indibidualismoa, eta garaitu egin dute.

Amerikako legegileek ez dute uste izan demokrazi garaietan gizarte-gorputzari hain berezko eta hain kaltegarri zaion gaitz hori sendatzeko nahikoa denik nazio osoari bere buruaren ordezkaritza bat eskaintzea; horretaz gain, lurralde-zati bakoitzari bizitza politikoa ematea komeni zela pentsatu dute, horrela elkartuta jarduteko aukera hiritarrentzat mugagabeki ugaldu eta elkarrekiko mendetasuna dutela egunero sentiarazteko.

Hori buru-argitasunez jokatzea izan da.

Herrialde bateko arazo orokorrez hiritar printzipalak bakarrik arduratzen dira. Horiek noizbehinka bakarrik elkartzen dira leku beretan; eta, gero sarritan elkar bistatik galtzen dutenez, ez da horien artean lotura iraunkorrik ezartzen. Baina kantonamendu bateko arazo partikularrak bertan bizi direnek arautu behar dituztenean, pertsona berberak elkarrekin harremanetan egoten dira beti, eta nolabait ere beharturik elkar ezagutu eta ongi konpontzera.

Pertsona bat nekez aterako duzu bere baitatik Estatu osoaren destinoaz interesa dadin, ez baitu ongi ulertzen Estatuaren destinoak bere zorian zertu dezakeen eragina. Baina bide bat pasatu behar bada haren sailaren ertzetik, lehen begiratuan ikusiko du erlazioa dagoela arazo publiko txiki horren eta bere arazo pribatu handiagoen artean, eta, inork erakutsi gabe, puntu horretan interes partikularra interes orokorrarekin batzen duen lokarri estuaz ohartuko da.

Hiritarrei, arazo handien gobernua ematen zaienean baino areago, txikien administrazioaren ardura ematen zaienean sortarazten zaie on publikoarekiko interesa, eta on hori lortzeko etengabe elkarren beharrean daudela ikusarazten zaie.

Balentria baten bidez lor daiteke bat-batean herri baten ongi-nahia; baina inguruko jendearen maitasuna eta begirunea irabazteko, zerbitzu txikien, distirarik gabeko egintza onen segida luzea behar da, onginahirako aztura etengabea eta interesgabe jokatzen den ospe sendoa.

Tokian tokiko askatasunek, hiritar askok preziatu egiten duelarik auzokoen eta hurbilekoen afektua, pertsonak elkarrengana bultzatzen dituzte etengabe –elkarrengandik banatzen dituzten joerak gora-behera- eta elkar laguntzera behartzen dituzte.

Estatu Batuetan hiritarrik oparoenak kontuz ibiltzen dira herriagandik ez isolatzeko; aitzitik, etengabe hurbiltzen dira harengana, gogotsu entzun eta egunero hitz egiten diote. Badakite demokrazietako aberatsek behartsuen premia dutela beti eta, demokrazi garaietan, maneren bidez gehiago erakartzen direla behartsuak onegintzaz baino. Onegintzen handitasunak berak, egoera-ezberdintasuna agerian uzten duelarik, isilpeko amorrua sortzen du horietaz profitatzen direnengan; baina maneren sinpletasunak xarma

ia jarkiezinak ditu. Horien familiartasuna erakargarria da eta horien zabarkeria bera ere ez da beti desatsegina gertatzen.

Egia hori ez da lehen kolpean sartzen aberatsen izpirituan. Normalean kontra jartzen zaizkio iraultza demokratikoak iraun bitartean, eta iraultza hori burutu eta berehala ere ez dute ametitzen. Gogotsu onartzen dute herriari on egitea; baina, kontuz, urrutira eduki nahi izaten dute. Hori aski dela uste dute; baina oker dabiltza. Horrela, porrot egin lezakete inguruan duten jendetzaren bihotza berotu gabe. Ez da diruaren sakrifizioa honek eskatzen diena, harrokeriarena baizik.

Esan liteke Estatu Batuetan ez dagoela irudimenik, aberastasuna gehitzeko eta hiritarren premiak asetzeko bide bila agortzen ez denik. Kantonamendu bakoitzeko biztanlerik ilustratuenak etengabe baliatzen dira beren jakintzargiez, oparotasun komuna areagotzeko sekretu berri egokien bila; eta, batzuen batzuk aurkitu orduko, jendeari ematen dizkiote bizkor asko.

Amerikan gobernatzen dutenei sarri ikusten zaizkien bizioak eta ahuleziak hurbiletik aztertzean, harrigarri gertatzen da herriaren oparotasun hazkorra, baina ez dago zertan harritu. Ez da magistratu hautatua demokrazia amerikarrari aurrera eragiten diona; baina honek aurrera egiten du magistratua hautapenezkoa delako.

Bidegabea litzateke pentsatzea amerikarren patriotismoa eta haietako bakoitzak herrikideen ongizatearekiko azaltzen duen gogo beroa ez direla batere errealak. Nahiz eta Estatu Batuetan ere, beste askotan bezalaxe, interes pribatua izan giza ekintza gehienak gidatzen dituena, ez ditu guztiak erregulatzen.

Esan beharra dut sarri ikusi ditudala amerikarrak sakrifizio handi eta benetakoak egiten gauza publikoaren alde, eta hamaika aldiz ohartu naizela behar izanez gero laguntza zintzoa eskaintzen ziotela elkarri.

Estatu Batuetako jendeak dauzkan erakunde libreek eta hainbeste erabiltzen dituzten eskubide politikoek etengabe eta mila eratara gogorazten diote hiritar bakoitzari gizartean bizi dela. Izpiritua ideia honetarantz bideratzen diote une oro: alegia, jendearen eginbeharra nahiz interesa hurkoentzako mesedegarri izatea dela; eta, horiek gorrotatzeko arrazoi berezirik ez duenez, sekula ez baita horien esklabo, ezta nagusi ere, bihotza erraz makurtzen zaio onginahirantz. Lehenik premiagatik arduratzen da interes orokorraz, eta gero bere aukeragatik; lehen kalkulu hutsa zena sen bihurtzen da; eta, herrikideen onerako lan egitearen poderioz, azkenean horiek zerbitzatzeko aztura eta gustua bereganatzen ditu.

Frantzian jende askorentzat lehen gaitza baldintza-berdintasuna da, eta bigarrena, askatasun politikoa. Bata jasan beharrean gertatzen direnean, gutxienez besteari ihes egiten saiatzen dira. Eta nik diot, berdintasunak sor ditzakeen gaitzen kontra borrokatzeko, erremedio eraginkor bakarra dagoela: askatasun politikoa.

V

Elkartzeaz amerikarrek egiten duten erabilera bizitza zibilean

Ez dut hitz egin nahi gehiengoaren ekintza despotikoaren edo errege-agintearen erasoen aurka defendatzeko jendeak erabiltzen dituen elkarte politiko horietaz. Dagoeneko hitz egin dut honetaz beste nonbait. Garbi dago, hiritar bakoitzak, indibidualki ahulago bilakatu eta, ondorioz, askatasuna bere kasa zaintzeko gaitasun txikiagoa izan ahala, askatasun hori defendatzeko hurkoekin elkartzen ikasiko ez balu, tirania derrigorrez areagotu egingo litzatekeela berdintasunarekin. Hemen bizitza zibilean sortzen diren elkarteez bakarrik ari naiz, beren xedean ezer politikorik ez dutenez.

Estatu Batuetan dauden elkarte politikoak xehetasun txiki bat besterik ez dira, elkarte guztiek han osatzen duten koadro zabalaren barruan.

Adin guztietako, egoera guztietako, izpiritu guztietako amerikarrak etengabe elkartzen dira han. Merkataritza- eta industri elkarteak ez ezik, zeinetan guztiek esku hartzen baitute, beste mila motakoak ere badituzte: erlijiosoak, moralak, serioak, hutsalak, oso orokorrak eta oso partikularrak, ikaragarri handiak eta oso txikiak; amerikarrak festak egiteko elkartzen dira, edo seminarioak sortzeko, babesetxeak egiteko, elizak eraikitzeko, liburuak banatzeko, antipodetara misiolariak bidaltzeko; era honetan ospitaleak, presondegiak, eskolak sortzen dituzte. Jarraibide bikain baten laguntzaz egia bat argitara atera

edo sentimendu bat garatzea baldin bada kontua, elkartu egiten dira. Eginkizun berri baten buruan Frantzian gobernua eta Ingalaterran jauntxo handi bat ikusten duzuen leku guztietan, Estatu Batuetan elkarte bat ikusiko duzue.

Aurkitu ditut Amerikan elkarte-mota batzuk –zeinetaz aitortu beharrean nagoen ideiarik ere ez neukala-, eta sarritan miretsi izan dut Estatu Batuetako jendeak zelako trebezia handiz lortzen zuen pertsona-kopuru handi baten ahaleginei helburu komuna ezartzea, eta helburu horretarantz nola joanarazten zituen askatasunean.

Geroztik ibilia naiz Ingalaterran, amerikarrek bertatik hartu dituztelarik legeetako batzuk eta usadioetako asko, eta iruditu zait han ez dela oraindik hain iraunkor eta trebeki erabiltzen elkartzea.

Sarritan ingelesek isolatuki egiten dituzte gauza handiak, amerikarrak egitekorik txikienarentzat ere elkartzen diren bitartean. Garbi dago lehenengoei ekintza-bide indartsua iruditzen zaiela elkartzea; baina besteok badirudi ekintzarako bide bakarra ikusten dutela horretan.

Honela, gaur egun herrialde guztien artean munduko herrialderik demokratikoenean perfekzionatu de gehien jendeak bere desira komunen xedea komunean bilatzeko artea, eta objektu-kopuru handienari ere bertan aplikatu diote zientzia berri hori. Ustekabeko zerbaiten ondorio ote da hori, ala ba ote da beharrezko erlazioren bat elkarteen eta berdintasunaren artean?

Gizarte aristokratikoek beti izaten dute beren baitan, bere kabuz ezer ezin duen jendetza handi baten erdian, hiritar oso ahaltsu eta aberatsen kopuru txiki bat; hauetako bakoitzak eginkizun handiak gauza ditzake berak bakarrik.

Gizarte aristokratikoetan, jendeak ez dauka elkartu beharrik jarduteko, tinko batuta egoten baita beti.

Hiritar aberats eta ahaltsu bakoitza elkarte iraunkor eta derrigorrezko baten buru bezala izaten da, bere menpe dituen eta bere proiektuak egikaritzeko erabiltzen dituen guztiek osaturiko elkartearen buru.

Herri demokratikoetan, aitzitik, hiritar guztiak independente eta ahulak izaten dira; ezer gutxi egin dezakete beren kabuz, eta haietako inork ezin ditu bere hurkoak laguntza ematera behartu. Beraz, ezintasunean jausten dira guztiak, askatasunean elkar laguntzen ikasten ez badute.

Herrialde demokratikoetan bizi direnek ez balute helburu politikoetarako batzeko ez eskubiderik, ez gusturik izango, haien independentziak arrisku handiak jasango lituzke, baina luzaroan gorde ahal izango lituzkete beren aberastasun eta jakintzargiak; baina bizimodu arruntean elkartzeko usadiorik lortuko ez balute, zibilizazioa bera egongo litzateke arriskuan. Partikularrek isolatuki gauza handiak egiteko gaitasuna galdu eta horiek komunean sortzeko ahalmenik lortuko ez balu herri batek, laster bideratuko luke bere burua barbarotasunerantz.

Zoritxarrez, herri demokratikoentzat elkarteak hain beharrezko bihurtzen dituen gizarte-egoera berberak beste guztientzat baino zailago bihurtzen ditu horientzat.

Aristokrazia bateko zenbait kidek elkartu egin nahi dutenean, erraz lortzen dute hori. Bakoitzak indar handia jartzen duenez elkartean, kide kopurua oso txikia izan daiteke, eta, kideak gutxi direnean, erraza gertatzen zaie elkar ezagutzea, ulertzea eta arau finkoak ezartzea.

Nazio demokratikoetan ez da aurkitzen horrelako erraztasunik, eta beharrezkoa izaten da elkartuak asko izatea elkarteak indar pixka bat izan dezan.

Badakit nire garaikide askorentzat hau ez dela kezkagarria. Hiritarrak ahulago eta ezgaiago bihurtu ahala, gobernua iaioago eta aktiboago bihurtu behar dela esaten duten, gizabanakoek jada ezin dutena gizarteak egin ahal izan dezan. Hori esanda guztiari erantzun diotela uste dute. Baina oker dabiltzala iruditzen zait.

Gobernuak hartu ahal izango luke Amerikan elkarte handienetako batzuen lekua, eta, Batasunaren barruan, zenbait estatu partikular jasa saiatu da horretan. Baina zein botere politiko izango da inoiz aski, Amerikako hiritarrek elkarteen laguntzaz egunero zertzen dituzten eginkizun txiki ugariak betetzeko?

Erraz ikusten da badatorrela garaia, pertsonak gero eta gaitasun txikiagoa izango duena bizitzako gauzarik arrunt eta beharrezkoenak haziko da, eta bere ahaleginek berek handiago bihurtuko dute egunetik egunera. Botere horrek zenbat eta gehiago hartu elkarteen lekua, partikularrek, elkartzeko ideia galduz, orduan eta gehiago beharko dute berorren laguntza. Etengabe sortzen diren kausak eta ondorioak dira. Azkenean, hiritar isolatu batek egin ezin dituen zeregin guztiak zuzendu beharra izango ote du administrazio publikoak? Eta, lur-jabetza hainbesterainoxe banatzearen ondorioz, lurra mugagabeki zatitu eta laborari-elkarteek bakarrik landuko duten momentu bat iristen bada, gobernu-buruak utzi egin beharko ote du estatuaren gidaritza goldari eusteko?

Herri demokratiko baten moralak eta adimenak ez lituzkete beraren negozioak eta industriak baino arrisku txikiagoak izango, gobernuak elkarteen lekua hartuko balu alde guztietan.

Sentimenduak eta ideiak ez dira berritzen, bihotza ez da handitzen eta giza izpiritua ez da garatzen pertsona eta besteen arteko elkarrekintzaz baizik.

Ikusarazi dut ekintza hori ia deuseza dela herrialde demokratikoetan. Beraz, horietan artifizialki sortarazi behar da. Eta hori elkarteek bakarrik egin dezakete.

Aristokrazia bateko kideek ideia berri bat onartu edo sentimendu berri bat zertzen dutenean, nolabait ere ondoan ipintzen dute beraiek daudeneko teatro handian, eta, jendearen aurrean honela erakutsiz, erraz sarrarazten dituzte inguruko guztien izpirituan edo bihotzean.

Herrialde demokratikoetan, berez gizarte-boterea bakarrik dago horrela jokatzeko egoeran, baina erraz ikusten da beraren ekintza inoiz ez dela aski eta bai sarri arriskutsua.

Gobernu bat ez da aski sentimendu eta ideien zirkulazioa bere kabuz mantendu eta berritzeko herri handi batean, ezta bertan eginkizun industrial guztiak gidatzeko ere. Bide berri horretatik abiatzeko eremu politikotik irteten saiatuko balitz, tirania jasangaitza zertuko luke, nahi gabe ere; zeren eta, gobernu batek erregela zehatzak ematen baitaki bakarrik; berak bultzatzen dituen sentimenduak eta ideiak ezartzen ditu, eta nekeza izaten da beti haren aholkuak aginduetatik bereiztea.

Are okerragoa litzateke bere benetako interesa ezer ez mugitzea datzala uste balu. Orduan, mugitu gabe geldituko litzateke, bere burua borondatezko lozorroan murgilduta.

Bakarrik ez jardutea behar da, beraz.

Herri demokratikoetan, elkarteek hartu behar dute baldintza-berdintasunak desagerrarazi dituen partikular ahaltsuen lekua.

Estatu Batuetako zenbait biztanlek munduan sortarazi nahi duten sentimendu edo ideia bat zertu orduko, elkar bilatzen dute, eta, elkar aurkitu dutenean, batu egiten dira. Une horretatik aurrera, jada ez dira gizaki isolatuak, baizik eta urrutitik ikusten den botere bat, hitz egiten duen eta entzun egiten den botere bat, eta beraren ekintzak jarraibidetzat hartzen dira.

Estatu Batuetan ehun mila pertsona edari biziak ez edatera publikoki konprometitu zirela lehen aldiz entzun nuenean, gauza barregarria gehiago iruditu zitzaidan serioa baino, eta hasieran ez nuen ongi ulertzen hiritar hain neurritsu haiek zergatik ez ziren konformatzen ura familiaren baitan edatearekin.

Azkenerako ulertu nuen ehun mila amerikar haiek, inguruan hordikeriak egiten zuen aurrerapenagatik izututa, beren babesa eman nahi izan ziotela edari-neurritasunari. Haien jokaera, hain zuzen ere, hiritar arruntei luxuarekiko mesprezua sortzearren oso sinpleki jantzitako jauntxo handi batena bezalakoa izan zen. Ehun mila pertsona haiek Frantzian bizi izan balira, pentsa daiteke haietako bakoitzak banan-banan gobernuarengana joko zukeela, erresumako taberna guztiak ikuska zitzan erregutzeko.

Nire iritziz, Amerikako elkarte intelektual eta moralak dira gure arreta berenganatzea merezien dutenak. Amerikarren elkarte politiko eta industrialak oso nabariak gertatzen zaizkigu, baina besteek ihes egiten digute; eta aurkitzen baditugu, gaizki ulertzen ditugu, ia sekula ez dugulako antzekorik ikusi. Hala ere, onartu beharra dago horiek besteak bezain beharrezkoak zaizkiola Amerikako herriari, eta gehiago agian.

Herrialde demokratikoetan, elkartze-zientzia da zientzia nagusia; beste guztien aurrerapena honen aurrerapenaren menpe dago.

Gizarteak arautzen dituzten legeen artean, bada bat beste guztiak baino zehatz eta argiagoa ematen duena. Jendeak zibilizaturik jarrai dezan edo zibiliza dadin, beharrezkoa da elkartzeko trebetasuna garatu eta hobetzea, baldintza-berdintasuna areagotzen den neurri berean.

VI

Elkarteen eta aldizkarien arteko erlazioa

Jendea ez dagoenean bere artean era sendo eta iraunkorrez lotua, ezin da lortu kopuru handi batek amankomunean jokatzea, laguntza eman behar dutenetako bakoitza ez bada behintzat komentzitzen, bere interes partikularrarentzat beharrezkoa dela bere borondatez bere ahaleginak beste guztienekin elkartzea.

Hori ezin daiteke normalean eta erosotasunez egin aldizkari baten laguntzaz ez bada; aldizkariak bakarrik lor dezake pentsamendu berbera une berean mila burutara helaraztea.

Aldizkaria, bila ibili beharrik ez dagoen kontseilaria da, bere kabuz agertu eta arazo komunaz egunero hitz egiten dizuna labur, zeure arazo partikularretan eragozpenik sortu gabe.

Beraz, aldizkariak are beharrezkoago bihurtzen dira jendea berdinago eta indibidualismoa beldurgarriago bilakatu ahala. Berorien garrantzia gutxitzea litzateke, askatasuna bermatzeko bakarrik balio dutela pentsatzea; zibilizazioari eusten diote.

Ez dut ukatuko herrialde demokratikoetan hiritarrak elkarrekin oso eginkizun lotsagabeak zertzera bultzatzen dituztela sarri aldizkariek; baina, aldizkaririk ez balego, ia ez litzateke ekintza komunik izango. Sortzen duten gaitza, beraz, sendatzen dutena baino askoz txikiagoa da.

Aldizkari baten ondorioa ez da bakarrik pertsona-kopuru handi bati egitasmo berbera iradokitzea; bakoitzak berak zerturiko egitasmoak amankomunean egikaritzeko bideak ere ematen dizkie.

Herrialde aristokratiko batean bizi diren hiritar printzipalek urrutitik ere komunikatzen dute elkar; eta, indarrak batu nahi badituzte, elkarrengana abiatzen dira, atzetik jendetza handia dutela.

Aitzitik, herrialde demokratikoetan sarri gertatzen da elkartzeko nahia edo beharra duen jende askok ezin duela hori egin, zeren eta, guztiak oso txikiak eta jende artean galduak izanik, ez baitute elkar ikusten eta ez dakite non elkar aurkitu. Aldi berean, baina aparte, haietako bakoitzari sorturiko sentimendua edo ideia argitara ematen duen aldizkari bat sortzen bada, guztiak bideratzen dira berehala argi horretarantz, eta aspaldidanik ilunpean elkarren bila noraezean zebiltzan izpiritu horiek azkenean elkar aurkitzen dute eta batu egiten dira.

Aldizkariak hurbilarazi egin ditu, eta beharrezkoa zaie elkarturik jarraitzeko.

Elkarteak herri demokratikoetan indarra izan dezan, bazkide askokoa izan behar du. Elkartea osatzen dutenak espazio zabalean sakabanaturik daude, eta bakoitzak bizi deneko tokian egon behar izaten du, ez duelako aberastasun handirik eta honek arreta txikiak baina amaigabeak eskatzen dizkiolako. Egunero, elkar ikusi gabe, elkarrekin hitz egiteko era behar dute, eta, bildu beharrik gabe, adostasunean aurrera egiteko bidea. Horrela, ia ez dago elkarte demokratikorik aldizkaririk gabe iraun dezakeenik.

Beharrezko lotura dago, beraz, elkarteen eta aldizkarien artean. Aldizkariek elkarteak egiten dituzte, eta elkarteek aldizkariak; eta egia bada elkarteak ugaldu egiten direla baldintzak berdindu ahala, ez da egia txikiagoa aldizkarien kopurua hazi egiten dela elkarteak ugaldu ahala.

Halaber, Amerika da munduko herrialde guztien artean elkarte gehien eta aldi berean aldizkari gehien duena.

Aldizkari-kopuruaren eta elkarteenaren arteko lotura honek beste bat aurkitzera eramaten gaitu aldizkako prentsaren egoeraren eta herrialdea administratzeko formaren artean, eta administrazio-zentralizazioa

handiago edo txikiagoa den neurri berean herri demokratikoetan handiagoa edo txikiagoa den neurri berean herri demokratikoetan aldizkari-kopurua gutxitu edo gehitu egingo dela erakusten digu. Zeren eta, herri demokratikoetan tokian tokiko botereak ezin dira hiritar printzipalen esku utzi, aristokrazietan bezala. Botere horiek abolitu egin behar dira edota horien erabilera pertsona-kopuru handi bati onartu. Hauek benetako elkarte bat osatzen dute, lurralde-zati bat administratzeko legeak iraunkorki ezarria, eta beren arazo txikien artean egunero aldizkari batekin topo egin behar dute, arazo publikoaren egoeraren berri izan dezaten. Zenbat eta ugariagoak izan toki-botereak, orduan eta handiago kargu horiek betetzera legeak deiturikoen kopurua, eta zenbat eta gehiago sentitu behar hori une oro, are ugariagoak aldizkariak.

Administrazio-boterearen zatikatze izugarria da, askatasun politiko handia eta prentsaren erabateko independentzia baino gehiago, aldizkari-kopurua hainbeste ugaltzen duena Amerikan. Batasuneko biztanle guztiak hautesle balira –beren hautets-eskubidea estatuko legegileak aukeratzera mugatuko lukeen sistema baten menpeko hautesle, alegia-, aldizkari-kopuru txiki bat besterik ez lukete beharko, okasio gutxi –garrantzizkoak, baina oso gutxi- izango bailukete elkartuta jokatzeko; baina nazio-elkarte handiaren baitan, legeak probintzia bakoitzean, hiri bakoitzean eta, nolabait esateko, herri bakoitzean elkarte txikiak ezarri ditu, helburutzat toki-administrazioa dutenak. Horrela, amerikar bakoitza herrikideetako batzuekin eginkizun komun batean elkarlanean jardutera behartu du legegileak, eta bakoitzak aldizkari bat behar du besteek egiten dutena jakiteko.

Uste dut, nazio-ordezkaritzarik ez, baizik eta toki-botere txiki asko lukeen herri demokratikoak[3] azkenerako aldizkari gehiago izango lukeela, hautazko legebiltzarraren ondoan administrazio zentralizatua leukakeenak baino. Estatu Batuetan eguneroko prentsak izan duen garapen harrigarria ongien esplikatzen duena zera da: amerikarren artean askatasun nazionalik handiena edozein motatako toki-askatasunekin elkartzen dela.

Oro har, Frantzian eta Ingalaterran uste izaten da aski dela prentsaren gaineko zergak kentzea aldizkariak mugagabeki ugaltzeko. Horrelako erreforma baten ondorioak asko exageratzea da hori. Aldizkariak ez dira prezio merkeari esker bakarrik ugaltzen, baita gizaki-kopuru handi batek elkar komunikatzeko eta amankomunean jarduteko daukan premia iraunkor handiago edo txikiagoaren arabera ere.

Halaber, aldizkarien botere hazkorra normalean aipatzen diren baino arrazoi orokorragoei ere egotziko nieke nik.

Aldizkari batek ezin du iraun pertsona-kopuru handi batek amankomunean duen doktrina edo sentimenduren bat ez badu zabaltzen. Aldizkari bat, beraz, elkarte bat izaten da beti, eta bere ohiko irakurleak, elkarte horretako kide.

Elkarte hori zehaztasun handiago edo txikiagokoa izan daiteke, zabal edo estuagoa, ugariagoa, eta urriagoa, baina hazi edo ernamuin gisa gutxienez izaten da izpirituetan, eta horregatik bakarrik ez da aldizkaria hiltzen.

Horrek azken gogoeta batera garamatza, kapitulu hau bukatzeko.

Zenbat eta berdinagoak baldintzak, gizakiak orduan eta ahulagoak izaten dira banaka hartuta, are errazago eramaten ditu jendetzaren korronteak eta are nekezagoa gertatzen zaie jendetza horrek bazter utzitako iritziari beraiek bakarrik eustea.

Aldizkariak elkartea errepresentatzen du; esan daiteke bere irakurleetako bakoitzari hitz egiten diola beste guztien izenean, eta zenbat eta ahulagoak izan banaka, hainbat errazago herrestatzen ditu.

Aldizkarien aginteak, beraz, hazi egin behar du gizakiak berdindu ahala.

VII

Elkarte zibilen eta elkarte politikoen arteko erlazioak

[3] Herri demokratiko bat esaten dut. Administrazioa egon daiteke oso deszentralizatua herri aristokratiko batean, egunkarien beharrik sentitu gabe, botere lokalak gizon-kopuru txiki baten eskuetan egoten baitira, isolatuki jarduten edo elkar ezagutzen dutenak eta erraz elkar ikusi eta entzun dezaketenak.

Mundua nazio bakar batean erabiltzen dute egunero helburu politikoz elkartzeko askatasun mugagabea. Nazio hori berori da munduan bakarra non hiritarrei bururatu zaien bizitza zibilean ere elkartze-eskubideaz etengabe baliatzea, horrela berenganatuz zibilizazioak eskain ditzakeen ondasun guztiak.

Elkartze politikoa debekaturik dagoen herri guztietan, elkartze zibila ere oso gutxi gertatzen da.

Ez dirudi hori kasualitate hutsa denik; normalagoa litzateke ondorioztatzea berezko eta agian beharrezko loturaren bat badela bi elkartze-mota hauen artean.

Pertsona batzuek kasualitatez interes komuna dute gai jakin batean. Gidatu beharreko merkataritza-ekintza bat izan daiteke, edo burutu beharreko eragiketa industrialen bat; elkarrekin topo egin eta batu egiten dira; horrela poliki-poliki elkartzen ohitzen dira.

Zenbat eta gehiago ugaldu arazo txiki komun horiek, jendeak orduan eta gaitasun handiagoa izaten du, oharkabean ere, handiak lortzen amankomunean hasteko.

Elkarte zibilek, beraz, elkarte politikoetarako bidea errazten dute; baina, bestalde, elkartze politikoak bereziki garatzen eta perfekzionatzen du elkartze zibila.

Bizitza zibilean, pertsona bakoitzak bere buruaz aski duela imajina dezake estu-estuan. Politikan, sekula ezin imajinatu horrelakorik. Herri batek bizitza publikoa duenean, elkartzearen ideia eta elkartzeko gogoa egunero agertzen dira hiritar guztien izpirituan. Jendeak amankomunean jarduteko senti dezakeen berezko nazka gora-behera, beti izango dira prest alderdi baten interesean jarduteko.

Honela, politikak orokortu egiten du elkartzearen gustua eta aztura; batu nahia sortzen dio eta hori nola lortu irakasten dio bestela beti bakarrik biziko zatekeen jendetza bati.

Politikak, elkarte ugari ez ezik, elkarte oso zabalak ere sortzen ditu.

Bizitza zibilean nekez gertatzen da interes batek berak jende-kopuru handia berez erakartzea ekintza komun batera. Trebetasun handiz bakarrik lortu ohi da horrelako interes bat sortzea.

Politikan, okasioa berez sortzen da une oro. Nolanahi ere, elkarte handietan bakarrik nabarmentzen da elkartzearen balio orokorra. Banaka ahulak diren hiritarrek aurrez ez dute ideia garbirik zertzen baturik lor dezaketen indarraz; erakutsi egin behar izaten zaie uler dezaten. Horregatik, sarritan errazagoa gertatzen da helburu komun baten inguruan jendetza handia biltzea pertsona batzuk baino; mila hiritarrek ez dute ikusten zer interes duten batzeko; hamar milak, bai. Politikan, eginkizun handietarako elkartzen da jendea, eta arazo garrantzizkoetarako elkartzetik ateratzen duten probetxuak erakusten die, praktikoki, txikietan elkar laguntzeak duen interesa.

Elkarte zibil gehienetan ez da sartzerik egoten nork bere ondarearen zati bat arriskatu gabe; hori gertatzen da industri eta merkataritza-konpainia guztietan. Pertsonak elkartzeko artean gutxi trebaturik daudenean eta erregela nagusiak ere ez dakizkitenean, beldur izaten dira, lehen aldiz elkartzean, beren esperientzia garesti ordainduko ote duten. Nahiago izaten dute, beraz, arrakasta-bide ahaltsu bat gabe gelditzea, horrek berekin dituen arriskuetan sartzea baino. Hala ere, zalantza gutxiago izaten dute elkarte politikoetan parte hartzeko, arrisku gabeak iruditzen baitzaizkie, eta ez dute horietan beren dirurik arriskatzen. Nolanahi ere, ezin dira luzaroan elkarte horietako partaide izan, pertsona-kopuru handi baten erdian ordena nola mantentzen den aurkitu gabe, eta zein prozeduraz lortzen den, kide guztiak batera eta metodikoki, helburu bererantz joanaraztea. Beren borondatea beste guztienaren menpe jartzen ikasten dute elkarte horietan, eta beren ahalegin partikularrak ekintza komunaren menpe jartzen, bata eta bestea ere elkarte zibiletan elkarte politikoetan bezain jakin beharrekoak.

Elkarte politikoak, beraz, doako eskola handitzat har daitezke, non hiritar guztiek ikasten duten elkarteei buruzko teoria orokorra.

Elkartze politikoak ez balu zuzenean elkartze zibilerako balioko ere, lehena suntsitzea bigarrenari kalte egitea litzateke.

Hiritarrak kasu batzuetan bakarrik elkar daitezkeenean, prozedura arraro eta bitxitzat jotzen dute elkartzea, eta nekez pentsatzen dute horretan.

Edozertarako aske elkartzen uzten zaienean, azkenerako jendeak, hainbat helburu lortzeko erabil dezakeen baliabide unibertsaltzat eta, nolabait esateko, bakartzat hartzen du elkartzea. Premia berri bakoitzak ideia hori iratzartzen du berehala. Orduan, elkartzeko artea, gorago esan dudan bezala, zientzia nagusi bilakatzen da; guztiek aztertzen eta aplikatzen dute.

Elkarte jakin batzuk debekaturik eta beste batzuk baimendurik daudenean, zaila gertatzen da lehenak eta bigarrenak aurrez bereiztea. Zalantza-egoeran, guztiak baztertzen ditu jendeak, eta halako iritzi publiko bat sortzen da edozein elkarte zeregin ausart eta ia ez-zilegitzat jotzen duena[4].

Ameskeria hutsa da pentsatzea elkartze-izpiritua, puntu batean erreprimituta, kemen berberaz garatuko dela beste guztietan, eta jendeari amankomunean zenbait eginkizun zertzen uztea aski izango dela, horretan presaka ahalegintzeko. Hiritarrek edozertarako elkartzeko ahalmena eta aztura izaten dutenean, handietarako bezain gogotsu elkartuko dira txikietarako. Baina txikietarako besterik ezin badira elkartu, ez dute izango ez egiteko gogorik, ez gaitasunik. Alferrik utziko diezue beren negozioan amankomunean jarduteko askatasun osoa. Axolagabeki baino ez dituzte erabiliko emandako eskubideak; eta, debekaturiko elkarteetatik urrunarazteko ahaleginetan indarrak ahitu ondoren, harrituta geldituko zarete ezingo dituzuelako komentzitu baimenduriko elkarteak osa ditzaten.

Nik ez dut esaten ezin daitekeenik elkarte zibilik egon elkartze politikoa debekaturik dagoen herrialdean; zeren eta gizakia ezin baita inoiz gizartean bizi nolabaiteko eginkizun amankomunen bat zertu gabe. Baina diodana da, horrelako herrialde batean, elkarte zibilak oso gutxi izango direla beti, ahul ideiatuak eta zabar gidatuak, eta inoiz ez dutela egitasmo zabalik egingai izango, edota porrot egingo dutela egikaritu nahi izatean.

Honek berez narama pentsatzera elkartze-askatasuna politika-arloan ez dela uste bezain arriskutsua lasaitasun publikorako, eta gerta litekeela, aldi batez Estatua astindu ondoren, irmotu ere egitea.

Herrialde demokratikoetan, elkarte politikoak dira, nolabait esateko, Estatua erregulatzeko nahia izan dezaketen partikular ahaltsu bakarrak. Horregatik, gaur egungo gobernuek, Erdi Aroko erregeek koroaren basailu handiak bezalatsu, ikusten dituzte elkarte-mota horiek. Berezko izu-ikara sentitzen dute horiekiko, eta aukera duten guztietan egiten diete kontra.

Aitizitik, berezko onginahia dute elkarte zibilekiko, berehala ohartzen baitira, hiritarren izpiritua arazo publikoetarantz bideratu ordez, horietatik apartatzeko balio dutela elkarte hauek, eta, bake publikorik gabe bete ezin daitezkeen proiektuetan gero eta gehiago konprometituz, aldendu egiten dituztela iraultzetatik. Baina ez dira konturatzen elkarte politikoek ikaragarri ugaltzen eta errazten dituztela elkarte zibilak, eta gaitz arriskutsu bat baztertzean erremedio eraginkor batez ere gabetzen direla. Iritzi politiko bat nagusiarazteko edo estatu-gizon bat gobernura igoarazteko edo beste bati agintea kentzeko helburuaz amerikarrak egunero aske elkartzen ikusten dituzuenean, kosta egiten da ulertzea hain independentea den jendea ez erotzea une oro libertinajean.

Bestalde, Estatu Batuetan amankomunean zertu nahi izaten diren industri eginkizunen kopuru mugagabea hartzen bada kontuan, eta egitasmo garrantzitsu eta zailen bat –iraultzarik txikienak desbideratuko lukeena- gauzatzeko alde guztietan atsedenik gabe amerikarrak lanean ikusten direnean, erraz ulertzen da hain lanpeturik dabilen jende horrek zergatik ez duen tentaziorik estatua asaldarazteko, ezta beraiek profitatzen duten lasaitasun publikoa suntsitzeko ere.

---

[4] Hau egia izaten da, batez ere, botere exekutiboa arduratzen denean bere nahierara elkarteak baimendu edo debekatzeaz. Legea zenbait elkarte debekatzera mugatzen denean eta desobeditzen dutenak zigortzeko ardura auzitegiei uzten dienean, gaitza askoz txikiagoa izaten da; orduan hiritar bakoitzak aurrez jakiten baitu gutxi gora-behera zer espero dezakeen; nolabait ere, bere burua epaitzen du epaileek baino lehen, eta, elkarte debekatuetatik aldenduz, baimenduriko elkarteetan sartzen da. Herri aske guztiek honela ulertu izan dute beti murritz zitekeela elkartze-eskubidea. Baina, legegileak gizon bati emango balio elkarte arriskutsuak eta onuragarriak zein diren aurrez bereizteko ardura, eta aske utziko balu elkarte guztiak sorreran suntsitzea ala jaiotzen uztea erabakitzeko, inork ezingo lukeenez aurrez jakin zein kasutan elkar daitekeen eta zeinetan abstenitu behar duen, inertziak erabat menperatuko luke elkartze-espiritua. Bi lege hauetako lehenak zenbati elkarteri bakarrik erasotzen dio; bigarrena gizarteari berari zuzentzen zaio eta min egiten dio. Ulertzen dut gobernu erregular batek lehenengora jotzea, baina ezein gobernuri ez diot onartzen bigarrena ezartzeko eskubidea.

Aski al da gauza horiek bakoitza bere aldetik ulertzea, lotzen dituen korapilo ezkutua aurkitu gabe? Estatu, izpiritu eta adin guztietako amerikarrek egunero elkarte politikoetan hartzen dute elkartzeko zaletasun orokorra, baita horretara ohitzen ere. Elkarte horietan ikusten dute elkar kopuru handian, eta elkarri hitz egin, entzun eta adore ematen diote edozelako eginkizunak zertzeko. Gero, horrela lorturiko nozioak bizitza zibilera aldatzen dituzte eta aplikazio askotarako erabiltzen dituzte.

Beraz, amerikarrek askatasun arriskutsu batez baliatzean ikasten dute askatasunaren arriskuak txikiago bihurtzeko trebetasuna.

Nazio baten bizitzan une jakin bat aukeratzen bada, erraza da frogatzea elkarte politikoek arazoak sortzen dizkiotela estatuari eta industria geldiarazten; baina herri baten bizitza osoa hartzen bada kontuan, agian erraza izango da frogatzea politika-arloan elkartzeko askatasuna mesedegarri izaten dela hiritarren ongizaterako, baita lasaitasunerako ere.

Esan dut obra honen lehen zatian: “Baina elkartzeko askatasun mugagabea arlo politikoan ezin da erabat nahastu idazteko askatasunarekin. Bata ez da bestea bezain beharrezkoa, baina aldi berean bai arriskutsuagoa. Nazio batek mugak jar diezazkioke, bere buruaren jabe izateari utzi gabe; batzuetan horrela egin behar izaten du existitzen jarraitzeko”. Eta aurrerago erantsi nuen: “Ezin da ukatu elkartzeko askatasun mugagabea politika-gaietan, askatasun guztien artetik herri batek jasan dezakeen azkena dela. Anarkian erorarazten ez badu, beronen ondo-ondoan ibilarazten du etengabe”.

Honela, ez dut uste nazio batek beti utz diezaiekeenik hiritarrei politika-arloan elkartzeko eskubide absolutua, eta zalantza dut, gainera, herrialderen batean eta garairen batean zuhurra izango ote litzatekeen elkartzeko askatasunari mugarik ez jartzea.

Horrelako herri batek, esan ohi da, ezingo lioke bakeari bere baitan eutsi, legeekiko begirunea sortu edo gobernu iraunkorrik eratu, ez badu muga estuetan ixten elkartzeko eskubidea. Horrelako ondasunak baliotsuak dira, zalantzarik gabe, eta ulertzen dut horiek eskuratu edo gordetzeko nazio batek bere buruari eragozpen handiak ezartzea momentuz; eta on da gainera zehatz jakin dezan zer kostatzen zaizkion ondasun horiek.

Pertsona baten bizia salbatzeko, beso bat moztea ulertzen dut; baina ez diezadatela esan besokerra izango ez balitz bezalakoxe trebetasuna izango duenik.

VIII

Nola borrokatzen diren amerikarrak indibidualismoaren aurka ongi ulerturiko interesaren doktrina bidez

Mundua gizabanako ahaltsu eta aberats gutxi batzuek gidatzen zutenean, gizakiaren eginbeharren ideia gorena zertzea maite zuten haiek; atseginez aldarrikatzen zuten loriatsua dela nor bere buruaz ahaztea, eta ongia interesik gabe egitea komeni dela, Jainkoak berak bezalaxe. Hori zen hartako doktrina ofiziala moral-arloan.

Ez dakit jendea bertutetsuagoa izango zen aristokrazi mendeetan besteetan baino, baina egia da etengabe hitz egiten zela orduan bertutearen edertasunari buruz; ezkutuan bakarrik aztertzen zen zein aldetatik ote zen baliagarri. Baina irudimena beheragotik ibiltzen den eta nor bere gauzetara mugatzen den neurrian, moralistak izutu egiten dira sakrifizioaren ideia horrekin eta jada ez dira ausartzen giza izpirituari hori eskaintzera; beraz, hiritarren onura indibiduala guztien zorionerako lan egitea izan ote daitekeen ikertzera mugatzen dira; eta, interes partikularrak interes orokorrarekin topo egin eta elkarrekin nahasten diren puntu horietako bat aurkitzen dutenean, argitara ateratzen dute berehala; poliki-poliki ugaldu egiten dira antzeko oharpenak. Oharpen isolatua baizik ez zena doktrina orokor bihurtzen da, eta azkenean gizakiak hurkoa zerbitzatzean bere burua zerbitzatzen duela uste izaten da, eta ongia egitea dela haren interes partikularra.

Jada erakutsi dut obra honetako zenbait tokitan nola Estatu Batuetako, jendeak beti jakiten duen ongizate propioa herrikideenarekin batzen. Hemen azpimarratu nahi dudana hori lortzen laguntzen dien teoria orokorra da.

Estatu Batuetan, ia ez da esaten bertutea ederra denik. Onuragarri dela aldarrikatzen da, eta egunero frogatzen da hori. Moralista amerikarrek ez dute esaten hurkoengatik sakrifikatu behar denik gauza bikaina delako hori egitea; baina argi eta garbi esaten dute horrelako sakrifizioak, bere buruari ezartzen dizkionarentzat bezain beharrezkoak direla horietaz profitatzen direnentzat.

Ohartu dira, beren herrialdean eta garaian, gizakia bere baitara eramaten duela indar jarkiezin batek, eta, hori geldiarazteko itxaropenik gabe, gidatzea baino ez dute amesten.

Ez dute, beraz, ukatzen pertsona bakoitzak ezin dionik bere interesari jarraitu, baina saiatzen dira frogatzen zintzoa izatean datzala bakoitzaren interesa.

Ez dut hemen sartu nahi haien arrazoien xehetasunetan, urrutiratu egingo baininduke neure gaitik; nahikoa dut esatea komentzitu egin dituztela beren herrikideak.

Aspalditxo esan zuen Montaignek. “Bide zuzenari bere zuzentasunagatik lotuko ez banintzaio ere, lotuko nintzaioke esperientziaz aurkitu dudalako azken finean bera izan ohi dela zoriontsuena eta erabilgarriena”.

Ongi ulerturiko interesaren doktrina ez da, beraz, berria; baina gaur egungo amerikarren artean unibertsalki onartua da; ospetsu bihurtu da: ekintza guztien atzean aurkitzen da; diskurtso guztietan zehar azaltzen da. Behartsuaren ahotan adina aurkitzen da aberatsarenean.

Interesaren doktrina Amerikan baino askoz zabarragoa da Europan, baina aldi berean ez dago hain hedatua eta batez ere gutxiago agertzen da; hala ere, jada sentitzen ez den atxikimendua aitortzen zaio egunero.

Amerikarrek, aitzitik, atsegin dute ongi ulerturiko interesaren laguntzaz beren bizitzako ia ekintza guztiak esplikatzea; atseginez erakusten dute beren buruaren maitasun zuhurrak nola etengabe bultzatzen dituen elkarren artean laguntzera eta nola prestatzen dituen beren denbora eta aberastasunen parte bat Estatuaren onerako gogotsu sakrifikatzera. Uste dut honetan sarri gertatzen zaiela beren buruari justiziarik ez egitea; zeren eta batzuetan Estatu Batuetan, beste edonon bezalaxe, hiritarrak gizakiari berezko zaizkion bulkada desinteresatu eta hausnargabeetara abandonatzen direla ikusten baita; baina amerikarrek nekez aitortzen dute horrelako mugimenduei amore ematen dietenik; nahiago izaten dute beren filosofia ohoratzea beren burua baino.

Gelditu ahal izango nintzateke hemen, idatzi berri dudana epaitzen saiatu gabe. Gaiaren zailtasun handia hartuko nuke aitzakitzat. Baina ez dut horretaz profitatu nahi eta nahiago dut neure irakurleek, zeren bila nabilen garbi ohartuta, jarraitzeari uko egitea nik beraiek zintzilika uztea baino.

Ongi ulerturiko interesarena ez da goi-mailako doktrina, baina argia eta ziurra. Ez ditu helburu handiak lortu nahi izaten, baina ahalegin handiegirik gabe lortzen ditu lortu nahi dituenak. Adimen guztien irispidean dagoenez, guztiek ulertzen dute erraz eta nekerik gabe gordetzen diote. Gizakien ahulezietara miresgarriro egokitzen denez, aginte handia bereganatzen du erraz, eta ez zaio zaila egiten horri eustea, interes pertsonala bere buruaren kontra itzultzen baitu eta, grinak gidatzeko, zaztatzen dituen eztenaz baliatzen da.

Ongi ulerturiko interesaren doktrina ez du atxikimendu handirik sortzen; baina sakrifizio txikiak iradokitzen ditu egunero; bere kabuz bakarrik ezin du pertsona bertutetsu egin; baina arautu, neurritsu, arrazoizko, aurrikusle eta bere buruaren jabe den hiritar-kopuru handia sortzen du; eta, borondatearen bidez bertutera zuzenean eramaten ez badu ere, hurbildu behintzat egiten du oharkabean azturen bidez.

Ongi ulerturiko interesaren doktrina moral-arloa erabat menperatzera iritsiko balitz, aparteko bertuteak bakanagoak izango lirateke, dudarik gabe. Baina orduan galdukeria zabarrak ere ez liratekeela hain arruntak izango pentsatzen dut. Ongi ulerturiko interesaren doktrinak agian eragotzi egingo die pertsona batzuei gizadiaren ohiko maila baino askoz gorago igotzea; baina beste askok, beherago eroriko liratekeenak, maila horretan jarraitzen dute. Gizabanako batzuk kontuan hartuta, beheratu egiten ditu. Espezie osoa kontuan hartuta, goratu.

Beldurrik gabe esango dut ongi ulerturiko interesaren doktrina, teoria filosofiko guztien artetik, gure garikoen premietarako egokiena iruditzen zaidala, eta beren buruaren kontra gelditzen zaien garantiarik

indartsuena ikusten dudala horretan. Beraz, gaur egungo moralisten izpirituak horretarantz bideratu behar luke, batez ere. Nahiz eta akasduntzat jo, hala ere beharrezkotzat onartu beharko da.

Oro har, ez dut uste berekoikeria gehiago dagoenik gure artean Amerikan baino; diferentzia bakarra, han ilustratua dela eta hemen ez. Amerikar bakoitzak badaki bere interes partikularretako batzuk sakrifikatzen gainerakoak salbatzeko. Guk guztiari eutsi nahi diogu, eta sarritan guztiak ihes egiten digu.

Neure inguruan ikusten dudan jende guztiak, bere hitz eta jarraibidez, baliagarri dena sekula ez dela okerra erakutsi nahi die egunero bere garaikideei. Ez ote dut inoiz aurkituko zuzena dena baliagarri ere izan daitekeela ulertarazten saiatuko denik?

Ez dago munduan botererik baldintza-berdintasun hazkorrak giza izpiritua onuragarriaren bilakuntzara eramatea eragotz dezakeenik eta hiritar bakoitza bere baitan ixtera bultzatzen ez duenik.

Espero behar da, beraz, interes indibiduala bihurtuko dela inoiz baino gehiago giza ekintzen eragile nagusia, bakarra ez bada; baina jakiteke geratzen da pertsona bakoitzak nola ulertuko duen bere interes indibiduala.

Hiritarrek, berdinak bilakatzean, ezjakin eta zabar izaten jarraituko balute, nekez aurreikus daiteke haien berekoikeria zer-nolako gehiegikeria zentzugaberaino iritsiko litzatekeen, eta aurrez ezin esan zer-nolako miseria lotsagarrietan murgilduko luketen beren burua, hurkoen oparotasunaren mesedetan beren ongizatea zertxobait sakrifikatzeko beldurrez.

Ez dut uste interesaren doktrina, Amerikan aldarrikatzen den bezala, hain nabaria denik bere alde guztietan; baina egia nabari asko du bere baitan, aski delarik jendea ilustratzea horiek ikus ditzan. Ilustra ezazue, beraz, kosta ahala kosta; zeren eta jada abnegazio itsuen eta instintuzko bertuteen mendea gugandik urruti baitoa ihesi, eta ikusten dut hurbiltzen ari dela garaia, non askatasunak, bake publikoak eta gizarte-ordenak berak ezingo duten jakintzargirik gabe iraun.

IX

Amerikarrek nola aplikatzen duten ongi ulerturiko interesaren doktrina erlijio-gaietan

Ongi ulerturiko interesaren doktrinak mundu hau bakarrik izango balu bistan, ez litzateke inola ere aski izango; zeren eta sakrifizio-kopuru handia baitago bere saria beste munduan bakarrik aurki dezakeena; eta bertutearen baliagarritasuna frogatzeko edozein izpiritu-ahalegin eginda ere, bete izango da zail ongi biziaraztea hil nahi ez duen pertsona bati.

Jakin behar da, beraz, ea ongi ulerturiko interesatzen doktrina erraz batera daitekeen erlijio-sineskizunekin.

Doktrina hau irakasten duten filosofoek esaten diote jendeari, bizitzan zoriontsu izateko, zaindu egin behar dituela grinak eta kontuz erreprimitu horien gehiegikeria; zoriontasun iraunkorra mila gozamen iragankorri uko eginez bakarrik lor daitekeela eta, azkenik, nor bere buruari gailendu behar zaiola etengabe bere onurarako.

Erlijio guztien sortzaileek hizkera berbera erabili izan dute gutxi gora-behera. Jendeari beste bide bat erakutsi gabe, helmuga atzeratzea baino ez dute egin; ezartzen dituzten sakrifizioen saria mundu honetan kokatu ordez, bestean ipini izan dute.

Hala ere, ez dut sinetsi nahi bertutea erlijio-izpirituz praktikatzen duten guztiek sariaren itxaropenez bakarrik jokatzen dutenik.

Aurkitu ditut kristau gartsuak beren buruaz etengabe ahazten zirenak guztion zorionerako are gogotsuago lan egitearren, eta honela beste munduko ondasunak merezitzeko bakarrik jokatzen zutela entzun diet; baina beren burua engainatzen dutela pentsatzen dut. Gehiegi errespetatzen ditut hori sinesteko.

Kristautasunak esaten digu, eta egia da, zerua irabazteko nork bere burua baino nahiago izan behar dituela besteak; baina halaber kristautasunak esaten digu hurkoei on egin behar zaiela Jainkoaganako maitasunagatik. Adierazpen bikaina da hori; gizakia bere adimenaren bidez jainko-pentsamenduan sartzen da; Jainkoaren xedea ordena dela ikusten du; egitasmo handi horrekin bat egiten du askatasunez; eta, bere interes partikularrak gauza guztien ordena miresgarri horren menpe jartzean, ez du beste saririk espero berori begiesteko atsegina baizik.

Ez dut sinesten pertsona erlijiosoen motibazio bakarra interesa denik; baina uste dut interesa dela erlijioek berek erabiltzen duten baliabide nagusia gizakiak gidatzeko, eta ez dut dudarik alde horretatik heltzen diotela jendetzari eta arrakasta lortzen.

Ez dut, beraz, argi ikusten ongi ulerturiko interesaren doktrinak zergatik apartatu behar lukeen jendea erilijio-sineskizunetatik; eta, aitzitik, horietara hurbildu egiten duela iruditzen zait.

Demagun, mundu honetako zoriona lortzeko, pertsona batek aurre egiten diola instintuari okasio guztietan, eta hotz-hotzean arrazoitzen dituela bere bizitzako ekintza guztiak, eta, bere lehen gurarien irrikari itsu-itsuan amore eman ordez, horiei nola eraso egin ikasi duela, eta momentuko plazerak bizitza osoko interes iraunkorraren menpe ahalegin handirik gabe sakrifikatzera ohitu dela.

Horrelako pertsonak fedea baldin badu aitortzen duen erlijioan, ez zaio asko kostako ezartzen dizkion eragozpenetara makurtzea. Arrazoiak berak aholkatzen dio hori egitea, eta ohiturak aurrez prestatua du hori sufritzeko.

Zalantzak baldin baditu bere esperantza-gaiaz, ez dute horiek erraz geldiaraziko, eta zuhurra irudituko zaio mundu honetako ondasun batzuk arriskatzea bestean agintzen zaion ondare neurrigaberako eskubideak gorde ahal izateko.

“Kristau-erlijioa egiazkotzat jo eta tronpatuz gero, esan zuen Pascalek, ez dago zer galdu handirik; baina zelako zoritxarra faltsutzat jo eta tronpatuz gero!”. Amerikarrek ez dute beste bizitzarekiko arduragabezia zabarraren itxurarik egiten; ez dute ume-harrokeriaz jokatzen baztertzea espero duten arriskuak gutxietsiz.

Beren erlijioa, beraz, lotsarik eta ahuleziarik gabe praktikatzen dute; baina normalean, haien sugarraren erdian, zerbait lasai, metodiko eta kalkulatua ikusten da, eta ematen du arrazoia dela bihotza baino gehiago aldare-oinetara gidatzen dituena.

Amerikarrek ez diote beren erlijioari interesagatik bakarrik jarraitzen, baina sarritan mundu honetan kokatzen dute jarraitzeko izan dezakeen interesa. Erdi Aroan, apaizek beste munduaz bakarrik hitz egiten zuten; ez ziren arduratzen frogatzeaz kristau zintzoa izan daitekeela zoriontsu hemen behean ere.

Baina predikari amerikarrak etengabe itzultzen dira lurreko gaietara, eta neke handiz baino ez dute begirada hemendik kentzen. Entzuleak hobeto hunkiarazteko, egunero ikusarazten diete nola erlijio-sineskizunak askatasun eta ordena publikoarentzat mesedegarri diren, eta, haiei entzutean, sarritan zaila izaten da jakitea erlijioaren helburu nagusia beste munduan betiko zoriona ala hemengo honetan ongizatea lortzea den.

X

Ongizate materialarekiko gustua Amerikan

Amerikan ongizate materialaren grina ez da beti esklusiboa, baina bai orokorra; guztiek ez badute ere berean esperimentatzen, guztiek sentitzen dute behintzat. Gorputzaren premiarik txikienak asetzeko eta bizitzako erosotasun txikiez hornitzeko ardurak izpiritu guztiak kezkatzen ditu han.

Antzeko zerbait ikusten da gero eta gehiago Europan.

Bi munduetan antzeko eragin hauek sortzen dituzten kausen artean, hainbat dira nire gaia ukitzen dutenak, eta adierazi behar ditudanak.

Aberastasuna familia berberetan dagoenean herentziaz finkaturik, gizaki-kopuru handiak gozatzen du ongizate materialaz, ongizatearen gustu esklusiboa sentitu gabe.

Giza bihotza bizikien lotzen duena ez da izaten objektu baliotsu baten edukitza baketsua, baizik eta edukitzeko desira erabat asegabea eta galtzeko beldur etengabea.

Gizarte aristokratikoetan, aberatsak, sekula ez dutenez ezagutu berenaz bestelako egoerarik, ez dira aldatzeko beldur izaten; nekez imajinatzen dute beste egoerarik. Beraz, ongizate materiala ez da izaten haientzat bizitzaren helburua; bizitzeko era bat da. Nolabait ere, izateko modutzat hartzen dute, eta pentsatu ere egin gabe gozatzen dute.

Gizaki guztiek berez eta senez sentitzen duten ongizatearen gustua nekerik eta beldurrik gabe honela asebetetzean, beraien arima beste norabait bideratzen da eta animatu eta erakarriko duen eginkizun zailago eta handiagoren bati ekiten dio.

Horrela, gozamen materialetan bertan ere, aristokrazia bateko kideek mesprezu harroa agertzen dute sarri gozamen horiekiko eta indar bereziak aurkitzen dituzte horietaz gabetu beharra dutenean. Aristokraziak astindu edo suntsitu dituzten iraultza guztiek erakutsi dute soberakora ohitutako jendea zein erraz molda daitekeen beharrezkorik gabe; aisetasunera nekez iritsitakoak, berriz, ia ezin izaten dira bizi hori galdu ondoren.

Goiko gizarte-mailetatik beheko klaseetara pasatzen banaiz, antzeko ondorioak ikusiko ditut, kausa ezberdinek eraginak.

Aristokraziak gizartea menperatu eta geldi edukitzen duen nazioetan, azkenerako herria ohitu egiten da bere txirotasunera, aberatsak oparotasunera bezalaxe. Hauek ez dira arduratzen ongizate materialaz, nekerik gabe daukatelako; hark ez du horretan pentsatzen, ez duelako lortzeko itxaropenik eta ez duelako desiratzeko beste ere ezagutzen.

Horrelako gizarteetan behartsuen irudimena beste mundurantz bideratzen da; bizitza errealeko ezbeharrek estutu egiten dute; baina ihes egin eta gozamenak kanpoan bilatzera jotzen du.

Aitzitik, gizarte-mailak nahastu eta pribilegioak suntsitzen direnean, ondareak banatu eta jakintzargia eta askatasuna zabaltzen direnean, ongizatea lortzeko gogoa sortzen zaio behartsuaren irudimenari, eta galtzeko beldurra aberatsaren izpirituari. Erdi-mailako aberastasun-pila ikaragarria sortzen da. Horien jabeek badute gozamen materialei gustua hartzeko beste gozamen, baina ez behar hainbat horiekin konformatzeko. Sekula ez dituzte lortzen ahaleginez baizik, eta izuti murgiltzen dira berorietan.

Beraz, hain gozamen preziatu, osagabe eta iheskor horiek lortu edo iraunarazten saiatzen dira etengabe.

Beren jatorriaren iluntasunak edo aberastasunaren kaskartasunak zirikatu eta mugaturiko jendearentzat berezkoa den grina baten bila hasten banaiz, ongizatearen gustua baino egokiagorik ez dut aurkitzen. Ongizate materialaren grina erdi-mailako klasearen grina da, batez ere; klase horrekin hazi eta hedatzen da; berorrekin bihurtzen da nagusi. Hortik iristen da gizarteko goi-mailetara eta herriaren baitaraino jaisten.

Ez dut aurkitu Amerikan hiritar hain behartsurik aberatsen gozamenen gain itxaropen eta inbidiazko begiradarik botatzen ez zuenik, eta zoriak setati ukatzen zizkion ondasunez haren irudimena aurrez jabetu ez zenik.

Bestalde, Estatu Batuetako aberatsen artean inoiz ez dut ikusi ongizate materialarekiko mesprezu harro hori, aristokraziarik oparoen eta galduenetan ere batzuetan aurkitzen dena.

Aberats horietako gehienak behartsuak izanak dira; premiaren ziria sentitu izan dute; luzaroan borrokatu dira zori etsaiaren aurka, eta orain, garaipena lortu dutenean, bizirik irauten dute borrokan sortu zitzaizkien grinek; mozkortuta bezala gelditzen dira berrogei urtez lortu nahi izan dituzten gozamen txiki horien erdian.

Kontua ez da Estatu Batuetan, beste edonon bezalaxe, ez dagoela aberats-kopuru handi samar bat, beren ondasunak herentziaz hartu dituztenez, berek lortu ez duten oparotasuna ahaleginik egin gabe daukatenak.

Baina hauek ere ez daude gutxiago atxikiak bizitza materialeko gozamenei. Ongizatearen maitasuna zaletasun nazional eta nagusi bihurtu da; giza grinen korronte handia alde horretarantz doa, eta dena darama arrastaka bere bidean.

XI

Gozamen materialen maitasunak demokrazi mendeetan eragiten dituen ondorio bereziak

Esandakoaren ondoren pentsa liteke gozamen materialen maitasunak amerikarrak ohitura-desordenarantz eramango dituela etengabe arrastaka, familiak nahastera eta, azken finean, gizartearen beraren zoria arriskuan jartzera.

Batzuetan gertatzen da arazo publikoetako lasaikeriak, aberastasun-gehiegikeriak, sineskizunen hondamenak eta estatuaren gainbeherak poliki-poliki gozamen materialetarantz bakarrik desbideratzen dutela aristokraziaren bihotza. Beste batzuetan, printzearen indarrak edo herriaren ahuleziak botererik aldentzera behartzen ditu nobleak, aberastasunaz gabetu gabe, eta, eginkizun handietarako bidea ixtean, beren grinaldien menpe uzten ditu; orduan beren buruari begira jartzen dira astun-astun eta gorputzaren gozamenetan bilatzen dute iragandako handitasunaren ahanztura.

Honela, gorputz aristokratiko bateko kideek gozamen materialen maitasunerantz soilik jotzen dutenean, normalean horretara bakarrik zuzentzen dute boterearen aztura luzeak eman dien energia guztia.

Horrelako jendearentzat ez da nahikoa ongizatea bilatzea; luxuzko galdukeria eta ustelkeria deigarria behar dute. Gurtza paregabea egiten diote materiari, eta zabarkeriaren artean nor gehiago nabarmenduko ibiltzen direla ematen du.

Zenbat eta indartsu, aintzatsu eta askeago izan aristokrazia, hainbat eta galduago agertuko da orduan, eta, nolanahikoa izanik ere haren bertuteen distira, ausartzen naiz iragartzera beti handiagoa izando dela bizioen oihartzuna.

Gozamen materialen gustuak ez ditu herri demokratikoak antzeko gehiegikerietan eramaten. Ongizatearen maitasuna grina setati, esklusibo eta unibertsala da herri horietan, baina bere neurrian. Arazoa ez da pertsona baten grinak hobeto asetzeko jauregi itzelak eraikitzea, natura garaitu edo tronpatzea, edo unibertsoa ahitzea; kontua landei toesaren batzuk gehitzea izaten da, baratzaren bat landatzea, egoitzaren bat handitzea, une oro bizitza errazago eta erosoago bihurtzea, arazoak eragoztea eta premiarik txikienak ahaleginik gabe eta ia gasturik gabe asetzea. Helburu hauek txikiak dira, baina horiei atxikitzen zaie arima; egunero hartzen ditu kontuan, eta oso hurbiletik; azkenerako munduaren gainerakoa ezkutatzen diote, eta batzuetan beraren eta Jainkoaren artean kokatzen dira.

Hori aberastasun kaskarreko hiritarrei bakarrik aplika dakiekeela esango da; eta aberatsek aristokrazi mendeetan zituzten gustuen antzekoak agertuko dituztela. Ez nator bat horrekin.

Gozamen materiala kontuan, demokraziako hiritarrik oparoenek ez dute herriaren aldean oso bestelako gusturik agertuko, bai, herriaren baitatik irtenak direnez, gustu horiek benetan berenak dituztelako, bai horien menpe jarri behar dutela uste dutelako. Gizarte demokratikoetan, publikoaren sentsualitateak halako jite neurritsu eta lasai bat hartu du, zeinetara arima guztiek moldatu behar duten. Arau komun horretatik bizioengatik ihes egitea bezain zaila da bertuteengatik ihes egitea.

Nazio demokratikoetan bizi diren aberatsak, beraz, beren premiarik txikienak asetzen saiatzen dira, ezohiko gozamenak baino lehen; desira txiki pila asetzen dute eta ez dira grina desordenatu handietan murgiltzen. Honela grina gaiztoetan baino gehiago erortzen dira nagikerian.

Demokrazi mendeetako jendeak gozamen materialetarako duen gustu berezi hau ez da berez ordenaren kontrakoa; aitzitik, bere burua asetzeko ordenaren beharra du sarri. Ez da ere ohitura-erregulartasunaren etsai; zeren eta ohitura onak onuragarri baitira lasaitasun publikorako eta mesede egiten diote industriari. Sarritan nolabaiteko moraltasun erlijiosoarekin ere konbinatzen da; ahalik eta ongien egon nahi da mundu honetan, baina besteko aukerak galdu gabe.

Ondasun materialen artean, batzuen edukitza kriminala da; horietaz abstenitzeko ardura egoten da. Beste batzuen erabilera onartu egiten dute erlijioak eta moralak, ondasun horietara bete-betean zuzentzen da bihotza, irudimena eta bizia, eta, horiek lortzen saiatzean, bistatik galtzen dira giza espeziearen aintza eta handitasun dien ondasun preziatuagoak.

Nik berdintasunari egozten diodana ez da gozamen debekatuen atzetik jendea arrastaka eramatea, gozamen debekatuen atzetik jendea arrastaka eramatea, gozamen baimenduen bilaketara erabat bideratzea baizik.

Honela, nolabaiteko materialismo zintzoa ezarri ahal izango litzateke munduan, arimak ustelduko ez lituzkeena, baina bigundu eta azkenerako isil-isilik indar guztiak ahulduko lizkiokeena.

XII

Zergatik amerikar batzuek agertzen duten hain izpiritualismo sutsua

Nahiz eta amerikarren grina nagusia mundu honelako ondasunak eskuratu nahia izan, badira atseden-tarte batzuk, eta hauetan arimak eusten dioten lokarri material guztiak bat-batean hautsi eta oldartsu zerurantz ihes egiten duela ematen du.

Jainkoaren hitza lekuz leku zabaltzen duten predikariak, batzuetan, Batasuneko estatu guztietan aurkitzen dira, baina, batez ere, mendebaldean erdi jendeztaturik dauden eskualdeetan.

Familia osoak, zaharrak, emakumeak eta haurrak leku zailak zeharkatu eta jendegabeko basoetan sartzen dira, oso urrutitik etorri eta predikari horiei entzuteko; eta aurkitu ondoren, hainbat gau eta egunez ahaztu egiten dituzte beren arazoak, baita gorputzaren premiarik beharrezkoenak ere.

Badira han-hemenka, gizarte amerikarraren baitan, Europan nekez ikusten den izpiritualismo sutsu eta ia basatiz beteriko arimak. Noizean behin, sekta arraroak sortzen dira, betiko zorionerantz aparteko bideak irekitzen dituztenak. Erokeria erlijiosoak oso ohikoak dira han.

Honek ez gaitu harritu behar.
Infinituaren gustua eta hilezkorraren maitasuna ez dio gizakiak eman bere buruari. Instintu goren horiek ez dira sortzen haren borondatearen kapritxorik. Haren izaeran dute oinarri mugigaitza; bera ahalegindu edo ez, berdin existitzen dira. Oztopatu eta desitxuratu egin ditzake, baina ez suntsitu.

Asetu beharreko premiak ditu arimak; eta, bere baitatik aldenarazten saiatu arren, laster gogaitzen da, urduritu eta astindu egiten da zentzuen gozamenen erdian.

Noizbait gizadiaren gehiengo handiaren izpirituak ondasun materialen bilaketa hutsari ekingo balio, pentsa daiteke erreakzio harrigarria zertuko litzatekeela pertsona batzuen ariman. Hauek izpirituen munduan sartuko lirateke itsu-itsuan, gorputzak ezarri nahi dizkien traba estuegietan katigatuta gelditzeko beldurrez.

Ez da harritzekoa, beraz,.bere pentsamenduan mundu hau bakarrik duen gizarte batean, gizaki-kopuru txiki bat aurkitzea zerura bakarrik begiratu nahi duena. Harrituko nintzateke, bere ongizateaz baino arduratzen ez den herri batean, mistizismoak ez egitea laster aurrerapenik.

Esan ohi da enperadoreen pertsekuzioek eta zirkoko oinazeek jendeztatu zituztela Tebaidako basamortuak; baina nire ustez eragin handiagoa izan zuten Erromako atsegin eztiak eta Greziako filosofia epikurearrak.

Gizarte-egoerak, zirkunstantziek eta legeek ez balute amerikarren izpiritua hain estu mugatuko ongizatearen bilaketara, pentsa liteke, gauza inmaterialez arduratzerakoan, zuhurtasun eta esperientzia handiagoa erakutsiko lukeela, eta erraz moderatuko litzatekeela. Baina preso sentitzen da muga batzuen barruan, eta badirudi ez zaiola hortik irteten utzi nahi. Muga horiek gainditzen dituenean, ez du jakiten non finkatu eta sarritan lasterka joaten da, gelditu gabe, zentzuaren muga gainetik harantzago.

XIII

Zergatik sentitzen diren amerikarrak hain kezkati beren ongizatearen erdian

Oraindik batzuetan, Mundu Zaharreko zenbait zoko baztertutan, aurkitzen dira herri txiki batzuk zirriparra unibertsalaren erdian ahazturik bezala eta mugitu gabe egon direnak, haien inguruan dena mugitzen ari zen bitartean. Herri horietako gehienak oso ezjakinak eta behartsuak dira; ez dira sartzen gobernu-arazoetan eta sarritan gobernuek zanpatu egiten dituzte. Hala ere, itxura lasaia agertzen dute normalean, eta sarritan jai-giroan daudela ematen dute.

Amerikan gizakirik askeenak eta ilustratuenak ikusi izan ditut, munduan eman litekeen egoerarik zoriontsuenean kokatuak; eta normalean haien aurpegiak hodei-moduko batek estaltzen zituela iruditu izan zait; serio eta ia triste zeudela iruditu izan zait beren plazeretan ere.

Honen arrazoi nagusia zera da: lehenengoek ez dutela pentsatzen jasaten dituzten gaitzetan; bigarrenek, ordea, etengabe dituzte buruan falta zaizkien ondasunak.

Bitxia gertatzen da ikustea amerikarrek zelako gogo-berotasunez bilatzen duten ongizatea, eta nola dauden etengabe atsekabetuak ongizatera iristeko aukeraturiko bidea laburrean ez ote den beldurrez.

Estatu Batuetako biztanlea mundu honetako ondasunei atxikitzen zaie, ez dela hilko ziur balego bezala, eta bere irispidean pasatzen direnak hartzeko hain lehiatsu ibiltzen denez, esan liteke horietaz gozatu baino lehen bizitzeari utziko ote dion beldur dela une oro. Guztiei heltzen die, baina tinko eutsi gabe, eta laster uzten die eskuetatik ihes egiten, gozamen berrien atzetik korrika joateko.

Estatu Batuetan pertsona batek arretaz eraikitzen du bere egoitza zahartzaroa han emateko, eta teilatua jartzen ari den bitartean saldu egiten du; baratza landatzen du, eta emaitzak dastatzear zegoenean alokatu egiten du; soroa goldatzen du, eta beste batzuei uzten die uzta biltzeko ardura. Lanbide bat hartu eta bertan behera uzten du. Leku batean finkatzen da, baina berehala alde egiten du handik bere gurari aldakorrak beste norabait eramateko. Arazo pribatuek atsedenik uzten badiote, politikaren zurrunbiloan murgiltzen da berehala. Eta lanez beteriko urte baten bukaeran, oraindik astirik gelditzen bazaio, bere jakingura aseezinak batetik bestera ibilarazten du Estatu Batuen muga zabalen barnean. Honela bostehun lekoa egingo ditu zenbait egunetan, bere zorionetik hobeto desbideratzeko.
Halako batean iristen zaion heriotzak geldiarazi egiten du, beti ihesi doan zoriontasun osoari alferrik jarraitzeari utzi baino lehen.

Hasieran harrigarria gertatzen da hainbeste jende zoriontsuk, beren ugaritasunean bertan, agertzen duten asaldura berezi hori ikustea. Ikuskizun hau, ordea, mundua bezain zaharra da; herri osoak ematen duela ikustea da berria.

Gozamen materialen gustua amerikarren ekintzetan agertzen den egonezin ezkutu horren eta egunero erakusten duten aldakortasunaren lehen sorburutzat hartu behar da.

Bere bihotza mundu honetako ondasunen bilaketara soilik bideratu duena estu eta larri ibiltzen da beti, denbora mugatua baitu horiek aurkitzeko eta horietaz jabetzeko eta gozatzeko. Bizitzaren laburtasunaren oroitzapenak etengabe eztenkatzen du. Berak dauzkan ondasunez aparte, beste mila imajinatzen ditu une oro, presaka ibiltzen ez bada, heriotzak gozatzen utziko ez dizkionak. Pentsamendu honek nahasmen, beldur eta atsekabez betetzen du, eta etengabeko asalduran edukitzen dio arima, une oro egitasmoz eta lekuz aldatzera eramaten duelarik.

Ongizate materialaren gustuari eransten bazaio gizarte-egoera bat, non ez legeak, ez ohiturak, ez duen inor leku batean egonarazten, honek asaldura handia gaineratzen dio izpirituaren egonezin horri. Orduan etengabe aldatzen da jendea bidez, zorionera eramango duen biderik laburrena galtzeko beldurrez.

Bestalde, erraza da ulertzea gozamen materialak gogotsu bilatzen dituztenek biziki desiratzen badituzte, biziki desiratzen badituzte, erraz aspertuko direla horietaz; gozatzea izanik azken helburua, horretara iristeko bideak bizkorra eta erraza izan behar du, eta gozamena lortzeko nekeak ez dezala gozamena gainditu. Arima gehienak, beraz, sutsuak eta epelak izaten dira aldi berean, bortitzak eta ahulak. Sarritan heriotza baino beldurgarriagoa izaten da helburu bat bererantz jotzeko ahaleginen jarraikortasuna.

Berdintasunak are bide zuzenagotik eramaten du azaldu berri ditudan ondorioetako batzuetara.

Jaiotza eta aberastasun-prerrogatiba guztiak suntsitzen direnean, lanbide guztiak guztiei irekiak daudenean, eta nor bere kabuz horietako bakoitzaren gailurrera irits daitekeenean, badirudi lasterketa neurrigabe eta erraza egiteko aukera agertzen zaiola jendearen gutiziari, eta hauek destino handietara deiturik daudela imajinatzen dute gogotsu. Baina ikuspegi okerra da hori, esperientziak egunero zuzentzen duena. Hiritar bakoitzari itxaropen ikaragarriak zertzeko aukera ematen dion berdintasun horrek berorrek, banaka ahul bihurtzen ditu hiritar guztiak. Alde guztietatik mugatzen dizkie indarrak, beraien gurariei zabaltzen uzten dien aldi berean.

Beren kasa indargeak izateaz gain, urrats bakoitzean egundoko oztopoak ere, hasieran ohartugabeak, aurkitzen dituzte.

Beren hurkoetako batzuen pribilegio gogaikarriak suntsitzen dituzte; guztien konkurrentziarekin topo egiten dute. Muga formaz aldatu da lekuz baino gehiago. Jendea gutxi gora-behera antzekoa denean eta bide berari jarraitzen dionean, oso zaila da horietako inor bizkor joatea bera inguratzen eta estutzen duen jendetza uniformean zehar bere bidea eginez.

Berdintasunak sortarazten dituen instintuen eta hauek asetzeko eskaintzen dituen baliabideen arteko kontrakotasun iraunkor horrek atsekabetu eta nekatu egiten ditu arimak.

Imajina daitezke pertsona batzuk, erabat asetzen dituen askatasun-mailara iritsiak. Orduan beren independentziaz gozatzen dute, kezkarik eta gogo-berotasunik gabe. Baina jendeak ez du inoiz aski izango zaion berdintasunik ezarriko.

Herri batek ahalegin handiak egin arren, ez du lortuko baldintzak berdin-berdinak izatea bere baitan; eta berdintasun absolutu eta erabateko horretara iristeko zoritxarra izango balu, artean ere adimen-desberdintasuna geldituko litzateke, honek, zuzenean Jainkoagandik datorrenez, beti ihes egingo baitie legeei.

Herri baten gizarte-egoera eta eraketa politikoa oso demokratikoak izan arren, pentsa daiteke hiritar bakoitzak bera menpean hartzen duten zenbait puntu ikusiko dituela inguruan, eta aurreikus daiteke alde horretarantz bakarrik zuzenduko duela setati bere begirada. Gizarteko lege komuna desberdintasuna denean, desberdintasunik bizienak ez dira harrigarri gertatzen; dena gutxi gora-behera maila berean dagoenean, txikienek ere zauritu egiten dute. Horregatik, berdintasun-nahia gero eta asegaitzago bihurtzen da berdintasuna handiagoa den neurrian.

Herri demokratikoetan, jendeak erraz lortzen du nolabaiteko berdintasuna; baina ez lortu nahi lukeen adinakoa. Honek egunero atzera egiten du haien aurrean, baina inoiz ezkutatu gabe bistatik, eta, erretiratzean, erakarri egiten ditu bere atzetik. Harrapatuko dutela pentsatzen dute etengabe, baina etengabe ihes egiten die haien ahaleginei. Beraren xarmak ezagutzeko behar bezain hurbil ikusten dute, baina ez zaizkio gozatzeko behar beste hurbiltzen, eta hil egiten dira beraren eztitasunak erabat dastatu baino lehen.

Kausa hauei egotzi behar zaie herrialde demokratikoetako biztanleek oparotasunaren baitan erakusten duten malenkonia berezia, baita bizimodu eroso eta lasaiaren erdian batzuetan jasaten duten bizitzeko gogorik eza ere.

Frantzian kexu dira suizidio-kopurua hazi egiten delako; Amerikan suizidioa arraroa da, baina, diotenez, zoramena beste inon baino ohikoagoa da han.

Gaitz beraren sintoma ezberdinak dira.

Amerikarrek, oso nahastuta egon arren, ez dute beren buruaz beste egiten, erlijioak debekatu egiten dielako, eta haien artean ia ez dagoelako materialismoak, nahiz eta ongizate materialaren grina orokorra izan.

Haien borondateak kontra egiten du, baina arrazoia ahul agertzen da sarri.

Demokrazi garaietan gozamenak biziagoak dira aristokrazi mendeetan baino, eta, batez ere, horietaz gozatzen direnen kopurua askoz handiagoa izaten da; baina, bestalde, onartu beharra dago itxaropenak eta

desirak sarriagotan frustratzen direla han, arimak hunkituago eta asaldatuago egoten direla, eta ardurak ere sakonagoak izaten direla.

XIV

Gozamen materialen gustua nola elkartzen den, amerikarren artean, askatasunaren maitasunarekin eta arazo publikoen ardurarekin

Estatu demokratiko bat monarkia absoluturantz bihurtzen denean, aurrez arazo publiko eta arazo pribatuetarantz bideratzen zen ekintzak bat-batean azken hauetara jotzen duelarik, ondorioz oparotasun material handia sortzen da hasiera batean; baina mugimendua moteldu egiten da laster eta produkzioaren garapena gelditu.

Ez dakit aipa daitekeen manufaktura- eta merkataritza-herri bakar bat ere, tiriarrengandik florentziar eta ingelesenganaino, herri aske izan ez denik. Lotura estua eta beharrezko erlazioa dago, beraz, bi gauza hauen artean: askatasuna eta industria.

Hau, oro har, nazio guztietan da egia, baina nazio demokratikoetan batez ere.

Ikusarazi dut gorago nola berdintasun-mendeetan bizi den jendeak elkartzeko premia iraunkorra duen gutiziatzen dituen ondasun gehienak eskuratzeko, eta, bestalde, erakutsi dut nola askatasun politiko handiak perfekzionatu eta bulgarizatu egiten duen haien baitan elkartzeko artea. Askatasuna, mende horietan, bereziki onuragarria da aberastasunak ekoizteko. Aitzitik, despotismoa bereziki etsai zaiola ikusten da.

Botere absolutuaren izaera, demokrazi mendeetan, ez da ez ankerra, ez basatia, baina bai zehatza eta gogaikarria. Honelako despotismoa, nahiz eta ez duen gizadia hankapean hartzen, merkataritza-jeinuaren eta industri joeren aurkakoa da zuzen-zuzenean.

Honela, demokrazi garaietako jendeak aske izateko beharra du etengabe irrikatzen dituen gozamen materialak errazago eskuratu ahal izateko.

Hala ere, batzuetan gertatzen da gozamen horien gehiegizko zaletasunak, agertzen den lehen nagusiaren esku uzten dituela. Orduan, ongizatearen grina bere buruaren kontra bihurtzen da eta, oharkabean, urrundu egiten du bere irrika-gaia.

Hain zuzen ere, bada arrisku handiko une bat herri demokratikoen bizitzan.

Herri horietako batean gozamen materialen zaletasuna jakintzargiak eta askatasun-azturak baino bizkorrago garatzen denean, momentu batean jendea garraiatua eta bere baitatik kanpo bezala jartzen da, lotzear dituen ondasun berri horiek ikusiz. Aberasteaz bakarrik arduraturik, ez dira ohartzen bakoitzaren aberastasun partikularra guztien oparotasunarekin elkartzen duen lokarri estuaz. Hiritar horiei ez dago dauzkaten eskubideak kendu beharrik; beraiek gogoz uzten diete ihes egiten. Beren betebehar politikoak zertzea eragozpen gogaikarria iruditzen zaie, beren zereginetatik desbideratzen dituena. Kontua bada ordezkariak aukeratzea, agintariei laguntza ematea, gauza publikoa amankomunean tratatzea, ez dute astirik izaten; hain denbora baliotsua ezin dute alferreko lanetan galdu. Zereginik ez dutenentzako jolasak dira horiek, pertsona serio eta bizitzako interes serioez arduratzen direnentzako desegokiak. Pertsona horiek interesaren doktrinari segitzen diotela uste dute, baina berorren ideia zabarra besterik ez dute, eta, beren arazo deitzen dituztenak hobeto zaintzeko, nagusiena ahazten dute, beren buruaren jabe irautea, alegia.

Lan egiten duten hiritarrek ez dute gauza publikoan pentsatu nahi, eta bere aisialdia betetzeko eginkizun horretaz ardura zitekeen klasea jada existitzen ez denez, hutsik bezala dago gobernuaren lekua.

Kinka larri horretan, gutiziatsu iaio bat botereaz jabetzen bada, usurpazio guztietarako bidea zabalik aurkitzen du.

Aldi batez interes material guztiek aurrera egin dezaten arduratzen bada, erraz barkatuko zaio gainerakoa. Batez ere, ziurta dezala ordena. Gozamen materialen grina dutenak normalean lehenago ohartzen dira askatasunaren zalapartak ongizatea nahasten duela, askatasunak ongizate hori lortzeko balio duela baino;

eta, beren bizitza pribatuko gozamen txikietan grina publikoen zaratotsik txikiena sartzen bada, esnatu eta kezkatu egiten dira; anarkiaren beldurrak etengabe zalantzan edukitzen ditu luzaroan, eta beti prest lehen desordenaren aurrean askatasunetik irteteko.

Eragozpenik gabe onartuko dut nik bake publikoa ondasun handia dela; baina ez dut, hala ere, ahaztu herri guztiak ordenaren bidez iritsi direla tiraniara. Ziur aski, hortik ez da ondorioztatzen herriek bake publikoa gutxietsi behar dutenik; baina bake hori ez zaie aski gertatu behar. Bere gobernuari ordenari eusteko bakarrik eskatzen dion nazio bat jada esklabo da bihotzaren barrenean; ongizatearen esklabo da, eta kateatuko duen pertsona laster ager liteke.

Fakzioen despotismoa pertsona bakar batena bezain beldurgarria da.

Hiritar gehienek arazo pribatuez soilik arduratu nahi dutenean, alderdi txikienek ez dute etsi behar arazo publikoen jabe bihurtzeaz.

Orduan ez da arraroa izaten munduko eszenatoki zabalean, baita gure antzokietan ere, jendetza handiaren ordezkari pertsona banaka batzuk ikustea. Horiek bakarrik hitz egiten dute, burua beste nonbait edo beste zerbaitetara emana duen jendetzaren izenean; horiek bakarrik jarduten dute mugiezintasun unibertsalaren erdian; beren kapritxoaren arabera, gauza guztiez baliatzen dira, legeak aldatu eta ohiturak beren gogara tiranizatzen dituzte; eta harrigarria gertatzen da ikustea herri handi bat nola eror daitekeen esku ahul eta ezduin gutxi batzuetan.

Orain arte, amerikarrek arrakastaz ekidin dituzte aipatu ditudan eragozpen guztiak; eta benetan miresgarriak dira horregatik.

Agian munduan ez da izango herrialderik Amerikak baino langabe gutxiago duenik, ezta lan egiten duten guztiak ongizatearen bila sutsuago ibiltzen direnik ere. Baina amerikarren grina gozamen materialekiko bortitza bada, gutxienez ez da itsua, eta arrazoiak, ezin moderatu arren, gidatu egiten du.

Amerikarra interes pribatuez arduratzen da, munduan bakarrik balego bezala, eta, unetxo bat geroago, gauza publikoari ekiten dio, interes haiek ahaztu balitu bezala. Gutiziarik berekoienak nahiz patriotismorik bizienak eragiten diola ematen du.Giza bihotza ezin da horrela banatu. Estatu Batuetako jendeak, txandaka, bere ongizate eta askatasunarekiko hain grina indartsua eta hain berdintsua agertzen duenez, pentsa daiteke grina horiek batu eta nahastu egiten direla haren arimako tokiren batean. Izan ere, amerikarrek askatasunean ikusten dute ongizateko tresnarik onena eta garantiarik handiena. Bi gauza hauek, bata besteagatik, maite dituzte. Ez dute pentsatzen arazo publikoez arduratzea beren arazo ez denik; aitzitik, nahi dituzten ondasunak eskuratzeko aukera emango dien eta lortu dituztenak bakean gozatzea galaraziko ez dien gobernua haiek berek ziurtatzea, hori iruditzen zaie eginkizun nagusia.

XV

Nola erlijio-sineskizunek aldizka amerikarren arima desbideratzen duten gozamen inmaterialetara

Estatu Batuetan, asteko zazpigarren eguna iristean, nazioko merkataritza- eta industri bizitza etenda gelditzen dela ematen du; hots guztiak amaitzen dira. Atseden sakona, edo halako barnebiltze solemne bat, sortzen da orduan; azkenean arima bere buruaz jabetzen da eta bere burua begiesten du.

Egun horretan, merkataritzara emaniko lekuak hutsik gelditzen dira; hiritar bakoitza, seme-alabez inguratua, tenplura joaten da; diskurtso arraroak entzuten ditu han, ez dutenak ematen hark entzuteko eginak. Harrokeriak eta gutiziak eragindako gaitz ugariez hitz egiten zaio. Gurariak arautu beharraz, bertuteari soilik atxikitako gozamen finez eta honekin batera doan benetako zorionaz berba egiten zaio.

Etxera itzultzean, ez du lasterka liburu-negozioetara jotzen. Idazteunak zabaltzen ditu; Egilearen handitasun eta ontasunaren azalpen bikain edo hunkigarriak aurkitzen ditu, baita Jainkoaren egintzen handitasun mugagabearen, gizakiei dagokien goi-destinoaren eta hauek hilezkortasunerako dituzten betebehar eta eskubideen azalpenak ere.

Honela, noizean behin, amerikarra bere buruagandik ezkutatzen da nolabait ere, eta, bere bizitza astintzen duten grina txikietatik eta bizitza hori betetzen duten interes igarokorretatik une batez aldenduta, mundu ideal batean sartzen da bat-batean, non dena handia, garbia, betierekoa baita.

Obra honetan beste nonbait aztertu dut amerikarren erakunde politikoen iraunkortasuna zein kasuari egotzi behar zaion, eta erlijioa iruditu zait horietatik garrantzitsuenetako bat. Orain, gizabanakoez ari naizelarik, berriro topo egiten dut berarekin eta iruditzen zait estatu osoari bezain onuragarri zaiola hiritar bakoitzari.

Demokrazia erlijioaz moralizatu beharra, amerikarrek bete-betean sentitzen dutela erakusten dute beren praktikaz. Honi dagokionez beren buruaz pentsatzen dutena egia hutsa da, eta egia horretaz nazio demokratiko orok egon behar du komentziturik.

Ez dut zalantzarik herri baten gizarte- eta politika-eraketak sineskizun eta gustu jakin batzuetarako gertatzen duela herri hori, gero bere baitan eragozpenik gabe ugalduko direlarik; baina kausa horiek beroriek zenbait iritzi eta joeratatik aldenarazten dute, berak horretarako ezer egin gabe eta, nolabait esateko, sumatu ere egin gabe.

Gizarteen berezko joera hauek aurrez ongi bereiztean datza legegilearen trebetasun guztia, hiritarren ahaleginari non lagundu behar zaion eta non eutsi beharko litzaiokeen jakin ahal izateko. Izan ere, betebehar horiek ezberdinak dira garaien arabera. Mugiezina den gauza bakarra gizadiak beti erreferentziatzat izan behar duen helmuga da; baina horra iristeko bideak etengabe aldatzen dira.

Aristokrazi mende batean jaio izan banintz –batzuen herentziazko aberastasunak eta besteen pobrezia konponezinak egoera hobetzeko ideiatik jendea berdin aldendu eta arimak lozorroan bezala beste mundu baten kontenplazioan edukiko lituzkeen nazio batean, alegia-, horrelako herri batean premien sentimendua estimulatu ahal izan nahiko nuke, neuk sortarazitako gurari berriak asetzeko biderik bizkorren eta errazenak aurkitzea amestuko nuke eta, giza izpirituaren ahaleginik handienak ikasketa fisikoetarantz desbideratuz, ongizatearen bilaketarako kilikatzen saiatuko nintzateke.

Pertsona batzuk neurrigabe gogo-berotuko balira aberastasunen atzetik eta gozamen materialen gehiegizko maitasuna agertuko balute, ez nintzateke izutuko; ezaugarri partikular horiek laster desagertuko lirateke fisionomia orokorrean.

Demokrazietako legegileek beste ardura batzuk izaten dituzte.

Emaizkiezue herri demokratikoei jakintzargiak eta askatasuna, eta utzi jarduten. Nekerik gabe lortuko dituzte mundu honek eskain ditzakeen ondasun guztiak; arte onuragarrietako bakoitza perfekzionatuko dute eta bizitza eroso, erraz eta eramankorrago bihurtuko dute egunero; beren gizarte-egoerak alde horretara bultza egiten die berez. Ez naiz geldituko diren beldur.

Baina gizakiak ongizatearen bilaketa zintzo eta bidezko horretan atsegin hartzen duen bitartean, beldur izatekoa da azkenean ez ote duen galduko bere ahalmenik bikainenen erabilera, eta bere inguruan dena hobetu nahi izatean, azkenean ez ote duen bere burua degradatuko. Horretantxe datza arriskua, eta ez besteen ezertan.

Beharrezkoa da, beraz, demokrazietako legegileak eta horietan bizi diren pertsona zintzo eta ilustratu guztiak atseden gabe saiatzea arimak goratzen eta zerurantz begira edukitzen. Beharrezkoa da gizarte demokratikoen etorkizunaz arduratzen diren guztiak elkar daitezen, eta guztiek, baturik, etengabeko ahaleginak egin ditzaten gizarte horien baitan infinituaren gustua, handiaren sentimendua eta plazer inmaterialen maitasuna zabaltzeko.

Herri demokratiko baten iritzien artean, dena gorputzarekin bukatzen dela sinestarazten diguten teoria kaltegarri horietakoren batzuk aurkitzen badira, horiek aldarrikatzen dituztenak har itzazue herri horren berezko etsaitzat.

Materialisten artean gauza asko daude mintzen nautenak. Haien doktrinak kaltegarriak iruditzen zaizkit, eta beraien harrokeriak asaldarazi egiten nau. Haien sistemak inolako onurarik egin badiezaioke gizakiari, bere buruaz ideia apala ematea izan daiteke hori. Baina ez dute horrela denik erakusten; eta, abere huts

direla behar hainbat garbi utzi dutela uste dutenean, jainko direla frogatu balute bezain harro agertzen dira.

Materialismo nazio guztietan da giza izpirituaren gaitz arriskutsua; baina bereziki beldurgarria herri demokratikoetan, ederki batzen baita herri horiek ongien ezagutzen duten barne-bizioarekin.

Demokraziak gozamen materialen gustua bultzatzen du. Gustu hau, gehiegizko bilakatzen bada, guztia materia huts dela sinestera eramaten du jendea; eta azkenean materialismoak, bere aldetik, gogoberotasun zentzugabez herrestatzen du jendea gozamen horietarantz. Gurpil zoro horretan bukatzen dute nazio demokratikoek. On da arriskua ikusi eta beren buruari eustea.

Erlijio gehientsuenak baliabide orokor, sinple eta praktikoak baino ez dira, gizakiei arimaren hilezkortasuna irakasteko. Horixe da herri demokratiko batek sineskizunetatik ateratzen duen abantaila handiena, eta horretxek bihurtzen ditu horrelako herri batentzat beste guztientzat baino beharrezkoago.

Beraz, edozein erlijiok demokrazia baten baitan sustrai sakonak bota dituenean, ez ezazue suntsi, baizik eta gorde ezazue arretaz aristokrazi mendeetako ondare preziatuena balitz bezala; ez ahalegindu jendeari antzinako iritzi erlijiosoak erauzi eta haien ordez berriak sartzen, gerta bailiteke, fede batetik bestera pasatzean, arima une batez sineskizunik gabe aurkitzean, gozamen materialen maitasunak hedatu eta guztiz betetzea arima hori.

Ziur aski, metenpsikosia ez da materialismoa baino arrazoizkoagoa; hala ere, demokrazia batek bi horien artean aukeratzea behar-beharrezkoa balitz, nik ez nuke zalantzarik izango, eta pentsatuko nuke hiritarrek zabartzeko arrisku txikiagoa dutela beren arima zerri baten gorputzaren pasatuko dela pentsatuz arima ezer ez dela pentsatuz baino.

Aldi batez materiari lotzen zaion printzipio inmaterial eta hilezkor batetiko sineskizuna hain beharrezkoa zaio gizakiaren handitasunari, ezen ondorio ederrak eragiten baititu sari eta zigorren ideiarekin batera ez doanean ere, baita hil ondoren gizakiaren baitako jainko printzipioa Jainkoarengan zurgatzen edo beste izaki bati bizia ematera joaten dela bakarrik sinetsitakoan ere.

Horiek beroriek gorputza gure izaeraren bigarren eta behe-mailako zatitzat jotzen dute; eta gutxietsi egiten dute horren eragina, jasaten dutenean ere; baina berezko estima eta ezkutuko mirespena sentitzen dituzte gizakiaren alde inmaterialarekiko, nahiz eta batzuetan uko egin horren agintepean jartzeari. Hau aski da halako jite jaso bat emateko jende horren ideia eta gustuei, eta, interes propiorik gabe eta beren kabuz bezala, sentimendu garbi eta pentsamendu handietarantz bideratzeko.

Ez da egia Sokratesek eta haren eskolak iritzi oso finkoak zituztela gizakiari beste bizitzan gertatuko zitzaionaz; baina haiek ziur zeukaten sineskizun bakarra –arimak ez duela ezer gorputzarekin amankomunean eta hau hildakoan hark bizirik irauten duela- aski izan da filosofia platonikoari bere bereizgarri duen hats bikain hori emateko.

Platon irakurtzen denean, ikusten da haren aurreko garaietan eta beraren garaian, idazle asko zegoela materialismoa aldarrikatzen zuena. Idazle haiek ez dira gureganaino iritsi edota oso era osagabean egin dute. Ia mende guztietan gertatu da hori: literaturako izen ospetsu gehientsuenak izpiritualismoarekin elkartu dira. Gizadiaren senak eta gustuak doktrina hori bultzatzen dute, salbatu egiten dute sarri gizakien beren jarreraren gainetik eta berari atxikitzen zaizkionen izena iraunarazten du. Ez da sinetsi behar, beraz, edozein garaitan eta edozelakoa izanik egoera politikoa, gozamen materialen grina eta honek inplikatzen dituen iritziak aski gerta dakizkiokeenik herri oso bati. Uste baino zabalagoa izaten da gizakiaren bihotza; bere baitan lurreko ondasunen gustua eta zerukoen maitasuna eduki ditzake aldi berean; batzuetan ematen du bi horietako bati jarraitzen diola itsu-itsuan, baina sekula ez luzaroan bestean pentsatu gabe.

Erraz ulertzen bada batez ere demokrazi garaietan komeni dela iritzi izpiritualistak nagusiaraztea, ez da erraza esatea hori lortzeko zer egin behar duten herri demokratikoak gobernatzen dituztenek.

Ez dut sinesten filosofia ofizialen oparotasunean, ezta iraunkortasunean ere; eta, estatu-erlijioei dagokienez, beti pentsatu izan dut zenbati momentutan botere politikoaren interesak zerbitza baditzakete ere, lehentxeago edo geroxeago beti oso kaltegarri bihurtzen direla Elizarentzat.

Halaber, ez naiz pentsatzen dutenetakoa erlijioa herrien aurrean goratzeko, eta berak aldarrikatzen duen izpiritualismoa ohoratzeko, on dela erlijioaren ministroei legeak ukatzen dien eragin politikoa zeharka ematea.

Oso jabeturik nago erlijio-sineskizunek jasan beharreko arrisku ekidinezinez, horien interpretariak arazo publikoetan nahasten direnean; eta demokrazia berrietan kristautasunari kosta ahala kosta eutsi egin behar zaiola oso komentziturik nagoenez, nahiago nuke apaizak santutegian kateatzea hortik irteten uztea baino.

Zer bide gelditzen zaio, bada, agintaritzari gizakiak iritzi izpiritualistetara eramateko edota horiek sortarazten dituen erlijioan eusteko?

Esan behar dudanak ez dit onik egingo politikaren aurrean. Nire ustez, arimaren hilezkortasunaren dogma ohoratzeko gobernuek erabil dazaketen baliabide eraginkor bakarra, horretan sinetsiko balute bezala jokatzea da egunez egun; eta pentsatzen dut arazo nagusietan moral erlijioso horretara zorrotz egokituz bakarrik esan dezaketela harro arazo txikietan ere ezagutzen, maitatzen eta errespetatzen irakasten dietela hiritarrei.

XVI

Nola ongizatearen gehiegizko maitasunak kalte egin diezaiokeen ongizateari

Uste baino lotura handiago dago arima perfekzionatzearen eta gorputz-ondasunen hobekuntzaren artean; gizakiak bereiz ditzake bi gauza hauek eta txandaka aurre egin horietako bakoitzari; baina ezin erabat banatu, halako batean biak bistatik galdu gabe.

Animaliek gure zentzumen berak dituzte eta gutxi gora-behera irrika berak. Ez dago grina materialik haiekin amankomunean ez dugunik, eta bere hazia guregan bezalaxe zakur batengan ez duenik.

Zergatik dakite animaliek beren lehen premia gordinenak bakarrik asebetetzen, guk geure gozamenak mugarik gabe bariatu eta etengabe gehitzen ditugun bitartean?

Honetan animalien gainetik jartzen gaituena zera da: guk arima erabiltzen dugula ondasun materialak bilatzeko, eta haiek senak bakarrik gidatzen dituela horietarantz. Gizakiarengan, aingeruak piztiari irakasten dio bere burua nola hornitu. Gizakia gorputz-ondasunak gainditzeko eta bizia bera ere gutxiesteko gai delako –honetaz animaliek ideiarik ere ez dute-, gizakiak badaki ondasun horiek beroriek imajinaezinezko mailaraino ugaltzen.

Arima goratzen, handitzen, zabaltzen duen guztiak arrakastarako gaitasun handiagoa ematen dio, baita berarekin zerikusirik ez duten eginkizun horietan ere.

Ahultzen edo beheratzen duen orok, aitzitik, gauza guztietarako indargetzen du, nagusi nahiz txikienetarako, eta batzuetarako bezain ezgai bihurtzen du ia besteetarako. Honela,.beharrezko da arimak handi eta indartsu irautea, besterik ez bada ere, noizean behin, bere indarra eta handitasuna gorputzaren zerbitzura jar ditzan.

Gizakiak inoiz iritsiko balira ondasun materialekin konforme egotera, ziur aski ondasun horiek egiteko trebetasuna galduko lukete poliki-poliki eta azkenerako inolako bereizketa eta aurrerapenik gabe gozatuko lukete horietaz, abereek bezalaxe.

XVII

Nola berdintasun eta duda garaietan komeni den giza ekintzen helburua urruntzea

Fede-mendeetan, bizitzaren azken xedea bizitza ostean jartzen da.

Hortaz, garai horietako jendea ohitu egiten da beraz –eta nahi gabe, nolabait esateko-, urte-sail luzean mugigaitz bat gogoan izatera, etengabe jotzen dutelarik horretarantz, eta, aurrerapen sumagaitzen bidez, mila gurari txiki iragankor erreprimitzen ikasten dute, kezkatzen dituen desira handi eta iraunkor hori

hobeto asebetetzera iristeko. Jende horrek berorrek mundu honetako gauzez arduratu nahi duenean, berriro aurkitzen dira aztura horiek. Hemen beheko ekintzei ere helburu orokor eta ziurra ezartzen diete gogotsu, horretarantz zuzenduz ahalegin guztiak. Ez dira egunero saiakuntza berrietan hasten; baina egitasmo finkoak dituzte, etengabe lortu nahi izaten dituztenak.

Horrek esplikatzen du herri erlijiosoek zergatik lortu dituzten sarri hain gauza iraunkorrak. Gertatzen da beste munduaz arduratzean, hemengo honetan arrakasta izateko sekretu nagusia aurkitu zutela.

Erlijioek etorkizunerantz begira jokatzeko aztura orokorra ematen dute. Ikuspegi honetatik beste munduko zorionerako bezain onuragarri dira bizitza honetako zorionerako. Hauxe da beraien ezaugarri politiko nagusietako bat.

Baina, fedearen argiak iluntzen diren neurrian, jendearen bista laburtu egiten da, eta esan liteke egunetik egunera hurbilago ikusten dutela giza ekintzen helburua.

Bizitza ostean gertatuko denaz ez arduratzera ohitu direnean, oso erraz jausten dira etorkizunarekiko arduragabezia erabateko eta basatian, hau bat datorrelarik giza espeziearen zenbait joerarekin. Beren itxaropen nagusiak epe luzera jartzeko usadioa galdu bezain laster, gurariri txikienak atzerapenik gabe gauzatu nahi sortzen zaie berez, eta ematen du, betierean bizitzeko itxaropena galtzen duen momentuan, prest daudela egun bakar batean bakarrik iraun behar balute bezala jokatzeko.

Sinesgabezi mendeetan beldur izatekoa da jendea ez ote den bere gurarien eguneroko gora-beheren menpe jarriko etengabe eta, ahalegin luzerik gabe lortu ezin den guztia erabat errefusatuz, ez ote duen ezer handi, baketsu eta iraunkorrik sortuko.

Honelako jarrera duen herri gizarte-egoera demokratiko bilakatzen bada, nik aipatu dudan arriskua areagotu egiten da.

Bakoitzak etengabe lekuz aldatzea bilatzen duenean, guztiak ikaragarrizko konkurrentzian hasten direnean, aberastasunak demokraziaren zalapartaren erdian une laburretan metatu eta xahutzen direnean, giza izpirituari aberastasun bat-bateko eta errazaren ideia aurkezten zaio, erraz lortu eta galduriko ondasun handien ideia, zoriaren irudia bere forma guztietan. Gizarte-egoeraren ezegonkortasunak gurarien berezko ezegonkortasuna bultzatzen du. Zoriaren betiko gora-behera horien erdian, oraina hazi egiten da; urrutiko etorkizuna ezkutatu egiten du eta biharamunekoaz bakarrik pentsatu nahi dute gizakiek.
Zoritxarrez erlijiogabetasunak eta demokraziak elkarrekin topo egiten duten herrialdeetan, filosofoek eta gobernariek etengabe jardun behar dute giza ekintzen helburua jendearen bistatik urruntzen; horra hor beraien eginkizun nagusia.

Beharrezkoa da, bere garai eta herrialdearen izpirituan murgilduta, moralistak bere burua defendatzen ikastea. Egunero saia dadila bere garaikideei erakusten, inguruko mugimendu etengabearen erdi-erdian, uste baino errazagoa dela eginkizun luzeak asmatu eta gauzatzea. Ikusaraz diezaiela, gizadiak itxuraz aldatu duen arren, mundu honetan oparotasuna lortzeko gizakiak erabil ditzakeen bideak lehengo berberak direla, eta herri demokratikoetan, beste guztietan bezalaxe, eguneroko hamaika grinatxo partikularri aurre eginez bakarrik hel daitekeela kezkatzen dituen zorion-grina orokorra asetzera.

Gobernarien zeregina ere ez da zehaztasun gutxiagokoa.

Garai guztietan komeni da nazioak gidatzen dituztenek etorkizuna kontuan izanda jokatzea.Baina hau are beharrezkoagoa da demokrazi eta sinesgabezi mendeetan beste guztietan baino. Honela jokatuz, demokrazietako buruek, arazo publikoak aurrerazi ez ezik, beren exenpluaz arazo pribatuak nola kudeatu ere irakasten diete partikularrei.

Ahal den neurrian, politika-mundutik zoria baztertzen ahalegindu behar dute, batez ere.

Gortesau bat bat-batean eta merezi gabe goratzeak zirrara igarokorra baino ez du eragiten herrialde aristokratikoetan, zeren eta normalean erakunde eta sineskizunen multzoak irten ezinezko bideetatik astiro-astiro aurrera egitera behartzen baitu jendea.

Baina ez dago ezer kaltegarriagorik herri demokratiko baten aurrean horrelako exenpluak jartzea baino. Izan ere, azkenerako, dena irensten duen malda baten behera botatzen dute herriaren bihotza. Beraz, batez ere eszeptizismo eta berdintasun-garaietan ebitatu behar da arretaz herriaren edo printzearen onginahiak –zeinetaz zoriak hornitzen edo gabetzen gaituen- jakintzaren eta zerbitzuen tokia hartzea. Desiragarri da aurrerapen bakoitzak ahalegin baten ondorio dela ematea, handitasun errazegirik egon ez dadin, eta gutizia bere begirada luzaroan helburu batean finkatzera beharturik egon dadin, helburu hori lortu ahal izan aurretik.

Beharrezkoa da gizakiei etorkizunaren gustua itzultzera dedika daitezen gobernuak, jada ez baitute hori erlijioak eta gizarte-egoerak ematen; baita egunero, hitzez esan gabe, praktikoki hiritarrei irakastea lanaren sari direla aberastasuna, ospea eta boterea, arrakasta handiak desira sakonen bukaeran daudela kokaturik, eta kostatu lortzen dena bakarrik izaten dela iraunkorra.

Jendeari, hemen behean gertatuko zaiona oso urrutirik aurreikustera, eta itxaropenaz elikatzera ohituta dagoenean, desatsegin gertatzen zaio bere izpiritua bizitzaren muga zehatzetan gelditu beharra beti, eta oso prest egoten da mugak gainditzeko, harantzago begiratzeko.

Beraz, ez dut zalantzarik mundu honetan hiritarrak etorkizunaz pentsatzera ohituz gero, pixkana-pixkana eta beraiek ere ohartu gabe, erlijio-sineskizunetara hurbilaraziko liratekeela.

Honela, jendeari neurri bateraino erlijiorik gabe bizitzeko aukera ematen dion bide bera izango da, azken finean, itzulinguru luze baten ostean gizadia federantz eramateko gelditzen zaigun bide bakarra

XVIII

Zergatik, amerikarren artean, lanbide zintzo guztiak hartzen diren ohoragarritzat

Herri demokratikoetan, non ez den herentziazko aberastasunik izaten, bakoitzak lan egiten du bizitzeko, edo lan egina da, edo lan egin dutenengandik jaioa. Beraz, lanaren ideia –gizadiaren izaera beharrezko, berezko eta zintzo bezala- alde guztietatik eskaintzen zaio giza izpirituari.

Herri horietan lana ez bakarrik ez da desohoragarri, baita ohoragarri ere; aurreiritzia ez da haren aurkakoa, aldekoa baizik. Estatu Batuetan, aberatsak uste du iritzi publikoari zor dion zerbait dela bere aisialdiak industrigintza, merkataritza edo betebehar publikoren batera dedikatzea. Ospe txarra duela usteko luke bizitzera bakarrik dedikatuko balitz. Lan egin behar honi ihes egiteko etortzen da Europara hainbeste amerikar; Europan gizarte aristokratikoen hondarrak aurkitzen dituzte, oraindik ohoragarri delarik lanik egin gabe bizitzea.

Berdintasunak ez du lanaren ideia bakarrik errehabilitatzen, irabaziak ematen dituen lanarena ere goratzen du.

Aristokrazietan ez da edozein lan gutxiesten, mozkinaren bila egindako lana baizik. Lana loriatsua da, gutiziak edo bertute hutsak eragiten duenean. Hala ere, aristokrazietan etengabe gertatzen da ohoreagatik lan egiten duenari irabazia ere erakargarri gertatzea. Baina bi desira hauek haren arimaren barren-barrenean bakarrik aurkitzen dira. Eta elkartzen direneko puntua arreta handiz ezkutatzen du begirada guztietatik. Bere buruari ere gogotsu ezkutatzen dio. Herrialde aristokratikoetan, funtzionari publiko gehientsuenek Estatua interes propiorik gabe zerbitzatzen dutela esaten dute. Beren soldata noizean behin pentsagai izaten duten xehetasuna da, baina horretan sekula pentsatzen ez duten plantak egiten dituzte.

Honela, irabaziaren ideiak eta lanarenak ezberdinduta jarraitzen dute. Nahiz eta egitatez batera egon, iraganak banatu egiten ditu.

Gizarte demokratikoetan, aitzitik, bi ideia hauek argi eta garbi egoten dira beti elkartuta. Ongizatearen ideia unibertsala denez, aberestasunak kaskarrak eta igarokorrak direnez, bakoitzak bere baliabideak gehitu beharra edo bere seme-alabentzat berriak prestatu beharra daukanez, guztiek oso argi ikusten dute irabazia dela –osorik ez bada ere, bai neurri batean- lanera bultzatzen dituena. Aintzaren bila jarduten duten horiek ere halabeharrez ohitzen dira horregatik bakarrik ari ez diren ideiara, eta ohartzen dira, zeinahi ikuspegi izan, bizi nahia beren bizitza ospetsu bihurtzeko nahiarekin nahasten dela beren baitan.

Alde batetik, hiritar guztiei lana giza izaeraren premia ohoretsua iruditzen zaien momentuan, eta, bestetik, lana, osorik edo neurri batean, ordainsariagatik egiten denean nabarmenki, gizarte aristokratikoetan lanbide-motak banatzen zituen tarte izugarria desagertu egiten da. Guztiz antzekoak ez badira ere, gutxienez badute antzeko ezaugarririk.

Ez dago lanbiderik, non ez den diruagatik lan egiten. Lansariak, guztietan dagoen zerbait, antzeko jitea ematen die guztiei.

Horrek lanbide ezberdinei buruz amerikarrek dituzten iritziak esplikatzeko balio du.

Lan egiten duela eta, Amerikako zerbitzariek ez dute beren burua beheratua ikusten, zeren eta, haien inguruan mundu guztiak lan egiten baitu. Ez dira apalduta sentitzen ordainsaria hartzeagatik, zeren eta Estatu Batuetako lehendakariak ere ordainsariagatik lana egiten baitu. Agintzeagatik ordaintzen zaio honi, haiei zerbitzu bat emateagatik bezalaxe.

Estatu Batuetan, lanbideek neke handiago edo txikiago dute, irabazi gehiago edo gutxiago ematen dute, baina sekula ez dira goi- edo behe-mailakoak. Lanbide zintzo oro ohoragarri da.

XIX

Zerk bultzatzen dituen ia amerikar guztiak lanbide industrialetarantz

Arte baliagarri guztietatik ez dakit nekazaritza ez ote den astiroen perfekzionatzen dena nazio demokratikoetan. Sarritan geldi geratzen dela ere esan liteke, beste hainbatek aurrera lasterka doala ematen baitu.

Aitzitik, berdintasunetik sortzen diren gustu eta aztura gehientsuenek jendea merkataritza eta industriarantz eramaten dute berez.

Imajina dezagun gizon bat aktibo, ilustratu, aske, aisetasunean bizi dena eta desiraz betea. Behartsuegia da lanik egin gabe bizi ahal izateko; baina aski aberatsa premiaren berehalako beldurraren gainetik sentitzeko, eta bere zoria hobetzeko asmoa du. Gizon horrek badu gozamen materialen zaletasuna; beste asko ditu aurrean zaletasun horretara emanak; bera ere hasia da horietara jotzen, eta gogo biziz bilatzen ditu gehiago asetzeko bideak. Hala ere, bizitza aurrera doa, denborak premiatu egiten du. Zer egingo du?

Lur-langintzak emaitza ia ziurrak agintzen dizkio bere ahaleginen truke, baina oso astiro. Poliki-poliki eta nekez baino ezin da aberastu nekazaritzaz. Nekazaritza, dagoeneko soberakin asko daukaten aberatsei edota bizitzea baino eskatzen ez duten behartsuei komeni zaie. Berehala egiten du aukera: landa saldu, bere egoitzatik alde egin eta arriskutsua den baina irabaziak ematen dituen lanbideren bati ekiten dio.

Nolanahi ere, horrelako jende asko dago gizarte demokratikoetan; eta, baldintza-berdintasuna areagotzen den neurrian, horrelakoen kopurua gehitu egiten da.

Demokraziak ez du, beraz, langileen kopurua ugaltzen bakarrik; gainera, jendea lan baterantz bideratzen du beste baterantz baino areago; eta, nekazaritzarako joera kentzen dien bitartean, merkataritza eta industriarantz zuzentzen ditu.[5]

---

[5] Hainbat aldiz esan da industriari eta merkatariek gozamen materialen gustu neurrigabea zutela, eta merkataritza eta industriari egotzi izan zaio hori; uste dut puntu honetan efektua hartu dela kausaren ordez.
Ez dira merkataritza eta industria gozamen materialen gustua gizonei sortarazten dizkietenak, baizik eta gustu hori da gizonak karrera industrial eta komertzialetara bultzatzen dituena, horietan beren burua osokiago eta arinago asetzea espero baitute.
Merkataritzak eta industriak areagotu egiten badute ongizatearen desira, hori dator grina oro indartu egiten delako berorretaz gehiago arduratu ahala, eta hazi egiten delako asetzeko egiten diren ahalegin guztiekin. Mundu honetako ondasunen maitasuna giza bihotzean nagusiarazten duten kausa guztiek industria eta merkataritza garatzen dute. Berdintasuna da kausa horietako bat. Honek merkataritza bultzatzen du, ez zuzenean, gizonei negoziorako gustua emanez, baizik eta zeharka, beraien arimetan ongizatearen maitasuna sendotuz eta orokortuz.

Izpiritu hau hiritarrik aberatsenen artean ere ikusten da.

Herrialde demokratikoetan, gizon bat, oso aberatsa dela uste izan arren, ia sekula ez da pozik egoten bere aberastasunaz, bere aita bezain aberats ez dela iruditzen baitzaio eta beldur da semeak bera baino gutxiago izango ote diren. Demokrazietako aberats gehienek, beraz, aberasteko bideekin amets egiten dute etengabe, eta begiak merkataritza eta industriarantz zuzentzen dituzte naturalki, biderik bizkorrenak eta eraginkorrenak iruditzen baitzaizkie aberasteko. Puntu honetan bat datoz behartsuaren instintuekin, nahiz eta honek bezalako premiarik ez izan; edota, hobeto esateko, premiarik bizienaren bultzada sumatzen dute: atzera ez egitea.

Aristokrazietan, aberatsak aldi berean gobernariak dira. Arazo publiko handiei etengabe eskaintzen dieten arretagatik, aldendu egiten dira merkataritzak eta industriak eskatzen dituzten ardura txikietatik. Hala ere, kasualitatez, haien arteko norbaiten borondateak negoziorantz jotzen badu, bere gizarte-gorputzaren borondateak berehala ixten dio bidea; zeren eta, honen kopuruaren agintearen aurka altxa litekeen arren, sekula ez baitu erabat ihes egiten horren uztarripetik, eta nazio-gehiengoaren eskubideak aitortzeari setatien uko egiten dioten gorputz aristokratikoen baitan bertan, gobernatu egiten duen gehiengo partikularra eratzen baita. (A)

Herrialde demokratikoetan, non diruak ez duen jabea agintera eramaten, sarritan aldendu baizik, aberatsek ez dakite zer egin beren aisialdiekin. Haien desiren kezka eta handitasunak, baliabideen hedadurak, apartekoaren zaletasunak –jendetzaren gainetik nolabait ere goratzen direnek ia beti sentitzen dutena- ekintzara bultzatzen ditu. Merkataritzaren bidea bakarrik gelditzen zaie zabalik. Demokrazietan ezer ez dago merkataritza baino handiago eta distiratsuagorik; honek erakartzen ditu publikoaren begiradak eta jendearen irudimena betetzen; horretarantz zuzentzen dira grina indartsu guztiak. Ezerk ezin die aberatsei horretara dedikatzea galarazi, ez beren aurreiritziek, ez beste inorenek.. Demokrazietako aberatsek ez dute inoiz ohitura eta araudi propiorik duen gorputzik osatzen; beren klasearen ideia partikularrek ez dituzte geldiarazten, eta beren herrialdeko ideia orokorrek bultza egiten diete. Herri demokratikoen barruan ikusten diren aberastasun handiek jatorria ia beti merkataritzan dutenez, hainbat belaunaldik igaro behar izaten du jabeek erabat galdu arte negozio-azturak.

Politikak uzten dien espazio estuan itxita, demokrazietako aberatsek merkataritzara jotzen dute alde guztietatik; jarduera horretan hedatu eta beren abantaila naturalez balia daitezke; eta, nolabait ere, haien enpresa industrialen ausardiaren beraren eta handitasunaren arabera epaitu behar da industriari egingo zioketen kasu txikia aristokraziaren baitan jaio izan balira.

Oharpen bera aplika dakieke demokrazietako pertsona guztiei, behartsu nahiz aberats izan.

Ezegonkortasun demokratikoaren erdian bizi direnek aurrean izaten dute etengabe zoriaren irudia, eta, azkenerako, zoriak zerikusirik duen eginkizun guztiak maite izaten dituzte.

Beraz, guztiak merkataritzarantz bultzatuak dira, agintzen zaien irabaziagatik ez ezik, baita eskaintzen zaizkien emozioak maite dituztelako ere.

Mende erdi besterik ez da Ingalaterraren menpekotza kolonialetik irten zirela Amerikako Estatu Batuak; aberats handien kopurua oso txikia da han, eta kapitalak ere urriak oraindik. Ez dago, ordea, munduan herririk amerikarrek bezain aurrerapen bizkorrik egin duenik merkataritzan eta industrian. Gaur egun munduko bigarren itsas nazioa dira; eta haien manufakturek ia gaindigaitzak diren oztopo naturalen aurka borrokatu behar badute ere, egunetik egunera garapen berriak izaten dituzte.

Estatu Batuetan industri eginkizunik handienak nekerik gabe gauzatzen dira, biztanleria osoa arduratzen baita industriaz, eta honetarako hiritarrik behartsuen nahiz oparoenek gogotsu batzen dituzte beren ahaleginak. Beraz, harrigarria gertatzen da egunero ikustea ia aberatsik ez daukan nazio batek nekerik gabe zertzen dituen lan itzelak, Amerikarrak atzo bertan iritsi ziren bizi diren lurraldera, eta dagoeneko iraulia dute naturaren ordena osoa beren probetxurako. Hudson ibaia Mississippirekin elkartu eta Atlantiar ozeanoa Mexikoko golkoarekin komunikarazi dute, bi itsasoak banatzen dituen bostehun lekoako lur lehorrean zehar. Gaur egunera arte egin diren trenbiderik luzeenak Amerikan daude.

Baina Estatu Batuetan niri harrigarriena gertatzen zaidana ez da zenbait industri eginkizunen handitasuna, enpresa txikien ugaritasun zenbatezina baizik.

Estatu Batuetako ia nekazari guztiek erantsi diote merkataritza-jardueraren bat nekazaritzari; gehienek nekazaritza merkataritza bihurtu dute.

Laborari amerikarra oso gutxitan finkatzen da betiko lurralde batean. Mendebaldeko probintzia berrietan, batez ere, landa bat garbitzen bada, berriro saltzeko izaten da eta ez uzta ateratzeko; eta etxea eraikitzen bada, biztanleak ugaltzearen ondorioz herrialdearen egoera laster aldatuko dela eta prezio onean salduko dela aurreikusten delako izaten da.

Urtero, iparraldeko jende-multzo handi bat hegoaldera jaisten da eta kotoi eta azukre-kanabera hazten diren eskualdeetan ezartzen da. Jende horrek lurra lantzen du; urte gutxitan ekoitzarazitakoaz aberasteko beste atera eta, honela lorturiko aisetasunaz gozatzeko, jaioterrira noiz itzuliko zain egoten dira. Hortaz, amerikarrek merkataritza-izpiritua ekartzen dute nekazaritzara, eta industriarako haien grina beste gauza guztietan bezalaxe agertzen da hor.

Amerikarrek aurrerapen izugarria egiten dute industrian, guztiak batera arduratzen direlako industriaz; eta kausa honengatik beronengatik jasan behar izaten dituzte ustegabeko industri krisi ikaragarriak ere.

Merkataritzara ere guztiek jotzen dutenez, haien artean merkataritzak eragin zenbatezin eta oso konplikatuak jasaten ditu, eta ezinezkoa gertatzen da aurrez jakitea sor daitezkeen eragozpenak. Gehixeago edo gutxixeago guztiek dutenez industriarekin zerikusia, negozioek tupustekorik txikiena hartzen duten momentuan, aberastasun partikular guztiek behaztopa egiten dute aldi berean, eta Estatuak zabuka egiten du.

Industri krisien itzulera gaitz endemikoa dela uste dut gaur egungo nazio demokratikoetan. Lor daiteke hain arriskutsu ez izatea, baina ez sendatzea, ez baita ezustean gertatzen den zerbait, herri hauen izaerari berari dagokion zerbait baizik.

XX

Nola sortu ahal izango litzatekeen aristokrazia industriatik

Erakutsi dut nola demokrazia mesedegarri gertatzen den industri garapenerako eta nola neurri gabe ugaltzen duen industriarien kopurua; orain ikusiko dugu industriak zein desbiderapenen bidez eraman ahal izango lukeen jendea aristokraziarantz.

Onartua dago langile bat egunero xehetasun berberaz bakarrik arduratzen zenean, errazago, bizkorrago eta ekonomia handiagoz iristen zela obraren ekoizpen orokorrena.

Halaber, onartua dago zenbat eta eskala handiagoan, kapital handi eta kreditu handiagoz ekin industria bati, are merkeagoak izaten zirela produktuak.

Egia hauek aspaldidanik sumatzen ziren, baina ez dira orain arte frogatu. Dagoeneko garrantzi handiko hainbat industriatan aplikatzen dira, eta pixkanaka horietaz jabetuz doaz txikienak ere.

Politika-arloan ez dut ikusten legegilea gehiago arduratu beharko lukeen beste ezer industri zientziaren bi axioma berri hauek baino.
Artisaua etengabe eta soil-soilik gauza bakar bat fabrikatzera emana dagoenean, azkenerako trebetasun bereziz zertzen du lan hori. Baina izpiritua lanaren zuzendaritzara bideratzeko ahalmen orokorra galdu egiten du aldi berean. Egunetik egunera iaioago bihurtzen da, baina ez industriatsuago, eta esan daiteke berarengan gizakia degradatu egiten dela langilea hobetu egiten den bitartean.

Zer espero daiteke bizitzako hogei urte orratz-buruak egiten eman dituenarengandik? Eta sarri mundua astindu duen giza adimen ahaltsu hori, aurrerantzean zertara aplika daiteke pertsona horrengan, orratz-buruak egiteko erarik onena bilatzera baizik?

Langile batek bere izatearen zati handi bat horrela erabili duenean, pentsamena geldi du betiko bere zereginen eguneroko gai horren inguruan; gorputzak ere hartuak dizkio zenbait aztura finko, jada ezin dituenak inola ere baztertu. Hitz batean, ez da jada bere buruaren jabe, aukeratu duen lanbidearen menpe baitago. Alferrik arduratuko dira legeak eta ohiturak pertsona horren inguruan hesi guztiak apurtzeaz eta alde guztietatik aberastasunerantz mila bide ezberdin irekitzeaz; ohiturak eta legeak baino indartsuago

den industri teoriak lotu du lanbide bati, eta utzi ezin duen leku bati sarritan. Teoria horrek gizartean postu jakin bat izendatu dio, eta ezin da bertatik irten. Mugimendu unibertsalaren erdian, mugigaitz bihurtu du.

Lan-banaketaren printzipioak aplikazio beteagoa hartzen duen neurrian, langilea ahulago, mugatuago et menpekoago bihurtzen da. Arteak aurrera egiten du, artisauak atzera. Bestalde, zenbat eta manufaktura zabalagoa eta kapitala handiagoa izan, industria baten produktuak orduan eta hobeak eta merkeagoak direla garbiago ikusten den neurrian, pertsona oso aberats eta ilustratuak agertzen dira industriak ustiatzeko, ordura arte artisau ezjakin edo behartsuen esku utzitako industriak. Behar diren ahaleginen handitasunak eta lor daitezkeen emaitzen neurrigabetasunak erakartzen ditu.

Honela, bada, industri zientziak langileen klasea etengabe beheratzen duen aldi berean, goratu egiten du ugazabena.

Langileak adimena xehetasun bakar baten azterketara bideratzen duen bitartean, ugazabak egunero multzo zabalago baten gain begiratzen du, eta honen izpiritua zabaldu egiten da bestearena murriztu egiten den neurri berean.

Langileak laster indar fisikoa bakarrik beharko adimenik gabe; ugazabak zientzia behar du, eta ia jeinu izatea ere bai arrakasta izateko. Batak gero eta antz handiagoa du inperio zabal baten administratzailearena, besteak aberearena.

Ugazabak eta langileak ez dute, beraz, inolako antzik, eta egunetik egunera ezberdinagoak dira elkarren artean. Bien arteko erlazioa katea luze baten muturretako bi begiena bezalakoa da. Bakoitzak berarentzat egindako lekua betetzen du, inoiz irten gabe handik. Bata etengabeko menpekotasun estu eta beharrezkoan dago bestearekiko, eta esana egiteko jaioa ematen du, besteak agintzeko bezala.

Zer da hau, aristokrazia baizik?

Baldintzak gero eta berdinagoak izanik nazio-gorputzean, gauza manufakturatuen beharra orokortu eta areagotu egiten da, eta gauza horiek aberastasun ertainen irispidean jartzen dituen prezio merkea arrakastaren elementu nagusi bihurtzen da.

Hortaz, gero eta pertsona aberats eta ilustratuagoek industriara bideratzen dituzte aberastasunak eta jakintza, eta, lantegi handiak ireki eta lana zorrotz banatuz, alde guztietan agertzen ari diren gurari berriak asetu nahi dituztela ikusten da.

Honela, nazioaren gehiengoak demokraziarantz jo ahala, industriaz arduratzen den klase partikularra gero eta aristokratikoago bihurtzen da. Jendea gero eta elkarren antzekoagoa da batean, eta gero eta ezberdinagoa bestean, eta ezberdintasuna areagotu egiten da gizarte txikian, handian gutxitu egiten den neurri berean.

Honela, sorburua jotzen denean, badirudi aristokrazia berezko ahaleginez demokraziaren beraren baitatik sortzen dela.

Baina aristokrazia honek ez du aurretik izan direnen batere antzik.
Lehenik, industriari eta industri lanbide batzuei bakarrik aplikatzen zaielarik, salbuespen bat, munstro bat dela ikusiko da, gizarte-egoera osoaren baitan.

Gaur egungo demokrazia itzelaren erdian industria batzuek sortzen dituzten gizarte aristokratiko txikiek, antzinako gizarte aristokratiko handiek bezala, pertsona batzuk oso aberatsak eta jendetza bat oso behartsua daukate beren baitan.

Behartsu hauek oso bide gutxi dute bere egoeratik irten eta aberats bihurtzeko, baina aberatsak etengabe bihurtzen dira behartsu, edo negozioa utzi egiten dute irabaziak egin ondoren. Honela, behartsuen klasea osatzen duten elementuak finkoak dira gutxi gora-behera; baina aberatsen klasea osatzen dutenak, ez. Egia esateko, aberatsak badiren arren, aberatsen klaserik ez dago; zeren eta aberats hauek ez baitute ez izpiritu, ez helburu komunik, ezta tradizio edo esperantza komunik ere. Badira kideak, beraz, baina ez kidego edo gorputzik.

Aberatsak ez daude sendo baturik beren artean, baina, gainera, esan daiteke ez dagoela benetako loturarik behartsuaren eta aberatsaren artean.

Ez daude betiko finkatuta bata bestearen ondoan; une bakoitzean interesak hurbildu eta banatu egiten ditu. Orokorrean, ugazaben menpe dago langilea, baina ez ugazaba jakin baten menpe. Bi pertsona hauek elkar ikusten dute lantegian eta ez dute elkar ezagutzen beste inon, eta puntu batean elkar ukitzen duten bitartean, elkarrengandik oso urruti jarraitzen dute beste guztietan. Manufakturariak lana besterik ez dio eskatzen langileari, eta langileak ordainsaria bakarrik espero du harengandik. Bata ez da babestera konprometitzen, ezta bestea ere defendatzera, eta ez daude iraunkorki lotuak, ez azturaz, ezta eginbeharraz ere.

Negozioa sortzen duen aristokrazia ia sekula ez da finkatzen berak zuzentzen duen biztanleria industrialaren erdian; haren helburua ez da hau gobernatzea, honetaz baliatzea baizik.

Honela eraturiko aristokraziak ezin eragin handirik izan berak enplegatzen dituenen gain; eta, une batez hauek atzematera iristen bada ere, laster ihes egiten diote. Ez daki zer nahi duen eta nora jo.

Iragan mendeetako lur-aristokrazia legeak behartzen zuen, edo ohiturek behartua sentitzen zen, bere zerbitzariei lagundu eta haien ezbeharrak arintzera. Baina gaur egungo aristokrazia manufakturariak, berak erabiltzen dituenak txirotu eta zabartu ondoren, krisi garaian karitate publikoaren esku uzten ditu honek elika ditzan. Hau aurrekoaren ondorio naturala da, noski. Langilearen eta ugazabaren artean harremanak ugariak dira, baina ez dago benetako elkartasunik.

Pentsatzen dut, ongi begiratuta, gure aurrean sortzen ikusten dugun aristokrazia manufakturaria munduan izan den gogorrenetarikoa dela; baina aldi berean murritzenetakoa eta arriskurik gutxienekoa ere bada.

Hala ere, demokraziaren adiskideek etengabe alde honetara begiratu behar dute kezkaz, zeren eta, baldintzen ezberdintasun iraunkorra eta aristokrazia inoiz sartzen badira berriro munduan, ate horretatik sartuko direla aurresan baitaiteke.

HIRUGARREN ZATIA
Demokraziak ohituretan duen eragina

I
Nola eztitzen diren ohiturak baldintzak berdindu ahala

Zenbait mendetatik hona gizarte-baldintzak berdintzen ari direla ohartzen gara, eta aldi berean ohiturak eztitzen ari direla konturatzen gara. Bi gauza hauek garaikideak bakarrik ote dira ala ba ote da lotura ezkuturik horien artean, batak ezin duelarik aurrera egin besteari aurrera eragin gabe?

Kausa asko daude herri baten ohituren zabarkeria gutxitu dezaketenak; baina, kausa horien guztien artean, gizarte-baldintzen berdintasuna iruditzen zait indartsuena. Hortaz, baldintzen berdintasuna eta ohituren eztitasuna ez dira nire begietarako gertakari garaikideak soilik, baita egitate koerlatiboak ere.

Alegilariek animalien ekintzez ardurarazi nahi gaituztenean, giza ideiak eta grinak ematen dizkiete. Gauza bera egiten dute poetek jeinu eta aingeruez hitz egiten dutenean. Ez dago hain ezbehar sakonik, ezta hain zorion garbirik ere, gure izpiritua atzeman eta bihotza hunki diezagukeenik, horietan geure burua ez bazaigu errepresentatzen beste ezaugarri batzuekin.

Eta hori bete-betean aplikatzen zaio orain aztertzen ari garen gaiari.

Gizarte aristokratiko baten baitan pertsona guztiak beren lanbide, ondasun eta jaiotzaren arabera aldaezinezko eran sailkaturik daudenean, klase bakoitzeko kideek, guztiak familia bereko partaide bezala sentituz, begikotasun etengabe eta aktiboa sentitzen dute elkarrenganako, demokrazia bateko hiritarren artean sekula aurkitu ezin den mailan.

Baina ez da gauza bera gertatzen klase ezberdinekin, batzuen eta besteen artean.

Herri aristokratikoetan, kasta bakoitzak aparte ditu bere iritzi, sentimendu, eskubide, ohitura eta bizitza. Honela, kasta bakoitza osatzen dutenek ez dute beste guztien antzik; ez dute pentsatzeko eta sentitzeko era bera, eta nekez sinesten dute gizadi bereko partaide direnik.

Ezin dute, beraz, ongi ulertu besteek sentitzen dutena, ezta hauek beren kabuz epaitu ere.

Hala ere, elkarri sutsu laguntzen diotela ikusten da batzuetan; baina hori ez doa aurrez esandakoaren aurka.

Erakunde aristokratiko horiek beroriek, espezie bereko izakiak hainbeste ezberdindu zituztenek, lotura politiko estu-estuaz ere elkartu zituzten batzuk besteekin.

Nahiz eta jopua berez ez arduratu aitonen semeen zoriaz, hala ere, uste zuen sakrifikatu beharra zeukala haien artetik bere buruzagi zenaren alde; eta, aitonen semeak bere burua jopuena ez bezalakotzat eduki arren, hala ere, uste zuen, bere eginbehar eta ohoreagatik, defendatu egin behar zituela, bere bizia arriskuan jarrita ere, bere mendelurretan bizi zirenak.

Garbi dago elkarrenganako betebehar hauek ez zirela zuzenbide naturaletik sortuak, zuzenbide politikotik baizik, eta gizadiak berak bakarrik egin ahal izango zukeena baino gehiago lortzen zuela gizarteak. Ez zen pentsatzen gizonari zor zitzaionik laguntza, basailuari edo jaunari baizik. Erakunde feudalek oso sentibera bihurtzen zuten jendea gizaki jakin batzuen gaitzekiko, baina ez giza espeziaren ezbeharrekiko. Erakunde haiek eztitasuna baino gehiago oparotasuna ematen zieten ohiturei, eta, sakrifizio handietara bultzatu arren, ez zuten benetako sinpatiarik sorrarazten; antzeko jendearen artean bakarrik egoten baitira benetako sinpatiak, eta aristokrazi mendeetan nork bere kastako kideengan bakarrik ikusten ditu antzekoak.

Erdi Aroko kronikalariek, beren jaiotza edo azturengatik guztiak aristokraziakoak, aitonen seme baten amaiera tragikoa kontatzen dutenean, atsekabe ikaragarriz egiten dute; baina arnasaldi batean eta izukaitz ematen dute herriko jendearen sarraski eta torturen berri.

Eta ez pentsa idazle horiek etengabeko gorrotoa edo mesprezu sistematikoa sentitzen zutenik herriaganako. Artean ez zegoen piztuta estatuko klase ezberdinen arteko gerra. Senari gehiago jarraitzen zioten grinari baino; behartsuaren atsekabeen ideia garbirik ez zutenez, gutxi arduratzen ziren haren zoriaz.

Lokarri feudala eten orduko, gauza bera gertatzen zen herriko jendearekin. Basailuek beren jaunen alde egindako hainbeste sakrifizio heroiko ikusi zuten mende horiek beroriek, gero ankerkeria itzelen lekuko izan ziren, noizean behin beheko klaseek goikoen kontra egindako ankerkerien lekuko.

Ez da pentsatu behar elkarrenganako arduragabezia hori ordena eta jakintzargirik ezaren ondorio zenik, zeren eta agertzen baita horren arrastorik ondorengo mendeetan ere, ordenatu eta ilustratu bihurtu arren, artean aristokratiko diren mendeetan.

1675. urtean, Britainiako behe-klaseak altxatu egin ziren tasa berria zela eta. Matxinada haiek parekorik gabeko ankerkeriaz zapaldu zituzten. Hona hemen Mme. de Sévignék, izugarrikeria haien lekukoak, nola ematen dioen alabari gertatuaren berri:

Rocher-etan, 1675eko urriak 30

"Ene Jainkoa, bai atsegina zuk, alaba maitea, Aixetik bidalitako gutuna! Gutxienez errepasa itzazu zeure gutunak bidali aurretik. Jabetu zaitez beraien xarmaz, eta atsegin horrek kontsola zaitzala hainbeste idazteak ematen dizun nekeaz. Ikusi al duzu jada Probentza osa? Atseginik ez du Britainia osoa ikusteak, ardoa usaintzea gogoko ez baduzu. Nahi al duzu Rennes-eko berririk? Ehun mila ezkutuko zerga bat ezarri da, eta dirutza hori hogeita lau orduren buruan ez bada biltzen, bikoiztu egingo da eta soldaduek exijituko dute. Kale handi bat oso-osorik atxilotu eta deserriratu dute, eta jende horri abegi egitea debekatu dute heriotza-zigorraz mehatxatuz; eta hor ikusi ditugu atsekabetu horiek guztiak, erdiminetan zeuden emakumeak, zaharrak, haurrak hiritik irten eta noraezean negarrez, nora joan ez zekitela, zer jan edo non lo egin jakin gabe. Herenegun oinazetu zuten gurpilean paper tinbratuaren dantza eta lapurreta hasi zuen bibolinjolea; zatikatu egin zuten eta haren lau zatiak hiriko lau ertzetan jarri zituzten agerian. Hirurogei burges atxilotu dituzte, eta bihar hasiko dira esekitzen. Probintzia hau ikasbide ederra da besteentzat, batez ere gobernari eta gobernarisak errespetatzen dituztelako eta hauen lorategietara harririk botatzen ez dutelako [6].

Atzo Mme. de Tarente bere besoetan ibil zen eguraldi bikainaz. Ez du behar ostaturik edo jatekorik. Langatik sartzen da eta bide beretik itzutzen..."

Beste gutun batean eransten du:

"Atsegin handiz hitz egiten didazu gure ezbeharrez; ez gara hain gurpil-zaleak; bat zortzi egunean behin, justizia entretenitzeko. Egia da esekitzea bigunkeria iruditzen zaidala orain. Herrialde honetan nagoenetik, zeharo bestelako ideia dut justiziaz. Zuzen galeoteak jende zintzoen elkarte bat iruditzen zaizkit, bizimodu lasaia eramateko mundutik erretiratu direnak".

Oker jokatuko genuke Mme. de Sévigné, lerro hauek idatzi zituena, gizaki berekoi eta barbaroa zela pentsatuz gero. Bihotz-bihotzez maite zituen seme-alabak eta oso sentibera zen adiskideen atsekabeekiko; eta, berak idatzitakoa irakurtzean, ohartzen da on eta bihozbera zela basailu eta zerbitzariekin. Baina Mme. de Sévignék ez zuen garbi ulertzen zer zen sufritzea norbait aitonen seme ez zenean.

Gaur egun gizakirik gogorrena, odolgabeenari idazterakoan ere, ez litzateke ausartuko aipatu berri dudana bezalako txantxa ankerrik horrelako odol hotzez egitera, eta, bere ohitura partikularrek hori egitea onartuko baliote ere, nazioko ohitura orokorrek debekatu egingo liokete.

Zergatik hori? Geure arbasoak baino sentiberago ote gara gu? Ez dakit; baina, ziur nago, gure sentiberatasuna gauza gehiagotara hedatzen dela.

Herri batean klaseak ia berdinak direnean, gutxi gora-behera guztiek dutenez pentsatu eta sentitzeko era beretsua, une batean haietako bakoitzak beste guztien sentsazioak epai ditzake. Aski zaio begirada bizkor bat ematea bere buruari. Ez dago, beraz, ezbeharrik berak nekerik gabe ulertzen ez duenik, ezkutuko sen batek horien hedadura erakusten diolarik. Berdin dio atzerritar edo arerioak izatea: irudimenak berehala jartzen du horien tokian. Zerbait pertsonala elkartzen du bere errukiarekin, eta berari ere sufriarazi egiten dio lagunurkoaren gorputza zatikatzen duten bitartean.

Demokrazi mendeetan, gizakiak nekez sakrifikatzen dira batzuk besteengatik; baina gupida orokorra izaten dute gizadiko kide guztienganako. Ez dute alferrikako gaitzik egiten, eta, beren buruari kalte handirik egin gabe, besteen minak arin ditzaketenean, atseginez egiten dute hori; ez dira interesgabeak, baina bai gozoak.

Amerikarrak, nolabait esateko, berekoikeria teoria sozial eta filosofiko bihurtu badute ere, ez daude horregatik askoz urrutirago errukitik.

---

[6] Azken txantxa honek adierazi nahi duena ulertzeko, gogoratu Mme. de Grignan Probentzako gobernari zela.

Justizia kriminala Estatu Batuetan baino bigunago aplikatzen den herrialderik ez dago. Ingelesek Erdi Aroko aztarna odoltsuak legeria penalean estima handiz gorde nahi dituztela ematen duen bitartean, amerikarrek ia desagertarazi egin dute heriotza-zigorra beren kodeetatik.

Uste dut Ipar Amerika dela munduko lurralde bakarra azken berrogeita hamar urteotan inori bizia kendu ez zaiona delitu politikoengatik.

Eta amerikarren gozotasun berezi hau batez ere haien gizarte-egoeratik datorrela frogatzen duena beren esklabuak tratatzeko modua da.

Oro har, baliteke Mundu Berrian ez izatea kolonia europarrik beltzen egoera fisikoa Estatu Batuetakoa baino bigunagoa duenik. Hala ere, oraindik esklabuek zoritxar izugarriak jasaten dituzte han eta oso zigor ankerren arriskupean egoten dira etengabe.

Erraz ohartzen da dohakabe horien zoriak erruki gutxi sortzen diela nagusiei, eta beraientzat esklabutza, onura ateratzeko zerbait izateaz gain, gutxi hunkitzen dituen gaitza ere badela. Honela, hurkoenganako errukiz betea dagoen pertsona bera –aldi berean horiek bere parekide direnean behintzat- gero horien atsekabeekiko arduragabe bihurtzen da berdintasuna bukatzean. Hortaz, berdintasun honi egotzi behar zaio gozotasuna, zibilizazioari eta jakintzargiei baino gehiago.

Gizabanakoei buruz esan berri dudana herriei ere aplikatzen zaie neurri bateraino.

Nazio bakoitzak bere iritziak, sineskizunak, legeak, usadioak aparte dituenean, pentsatzen du berak bakarrik osatzen duela gizadi osoa, eta bere atsekabeek bakarrik hunkitzen dute. Honelako jarrera duten bi herriren artean gerra pizten bada, barbaria handiz egingo da derrigorrez.

Bere garairik ilustratuenetan, erromatarrek –garaile- lepoa mozten zieten jeneral etsaiei, gudu-gurdiaren atzetik arrastaka erabili ondoren, eta presoak basapiztien artera botatzen zituzten herriaren dibertimendurako. Zizeronek, hiritar bat gurutziltzatzea hainbeste deitoratzen duenak, ez du ezer gaitzesgarririk aurkitzen garaipenaren abusu anker horietan. Garbi dago, haren begietara, atzerritarra ez dela erromatarraren giza espezie berekoa.

Aitzitik, herriak beren artean antzekoago bilakatu ahala, elkarren ezbeharrekiko ere gupidatsuago agertzen dira eta nazioarteko zuzenbidea ere bigundu egiten da.

II

Nola demokraziak sinpleago eta errazago bihurtzen dituen amerikarren ohiko harremanak

Demokraziak ez ditu pertsonak elkarren artean estu lotzen, baina errazago bihurtzen ditu horien ohiko harremanak.

Bi ingelesek kasualitatez elkarrekin topo egiten dute antipodetan; arrotzez inguraturik daude, haien hizkuntza eta ohiturak ia ezagutzen ez dituen jendez.

1Bi pertsona horiek hasieran jakinmin handiz behatuko diote elkarri eta nolabaiteko egonezin ezkutuz; gero elkarrengandik aldendu egingo dira edo, hurbildu egiten badira, behartuta eta oharkabean bezala hitz egingo diote elkarri, garrantzirik gabeko gauzak esanez.

Hala ere, ez da horien artean inolako etsaitasunik; aurrez sekula ez dute elkar ikusi, eta oso zintzotzat dauka batak bestea. Zergatik, orduan, hainbeste kontu elkarrekin topo ez egiteko?

Ingalaterrara itzuli behar da ulertzeko.

Aberastasunarekin loturarik gabe, jaiotzak bakarrik sailkatzen dituenean gizakiak, bakoitzak zehatz jakiten du gizarte-eskalan zein postu dagokion; ez da igotzen saiatzen, ez da beheratzeko beldur ere. Honela antolaturiko gizartean, kasta ezberdinetako jendea gutxi komunikatzen da elkarren artean; baina zoriak harremanetan jartzen dituenean, gogotsu lotzen zaio bata besteari, bat egiteko esperantzarik eta beldurrik gabe. Horien harremanak ez dira berdintasunean oinarritzen, baina ez dira behartuak ere.

Jaiotzazko aristokraziaren ordez diruaren aristokrazia ezartzen denean, ez da gauza bera gertatzen.

Batzuen pribilegioak oso handiak dira oraindik, baina horiek lortzeko aukera zabalik dago guztientzat; ondorioz, pribilegio horiek dituztenak beti kezkaturik egoten dira galtzeko beldurrez edo besteekin banatu beharrez; eta oraindik ez dituztenek eskuratu egin nahi izaten dituzte kosta ahala kosta, edota, lortu ezin badituzte, horren plantak egin; eta ez da ezinezkoa. Gizakien gizarte-balioa ez dagoenez jadanik nabarmen eta iraunkorki finkatua odolaren arabera, eta aberastasunaren arabera mugagabeki aldatzen denez, beti izaten dira gizarte-mailak, baina jada ez dira garbi eta lehen begiratuan ikusten zein dagoen horietan.

Laster hasten da gerra sorgorra hiritar guztien artean, batzuk beren gainetik daudenen artean benetan edo itxuraz sartzen ahalegintzen dira, amarrukeria ugariren bidez; besteek etengabe egiten dute borroka beren eskubideen usurpatzaile horiek errefusatzeko, edota, hobeto esanda, bi gauzak egiten ditu pertsona berak, eta, goragoko esparruan sartzen saiatu bitartean, atsedenik gabe borrokatzen da behetik datorren indarraren aurka.

Honelako da gaur egun Ingalaterrako egoera, eta uste dut batez ere egoera horri lotu behar zaiola gorago esana.

Ingelesen artean oraindik oso handia denez harrotasun aristokratikoa, eta aristokraziaren mugak zalantzatsu bihurtu direnez, beldur dira guztiak familiartasun gehiegizkoa izateko elkarren artean. Lehen begiratuan jakin ezin denez zein den aurrean topaturiko horien gizarte-egoera, zuhurtasunez saihestu egiten da harremanetan hastea. Zerbitzu txikiak egiten hasiz gero, beldurra zaio, nahi gabe ere, adiskidetasun desegokia sortzeari; mesedeen beldur dira, eta ezezagunaren esker on ausartegiari bezain arretatsu ihes egiten diote haren gorrotoari.

Jende askok kausa fisiko hutsez esplikatzen du ingelesen elkargaiztasun berezi eta umore gorde eta isilkoi hori. Ados nago odolak baduela horretan nolabaiteko eraginik, baina uste dut gizarte-egoerak askoz handiagoa duela. Amerikarren kasuak frogatzen du hori.

Amerikan, non sekula ez baita izan jaiotzazko pribilegiorik eta non aberastasunak ez baitio gozatzen duenari eskubide berezirik ematen, ezezagunak gogotsu elkartzen dira leku berberetan, eta ez dute ez abantailarik, ez arrikurik, aurkitzen beren pentsamenduak elkarri askatasunez komunikatzeko. Kasualitateaz elkarrekin topo egiten badute, ez dira ez elkarren bila, ez ihesi ibiltzen; haien topaketa, beraz, natural, leial eta irekia da; ikusten da ez dutela batzuek besteengandik ia ezer espero, eta ez direla ezeren beldur ere, eta ez direla saiatzen ez erakusten, ez ezkutatzen, dagokien postua. Haien portaera sarritan hotz eta serioa bada, sekula ez da harroa eta behartua izaten eta, elkarri hitzik egin nahi ez diotenean, hitz egiteko umorerik ez dutelako izaten da, eta ez isiltzea interesatzen zaiela uste dutelako.

Atzerrian, bi amerikar berehala bihurtzen dira adiskide, amerikar izate hutsagatik. Ez dago urruntzen dituen aurreiritzirik, eta aberri-komunitateak elkarrengana erakartzen ditu. Bi ingelesi odol berbera ez zaie aski, gizarte-maila berberak hurbildu behar ditu.

Amerikarrek gu bezain ongi ohartzen dira ingelesak elkargaitz bihurtzen dituen umoreaz, eta gu geu beste harritzen dira horretaz. Hala ere, amerikarrak jatorriz, erlijioz, hizkuntzaz eta neurri batean ohiturez ere, Ingalaterrari atxikiak daude; gizarte-egoerak bakarrik ezberdintzen ditu. Beraz, zilegi da esatea ingelesen izaera isilkoi hori herrialdearen eraketak eragina dela hiritarrenak baino areago.

III

Amerikarrek zergatik duten hain minberatasun txikia beren herrialdean eta zergatik agertzen diren hain minbera gurean

Amerikarrek izaera mendekatia dute, herri serio eta zentzudun guztiek bezala. Ia sekula ez dute ahazten irain bat; baina ez da erraza haiek iraintzea, eta haien sumindura pizten bezain geldoa da itzaltzen.

Gizarte aristokratikoetan, non pertsona gutxi batzuek zuzentzen baitituzte gauza guztiak, jendearen arteko kanpo-harremanak gutxi gora-behera finkoak diren konbentzioen menpe daude. Orduan bakoitzak uste

izaten du badakiela zehatz-mehatz zein zeinuren bidez aitortu behar den begirunea edo adierazi onginahia, eta ezagutu beharreko zientziatzat hartzen da etiketa.

Lehen klasearen usadio hauek beste guztientzat eredu izaten dira gero, eta, gainera, haietako bakoitzak bere kodea ezartzen du aparte, eta hartara moldatu behar izaten dute kide guztiek.

Kortesi arauek legeria konplikatua eratzen dute horrela, erabat menperatzea zaila dena, eta hala ere baztertu ezin dena arriskurik gabe; horrela, egunero jendea arriskuan egoten da etengabe zauri ankerrak egin edo hartzeko nahigabeki.

Baina gizarte-mailak ezabatu ahala, heziketaz eta jaiotzaz ezberdin ziren pertsonak leku berberetan nahastu eta bat egin ahala, ia ezinezkoa gertatzen da elkarbizitzako arauez ados jartzea. Legea ziurra ez denez, desobeditzea ez da krimena, ezagutzaren dutenen ikuspegitik ere; ekintzen muinari gehiago atxikitzen zaizkio formari baino, eta gizalege gutxiago eta liskar gutxiago izaten da aldi berean.

Bada hamaika xehetasun txiki amerikarrari axola ez zaizkionak; uste du ez dagozkiola berari, edo berari dagozkionik ez dakitela suposatzen du. Ez da ohartzen huts egiten diotenik, edota barkatu egiten du; haren manerak kortesia gutxiagoko bihurtzen dira, eta ohiturak sinpleago eta indartsuagoak.

Amerikarrek elkarrenganako azaltzen duten barkaberatasun hori eta elkarri aitortzen dioten konfiantza sendo hori kausa orokor eta sakonago batetik sortzen dira.

Jada adierazi dut honen aurreko kapituluan.

Estatu Batuetan, gizarte-mailek oso alde txikia dute gizarte zibilean eta batere ez politika-arloan; amerikarrak ez du uste izaten arreta berezirik eskaini behar dionik hurkoen arteko inori, eta beretzat eskatzerik ere ez zaio bururatzen. Bere interesa herrikideetakoren batzuen lagunartea sutsu bilatzea izan daitekeela ikusten ez duenez, nekez imajinatzen du berea errefusa daitekeenik; inor mesprezatzen ez duenez bere izaeragatik, ez du imajinatzen bera ere inork mespreza dezakeenik arrazoi beragatik, eta, irainaz argi eta garbi ohartu arte, ez du sinesten iraindu nahi dutenik.

Gizarte-egoerak berez huskeriengatik erraz ez iraintzeko joera ematen die amerikarrei. Eta, bestalde, gozatzen duten askatasun demokratikoagatik, azkenerako nazio-ohituretara igarotzen da otzantasun hori.

Estatu Batuetako erakunde politikoek klase guztietako hiritarrak harremanetan jartzen dituzte etengabe, eta eginkizun handiak amankomunean gauzatzera behartzen dituzte. Honela lanpeturiko jendeak ia ez du astirik izaten etiketaren xehetasunetan pentsatzeko eta, bestalde,gehiegi interesatzen zaie adostasunean bizitzea xehetasunetan erreparatzeko. Hortaz, erraz ohitzen dira, topatzen dituztenengan sentimenduak eta ideiak kontuagoan hartzera manerak baino, eta ez dira huskeriengatik hunkitzen.

Maiz ohartu naiz Estatu Batuetan ez dela erraza pertsona bati bere presentzia desegokia dela ulertaraztea. Horretara iristeko, itzulinguruak ez dira beti aski izaten.

Demagun etengabe kontra egiten diodala amerikar bati, bere berritsukeriak gogaitu egiten nauela adierazteko; eta une oro ahalegin berriak egiten ikusten dut ni komentzitzeko.Isiltasun tematian egoten banaiz, berak aurkezturiko egiei buruz hausnarketa sakonean ari naizela imajinatzen du. Eta azkenean, bat-batean alde egiten badiot aurretik, beste nonbait presazko arazoren bat dudala uste izaten du. Garbi esaten ez badiot, pertsona horrek ez du ulertuko nekatu egiten nauela, eta ezingo diot ihes egin bere etsai porrokatu bihurtu gabe.

Lehen begiratuan harrigarri gertatzen dena zera da: gizon hori berori Europara ekarri eta bat-batean oso arduratsu eta zail bihurtzen dela, eta hainbesterainoxe ezen, sarri, lehen atsekabetzea bezain zail gertatzen baitzait orain bera ez mintzea. Bi efektu hain ezberdin hauek kausa berak eragiten ditu.

Erakunde demokratikoek jendeari aberriaren eta bere buruaren ideia oso handia ematen diote, oro har.

Amerikarra bihotza harrotasunez puztuta duela ateratzen da bere herrialdetik. Europara iritsi eta ohartzen da, lehenik, hemen ez direla Estatu Batuez eta haietan bizi den herri handiaz berak uste bezainbat arduratzen. Honekin asaldatzen hasten da.

Entzun du esaten gizarte-baldintzak ez direla berdinak gure hemisferioan. Hain zuzen ere, ohartzen da, Europako nazioen artean, gizarte-mailen arrastoa ez dela erabat desagertu; aberastasunak eta jaiotzak badituztela oraindik dudazko pribilegio batzuk, horiei jaramonik ez egitea bezain zaila gertatzen zaiolarik zehaztea. Ikuskizun honek harritu egiten du eta egonezina sortzen dio, zeharo berria baita berarentzat; bere herrialdean ikusitako ezerk ez dio ulertzen laguntzen. Beraz, ez daki batere zein leku hartzea komeni zaion erdi-suntsituriko hierarkia horretan, elkar gorrotatzeko eta mesprezatzeko behar hainbat ezberdinak eta berak beti elkarrekin nahasteko behar hainbat hurbilekoak diren klase horien artean. Beldur da goregi kokatuko ote den eta, batez ere, beheregi mailakatua izateko: bi arrisku hauek iraunkorki atsekabetzen diote izpiritua eta etengabe oztopatzen bere ekintzak nahiz hitzak.

Tradizioak erakutsi dio Europan zeremoniala mugagabeki aldatzen dela gizarte-baldintzen arabera; beste garai bateko oroitzapen honek asaldatzen du azkenik, eta are beldur handiagoa sortzen dio zor zaizkion begiramenak ez ote dituen lortuko, ez dakielako zehazki zertan dautzan begiramenak horiek. Zelataz inguraturiko pertsona bezala ibiltzen da beti; gizartea ez da harentzat atsedengunea, lan nekeza baizik. Zure mugimendurik txikienak neurtuko ditu, zure begiradak aztertu eta zure hitz guztiak analizatuko ditu arretaz, ezkutuko zehar-hitz mingarriren bat ote duten beldurrez. Ez dakit inoiz izan den hura baino aitonen seme probintziano sentiberagorik elkarbizitza-kontuan; etiketaren legerik niminoenak betetzen saiatzen da, eta ezin du jasan horietakoren bat ahaztea berarekiko tratuan; eskrupuluz eta aldi berean exigentziaz betea dago; beharrezkoa bete nahi luke, baina gehiegi egiteko beldur da, eta bataren eta bestearen mugak ongi ezagutzen ez dituenez, halako isiltasun ezeroso eta harro batean geratzen da.

Hala ere, hori ez da guztia, eta hona hemen giza bihotzaren beste zoko-moko bat.

Amerikarrak egunero hitz egiten du Estatu Batuetan nagusi den berdintasun miragarriaz, oso ozen harrotzen da horretaz bere herrialdeari dagokionez; baina atsekabetu egiten da ezkutuan bere buruari dagokionez, eta goraipatzen duen ordena orokorrean bera salbuespen dela frogatu nahi izaten du.

Ia ezin da aurkitu amerikarrik jaiotzaz nolabaiteko harreman ez duenik kolonien lehen fundatzaileekin, eta, Ingalaterrako familia handien kimuez estalita iruditu izan zait Amerika.

Amerikar oparo bat Europara iristen denean, luxuzko aberastasun guztiez inguratzea izaten du lehen ardura; eta demokrazia bateko hiritar soiltzat hartuko ote duten oso beldur denez, hamaika eratara saiatzen da bere aberastasunaren irudi berri bat egunero zuen aurrean aurkezten. Normalean hiriko auzategirik nabarmenenean hartzen du ostatu; zerbitzari ugari izaten du etengabe inguruan.

Neuk entzun nuen amerikar bat kexatzen, Pariseko areto nagusienetan gizarte nahasia baino aurkitzen ez zelako. Beraietan nagusi den gustua ez zitzaion aski garbia iruditzen, eta trebeki ematen zuen aditzera, bere iritziz, molde onak falta zirela leku horietan. Ez zen ohitzen izpiritua hala ezkutatzen ikustera forma arrunten azpian.

Horrelako kontrasteek ez gaituzte harritu behar.

Antzinako bereizketa aristokratikoen arrastoa ez balitz hain erabat ezabaturik egongo Estatu Batuetan, amerikarrak ez lirateke hain sinple eta hain jasankor agertuko beren herrialdean, ezta hain exigente eta hain arranditsu ere gurean.

IV

Aurreko hiru kapituluen ondorioak

Jendeak besteen ezbeharrengatik berezko gupida sentitzen duenean, harreman erraz eta ugariek egunero hurbiltzen dutenean inolako minberatasunek banatu gabe, erraz ulertzen da, behar izanez gero, laguntza emango diotela elkarri. Amerikarrak hurkoen laguntza eskatzen duenean, oso arraroa da hauek ukatzea, eta sarri ikusi dut espontaneoki ematen ziotela gogo beroz.

Bide publikoan ustegabeko istripuren bat gertatzen bada, alde guztietatik hurbiltzen zaizkio biktimari; ezusteko zorigaitz handiren batek familia bat jotzen badu, berehala zabaltzen dira milaka ezezagunen diru-poltsak; emaitza koxkorrak, baina oso ugariak, iristen zaizkio ezbeharrean laguntzera.

Munduko naziorik zibilizatuenetan sarri gertatzen da basatia basoetan bezain isolaturik aurkitzen dela dohakabea jendetzaren artean; honelakorik ia ez da ikusten Estatu Batuetan. Amerikarrak, beti hotzak beren maneretan eta sarri zabarrak, ia sekula ez dira bihozgabe portatzen, eta, beren zerbitzuak eskaintzeko lehiatzen ez badira ere, ez dituzte behintzat ukatzen.

Hau guztia ez doa aurrerago indibidualismoari buruz esan dudanaren kontra. Are gehiago, gauza hauek bat datozela ikusten dut, eta ez elkarren kontra.

Baldintzak-berdintasunak, gizakiei beren independentzia sentiarazten dien aldi berean, beren ahulezia erakusten die; aske dira, baina ustekabe ugariren arriskupean, eta esperientziak berehala erakusten die, normalean besteen laguntzaren beharrik ez badute ere, iritsiko zaiela hori gabe aurrera egiterik izango ez duten momentua.

Egunero ikusten dugu Europan lanbide bereko jendeak elkarri laguntzen diola gogotsu; gaitz berberen arriskupean daude guztiak; hori aski da elkar bermatzea bilatzeko, oso gogor eta berekoiak izan arren, bestalde. Hortaz, haietako bat arriskuan dagoenean, eta, sakrifizio txiki pasakor baten edo bat-bateko bulkada baten bidez, besteek arriskutik atera badezakete, ez dira saiatu gabe gelditukо. Egia esateko, ez dira sakon-sakon arduratzen haren zoriaz; zeren eta, kasualitatez, laguntzeko egiten dituzten ahaleginak alferrikakoak badira, berehala ahazten dute eta beren baitara itzultzen; baina bada haien artean nolabaiteko akordio isileko eta ia nahi gabekoa, eta horren arabera bakoitzak besteei momentuko laguntza zor die, bere garaian beretzat ere eskatu ahal izango duena.

Soilik klase bati buruz esan dudana zabal ezazue herri osoagana eta ulertuko duzue nire pentsamendua.

Izan ere, demokrazia bateko hiritar guztien artean, bada aipatu dudanaren antzeko akordiorik; guztiak sentitzen dira ahulezia beraren eta arrisku berberen menpe, eta interesak, baita sinpatiak ere, lege bihurtzen du, behar izanez gero, elkarri laguntza ematea.

Zenbat eta antzekoago bihurtu gizarte-baldintzak, orduan eta gehiago agertzen du jendeak elkarri laguntzeko jarrera hori.

Demokrazietan, on-egintza handiak ia egiten ez badira ere, mesedeak etengabe egiten dira. Pertsona bat nekez sakrifikatzen da besteengatik, baina guztiak dira laguntzaile.

V

Nola demokraziak aldatzen dituen zerbitzariaren eta nagusiaren arteko harremanak

Europan zehar luzaroan bidaiaturiko amerikar batek esan zidan behin:

“Harrigarri gertatzen zaigun harrotasun eta aginkoitasunez tratatzen dituzte ingelesek beren zerbitzariak; baina, bestalde, guretzat pentsaezina den etxekotasun edo kortesiaz jokatzen dute frantsesek berenekin. Agintzeko beldur direla pentsa liteke. Goikoaren eta behekoaren jarrerei ez zaie behar bezala eusten”.

Oharpen hau zuzena da, eta makina bat aldiz egin dut neuk ere.
Beti iruditu izan zait munduko herrialdeen artean, gaur egun Ingalaterran dela estuena morrontzaren lokarria, eta Frantzian, berriz, mundu osoan lasaiena. Beste inon ez zait nagusia bi herrialde horietan baino altuago eta baxuago iruditu.

Amerikarrak bi mutur horien artean kokatzen dira.

Horra hor azalean eta itxuraz gertatzen dena. Aurrerago jo beharra dago horren kausak aurkitzeko.

Oraindik ez da gizarterik ikusi hain baldintza berdinak dituenik bertan aberats edo behartsurik ez izateko, eta, ondorioz, ezta nagusi eta zerbitzaririk ere.

Demokraziak ez du eragozten bi jende-mota horiek izatea, baina aldatu egiten ditu horien izpiritua eta harremanak.

Herri aristokratikoetan, zerbitzariek klase berezi bat osatzen dute, nagusiena bezain aldagaitza. Berehala sortzen da ordena finko bat; lehengoan, bigarrenean bezala, laster agertzen da hierarkia bat, sailkapen ugari, gizarte-maila markatuak, eta belaunaldiak elkarren segidan etortzen dira aldatu gabe. Bi gizarte dira, bata bestearen gain jarria, beti ezberdinak, baina antzeko printzipioz arautuak.

Eraketa aristokratiko honek apenas duen eragin txikiagoa zerbitzarien ideia eta ohituretan nagusienetan baino, eta, ondorioak ezberdinak badira ere, erraz ezagutzen da kausa berbera.

Batzuek eta besteek nazio txikiak osatzen dituzte handiaren barruan; eta azkenerako, beraien artean halako nozio iraunkor batzuk sortzen dira bidezkotasunaz eta bidegabekeriaz. Aldatzen ez den ikuspuntu berezi batetik begiratzen zaie giza bizitzako ekintzei. Zerbitzarien nahiz nagusien gizartean, gizonek eragin handia zertzen dute elkarren gain. Erregela finkoak aitortzen dituzte, eta, legerik ezean, gidatzen dituen iritzi publikoaz baliatzen dira; aztura ordenatuak dira haien artean nagusi, talde-antolamendu orekatua.

Beren patua obeditzea duten pertsona horiek ez dituzte aintza, bertutea, zintzotasuna edo ohorea nagusiek bezala ulertzen. Baina egina dute zerbitzariena den aintza, bertute eta zintzotasuna, eta asmatua dute, zilegi bazait honela esatea, nolabaiteko zerbitzari-duintasuna ere[7].

Klase bat behekoa delako, ez da pentsatu behar haren kide guztiak bihotz kaskarrekoak direnik. Oker handia litzateke hori. Oso behemailakoa izan arren, bertan lehen postuan dagoena eta hura uzteko asmorik ez duena, egoera aristokratikoan aurkitzen da, eta posizio horrek sentimendu jasoak, harrotasun bikaina eta bere buruaganako begirunea sortarazten dizkio, bertute handi eta ezohiko ekintzetarako gai bihurtzen dutenak.

Baina honelakorik ez zen ia inoiz gertatzen zerbitzari-klasearen beheragoko mailetan. Ulergarria da morroi-hierarkian azken muturrean dagoena oso behean egotea.

Frantsesek hitz berezi bat ere asmatu zuten aristokraziaren zerbitzarietako azkenarentzat. Lekaio deitzen zuten.

Lekaio hitza, beste guztiek huts egindakoan, giza kaskarkeria adierazteko erabiltzen zen azken berba zen; antzinako monarkian, une batean gizaki zital eta degradatua azaldu nahi zenean, *lekaio-arima* zuela esan ohi zen. Aski zen hori. Zentzua erabatekoa eta argia zen.

Gizarte-baldintzen ezberdintasun iraunkorrak ez die zerbitzariei bertute eta bizio partikular jakin batzuk ematen bakarrik; egoera berezian ere jartzen ditu nagusien aurrean.

Herrialde aristokratikoetan behartsua, haurtzarotik, ohitua dago aginduak hartzera. Zeinahi aldetara begiratzen duela ere, berehala ikusten du hierarkiaren irudia eta obedientziaren aurpegia.

Gizarte-baldintzen ezberdintasun iraunkorra nagusi den herrialdeetan, nagusiak aise lortzen du zerbitzariengandik obedientzia berehalakoa, erabatekoa, begirunetsua eta erraza, hauek nagusia ez ezik, nagusien klasea ere gurtzen baitute harengan. Aristokraziaren pisu osoaz pisatzen du haien borondatearen gain.

Egintzak agintzen dizkie; neurri bateraino, haien gogoetak ere gidatzen ditu. Aristokrazietan nagusiak, oharkabean sarri, aginte ikaragarria zertzen du obeditzen diotenen iritzi, aztura eta ohituren gain, eta haren eragina beraren aginpidea baino askoz urrutiago ere hedatzen da.

Gizarte aristokratikoetan, ez dira bakarrik herentziazko zerbitzari-familiak sortzen, herentziazko nagusi-familiak bezalaxe; gainera, zerbitzari-familia berberak finkatzen dira, hainbat belaunalditan zehar, nagusi-familia berberen ondoan (lerro paraleloak bezala dira, elkarrekin bat egiten ez eta elkarrengandik aldentzen ez direnak); honek harrigarriro aldatzen ditu bi pertsona-maila horien arteko harremanak.

---

[7] Hurbiletik eta zehazki aztertzen baditugu gizon hauen gidari diren ideia nagusiak, are nabarmenagoa bihurtzen da analogia, eta harrigarria gertatzen da berorien artean aurkitzea, hierarkia feudal bateko burgoienen artean bezalaxe, jaiotzaren harrotasuna, arbasoen eta ondorengoenganako begirunea, gutxiago denarenganako mesprezua, kontaktuaren beldurra, eta etiketaren eta antzinako tradizioen zaletasuna.

Honela, aristokraziaren menpean, nagusiak eta zerbitzariak beren artean berezko antzik batere ez izan arren, eta aberastasun, heziketa, iritzi edo eskubideek gizakien eskalan batzuk eta besteak oso urruti kokatu arren, azkenerako denborak elkarrekin lotzen ditu. Oroitzapen-komunitate luze batek elkartzen ditu, eta, oso ezberdinak izan arren, antzekotu egiten dira; demokrazietan, ordean, ia antzekoak izan arren berez, bete arrotz irauten dute elkarrekiko.

Herri aristokratikoetan, nagusiak bere buruaren beheragoko eta bigarren mailako partetzat ikusten ditu zerbitzariak, eta sarri arduratzen da horien zoriaz, berekoikeriazko azken ahaleginean.

Zerbitzariek, berriz, ia-ia ikuspegi horretatik ikusten dute beren burua, eta batzuetan nagusiaren pertsonarekin identifikatzen dira, eta honela nagusiaren osagai bihurtzen dira azkenerako, beren ikuspegian nahiz harenean.

Aristokrazietan, zerbitzaria menpeko egoeran egoten da, eta ezin izaten da hortik irten; harengandik hurbil, beste gizon bat egoten da, goragoko maila duena eta galdu ezin duena. Alde batetik, iluntasuna, pobrezia, betiko obedientzia; bestetik, aintza, aberastasuna, betiko agintea. Ezaugarri hauek beti ezberdinak eta beti hurbilekoak izaten dira, eta elkartzen dituen lokarria beraiek bezain iraunkorra.

Muturreko egoera horretan, zerbitzaria bere buruaz axolagabetu egiten da azkenerako; atxikimendua galtzen du; nolabait esateko, bere buruaz desertatzen du, edota, hobeto esateko, oso-osorik bere nagusiagan txertatzen da; eta horrela, imajinaturiko nortasuna sortzen du beretzat. Atseginez harrotzen da agintzen diotenen aberastasunaz; haien aintzaz loriatzen da, haien nobleziaz goratzen du bere burua, eta haiengandik harturiko handitasunaz elikatzen da etengabe, handitasun hau sarritan berak gehiago baloratzen duelarik bete-betean eta benetan daukatenek baino.

Bada zerbait hunkigarria eta aldi berean barregarria bi existentzia horien nahasmen hain bitxian.

Nagusi-grina horiek, zerbitzarien arimetara eramanak, dagokien postuaren berezko dimentsioak hartzen dituzte; uzkurtu eta beheratu egiten dira. Lehenengoarengan harrotasuna zena, ume-harropuzkeria eta handinahikeria kaskar bihurtzen da besteengan. Handiki baten zerbitzariak normalean oso sentikor bihurtzen dira nagusiari zor zaion begiramenduarekiko, eta hark baino arduratsuago zaintzen dituzte pribilegiorik txikienak ere.

Oraindik batzuetan aurkitzen da gure artean aristokraziako zerbitzari zahar horietakoren bat; bere arraza baino luzaroago bizi da eta laster desagertuko da berarekin.

Estatu Batuetan ez dut aurkitu antzekorik. Amerikarrek horrelako pertsonarik ez ezagutzeaz gain, oso nekez ulertzen dute inon egon daitekeenik ere. Guri esklabua erromatarren artean edo jopua Erdi Aroan imajinatzea bezain zaila gertatzen zaie horrelako pertsona ba imajinatzea. Izan ere, gizaki hauek guztiak maila ezberdinetan baina kausa bat beraren emaitza dira. Elkarrekin atzera egiten dute gure bistatik urrun eta iraganeko iluntasunera ihes egiten dute egunero, sortarazi zituen gizarte-egoerarekin batera.

Gizarte-baldintzen berdintasunak izaki berri egiten ditu zerbitzaria eta nagusia, eta harreman berriak ezartzen horien artean.

Baldintzak ia berdinak direnean, jendea etengabe aldatzen da postuz; oraindik badira zerbitzari-klasea eta nagusi-klasea; baina beti ez dituzte gizabanako berberek, ezta batez ere familia berberek, osatzen klase horiek; eta jada ez dago betikotasunik ez agintean, ez obedientzian.
Zerbitzariek, herri bat aparte osatzen ez dutenez, ez dute beren usadio, aurreiritzi edo ohitura propiorik; ez da haien artean halako izpiritu-jite jakinik edo sentiera berezirik sumatzen; ez dute beren egoerari dagokion bizio edo bertuterik ezagutzen, baina beren garaikideen jakintzargi, ideia, sentimendu, bertute eta bizioak konpartitzen dituzte; zintzoak edo okerrak dira, nagusiak bezalaxe.

Gizarte-baldintzak nagusien artean bezain berdinak dira zerbitzarien artean.

Zerbitzarien klasean gizarte-maila markaturik ez dagoenez, ezta hierarkia iraunkorrik ere, han ez da espero behar morroien arteko aristokrazietan eta beste guztietan ikusten diren kaskarkeria eta handitasuna aurkitzerik.

Estatu Batuetan sekula ez dut ikusi eliteko zerbitzariaren ideia gogoraraz ziezadakeen ezer; Europan, berriz, gorde dugu horren oroitzapena; baina lekaioaren ideia ere ez dut aurkitu. Galdua da bataren nahiz bestearen arrastoa.

Demokrazietan zerbitzariak ez dira bakarrik beren artean berdinak; beren nagusien berdinak ere badirela esan daiteke, gainera.

Hau esplikatu beharra dago, ongi ulertzeko.

Une oro, zerbitzaria nagusi bihur daiteke eta hori nahi izaten du, gainera; beraz, zerbitzaria ez da nagusia ez bezalako norbait.

Hortaz, zergatik du lehenak agintzeko eskubidea eta zerk behartzen du bigarrena obeditzera? Haien bi borondateen momentuko akordio askeak. Berez, bata ez dago bestearen azpitik; momentu batean jartzen dira egoera horretan kontratuaren ondorioz. Kontratu horren mugen barruan, bata zerbitzari da eta bestea nagusi; hortik kanpo, bi hiritar dira, bi gizon.

Erregutzen diot irakurleari ongi kontuan hartzeko hau ez dela zerbitzariek beren egoeraz duten nozioa bakarrik. Nagusiek ere ikuspegi beretik ikusten dute morrontza, eta agintearen eta obedientziaren muga zehatzak bataren izpirituan bezain ongi finkaturik daude bestearenean.

Hiritar gehienek aspaldidanik gutxi gora-behera antzeko egoera lortua dutenean, eta berdintasuna egitate zahar eta onartua denean, zentzu publikoak –salbuespenek sekula eragiten ez dioten horrek- gizakiaren balioari muga batzuk ezartzen dizkio orokorrean, eta muga horien gainetik edo azpitik zaila da inor luzaroan egotea.

Aberastasunak eta pobreziak, aginteak eta obedientziak alferrik ezarriko dituzte akzidentalki tarte handiak bi pertsonaren artean, zeren eta, iritzi publikoak, gauzen ohiko ordenan oinarritzen delarik, maila komunera hurbiltzen baititu eta irudikaturiko berdintasun-mota bat sortzen du beraien artean, nahiz eta haien gizarte-egoerak benetan ezberdinak izan.

Iritzi ahalguztidun hau beren interesagatik kontra egon zitezkeenen ariman ere sartzen da azkenerako; iritzia aldatzen die eta aldi berean borondatea menperatzen.

Arimaren barrenean, nagusiak eta zerbitzariak ez dute beren artean desberdintasun sakonik sumatzen eta ez dute inoiz sortuko zaien ez esperantzarik, ez beldurrik. Mesprezurik eta suminik gabe bizi dira, eta elkarri begiratzean ez du batak bestea ez apal eta ez harro ikusten.

Nagusiak pentsatzen du kontratuan datzala bere boterearen jatorri bakarra, eta zerbitzariak ere horretan aurkitzen du obedientziaren kausa bakarra. Ez dute beren artean eztabaidatzen elkarrekiko duten posizioaz; baina bakoitzak ezagutzen du berea eta han jarraitzen du.

Gure armadetan gutxi gora-behera ofizialen klase beretsuetatik hartzen da soldadua, eta postu berberetara irits daiteke; graduazioak alde batera utzita, buruzagien berdin-berdin sentitzen da, eta izan ere, hala da; baina banderapean ez du obeditzeko inolako zailtasunik, eta haren obedientzia, borondatezkoa eta mugatua izateagatik, ez da bizkortasun, garbitasun eta erraztasun gutxiagokoa.

Honek zerbait adierazten digu gizarte demokratikoetan zerbitzariaren eta nagusiaren artean gertatzen denaz.
Zentzugabea litzateke pentsatzea bi pertsona horien artean inoiz sor daitekeela morrontza aristokratikoaren baitan batzuetan pizten diren afektu sutsu eta sakon horietakorik, edota ager daitekeela sakrifiziokasu deigarri horietakorik.

Aristokrazietan, zerbitzariak eta nagusiak tarteka-marteka ikusten dute elkar, eta sarritan bitartekari bidez bakarrik hitz egiten dute. Hala ere, normalean irmo eusten dio batak besteari.

Herri demokratikoetan, zerbitzaria eta nagusia oso hurbil daude elkarrengandik; haien gorputzek etengabe ukitzen dute elkar, arimak ez dira batere nahasten; eginkizun komunak dituzte, baina ia sekula ez interes komunak.

Herri horietan, zerbitzariak beti pasekotzat dauka bere burua nagusien egoitzan. Ez ditu hauen arbasoak ezagutu eta ez ditu ondorengoak ere ikusiko; ez du beraiengandik ezer iraunkorrik espero. Zergatik nahastu bere bizitza haienarekin, eta zerk bultza lezake bere buruaren abandonu berezi horretara? Elkarrekiko posizioa aldatu egin da; harremanek ere aldatu egin behar dute.

Aurreko horretan guztian, amerikarren kasuan nahi nuke oinarritu; baina ezin dut egin pertsonak eta lekuak kontuz bereizi gabe.

Batasuneko hegoaldean, bada esklabutza. Esan berri dudan guztia ezin daiteke han aplikatu.

Iparraldean, zerbitzari gehientsuenak emantzipatuak edo emantzipatuen seme-alabak dira. Pertsona horiek posizio eztabaidatua dute estima publikoan: legeak nagusien mailara hurbiltzen ditu; ohiturek setati ukatzen diete hori. Berek ere ez dute beren lekua garbi bereizten, eta ia beti lotsagabe edo zital agertzen dira.

Baina iparraldeko probintzia horietan berorietan, Ingalaterra Berrian batez ere, zuri dezente dago, soldataren truke, denboraldi batean besteen borondatera makurtzea onartzea dutenak. Entzun dudanez, zerbitzari horiek normalean zehaztasun eta buru-argitasunez betetzen dituzte beren egoerako eginbeharrak, eta, agintzen dienak baino berez gutxiago balio dutenik uste izan gabe, eragozpenik gabe onartzen dute obeditzea.

Iruditu izan zait haiek morrontzara pasatzen zituztela independentziak eta berdintasunak sortarazten dituzten aztura indartsuetako batzuk. Behin egoera gogorra aukeratu ondoren, ez dira egoera horretatik ihes egiten ahalegintzen, eta beren buruari aski begirune diote nagusiei ez ukatzeko askatasunez hitz eman dieten obedientzia.

Bestalde, nagusiek ez diete zerbitzariei eskatzen kontratua leial eta zorrotz betetzea baizik; ez diete begirunerik eskatzen; ez diete maitasun edo sakrifiziorik eskatzen; aski zaie puntual eta zintzoak baldin badira.

Ez litzateke egia izango esatea, demokrazian, zerbitzariaren eta nagusiaren arteko harremanak desordenatuak direla; beste era batera daude ordenatuta; araua ezberdina da, baina bada arau bat.

Ez noa hemen ikertzera azaldu berri dudan egoera berri hau bere aurretikoa baino kaskarragoa den edota, soilik, bestelakoa den. Aski zait arautua izatea eta finkoa; zeren eta gizakien artean garrantzizkoena ez baita ordena jakin bat aurkitzea, ordena baizik.

Baina zer esango dut garai triste eta zurrunbilotsu horietaz, berdintasuna iraultzaren zirriparraren erdian oinarritzen denean, eta bitartean demokrazia, gizarte-egoeran ezarria izan ondoren, aurreiritzi eta ohituren aurka nekez borrokatzen ari denean?

Dagoeneko legeak eta, neurri batean, iritziak aldarrikatzen dute ez dela gutxiagotasun berezko eta iraunkorrik zerbitzariaren eta nagusiaren artean. Baina fede berri hau oraindik ez da sartu nagusiaren izpirituaren barreneraino, edota, hobeto esanda, bihotzak errefusatu egiten du. Arimaren ezkutuan, nagusiak pentsatzen du oraindik ere bera espezie eta gorago batekoa dela; baina ez da esatera ausartzen, eta, dardaran, guztien mailara erakarriko dute, amore emanez. Haren agintea herabe eta gogorra da aldi berean; dagoeneko ez du bere zerbitzarienganako sentitzen boterealdi luze ukatu gabeak beti sortarazten duen sentimendu babesle eta onginahizkorik, eta harritu egiten da bera aldatu delarik, zerbitzaria ere aldatzea; berak nahi du zerbitzariak, morrontzatik igaro besterik ez egin arren, aztura erregular eta iraunkorrak beregana ditzala; gogobeterik eta harro senti dadila bere zerbitzari-egoeraz, lehentxeago edo geroxeago utziko badu ere; sakrifika dadila ez babestu, ez kaltetu, ezin duen pertsona batengatik, eta, azkenean, lot dadila betiereko lokarriz bere antza duten eta bera baino gehiago irauten ez duten izakiekin.

Herri aristokratikoetan, sarri gertatzen da zerbitzari-egoerak ez duela beheratzen horretara jarritakoen arima, ez dutelako besterik ezagutzen eta imajinatzen, eta beren eta nagusiaren artean ikusten den desberdintasun harrigarria iruditzen zaie Probidentziaren lege ezkuturen baten ondorio beharrezko eta saihestezina dela.

Demokrazian, morrontza-egoerak ez du ezer apalgarririk, askatasunean aukeratzen baita, iragankorki onartzen, iritzi publikoak ez du gaitzesten eta ez du inolako desberdintasun iraunkorrik sortzen zerbitzariaren eta nagusiaren artean.

Baina gizarte-egoera batetik bestera pasatzerakoan, ia beti gertatzen da momentu bat, zeinetan jendearen izpirituak zalantzak izaten baititu menpekotasunaren nozio aristokratikoaren eta obedientziaren nozio demokratikoaren artean.

Orduan obedientziak bere moraltasuna galtzen du obeditzen duenaren begietan; jada ez du hartzen nolabaiteko jainko-betebehartzat, eta oraindik ez du ikusten giza ikuspegi hutsetik ere; haren begietarako ez da ez santu, ez bidezko, eta egitate apalgarri baina probetxuzko bezala onartzen du.

Une horretan, berdintasunaren irudi nahasi eta osagabea agertzen zaio zerbitzarien izpirituari; lehen begiratuan ez dute bereizten beren eskubide duten berdintasun hori morrontza-egoeran bertan dagoen edo hortik kanpo, eta bihotz barrenean altxatu egiten dira berek onartu duten eta aprobetxatzen duten gutxiagotasunaren aurka. Onartu egiten dute zerbitzatzea, eta lotsatu egiten dira obeditzeaz; zerbitzaritzaren abantailak gogoko dituzte, baina ez nagusia; edo, hobeto esanda, ez daude ziur ez ote dagokien beraiei nagusi izatea, eta joera dute agintzen diena beren eskubidearen usurpatzaile bidegabetzat hartzeko.

Orduan ikusten da hiritar bakoitzaren egoitzan gizarte politikoak errepresentatzen duen ikuskizun tristearen antzeko zerbait. Etengabeko barne-gerra sorgorra ematen da beti susmagarri eta etsai diren botereen artean. Nagusia gogogaizto eta gozo agertzen da, zerbitzaria gogogaizto eta bihurri; batak, murrizketa desonesten bidez, babestu eta ordaintzeko betebeharrari ihes egin nahi dio, besteak obeditzekoari. Haien artean dabil kulunka etxeko administrazioaren burubidea, bakoitzak bereganatu nahi duena. Autoritatea tiraniatik, askatasuna libertinajetik, eskubidea egitatetik banatzen dituzten marrak haien begietara mordoilotu eta nahasturik agertzen dira, eta inork ez daki zehazki bera zer den, zer egin dezakeen edo zer egin behar duen.

Horrelako egoera ez da demokratikoa, iraultzailea baizik.

VI

Nola erakunde eta ohitura demokratikoek jotzen duten errentamenduen prezioa igotzera eta iraupena laburtzea

Zerbitzari eta nagusiei buruz esan dudana jabe eta maizterrei aplikatzen zaie, neurri bateraino. Gaiak, ordea, aparte aztertzea merezi du.

Amerikan ez dago maizterrik, nolabait esateko; gizon oro da lantzen duen landaren jabe.

Onartu beharra dago lege demokratikoek joera indartsua dutela jabeen kopurua gehitu eta maizterrena gutxitzeko. Hala ere, Estatu Batuetan gertatzen dena herrialdeko erakundeei gutxiago egotzi behar zaie herrialdeari berari baino. Amerikan lurra gutxi kostatzen da eta edonor erraz bihurtzen da jabe. Lurrak gutxi ematen du, eta emaitzak nekez bana daitezke jabearen eta maizterraren artean.

Amerika kasu bakana da honetan, beste gauza batzuetan bezalaxe; eta hutsegitea litzateke jarraibidetzat hartzea.

Pentsatzen dut herrialde demokratikoetan, aristokrazietan bezalaxe, izango direla jabeak eta maizterrak; baina jabeak eta maizterrak ez dira era berean lotuak egongo.
Aristokrazietan, errentamenduak ez dira diruz bakarrik ordaintzen, baita begirune, afektu eta zerbitzuen bidez ere. Herrialde demokratikoetan, diruz bakarrik ordaintzen dira. Ondareak banatu eta eskuz aldatzen direnean, eta familien eta lurraren artean zegoen erlazio iraunkorra desagertzen denean, kasualitateak bakarrik jartzen ditu harremanetan jabea eta maizterra. Kontratuaren baldintzak eztabaidatzeko une batean elkartu, eta bistatik galtzen dira berehala. Bi arrotz dira, interesak elkarrengana hurbilduak eta beren artean arazo bat zorrotz eztabaidatzen dutenak, gai bakarra dirua delarik.

Ondasunak banatu eta aberastasuna han-hemen herrialde osoan zehar sakabanatzen denean, antzinako oparotasuna galbidean duen jendez betetzen da Estatua, eta aberats berriz, hauen premiak baliabideak

baino bizkorrago hazten direlarik. Horientzat guztientzat mozkinik txikiena ere garrantzitsua da, eta horietako inor ez dago prest bere abantailetako bakar bati ere ihes egiten uzteko, ezta bere irabazietako zati bat galtzeko ere.

Gizarte-mailak nahasten eta aberastasun oso handiak nahiz oso txikiak bakanago bihurtzean, egunetik egunera tarte txikiagoa dago jabearen eta maizterraren gizarte-egoeraren artean; berez, batak ez du bestearen gain nagusitasun ukaezinik. Nolanahi ere, bi gizaki berdin eta behartsuren artean, zein izan daiteke alogera-kontratuaren gaia, dirua izan ezik?

Kantonamendu osoaren jabe izanik ehun etxalde dauzkanak ulertzen du hainbat milaka pertsonaren bihotza irabazi behar duela aldi berean; eta horretan saiatzea merezi duela iruditzen zaio. Hain helburu handia lortzeko, erraz egiten ditu sakrifizioak.

Ehun anega dituena ez da arduratzen kontu horietaz; gutxi axola zaio maizterraren onginahi partikularra bereganatzea.

Aristokrazia ez da hiltzen egun batean, gizakia bezala. Haren printzipioa astiro suntsitzen da arimen baitan, legeetan erasotua izan aurretik. Beraren aurkako gerra lehertu baino askoz lehenago, poliki-poliki ikusten da askatzen ordura arte goiko klaseak behekoekin batzen zituen lokarria. Alde batetik, arduragabezia eta mesprezua agertzen dira; bestetik, jelosia eta gorrotoa. Behartsuaren eta aberatsaren arteko harremanak bakanago eta garratzago bihurtzen dira; errentamenduen prezioa igo egiten da: Ez da oraindik iraultza demokratikoaren emaitza, baina bai benetan iragartzen duena. Zeren eta herriaren bihotzari bere eskuetatik behin-betiko ihes egiten utzi dion aristokrazia sustraiak ihartuta dituen zuhaitza bezala da; zenbat eta altuagoa izan, orduan eta errazago eraisten dute haizeek.

Azken berrogeita hamar urteotan, errentamenduen prezioa ikaragarri igo da, ez Frantzian bakarrik, baita Europa gehienean ere. Epe berean nekazaritzak eta industriak egin dituzten aurrerapen bereziak ez dira aski, nire ustez, fenomeno hori azaltzeko. Kausa indartsuago eta ezkutuagoren batera jo beharra dago horretarako. Pentsatzen dut kausa hori Europako zenbait herrik onartu dituzten erakunde demokratikoetan bilatu behar dela, eta, gutxi-asko, gainerako guztiak astintzen dituzten grina demokratikoetan.

Sarritan entzun ditut jabe ingeles handiak beren burua zoriontzen gaur egun beren mendelurretatik askoz diru gehiago ateratzen dutelako beren gurasoek ohi zutena baino.

Agian izango dute pozteko arrazoirik; baina, ziur aski, ez dakite zertaz pozten diren. Mozkin garbia ateratzen dutela uste dute, eta trukea besterik ez dute egiten. Beren eragina lagatzen dute eskudiruaren truke; eta dirutan irabazten dutena, boterean galduko dute laster.

Bada oraindik beste seinale bat, iraultza demokratiko handi bat gauzatzen edo prestatzen ari dela erraz adierazten duena.

Erdi Aroan, ia lur guztiak betiko ematen ziren errentan, edo oso epe luzerako behintzat. Garai hartako etxe-ekonomia aztertzen denean, ikusten da laurogeita hemeretzi urteko errentamenduak gaur egun hamabikoak baino ugariago zirela.

Orduan familien hilezkortasunean sinesten zen; gizarte-baldintzek betiko finkatuak ematen zuten, eta gizarte osoak hain mugigaitz ematen zuenez, ez zen pentsatzen haren baitan ezer alda zitekeenik inoiz.

Berdintasun-mendeetan, giza izpirituak beste joera bat hartzen du. Ezerk ez duela irauten imajinatzen du erraz. Ezegonkortasunaren ideia izaten da nagusi.

Egoera horretan, jabeak eta maizterrak berak berezko ikara sentitzen dute epe luzerako betebeharren aurrean; beldur dira egunen batean mugatu egingo ote dituen gaur onuragarri zaien hitzarmenak. Ilunki bada ere, bat-bateko eta ezusteko aldaketaren bat espero dute beren egoeran. Beren buruaren beldur dira; beldur dira, beren gustua aldatzen bada, beren gutizi-gai zena ezin uzteak atsekabetuko ote dituen, eta arrazoi dute horren beldur izateko; zeren eta demokrazi mendeetan gauzarik aldakorrena, gauza guztien mugimenduaren erdian, gizakiaren bihotza baita.

VII

Demokraziaren eragina lansarietan

Zerbitzari eta nagusiei buruz hitz egiterakoan egin ditudan oharpen gehienak ugazaba eta langileei aplika dakizkieke.

Gizarte-hierarkiako arauak gutxiago betetzen diren neurrian, eta handiak beheratu, txikiak goratu eta pobreziak nahiz aberastasunak herentziazko izateari utzi bitartean, egunetik egunera murrizten da langilea ugazabagandik banatzen zuen egitatezko eta iritzizko tartea.

Langileak ideia jasoagoa zertzen du bere eskubide, etorkizun eta bere buruaz; handinahi berriak, gurari berriek betetzen dute, premia berriek inguratzen dute. Une oro, gutiziaz beteriko begiradak botatzen dizkie bera enplegatzen dutenen irabaziei, haietan parte izatera iristeko, bere lanari prezio garestiagoa jartzen saiatzen da, azkenerako baita lortu ere normalean.

Herrialde demokratikoetan, besteetan bezalaxe, industriarik gehienak aberastasun eta jakintzargietan beren enplegatuen maila komunetik gorago ez dauden gizonek gidatzen dituzte kostu txikiaz. Honelako industri enpresariak oso ugari dira; beren interesak ezberdinak; beraz, ezin erraz elkar ulertu eta ahaleginak konbinatu.

Bestalde, ia langile guztiek dituzte baliabideren batzuk ziurtaturik, eta horiei esker ukatu egin ditzakete zerbitzuak, beren ustez bidezkoa den lansaria eman nahi ez zaienean.

Bi klase horiek lansariengatik duten borroka etengabean, indarrak banaturik daude eta garaipenak txandakakoak dira.

Luzarora langileen interesa nagusitu egingo dela ere pentsa daiteke; zeren eta, jada lortu dituzten lansari handiei esker, gero eta menpekotasun txikiagoa baitute ugazabekiko, eta, independenteagoak diren neurrian, errazago lor baitezakete lansarien igoera.

Gaur egun gure artean, baita munduko nazio gehientsuenetan ere, oraindik ohikoena den industria hartuko dut adibidetzat: lur-langintza.

Frantzian, lurra lantzeko zerbitzuak alokatzen dituzten gehienek beren sailak dituzte, eta, behar izanez gero, iraun dezakete inorentzat lan egin gabe. Beren besoak lurjabe handiari edo auzoko maizterrari eskaintzen dizkiotenean, eta hauek uko egiten badiote lansari jakin bat emateari, beren lursail txikira itzuli eta beste aukeraren baten zain gelditzen dira.

Pentsatzen dut, gauzak oro har hartuta, lansarien igoera mantso eta progresiboa dela gizarte demokratikoak arautzen dituen lege orokorretako bat. Baldintzak gero eta berdinagoak diren neurrian, lansariak igo egiten dira, eta, lansariak altuagoak diren neurrian, baldintzak berdinago bihurtzen dira.

Baina, gaur egun, bada salbuespen handi eta zoritxarreko bat.

Aurreko kapitulu batean erakutsi dut nola aristokrazia, gizarte politikotik kanporatua, industri munduaren parte batzuetara erretiratu zen, han beste era batera ezarriz bere agintea.

Honek eragin handia du lansarien arloan.

Aipatzen ari naizen industria handiei ekiteko oso aberats izan behar denez, horiei ekiten dietenen kopurua oso txikia izaten da. Eta gutxi izanik, erraz elkartzen dira beren artean eta nahi duten prezioa jartzen lanari.
Horien langileak, aitzitik, oso ugari dira, eta kopurua etengabe hazten da; noizean behin aparteko oparoaldiak gertatzen dira, eta horietan, lansariak neurrigabe igotzen direnez, inguruetako jendea manufakturetara erakartzen dute. Nolanahi ere, behin jendea lasterketa horretan sartuz gero, ezin dela irten ikusten dugu, beste edozein lanetarako ezgai bihurtzen dituen gorputz- eta izpiritu-azturak hartzen baititu laster. Oro har, jakintzargi, industria eta baliabide gutxi dute pertsona horiek; beraz, ugazabaren menpe daude ia. Konkurrentziak edo ustekabeko beste gora-beheraren batzuek gutxitu egiten badituzte ugazabaren irabaziak, honek ia bere nahierara murriz ditzake haien soldatak, eta erraz berreskuratu haien lepotik zoriak kendu diona.

Demagun ados jarri eta lanari uko egiten diotela; ugazabak, gizon aberatsa izanik, erraz itxaroten dezake, porrot egin gabe, beharrak eramango dizkiola berriro; langileek, berriz, egunero lan egin behar dute ez hiltzeko, ez baitute beste ezer jabetzan beren besoak baizik. Zapalkuntzak txirotu egin ditu aspaldidanik, eta zenbat eta behartsuago, orduan eta errazagoak zapaltzeko. Inola ere ezin dira irten gurpil zoro horretatik.

Ez da harritu behar, beraz, soldatak, batzuetan bat-batean igo ondoren, hemen jaitsi egiten badira iraunkorki; beste lanbideetan, berriz, lanaren prezioa, oro har poliki-poliki igotzen dena, etengabe gehitzen da.

Gaur egun industri biztanleriaren zati batek bizi duen menpekotasun eta lazeri egoera hau salbuespenezko zerbait da, eta inguratzen duen guztiaren kontrakoa; baina, arrazoi berorrengatik, ez dago larriagorik, ezta legegilearen arreta berezia bereganatzea mereziago duenik ere; zeren eta, gizarte osoa mugitzen denean, zaila baita klase bat mugitu gabe edukitzea, eta, gehiengoak etengabe aberastasunerako bide berriak zabaltzen dituenean, zaila baita batzuei bakean jasanaraztea beren premia eta gurariak.

VIII

Demokraziaren eragina familian

Oraintxe aztertu dut nola, herri demokratikoetan, eta amerikarren artean bereziki, gizarte-baldintzen berdintasunak hiritarren arteko harremanak aldatzen dituen.

Aurrerago joan nahi dut, eta familiaren baitan sartu. Hemen nire helburua ez da egia berriak aurkitzea, jada ezagunak diren egitateak nire gaiarekin nola lortzen diren erakustea baizik.

Mundu guztia ohartu da, gaur egun, harreman berriak ezarri direla familiako kideen artean, lehen aita semeagandik banatzen zuen distantzia laburtu egin dela eta aitaren agintea, suntsitu ez bada ere, aldatu behintzat egin dela.

Antzeko zerbait, baina are harrigarriagoa, ikusten da Estatu Batuetan.

Amerikan familiarik, bere zentzu erromatar eta aristokratikoan hartuta, ez dago. Horren aztarnaren batzuk haurren jaiotza osteko lehen urteetan bakarrik aurkitzen dira. Orduan aitak aurkakotasunik gabe zertzen du etxeko diktadura, haurren ahuleziak beharrezko bihurtzen duena, eta bere interesak eta nagusitasun eztabaidaezinak justifikatzen dutena.

Baina gazte amerikarra gizon-adinera hurbiltzean, seme-obedientziaren lokarriak laxatu egiten dira egunetik egunera. Bere pentsamenduen jabe, laster bihurtzen da bere jokabidearen jabe ere. Egia esateko, Amerikan ez dago adoleszentarorik. Lehen adinetik irtetean, gizona agertzen da eta bera hasten da bere bidea egiten.

Okerra litzateke pentsatzea barne-borrokaren ondoren lortzen dela hori, borroka horretan semeak, nolabaiteko bortxa moralaren bidez, aitak ukatzen zion askatasuna lortu balu bezala. Bata independentziari atxikitzera bultzatzen duten aztura eta printzipio berberek bultzatzen dute bestea independentziaren erabilera hori eskubide ukaezintzat hartzera.

Lehenengoarengan ez da, beraz, gorrotozko grina desordenaturik aurkitzen, ezarritako botere baten menpetik irten eta askoz geroago ere jendea astintzen duten horietakorik. Bigarrenak ez du garraztasun eta suminduraz beteriko sentimendurik izaten, erori den aginteak normalean ondoren izaten duenetakorik. Aitak urrutitik ikusi du zein mugatan amaitu behar zuen bere aginpideak; eta, denborak muga horretarantz hurbiltzen duenean, abdikatu egiten du atsekaberik gabe. Semeak aurreikusia du bere borondatea zein garaitan bihurtuko den bere arau, eta presarik eta ahaleginik gabe jabetzen da askatasunaz, zor zaion eta inork kendu nahi ez dion ondasun bat bailintzan[8]

[8] Hala ere, amerikarrei oraindik ez zaie bururatu, guk Frantzian egin dugun bezala, gurasoei boterearen elementurik nagusienetako bat kentzea, hiltzerakoan beren ondasunez erabakitzeko askatasuna kentzea, alegia. Estatu Batuetan testamentu egiteko ahalmena mugagabea da.

Ez da agian alferrikakoa izango erakustea nola familian gertatzen diren aldaketa horiek estu lotuta dauden geure aurrean gertatu berri den gizarte- eta politika-iraultzarekin.

Badira gizarte-printzipio handi batzuk, herri batek edonon sarrarazten dituenak edo inon irauten uzten ez dituenak.

Aristokratikoki eta hierarkikoki antolaturiko herrialdeetan, botereak sekula ez du zuzenean jotzen gobernatu guztiengana. Pertsonak elkarri loturik daudenez, lehenengoak gidatzera mugatzen da; besteek jarraitu egiten diete. Hau familiari ere aplikatzen zaio, buruzagia duten elkarte guztiei bezalaxe. Herri aristokratikoetan, gizarteak ez du, egia esateko, aita baizik ezagutzen. Gizarte seme-alabekin aitaren bidez lotzen da; hark aita gobernatzen du eta honek seme-alabak. Aitak ez du eskubide naturala soilik, eskubide politikoa ere ematen zaio agintzeko. Familiaren egile eta euslea da; baita beraren magistratua ere.

Demokrazietan, non gobernuaren besoak jendetzaren artean pertsona bakoitza partikularki bilatzen baitu isolatuki lege komunetara makurrarazteko, ez da horrelako bitartekaririk behar; aita ez da, legearen begietara, seme-alabak baino hiritar zaharrago eta aberatsagoa baizik.

Gizarte-baldintzarik gehienak oso desberdinak direnean eta baldintza-desberdintasuna iraunkorra denean, goragoko norbaiten ideia hazi egiten da gizakien irudimenean; legeak ez balio prerrogatibarik emango, ohiturak eta iritzi publikoak emango lizkioke. Aitzitik, gizakiek elkarren artean alde handirik ez dutenean, ezta betiko desberdin irauten ere, goragokoaren nozio orokorra ahulago eta ilunago bihurtzen da; legegilearen borondatea alferrik saiatzen da obeditzen duena agintzea duena baino askoz beherago jartzen, ohiturek elkarrengana hurbiltzen baitituzte bi gizon horiek eta maila bererantz erakartzen egunero.

Beraz, herri aristokratiko baten legerian familiburuari emandako pribilegio berezirik ikusiko ez banu, hala ere, ziur egongo nintzateke beraren boterea oso errespetatua dela eta demokraziaren baitan baino zabalagoa, bai baitakik, edozelakoak izanik ere legeak, aristokrazietan goikoak gorago emango duela beti eta behekoak beherago herri demokratikoetan baino.

Jendea iraganaren oroitzapenaz oraingoaren arduraz baino gehiago bizi denean, eta arbasoek pentsatzen zutenaz hainbesteraino kezkaturik beren kabuz pentsatu ere egiten ez dutenean, aita izaten da berezko eta beharrezko lokarria iraganaren eta orainaren artean, bi kate horiek burutzen eta elkartzen dituen maila. Aristokrazietan, aita ez da, beraz, familiako buru politikoa bakarrik; tradizioaren organoa ere bada, ekanduaren interpretaria, ohituren arbitroa. Adeitasunez entzuten zaio; begirunez baino ez zaio hitz egiten, eta beraganako maitasuna beldurrak moderatzen du beti.

Gizarte-egoera demokratiko bihurtzean eta jendeak, antzinako sineskizunak informazio gisa, eta ez arau gisa, harturik, gauza guztiak nork bere kabuz epaitzea on eta bidezko dela printzipio orokortzat hartzen duenean, aitak seme-alaben gain zerturiko iritzi-agintea gutxitu egiten da, bere legezko boterea bezalaxe.

Demokraziak ekartzen duen ondare-zatiketak eragiten du, gainerako guztiak baino gehiago agian, aitaren eta haurren arteko harremanak aldatzea.

Familiburuak ondasun gutxi duenean, semea eta biak etengabe leku berean bizi izaten dira, eta lan berberak egiten dituzte elkarrekin. Azturak eta premiak hurbildu egiten dituzte elkarrengana eta bata bestearekin komunikatzera behartzen dituzte une oro, beraz, nolabaiteko kidetasun familiarra sortzen da

---

Honetan, ia gainerako guztian bezala, erraza da ohartzea amerikarren legeria politikoa gurea baino askoz demokratikoagoa bada, gure legeria zibila haiena baino askoz ere demokratikoagoa dela. Erraz ulertzen da hau.
Gure legeria zibilaren autoreari garaikideen grina demokratikoak asetzea interesatu zitzaion, zuzenean eta berehala bere boterearen kontrako ez zen guztian behintzat. Gogotsu onartzen zuen herri-printzipio batzuek ondasunak zuzendu eta familiak gobernatzea, Estatuaren zuzendaritzan sartu nahi ez zuten bitartean. Uholde demokratikoak lege zibilen gain gainezka egiten zuen bitartean, berak lege politikoen atzean erraz babestea espero zuen. Ikuspegi hau iaiotasunez eta berekoikeriaz betea da aldi berean; baina horrelako konpromezua ezin zitekeen iraunkorra izan. Zeren eta, luzarora, gizarte politikoak gizarte zibilaren adierazpide eta irudi izan behar baitzuen derrigorrez; eta zentzu honetan esan daiteke herri batean ez dagoela ezer politikoagorik legeria zibila baino.

haien artean, aginpidea hain absolutua ez izatea eragiten duena eta errespetuaren kanpo-formetara gaizki egokitzen dena.

Nolanahi ere, herri demokratikoetan, aberastasun txiki horiek dauzkan klasea izaten da ideiei indarra ematen diena eta ohiturei beren jitea. Alde guztietan nagusiarazten ditu bere iritziak, baita bere nahiak ere, eta haren aginduei kontra egiteko joera biziena dutenak ere azkenean beraren jarraibideak erakartzen ditu. Ikusiak ditut demokraziaren etsai sutsuak berei hika hitz egiteko agintzen haurrei.
Honela, aginteak aristokraziari ihes egiten dion aldi berean, aitaren boterean zegoen laztasun, konbentzional eta lege kutsu hori ere desagertu egiten da, eta nolabaiteko berdintasuna ezartzen da etxe barruan.

Oro har, nik ez dakit gizarteak galdu egiten duen aldaketa horrekin, baina gizabanakoak irabazi egiten duela esango nuke. Ohiturak eta legeak demokratikoagoak diren neurrian, aitaren eta semearen arteko harremanak kutunago eta gozoago bihurtzen dira; arau eta aginpide gutxiago aurkitzen da horietan; konfiantza eta afektua handiagoak izaten dira sarri, eta berezko lokarria estutu egiten dela ematen du, gizarte-lokarri laxatu egiten den bitartean.

Familia demokratikoan, agurearen samurtasun eta esperientziari eman nahi zaion boterea baizik ez du erabiltzen aitak. Haren aginduei ez zaie agian jaramonik egingo; baina beraren aholkuak oso indartsuak izaten dira normalean. Begiramen ofizialez inguratua ez badago ere, semeak konfiantzaz hurbiltzen zaizkio gutxienez. Ez dago formula ezarririk berarekin hitz egiteko; baina etengabe hitz egiten zaio, eta gogo onez kontsulta egiten egunero. Nagusia eta magistratua desagertu egin dira; aita geratzen da.

Puntu honetan bi gizarte-egoera horien arteko aldea epaitzeko, aski da aristokraziek utzi dizkiguten famili gutunak aztertzea. Idazkera beti zuzena da, zeremoniatsua, zurruna, eta hain hotza. ezen bihotzaren berezko berotasuna nekez sumatzen baita hitzetan zehar.

Aitzitik, herri demokratikoetan semeak aitari zuzentzen, dizkion hitz guztietan bada zerbait aske, familiar eta samurra aldi berean, familiaren baitan harreman berriak ezarri direla erakusten duena lehen begiratuan.

Antzeko iraultzak haurrideen elkarrekiko harremanak ere aldatzen ditu.

Familia aristokratikoan, gizarte aristokratikoan bezalaxe, postu guztiak markatuta daude. Aitak aparteko maila izaten du, eta ikaragarrizko pribilegioak; gainera seme-alabak ere ez dira berdinak izaten beren artean. Adinak eta sexuak bakoitzari bere maila ezartzen diote era aldaezinean eta zenbait prerrogatiba ematen diote. Demokraziak eraitsi edo beheratu egiten ditu hesi horietako gehienak.

Familia aristokratikoan, seme zaharrenak ondasun gehienak eta ia eskubide guztiak heredatzen dituenez, buru bihurtzen da eta neurri bateraino neba-arreben nagusi. Berari dagozkio handitasuna eta boterea, besteei kaskarkeria eta menpekotasuna. Hala ere, okerra litzateke pentsatzea herri aristokratikoetan seme zaharrenaren pribilegioak berarentzat bakarrik direla abantailatsu, eta bekaizkeria eta gorrotoa baizik ez dutela inguruan sortzen.

Normalean maiorazkoa saiatzen da neba-arrebei aberastasuna eta boterea eskuratzen, etxearen distira orokorra beraren ordezkariagan islatzen baita; eta gazteagoak zaharrenari bere eginkizun guztiak errazten saiatzen dira, familiburuaren handitasun eta indarrak beste kimu guztiak goratzeko egoeran jartzen baititu gero eta gehiago.

Familia aristokratikoaren kideak, beraz, estu loturik daude batzuk besteekin; haien interesak elkarri atxikirik daude, izpirituak bat datoz; baina bihotzek nekez ulertzen dute elkar.

Demokraziak ere lotzen ditu neba-arrebak elkarren artean, baina beste era batera.

Lege demokratikoen menpean, haurrideak berdin-berdinak dira, eta independenteak, beraz; ezerk ez ditu indarrez hurbilarazten, baina ezta ezerk banatzen ere; eta, jatorri komuna dutenez, teilape berean haziak eta berdin zainduak direnez, bereiztu edo banatuko dituen prerrogatibarik ez dagoenez, erraz sortzen da haien artean lehen urteetako barne-kidetasun gozo eta gaztea. Bizitzaren hasieran honela eraturiko lokarria apurtzeko aukerarik ia ez da izaten, anaitasunak hurbiltzen baititu egunero gogait eragin gabe.

Demokraziak neba-arrebak elkarren artean lotzen baditu ez da interesengatik izaten, oroitzapen komun eta gustuen sinpatia askeagatik baizik. Ondarea banatu egiten die, baina arimak batzeko aukera ematen du.

Ohitura demokratiko hauen gozotasuna hain handia denez, aristokraziaren aldekoak ere erakartzen ditu, aldi batez dastatu ondoren, ez dute familia aristokratikoaren errespetuzko forma hotzetara itzultzeko tentaziorik izaten. Pozik gordeko lituzkete demokraziaren famili azturak, beraren gizarte-egoera eta legeak errefusatu ahal izango balituzte. Baina gauza hauek elkarri loturik doaz, eta ezin da batzuez gozatu besteez sufritu gabe.

Haurren maitasunez eta neba-arreben arteko samurtasunaz esan berri dudana naturan bertan espontaneoki sortzen diren grina guztiei buruz ulertu behar da.

Pentsaera edo sentiera jakin bat gizadiaren egoera berezi baten emaitza denean, egoera hori aldatzen bada, ezer ez da geratzen. Horrela, legeak estu-estu lot ditzake bi hiritar bata besteari; legea abolitzen bada, banatu egiten dira. Mundu feudalean ez zegoen ezer estuagorik basailua jaunarekin lotzen zuen korapiloa baino. Orain, bi horiek ez dute jadanik elkar ezagutzen. Lehenago elkarrekin lotzen zituen beldurra, esker ona eta maitasuna desagertu egin dira jada. Ez dago horien arrastorik.

Baina ez da gauza bera gustatzen giza espezieari berezko zaizkion sentimenduekin. Arraroa da legeak, nolabait ere menperatzen saiatzen bada, ez ahultzea; edo zerbait erantsi nahi badie, gauzaren bat ez kentzea, eta sentimendu hauek ez izatea beti indartsuagoak beren kasa utzita.

Demokraziak, antzinako gizarte-konbentzio gehientsuenak suntsitu edo iluntzen dituelarik eta konbentzio berriak jendeak erraz hartzea eragozten duelarik, erabat desagertarazten ditu konbentzio horietatik sorturiko sentimendu gehienak. Baina besteak aldatu baizik ez ditu egiten, eta ez zeukaten kemena eta gozotasuna ematen die sarri.

Uste dut ez dela ezinezkoa esaldi bakar batean sartzea kapitulu honen eta aurreko beste batzuen esanahi osoa. Demokraziak laxatu egiten ditu gizarte-lokarriak, baina estutu egiten berezkoak. Hurbildu egiten ditu ahaideak, eta aldi berean banatu hiritarrak.

IX

Neska gazteen heziketa Estatu Batuetan

Sekula ez da gizarte askerik izan moraltasunik gabe, eta, obra honen lehen zatian esan dudan bezala, emakumea da morala eratzen duena. Beraz, emakumearen egoeran, beraren aztura eta iritzietan eragiten duen guztiak interes politiko handia du nire ikuspegitik.

Nazio protestante gehienetan, neska gazteak beren ekintzen askoz ere jabeago dira herri katolikoetan baino.

Independentzia hori are handiagoa da, beren burua gobernatzeko eskubidea gorde edo lortu duten herrialde protestanteetan, Ingalaterran adibidez. Orduan askatasuna aztura politiko eta sineskizun erlijiosoen bidez sartzen da familian.

Estatu Batuetan protestantismoaren doktrina oso eraketa librearekin eta oso gizarte-egoera demokratikoarekin konbinatzen dira; eta neska gaztea ez da beste inon hain bizkor eta hain erabat bere kasa uzten.

Amerikan ezkon arora iritsi baino askoz lehenago hasten dira neska amaren babespetik pixkana-pixkana askatzen; haurtzarotik erabat irten baino lehen, dagoeneko hasia da bere kabuz pentsatzen, aske hitz egiten eta bakarrik jokatzen; aurrean etengabe agertzen zaio munduaren ikuspegi zabala; bistatik kentzen saiatu ordez, egunetik egunera gehiago erakusten zaio, eta begirada irmo eta lasaiz so egiten irakasten zaio. Honela, laster azaltzen zaizkio gizarteak bere baitan dituen bizio eta arriskuak; argi eta garbi ikusten ditu, ilusiorik gabe epaitu eta beldurrik gabe aurre egiten die; konfiantza osoa baitu bere indarretan, eta konfiantza hori inguruko guztiek ere badutela ematen du.

Beraz, neska gazte amerikarrarengan ia inoiz ez da espero behar lainotasun birjinalik aurkitzea sortzen ari diren desioen artean, ezta haurtzarotik gaztarora igarotzean europarraren baitan normalean azaltzen diren

xarma tolesgabe eta xaloak ere. Arraroa da amerikarrak, edozein adinetakoa izanik, haur-herabetasun eta ezjakintasuna azaltzea. Europako neska gazteak bezala, atsegingarri izan nahi du, baina badaki zehazki zein preziotan. Galbidean sartzen ez bada ere, ezagutzen du gutxienez; ohitura garbiak ditu, izpiritu kastoa baino areago.

Sarritan harritu nau eta ia izutu ikusteak Amerikako neska gazteek zelako trebetasun bereziz eta ausardia zoriontsuz eramaten zituzten beren gogoetak eta hitzak elkarrizketa bizi baten oztopo artetik; filosofoak hamaika aldiz egingo zukeen behaztopa, haiek istripu eta nekerik gabe korritzen zuten bide estuan.

Izan ere, erraza da aitortzea neska amerikarrak. lehen gaztaroko independentziaren erdian bertan, sekula ez diola erabat uzten bere buruaren jabe izateari; baimenduriko plazer guztiez gozatzen du, bere burua horietako bakar batera abandonatu gabe, eta haren arrazoimenak ez die uhalei jaregiten, sarritan laxatu egiten dituela dirudien arren.

Frantzian, non oraindik hain era bitxian nahasten ditugun geure iritzi eta gustuetan garai guztietako hondarrak, sarritan gertatzen zaigu emakumeei heziketa herabe, erretiratu eta ia klaustrala ematea, aristokraziaren garaian bezala, eta gero bat-batean bertan behera uzten ditugu, gidarik eta laguntzarik gabe, gizarte demokratikotik banaezin diren desordenen erdian.

Amerikarrak koherenteagoak dira beren buruarekin.

Ikusi dute, demokraziaren baitan, gizabanakoren independentziak oso handia izan behar zuela ezinbestean; gaztaroak goiztiarra, gustuek nekez eutsiak, ekanduak aldakorra, iritzi publikoak ziurtasun edo indarrik gabea sarri, aitaren aginpideak ahula eta senarraren botereak eztabaidatua.

Gauzen egoera honetan, iruditu zaie aukera gutxi zegoela giza bihotzaren grinarik tiranikoenak emakumearengan erreprimitzeko, eta seguruagoa zela haien kontra berak nola borrokatu behar zuen erakustea. Emakumearen bertutea sarri arriskuan egotea eragotzi ezin dutenez, defendatzen jakin dezan nahi izan dute, eta borondatearen ahalegin librean konfiantza handiagoa jarri dute, zartatu edo suntsituta dauden hesietan baino. Bere buruaganako mesfidantzan eduki ordez, bere indarretan konfiantza etengabe areagotzen saiatzen dira. Neska gaztea betiko eta erabateko ezjakintasunean edukitzeko ez aukerarik, ez gogorik dutenez, gauza guztien ezagutza goiztiarra eman diote azkar. Munduko ustelkeriak ezkutatu ordez, hasieratik ikus zitzan nahi izan dute, eta bera trebatzea horietatik ihes egiten, eta nahiago izan dute neskaren onestasuna bermatzea beraren inozentzia gehiegi errespetatzea baino.

Amerikarrek oso herri erlijiosoa izan arren, ez dute erlijiora bakarrik jo emakumearen bertutea defendatzeko. Beraren arrazoimena armatzen ere saiatu dira. Horretan, beste zirkunstantzia askotan bezalaxe, metodo berari jarraitu diote. Lehenik ahalegin handiak egin dituzte gizabanakoen independentzia bere kabuz arautzea lortzeko, eta, giza indarraren azken mugetaraino iritsi ondoren bakarrik dei egin diote erlijioari laguntza eske.

Badakit horrelako heziketak badituela bere arriskuak; badakit irizmena garatzeko joera izaten duela irudimenaren kaltetan, eta emakume zintzo eta hotzak egiteko joera, emazte samur eta gizonaren lagun maitagarriak baino areago. Horrela, gizartea lasaiago eta arautuago baldin badago ere, bizitza pribatuak xarma gutxiago du sarri. Baina bigarren mailako gaitzak dira horiek, interes handiago batek jasangarri egin behar dituenak. Gauden puntu honetan, ezin dugu aukerarik egin: heziketa demokratikoa behar da demokraziaren erakunde eta ohiturek inguruan jartzen dizkiote arriskuetatik emakumea babesteko.

X

Nola neska gaztea berraurkitzen den emaztearen ezaugarripean

Amerikan emakumearen independentzia erremediorik gabe galtzen da ezkontzaren lokarrietan. Neska gaztea beste inon baino askeago baldin bada han, emazteak betebehar estuagoak ditu. Batak askatasun eta atsegin-toki egiten du aitaren etxea, betea klaustroan bezala bizi da senarraren etxean.

Bi egoera hain ezberdin horiek ez dira agian uste bezain kontrakoak, eta normala da amerikarrak batetik pasatzea bestera iristeko.

Herri erlijiosoek eta nazio industrialek ideia bereziki larria zertzen dute ezkontzaz. Batzuentzat emakumearen bizitzako erregulartasun da bere ohituren garbitasunaren bermerik onena eta seinalerik ziurrena. Besteek etxeko ordena eta oparotasunaren berme segurua ikusten dute horretan.

Amerikarrak nazio puritano eta herri merkataria dira aldi berean; haien erlijio-sineskizunek, baita industri azturek ere, emakumeari bere buruaren ukapena eskatzera eramaten dituzte eta eginbeharrengatik plazerrak etengabe sakrifikatzeko eskatzera, Europan nekez eskatzen zaion zerbait. Honela, nagusi da Estatu Batuetan iritzi publiko errukigabe bat, emakumea etxeko interes eta eginbeharren esparru txikian arretaz ixten duena eta bertatik irtetea eragozten diona.

Mundua sartzean, neska gazte amerikarrak irmo ezarriak aurkitzen ditu nozio horiek; horietatik ondorioztatzen diren arauak ikusten ditu; berehala komentzitzen da ezin duela une batez garaikideen usadioetatik ihes egin, aldi berean bere lasaitasuna, ohorea eta gizarte-bizitza arriskuan jarri gabe, eta usadio horietara makurtzeko indarra bera arrazoiaren irmotasunean eta heziketak eman dizkion aztura indartsuetan aurkitzen du.

Esan daiteke independentziaren erabileratik ateratzen duela borrokarik gabe eta marmarrik gabe sakrifizioa jasateko adorea, sakrifizioa onartu beharreko momentua iristen zaionean.

Amerikarra, bestalde, sekula ez da ezkontzaren lokarrietan jausten bere xalotasun eta ezjakintasunari ezarritako lakioan bezala. Aurrez erakutsi zaio zer espero zen beragandik, eta bere kabuz eta askatasunez jartzen da uztarpen. Adoretsu jasaten du egoera berria, berak aukeratu baitu.

Amerikan, aitaren diziplina oso lasaia eta ezkon-lokarria oso estua denez, neska gazteak zuhurtasunez eta beldurrez bereganatzen du lokarri hori. Nekez ikusten da han elkartze goiztiarrik. Amerikarrak beren arrazoimena trebatua eta heldua dagoenean baino ez dira ezkontzen; beste alde batzuetan, ordea, emakumeak beren arrazoia trebatzen eta heltzen ezkontzan bakarrik hasten dira.

Bestalde, oso urruti nago pentsatzetik Estatu Batuetako emakumeen aztura guztietan, ezkondu bezain laster, gauzatzen den aldaketa handi hori iritzi publikoaren eraginari bakarrik egotzi behar zaiola. Sarritan haiek beren buruari ezartzen diote beren borondatearen ahaleginez soilik.

Senarra aukeratzeko garaia iristean, munduaren ikuspegi askeak argitu eta irmotu duen arrazoimen hotz eta latz horrek adierazten dio emakume amerikarrari ezkon-lokarrietan izpiritu arin eta independentea etengabeko arazo-iturri dela, eta ez atsegin-iturri; neska gaztearen entretenimenduak ezin direla emaztearen denborapasa bilakatu, eta zorion-iturriak ezkon-egoitzan daudela emakume ezkonduareantzat. Etxeko zoriontasunerantz eraman dezakeen bide bakarra aurrez eta argi ikustean, lehen urratsetik sartzen da bide horretan eta azkeneraino jarraitzen du atzera itzultzen saiatu gabe.

Amerikako emazte gazteek beren egoera berriaren eginbehar latzetara bat-batean eta kexarik gabe makurtzeko azaltzen duten borondate-indar hori berori, haien bizitzako probaldi handi guztietan ere aurkitzen da gero.

Ez dago munduan herrialderik aberastasun partikularrak Estatu Batuetan baino ezegonkorrago direnik. Han ez da arraroa pertsona batek, bizitzan zehar, oparotasunetik txirotasunera doazen maila guztiak igo eta jaistea.

Amerikako emakumeek kemen bare eta menperagaitzez jasaten dituzte gora-behera horiek. Esan liteke gurariak murriztu egiten zaizkiela aberastasunarekin batera, areagotu ere egiten zaizkien bezain erraz.

Mendebaldeko bakarlekuak jendeztatzera urtero joaten diren abenturari gehienak, neure lehen obran esan nuen bezala, iparraldeko arraza angloamerikar zaharrekoak dira. Horrelako ausardiaz aberastasunerantz doazen horietako zenbait jadanik aisetasunean bizi ziren beren herrialdean. Emazteak eramaten dituzte berekin, eta honelako ibiliren hasierak beti izaten dituen arrisku eta ezbehar kontaezinak biziarazten dizkiete. Basa eremuaren muga-mugetan aurkitu izan ditut sarri, Ingalaterra Berriko hiri handietan esne-mamitan heziak izan ondoren, gurasoen egoitza aberatsetik basoan gaizki itxitako etxolara ia trantsiziorik gabe igarotako emakume gazteak. Sukarrak, bakarlekuak edo asperdurak ez zuen haien adorea apurtu. Haien hazpegiak eraldatuak eta higatuak zeuden, baina begirada tinkoa zuten. Goibel baina, aldi berean, erabakia hartuta ematen zuten. (B)

Ez dut dudarik gazte amerikar horiek beren lehen heziketan metatua zutela orduan erabiltzen ari ziren barne-indar hori.

Estatu Batuetan neska gaztea agertzen da berriro emaztearen ezaugarripean; papera aldatu egin da, azturak ezberdinak dira, izpiritua berbera.

XI

Nola baldintza-berdintasuna laguntzen duen Amerikan ohitura onei eusten (C)

Filosofo eta historialari batzuek esan dute, edo aditzera eman dute, emakumeek beren ohituretan zorroztasun handiagoa edo txikiagoa zutela zenbat eta hurbilago edo urrutirago egon ekuadoretik. Hori arazoari erraz ihes egitea da, eta kasu horretan aski lirateke esfera eta konpasa gizadiak duen probelmarik zailenetako bat une batean ebazteko.

Ez dut ikusten doktrina materialista hori egitateetan oinarritua dagoenik.

Nazio berberak garbi edo lizunak izan dira beren historiako garai ezberdinetan. Beraz, haien ohituren erregulartasun edo desordena kausa aldakorren batzuei lotua zegoen, eta ez bakarrik herrialdearen naturari, hau ez baitzen aldatzen.

Ez dut ukatuko, zenbait klimatan, sexuen elkar-erakartzeak sortarazitako grinak ez direnik bereziki sutsuak; baina berezko gogo-berotasun hori gizarte-egoerak eta erakunde politikoek areagotu edo hoztu egiten dutela uste dut.

Ipar Amerika bisitatu duten bidaiariak ez datoz bat zenbait puntutan, baina guztiak ados daude esaterakoan han ohiturak askoz ere latzagoak direla beste inon baino.

Garbi dago, puntu honetan, amerikarrak askoz gorago daudela beren arbaso ingelesak baino. Bi nazioei gainbegiratu bat ematea aski da hori frogatzeko.

Ingalaterran, Europako beste alde guztietan bezala, maltzurkeria publikoak emakumeen ahuleziei eraso egiten die etengabe. Filosofo eta estatu-gizonak sarri kexatzen dira ohiturak ez direlako aski erregularrak, eta literaturak ere hori suposarazten du egunero.

Amerikan, liburu guztiek, nobelak salbuetsi gabe, emakumeak garbiak direla suposatzen dute, eta han inork ez du amorio-abenturarik kontatzen.

Amerikako ohituren erregulartasun handi hori, neurri batean behintzat, herrialdeari, arrazari, erlijioari zor zaio, dudarik gabe. Baina kausa hauek guztiak ere, edonon aurkitzen direnak, ez dira aski esplikatzeko. Arrazoi bereziren batera jo beharra dago horretarako.

Arrazoi hori berdintasunean eta honen ondoriozko erakundeetan datzala iruditzen zait.

Gizarte-baldintzen berdintasunak ez du berak bakarrik ohitura-erregulartasuna sortzen; baina ezin da zalantzan jarri erraztu eta areagotu egiten duela.

Herri aristokratikoetan, jatorriak eta aberastasunak hain izaki ezberdin bihurtzen ditu gizona eta emakumea, ezen inoiz ez baitira iritsiko bata bestearekin elkartzera. Grinek hurbildu egiten dituzte, baina gizarte-egoerak eta honek sortarazitako ideiek eragotzi egiten diete iraunkorki eta agerian elkarlotzea. Hortik sortzen da ezinbestean elkartze iraunkor eta klandestinoen kopuru handia. Natura ezkutuan mendekatzen da legeek ezartzen dioten estutasunaz.

Ez da hori gertatzen gizona eta emakumea banatzen zituen hesi guztiak, irudizko eta benetakoak, gizarte-baldintzen berdintasunak eraisten dituenean. Orduan ez dago neskarik bera begiz jo duen gizonaren emaztea izatera irits daitekeela uste ez duenik; eta horrek asko zailtzen du ohitura-desordena ezkontza aurretik. Zeren eta, nolanahikoa izanik ere grinen sinesberatasuna, ez baitago ia modurik emakume bat komentzitzeko norbaitek maite duela, ezkontzeko askatasun osoa izan eta, hala ere, ez bada berarekin ezkontzen.

Kasu berorrek, zeharkago bada ere, eragiten du ezkontzan.

Amodio ez-legitimoa legitimatzeko ezer ez hoberik, bizi dutenen edota ikusten duen jendetzaren begietara, elkartze behartuak edota itsumustuan eginak baino[9].

Emakumeak bere aukera beti askatasunez egiten duen herrialdean, bertan ongi aukeratzeko egoeran jarri duelarik heziketak, iritzi publikoa errukigabea da haren hutsegiteekin.

Amerikarren hertsitasuna hortik sortzen da neurri batean. Sarri kontratu astuntzat hartzen dute ezkontza, baina, hala ere, berorren klausulak zorrotz bete behar direla uste dute, aurrez ezagutu ahal izan baitituzte guztiak eta askatasun osoa izan dute beren buruak ezertara ez behartzeko.

Fideltasuna derrigorrezkoago bihurtzen duenak errazago bihurtzen du.

Herrialde aristokratikoetan ezkontzaren helburua gehiago izaten da ondasunak batzea pertsonak baino; horregatik gertatzen da batzuetan oraindik eskolan dabilela aukeratzen dela senarra, eta inudearekin dabilela emaztea. Ez da harritzeko senar-emazteen aberastasunak batuta dauzkan ezkontza-lokarriak haien bihotzak abenturarantz lerratzen uztea. Hori kontratuaren izpirituari berez dagokion zerbait da.

Aitzitik, laguna nork bere kabuz aukeratzen duenean, kanpoko ezerk oztopatu edo gidatu gabe, gustu eta ideien antzekotasuna izaten da normalean gizona eta emakumea elkarrengana hurbiltzen dituena; eta antzekotasun horrek berorrek eusten dio batari bestearen ondoan.

Gure gurasoak iritzi berezia zuten ezkontza-gaietan.

Beren garaian amodioz egindako ezkontza-kopuru txikiak ia inoiz atarramendu onik ez zuela izaten ohartuak zirenez, dudarik gabe ondorioztatu zuten horrelako gaietan oso arriskutsua zela nork bere bihotza kontsultatzea. Zoria begiargiagoa iruditzen zitzaien aukeraketa baino.

Hala ere, ez zen oso zaila ikustea begi aurrean zituzten kasuek ez zutela ezer frogatzen.

Lehenik esango dut, herri demokratikoek senarra askatasunez aukeratzeko eskubidea ematen badiete emakumeei, horrelako aukeraketa egiteko beharrezko izan litezkeen jakintzargiak izpirituari eta indarra borondateari aurrez emateaz ere arduratzen direla; herri aristokratikoetan, berriz, aitaren eskupetik isilka-misilka ihes egin eta ez ezagutzeko astirik, ez epaitzeko gaitasunik, eman ez zaien gizon baten besoetara ihes egiten duten neska gazteek ez dute garantia horietakorik batere. Ez da harritzekoa beren aukeramena gaizki erabiltzea, erabiltzen duten lehen aldian; ezta hain hutsegite ankerretan erotzea ere, heziketa demokratikorik hartu gabe, ezkontzerakoan, demokraziaren ekanduei jarraitu nahi dietenean.

Baina bada gehiago.

Gizonak eta emakumeak gizarte-egoera aristokratikoko desberdintasunetan zehar elkarrengana hurbildu nahi dutenean, oztopo itzelak gainditu behar izaten dituzte. Seme-alaben obedientziaren lokarriak apurtu edo laxatu ondoren, azken ahalegin bat eginez ihes egin behar izaten dute ekanduaren agintetik eta iritziaren tiraniatik; eta, eginkizun gogor hori burutzera iritsi direnean, arrotz bezala aurkitzen dira berezko adiskideen eta ahaideen artean. Gainditu duten aurreiritziak banandu egiten ditu haiengandik. Egoera honek berehala kentzen die adorea eta garrazten bihotza.

---

[9] Erraza da egia honetaz konbentzitzea Europako literaturak aztertuz.
Europar batek bere fikzioetan gure artean ezkon-bizitzaren baitan hain sarri ikusten diren katastrofe handi horietako batzuk azaldu nahi dituenean, aurrez irakurlearen errukia pizten saiatzen da, elkar gaizki hartzen duten edo elkarrekin bizitzera beharturiko pertsonak erakutsiz. Nahiz eta tolerantzia luzeak gure ohiturak laxatu dituen aspaldidanik, nekez lortuko luke pertsonaia horien zorigaitzetan interesaraztea, berorien hutsegitea desenkusatuz hasiko ez balitz. Trikimailu honek ez du hutsik egiten. Egunero aurrean izaten dugun ikuskizunak urrutirik prestatzen gaitu bihozberatasunera.
Idazle amerikarrek ezin dizkiete irakurleei horrelako aitzakiak egiantzez azaldu; beraien usadioek eta legeek uko egiten diote horri eta, desordena maitagarri bihurtzerik ez dutenez, ez dute horrelakorik pintatu ere egiten. Neurri batean, kausa horri egotzi behar zaio Estatu Batuetan argitaratzen diren eleberrien kopuru txikia.

Beraz, honela elkarturiko senar-emazteak lehenik zoritxarreko eta gero errudun gertatzen badira, hori ez zaio egotzi behar askatasunez elkar aukeratu izanari, horrelako aukeraketarik onartzen ez duen gizartean bizi izateari baizik.

Bestalde, ez da ahaztu behar pertsona errore arrunt batetik bortizki ateratzen duen ahalegin berberak arrazoiaren alorretik ateratzen duela ia beti; norberaren mende eta herrialdeko ideiei gerra deklaratzea ausartzeko, nahiz eta legitimoa izan, nolabaiteko jarrera bortitz eta abenturaria behar da izpirituan, eta horrelako izaeradun jendea, zeinahi norabide hartzen duela ere, nekez iristen da zoriontasun eta bertutera. Eta, bide batez esanda, horrek esplikatzen du iraultzarik beharrezkoen eta santuenetan zergatik aurkitzen diren hain gutxi iraultzaile neurritsu eta zintzoak.

Aristokrazi mende batean, gizonari, ezkondu behar duenean, bere iritzi partikularra eta gustua besterik kontuan ez hartzea bururatzen bazaio, eta, ondoren, bere etxean ohitura-desordena eta ezbeharra laster agertzen badira, ez dago zertan harritu. Baina, jokatzeko era hau berau gauzen berezko eta ohiko ordenan dagoenean, gizarte-egoerak errazten duenean, aitaren aginpideak horretarako aukera eman eta iritzi publikoak goraipatu egiten duenean, ez dago dudarik familien barne-bakea handiagoa izango dela, eta ezkon-leialtasuna hobeto gordeko dela.

Demokrazietako gizon gehientsuenek karrera politikoa egiten dute edo lanbideren bat hartzen, eta, bestalde, aberastasunen kaskartasunak egunero etxe barruan egotera behartzen du emakumea, berak zuzen ditzan hurbil-hurbiletik etxeko burubidearen xehetasunak.

Lan ezberdin eta behartu horiek guztiak berezko hesiak bezala dira, sexuak banatzean, bataren zirikaldiak bakanago eta motelago bihurtu eta bestearen erresistentzia errazten dutenak.

Ezin da esan baldintza-berdintasunak gizona garbiago egiten duenik; baina haren ohitura-desordenari arriskua kentzen dio. Inork ez duenez orduan ez astirik, ez aukerarik, defendatu nahi diren bertuteei eraso egiteko, emagaldu asko eta emakume zintzo ugari ikusten da aldi berean.

Gauzen egoera horrek zoritxar indibidual tamalgarriak sortzen ditu, baina ez du eragozten gizarte-gorputza prest, erne eta indartsu egotea; ez ditu suntsitzen famili lokarriak, ezta ahultzen ere nazio-ohiturak. Gizartea arriskuan jartzen duena ez da batzuen ustelkeria handia, guztien lasaikeria baizik. Legegilearen ikuspegitik, prostituzioa baino beldurgarriagoa da maitakeria.

Berdintasunak gizonari ematen dion bizimodu zirriparratsu eta zalapartatsu horrek ez du bakarrik maitasunetik urruntzen, horretarako astia kenduz; bide ezkutuago baina seguruagotik ere aldenarazten du maitasunetik.

Demokrazi garaietan bizi diren gizon guztiek gutxi-asko klase industrial eta merkatarien aztura intelektualak hartzen dituzte; haien izpirituak jite serioa hartzen du, kalkulatzaile eta positiboa; gogotsu desbideratzen dira idealetik, ikus daitekeen eta hurbil dagoen helburuen batera jotzeko, beren desira-gai natural eta beharrezkotzat agertzen zaien helburuen batera. Honela, berdintasunak ez du irudimena suntsitzen, baizik eta mugatu egiten du, eta lurretik hurbil-hurbil bakarrik uzten dio hega egiten.

Demokraziako hiritarrak ez dira batere ameslari izaten, eta nekez aurkitzen da inor bihotz-asaldura handiak eragiten dituzten eta normalean aurretikoak diren kontenplazio astitsu eta bakartietara emana bizi nahi duenik.

Egia da, ahalegin handia egiten dutela bizitzari xarma eta segurtasuna ematen dizkion afektu sakon, erregular eta baketsu hori eskuratzeko; baina ez dira gogotsu lasterka joaten bizitza asaldatzen eta laburtzen duten zirrara bortitz eta apetazkoen atzetik.

Badakit orain arte esan dudan guztia Amerikari bakarrik aplika dakiokeela erabat, eta ezin dela, gaur egun, Europara orokorki zabaldu.

Azken mende erdi honetan legeak eta azturak indar paregabez ari dira Europako zenbait herri demokraziarantz bultzatzen, eta nazio horietan ez da ikusten emakumearen eta gizonaren arteko harremanak erregularrago eta garbiago bihurtu direnik. Are gehiago, kontrakoa ikusten da zenbait lekutan. Klase batzuk hobeto erregulatuta daude; moralitate orokorra laxatuago dagoela dirudi. Ez naiz

hori ohartarazteko beldur, ez baitut neure garaikideak lausengatzeko gogo handiagorik beraiek maiseatzeko baino.

Ikuskizun honek atsekabea sortu beharko luke, baina ez harridura.

Gizarte-egoera demokratikoak azturen erregulartasunean zertu dezakeen eragin onuragarria luzarora bakarrik aurkitzen den gauza da. Baldintza-berdintasuna ohitura onen aldeko bada, gizarte-lana, baldintza horiek berdintzen dituena, oso kaltegarri zaie.

Frantziak eraberritzen daramatzan azken berrogeita hamar urteotan, gutxitan izan dugu askatasuna, beti desordena baizik. Ideien nahasmendu unibertsal eta iritzien asaldura orokor honen erdian, bidezko eta bidegabearen, egia eta faltsuaren, zuzenbide eta egitatearen nahasmen inkoherentearen artean, bertute publikoa ziurtasunik gabea bihurtu da, eta moraltasun pribatua dudazkoa.

Baina iraultza guztiek, zeinahi izanik beraien helburua eta agenteak, antzeko efektuak eragin dituzte lehenik. Eta azkenerako ohituren lokarria estutu dutenak ere laxatuz hasi ziren.

Sarritan ikusten ditugun desordenak, beraz, ez zaizkit iruditzen egitate iraunkorrak direnik. Seinale bitxiek iragartzen dute jada.

Ez dago ezer zorigaiztokiago usteldurik boterea galtzean bere aberastasunekin jarraitzen duen eta, gozamen arruntetara mugatua, oraindik olgetarako asti asko duen aristokrazia baino. Garai batean animatu zuten grina kementsu eta pentsamendu handiak desagertu egiten dira orduan, eta apenas aurkitzen den berarengan marraskatzen duten bizio txiki pila bat baizik, gorpuari harrak bezala atxikitzen zaizkionak.

Inork ez du esaten azken mendeko aristokrazia frantsesa oso galdua ez zenik; bitartean antzinako azturek eta sineskizun zaharrek ohituraren errespetuari eusten zioten beste klaseetan.

Halaber, ez legoke eragozpenik onartzeko, gure garaiotan, nolabaiteko printzipio-zorroztasuna ikusten dela aristokrazia horren berorren hondarretan, ohituren desordena gizartearen erdi eta beheko mailetan hedatu bide den bitartean. Horrela, duela berrogeita hamar urte laxatuen agertzen ziren familia berberak ereduzkoenak agertzen dira gaur egun, eta demokraziak klase aristokratikoak bakarrik moralizatu dituela ematen du.

Iraultzak, nobleen aberastasunak zatitzean, beren negozio eta familiez etengabe arduratzera behartzean, seme-alabekin teilape berberean ixtean, azkenik haien pentsamenduei jite arrazoizkoago eta serioagoa ematean, erlijio-sineskizunen begirunea, ordenaren, plazer baketsuen, etxeko gozamenen eta ongizatearen maitasuna iradoki dizkie, oharkabean bada ere; eta bitartean nazioaren gainerakoa, berez gustu horiek beroriek zeuzkana, desordenarantz abaitu da, legeak eta ekandu politikoak aldatzeko eman behar izan den bultzadaren poderioz.

Antzinako aristokrazia frantsesak Iraultzaren ondorioak jasan ditu, eta ez ditu grina iraultzaileak sentitu, ezta parte hartu ere hori produzitu duen mugimenduan, mugimendu anarkikoa sarritan; erraz ulertzen da iraultza horren eragin osasuntsua bere ohituretan esperimentatzea, egin dutenek berek baino lehen.

Esan daiteke, beraz, lehen begiratuan harrigarria dirudien arren, gaur egun nazioko klaserik antidemokratikoenak direla ongien erakusten dutenak zer-nolako moraltasuna espero daitekeen zentzuz demokraziatik.

Sinetsi beharrean nago, iraultza demokratikoaren ondorio guztiak lortzen ditugunean, berak sortarazi duen zirriparratik irten ondoren., gaur egun batzuei buruz bakarrik esan daitekeena poliki-poliki guztiei buruz bihurtuko dela egia

XII

Nola ulertzen duten amerikarrek gizonaren eta emakumearen berdintasuna

Erakutsi dut demokraziak nola suntsitzen edo aldatzen zituen gizarteak sortarazitako hainbat ezberdintasun; baina hori al da dena eta ez al du eraginik gizonaren eta emakumearen arteko desberdintasuna handian, gaur egunera arte bere betiko oinarriak naturan zituela ematen zuen horretan?

Uste dut aita eta semea, zerbitzaria eta nagusia eta, oro har, behekoa eta goikoa maila berera hurbiltzen dituen gizarte-mugimenduak goratu egiten duela emakumea eta gizonaren maila berekoago egingo duela gero eta gehiago.

Baina hemen sentitzen dut, beste inon baino gehiago, ongi ulertua izateko premia, zeren eta, gure mendeko irudimen zabar eta desordenatuak inon ez baitu askeago utzi bere burua gai horretan baino.

Bada Europan jenderik, sexuen atributu ezberdinak nahastuz, emakumea eta gizona, berdinak ez ezik antzeko ere egin nahi dituena. Batari nahiz besteari eginkizun berberak ematen dizkiote, eginbehar berberak ezartzen eta eskubide berberak onartzen; gauza guztietan nahasten dituzte elkarrekin, lanetan, plazerretan, negozioetan. Erraz ulertzekoa da sexu bat bestearekin honela berdintzen saiatuz, biak degradatzen direla; eta naturaren obren nahasmendu zabar horretatik sekula ez direla aterako gizon ahulak eta emakume lizunak baizik.

Amerikarrek ez dute horrela ulertu emakumearen eta gizonaren artean ezar daitekeen berdintasun demokratikoa. Naturak gizonaren eta emakumearen eraketa fisiko eta moralaren artean hain alde handia ezarri duenez, bere helburua, argi eta garbi adierazia, horien ahalmen ezberdinei erabilera ezberdina ematea zela pentsatu dute; eta iruditu zaie aurrerapena ez zela gutxi gora-behera gauza beretsuak eragitea izaki desberdinei, bakoitzak bere zeregina ahalik eta ongien bete dezan lortzea baizik. Amerikarrek bi sexuei aplikatu diete gaur egun industrian nagusi den ekonomia politikoaren printzipio handia. Arretaz banatu dituzte gizonaren eta emakumearen egitekoak, gizarte-lan handia hobeto egin ahal izateko.

Munduko herrialdeen artean, Amerikan izan dute ardurarik handiena bi sexuentzat ekintza-bide ongi banatuak trazatzeko, eta han biek pauso berdinaz aurrera egitea nahi izan dute, baina bi bide ezberdinetatik betiere. Ez duzue emakume amerikarrik ikusiko familiaren kanpo-arazoak zuzentzen edo negoziorik gidatzen, ezta esparru politikoan sartzen ere; baina laborantzako lan zakarretan edo indar fisikoa eskatzen duten ariketa neketsuetan jardutera beharturik dagoenik ere ez da aurkitzen. Ez dago familia hain behartsurik arau horrekiko salbuespen denik.

Emakume amerikarrak ezin badu ihes egin etxeko zereginen esparru baketsutik, bestalde, sekula ez dute hortik irtetera behartzen ere.

Hortik dator emakume amerikarrek sarritan gizonen arrazoimena eta oso kemen indartsua agertzea, orokorrean itxura fin-fina izan arren, eta beren maneretan beti emakume jarraitzea, nahiz eta izpirituz eta bihotzez batzuetan gizon agertu.

Halaber, amerikarrek sekula ez dute imajinatu printzipio demokratikoen oinarria senarraren boterea iraultzea eta familian aginte-nahasmena sartzea zenik. Pentsatu izan dute elkarte orok, eraginkor izateko, buru bat izan behar duela, eta ezkon-elkartearen berezko burua gizona dela. Beraz, ez diote honi ukatzen emaztea gidatzeko eskubidea; eta uste dute, senarraren eta emaztearen gizarte txikian, gizarte publiko handian bezalaxe, demokraziaren helburua beharrezko botereak arautu eta legitimatzea dela, eta botere oro suntsitzea.

Iritzi hori ez dagokio sexu bati bereziki, eta ez dio besteak ere erasotzen.

Ez dut ikusi emakume amerikarrek ezkon-agintea bere eskubideen zorioneko usurpaziotzat hartzen zutenik, ezta horretara makurtzea beren buruak beheratzea zela uste zutenik ere. Aitzitik, iruditu izan zait nolabaiteko aintza zela haientzat beren borondatea aske entregatzea, eta handitasuna beren kasa uztarpean jartzea iruditzen zitzaiela, eta ez horri ihes egitea. Hori da, gutxienez, bertutetsuenek adierazten duten sentimendua; besteak isildu egiten dira, eta Estatu Batuetan ez da entzuten emazte adulteriogilerik emakumearen eskubideak zaratatsu erreibindikatzen, bere eginbeharrik santuenak hankapean darabiltzanean.

Sarri esan izan da Europan nolabaiteko mesprezua sumatzen dela gizonezkoek emakumeei zuzentzen dizkieten lausenguetan ere. Nahiz eta gizon europarra emakumearen esklabo bihurtu askotan, ikusten da sekula ez duela benetan bere parekidetzat hartzen.

Estatu Batuetan nekez goraipatzen dira emakumeak, baina egunero agertzen zaie estimatuak direla.

Amerikarrek konfiantza osoa erakusten dute beren emaztearen arrazoian, eta begirune sakona haren askatasunarekiko. Haren izpiritua gizonarena bezain gai daukate egia hutsa aurkitzeko, eta haren bihotza aski sendotzat egia horri jarraitzeko; eta sekula ez dira saiatu bataren bertutea aurreiritzi, ezjakintasun edo beldurretik bestearena baino gehiago babesten.

Badirudi Europan, non gizonak hain erraz makurtzen diren emakumeen aginte despotikora, hala ere, ukatu egiten zaizkiela giza espeziearen atributurik handienetariko batzuk, eta izaki seduzitzaile eta osagabetzat hartzen direla; eta harrigarriena da emakumeek berek ere azkenerako ikuspegi horretatik ikusten dutela beren burua, eta ia-ia pribilegiotzat daukatela funsgabe, ahul eta beldurti agertzeko uzten zaien aukera. Emakume amerikarrek ez dute honelako eskubiderik eskatzen.

Bestalde, ohitura-kontuan, esan liteke inmunitate berezia onartu diogula gizonari; eta horrela, bertute bat dago hark erabil dezan, eta beste bat bizilagunak erabiltzeko; eta, iritzi publikoaren arabera, egintza bera alternatiboki krimena edota hutsegite soila izan daiteke.

Amerikarrek ez dute ezagutzen betebehar eta eskubideen banaketa bidegabe hau. Haien artean, biktima bezain desohoratua da seduzitzailea.

Egia da amerikarrek gutxitan agertzen dizkietela emakumeei Europan eman nahi izaten dizkiegun begiramendu arretatsu horiek; baina, beren jokaeraren bidez, bertutetsu eta fintzat dauzkatela erakusten diete etengabe; eta emakumeen askatasun moralarekiko hain begirune handia dutenez, beraien aurrean guztiek arretaz zaintzen dituzte beren hitzak, minduko dituen hizkerarik entzun bakarrik izan ez dezaten. Amerikan, neska gazteak, bakarrik eta beldurrik gabe, bidaia luzeak egiten ditu.

Estatu Batuetako legegileek, kode penaleko xedapen ia guztiak eztitu dituzten arren, heriotzaz zigortzen dute bortxaketa; eta ez dago krimenik iritzi publikoak gogo sutsuagoz pertsegitzen duenik. Hona horren esplikazioa: amerikarrentzat emakumearen ohorea baino preziatuagorik ezer ez dagoenez eta haren independentzia bezain errespetagarririk ere ezer ez, pentsatzen dute ez dagoela zigor gogorregirik ohore hori gogoz kontra kentzen dietenentzat.

Frantzian, non krimen bera askoz pena txikiagoz zigortzen den, askotan zaila izaten da kondenatuko duen epaimahairik aurkitzea. Kastitatearen mesprezua ote da, ala emakumearenganako mesprezua? Sinetsi beharrean nago bietatik duela zerbait.

Horrela, amerikarrek ez dute uste gizonak eta emakumeak gauza berberak egiteko ez obligaziorik, ez eskubiderik dutenik, baina estima bera agertzen dute bakoitzaren eginkizunarekiko eta balio berdineko izakitzat hartzen dituzte, nahiz eta destinoa ezberdina duten. Emakumearen kuraiari ez diote ematen gizonarenari ematen dioten ez forma, ez erabilera berbera; baina sekula ez dute zalantzarik kuraia horretaz, eta pentsatu arren gizonak eta emazteak ez dituztela adimena eta arrazoia beti era berean erabili behar, bataren arrazoia bestearena bezain ziurra dela uste dute gutxienez, eta adimena ere harena bezain argia honena.

Amerikarrek, emakumearen gutxiagotasunari gizartean irauten utzi diotenek, beren ahalmen guztiz gizonaren mailara jaso dute adimenaren eta moralaren arloan; eta horretan uste dut miresgarriro ulertu dutela aurrerapen demokratikoaren benetako nozioa.

Nik zalantzarik gabe esango dut: nahiz eta Estatu Batuetan emakumea ez den ia etxeko esparrutik irteten, eta gauza batzuetan mendekotasun handia izan arren bertan, bere posizioa inon ez zait iruditu han bezain goratua; eta orain, liburu honen bukaerara hurbiltzen ari naizenean, amerikarrek egindako hainbeste gauza garrantzitsu erakutsi dudalarik bertan, galdetuko balitzait nire ustez zeri egotzi behar zaion herri honen oparotasun berezia eta gero eta handiagoa duen indarra, emakumeei ematen zaien gehiagotasunari egotzi behar zaiola erantzungo nuke.

XIII

Nola berdintasunak berez banatzen dituen amerikarrak

gizarte partikular txiki askotan

Pentsa liteke erakunde demokratikoen azken ondorioa eta beharrezko efektua bizitza pribatuan nahiz publikoan hiritarrak bat egitea dela, eta guztiak behartzea bizimodu komuna eramatera.

Baina hori demokraziak sortarazten duen berdintasuna oso era zabar eta tiranikoan ulertzen izango litzateke.

Ez dago gizarte-egoerarik, ez legerik, gizakiak hain antzeko bihur ditzakeenik, heziketa, ondasun eta gustuek beraien artean ezberdintasunen bat ezin sortu ahal izateko; eta batzuetan pertsona diferenteei gauza berberak amankomunean egitea interesatu arren, pentsa liteke sekula ez dutela horretan atseginik izango. Beraz, zernahi eginda ere, horretan beti ihes egingo diote legegilearen eskuarki; eta, itxi nahi dituzteneko esparrutik nolabait ere ihes eginez, gizarte politiko handiaren ondoan gizarte pribatu txikiak ezarriko dituzte, horietan baldintza, aztura eta ohituren antzekotasuna izango dutelarik lokarri.

Estatu Batuetan hiritarrek ez dute inolako lehentasunik batzuek besteen gain; ez diote elkarri ez obedientziarik, ez begirunerik zor; elkarrekin administratzen dute justizia eta gobernatzen Estatua, eta, oro har, batu egiten dira guztiak destino komunean eragina duten arazoak aztertzeko; baina sekula ez dut entzun guztiak era berean dibertitzera bultzatu nahi zituztenik, ezta nahas-mahasian leku berberetan gozatzera ere.

Amerikarrak, batzar politiko eta auzitegietan hain erraz elkartzen direnak, arreta handiz banatzen dira elkarte txiki oso ezberdinetan, bizitza pribatuko atseginez aparte gozatzeko. Haietako bakoitzak gogotsu aitortzen ditu herrikide guztiak bere parekidetzat, baina oso kopuru txikia onartzen du bere adiskide eta gonbidatuen artean.

Oso naturala iruditzen zait hori. Gizarte publikoaren esparrua handituz doan neurrian, harreman pribatuen eremua estutu egingo dela espero behar da. Gizarte berrietako hiritarrak azkenean amankomunean biziko direla imajinatu ordez, beldur naiz azkenean ez ote diren oso lagun-talde txikiak osatzera iritsiko.

Herri aristokratikoetan, klaseak esparru zabalak bezala dira, horietatik ez dagoelarik irteterik, ezta horietan sartzerik ere. Klaseak ez dira beren artean komunikatzen; baina, bakoitzaren barnean, jendeak egunero ditu harremanak derrigorrez. Eta berez bat ez etorri arren, egoera bat beraren komenientzia orokorrak hurbiltzen ditu.

Baina, zenbait jenderen artean harreman ugari eta ohikoak ezartzeaz legea arduratzen ez denean, ezta ekandua ere, iritzi eta joeren antzekotasun akzidentalak egiten du hori; eta horrek mugagabeki ezberdintzen ditu elkarte partikularrak.

Demokrazietan, non hiritarrek ezberdintasun txikia duten beti beren artean eta, berez hain hurbil daudelarik, une oro gerta dakiekeen masa komun batean guztiek bat egitea, sailkapen artifizial eta arbitrario ugari sortzen da, eta horien laguntzaz bakoitzak aparte gelditu nahi izaten du, gogoz kontra jende artera herrestan eramango duten beldurrez.

Beti izango da horrela, alda baitaitezke giza erakundeak, baina ez gizakia. Nolanahikoa izanik ere gizartearen ahalegin orokorra hiritarrak berdin eta antzeko bihurtzeko, gizabanakoen harrotasun partikularra beti saiatuko da maila komunetik, gizabanakoen harrotasun partikularra beti saiatuko da maila komunetik ihes egiten, eta desberdintasunen bat sortu nahiko du nonbait, bere probetxurako.

Aristokrazietan, jendea banatuta egoten da bere artean hesi mugigaitz garaien bidez; demokrazietan, berriz, ia ikustezin diren hari txiki ugariz zatituta, une oro apurtzen eta etengabe lekuz aldatzen diren hariz.

Honela, edozelakoak izanik ere berdintasunaren aurrerapenak, herri demokratikoetan beti sortuko da elkarte txiki pribatu ugari gizarte politiko handiaren erdian. Baina horietako inork ez du, bere maneretan, aristokrazien gidari izaten den klase nagusiaren antzik izango.

XIV

Zenbait gogoeta amerikarren manerei buruz

Lehen begiratuan ez dago ezer giza ekintzen kanpo-forma baino garrantzi txikiagokorik, baina ez dago jendeak gehiago baloratzen duen gauzarik ere; jendea edozertara ohitzen da, manerarik ez duen gizartean bizitzera izan ezik. Beraz, merezi du serio aztertzea egoera sozial eta politikoak maneretan zertzen duen eragina.

Oro har, ohituren barren-barrenetik sortzen dira manerak; eta, gainera, zenbait jenderen arteko hitzarmen arbitrariotik irteten dira batzuetan. Berezkoak eta eskuratuak izaten dira aldi berean.

Gizon batzuk ohartzen direnean lehenak direla, eztabaidarik eta nekerik gabe; egunero xede handiak dituztela aurrean beren ardurapean, xehetasunak beste batzuentzat utziz; berek lortu gabeko aberastasunean bizi direla, galtzeko beldurrik gabe, gainera; ulertzekoa da orduan nolabaiteko destaina harroa sentitzea bizitzako interes txiki eta ardura materialekiko, eta handitasun naturala izatea pentsamenduan, hitzek eta manerek adierazten dutena.

Herrialde demokratikoetan, manerek handitasun txikia dute normalean, bizitza pribatua oso txikia izaten delako horietan. Arruntak izaten dira sarri, adimenak okasio gutxi izaten duelako etxeko interesen arduraz gainetik goratzeko.

Maneren benetako duintasuna beti nor bere lekuan agertzea izaten da, ez gorago, ez beherago; hori nekazariaren nahiz printzearen esku dago. Demokrazietan, egoera guztiak gertatzen dira dudazkoak; hortik sortzen da manerak, sarri harroak, nekez izatea duinak demokrazietan. Gainera, sekula ez dira ongi erregulatuak izaten, ezta zuhurrak ere.

Demokrazietan bizi direnak mugikorregiak dira beraietako batzuk gizalegeen kodea ezarri eta jendea horri jarraitzera behartzeko. Bakoitzak bere gisara jokatzen du gutxi gora-behera, eta beti izaten da halako inkoherentzia bat maneretan, hauek bakoitzaren sentimendu eta ideia indibidualetara egokitzen baitira, eta ez guztiek imitatzeko aurrez eman den eredu idealera.

Edonola ere, hau nabariagoa izaten da aristokrazia erori berria denean, aspalditik suntsituta dagoenean baino.

Orduan erakunde politiko berriek eta ohitura berriek leku beretan biltzen eta sarri amankomunean bizitzera behartzen dituzte heziketak eta azturek oraindik harrigarriro ezberdintzen dituztenak, eta honek nahasten handiak agertarazten ditu une oro. Oraindik gogoan da izan dela kortesiaren kode zehatz bat, baina jada inork ez daki ez zer duen barruan, ezta non dagoen ere. Jendeak galdu egin du maneren lege komuna, eta oraindik ez du erabaki hori gabe bizitzea, baina bakoitza saiatzen da, antzinako usadioen hondarrekin, nolabaiteko erregela arbitrario eta aldakor bat egiten; horrela, manerek ez dute herri aristokratikoetan sarri agertzen duten ez erregulartasunik, ez handitasunik ere, ezta batzuetan demokrazian izaten duten jite sinple eta askerik ere; zurrunak eta malguak dira aldi berean.

Hori ez da egoera normala.

Berdintasuna erabatekoa eta antzinakoa denean, pertsona guztiek, gutxi gora-behera ideia berberak eduki eta gauza berberak egitean, ez daukate ados jarri edo elkarri kopiatu beharrik era berean jokatu eta hitz egiteko; ezberdintasun txiki asko ikusten da etengabe haien maneretan, baina ez da diferentzia handirik sumatzen. Inoiz ez dira erabat antz-antzeko izaten, ez baitute eredu bera; baina sekula ez dira oso ezberdin izaten, gizarte-egoera bera dutelako. Lehen begiratuan, esan liteke amerikar guztien manerak berdin-berdinak direla. Oso hurbiletik aztertzean sumatzen dira guztiak ezberdintzen dituzten berezitasunak.

Ingelesak asko dibertitu dira amerikarren manera horien kontura; eta bitxiena da manera horietaz hain deskribapen atsegina egin diguten gehientsuenak Ingalaterrako klase ertainetakoak zirela, eta beraiei ere oso ongi aplika dakiekeela deskribapen hori. Horrela, gaitzesale errukigabe horiek Estatu Batuei kritikatzen dietenaren exenplua beroriek aurkezten dute normalean; ez dira ohartzen beren buruaz ari direla iseka egiten, beren herrialdeko aristokraziaren poztasun handiz.

Ezerk ez dio demokraziari kalte handiagorik egiten bere ohituren kanpo-formak baino. Haien akatsetara gogo onez moldatuko litzatekeen jende askok ezin ditu beraien manerak jasan.

Hala ere, ezin dut onartu ezer laudagarririk ez dagoenik herri demokratikoen maneretan.

Nazio aristokratikoetan, lehen klasera hurbiltzen diren guztiak haren antzeko izaten saiatzen dira normalean, eta horrek oso imitazio barregarri eta zozoak sortzen ditu. Herri demokratikoek ez badute beren baitan manera bikainen eredurik, egunero kopia txarrak ikusi beharrik ere ez dute izaten, behintzat.

Demokrazietan manerak sekula ez dira herri aristokratikoetan bezain finak izaten; baina hain zabarrak ere inoiz ez. Han ez da entzuten ez jendailaren hitz zatarrik, ezta handikien adierazpen bikain eta aukeraturik ere. Sarritan arrunkeria izaten da ohituretan, baina ez zakarkeria edo kaskarkeriarik.

Esan dut demokrazietan ezin dela kode zehatzik sortu elkarbizitzaren arloan. Horrek bere eragozpenak eta abantailak ditu. Aristokrazietan, dezentziaren arauek itxura bera ezartzen diete guztiei; klase bereko kide guztiak antzeko bihurtzen dituzte, beren joera partikularrak gora-behera; berezko izaera apaindu eta ezkutatu egiten dute. Herri demokratikoetan, manerak ez dira hain zuhurrak, ezta hain erregularrak ere; baina zintzoagoak izaten dira sarri. Oihal arin eta gaizki ehundua bezala dira, hartan zehar erraz ikusten direlarik pertsona bakoitzaren benetako sentimenduak eta ideia indibidualak. Beraz, giza ekintzen forma eta fondoa erlazio estuan aurkitzen dira sarri, eta gizadiaren koadro handia, apaingarri gutxiago badu ere, egiazkoagoa da. Horrela, zentzu batean esan daiteke demokraziaren efektua ez dela hain zuzen jendeari manera batzuk ematea, manerak izan ditzan eragoztea baizik.

Batzuetan berraurki daitezke demokrazian aristokraziaren sentimendu, grina, bertute eta bizioak, baina ez haren manerak. Hauek iraultza demokratikoa erabatekoa denean, galdu eta desagertu egiten dira, itzulbiderik gabe.

Ematen du ez dagoela ezer iraunkorragorik klase aristokratiko baten manerak baino, zeren eta, bere ondasunak eta botere galdu ondoren ere, gorde egiten baitu denbora batez; ezta ezer hauskorragorik ere, zeren eta, desagertu orduko, jada ez baita haien arrastorik aurkitzen, eta zaila izaten da zer ziren esatea jadanik existitzen ez diren momenturik. Gizarte-egoeran aldaketa batek mirari hori eragiten du; belaunaldi gutxi batzuk aski dira horretarako.

Aristokraziaren ezaugarri nagusiak historian grabatuta gelditzen dira, aristokrazia suntsitu ostean ere; baina haren ohituren forma delikatu eta arinak desagertu egiten dira jendearen oroimenetik, erori eta ia berehalaxe. Begi aurrean ez dauden momentutik, ezin dira imajinatu. Ihes egiten dute, beraiek ikusi edo sentitu gabe. Zeren eta, manera bikain eta aukeratuek ematen duten plazer errefinatu hori dastatzeko, beharrezkoa baita aztura eta heziketak bihotza aurrez prestatzea, eta erabilerarekin erraz galtzen da berorren gustua ere.

Horrela, herri demokratikoek ezin dituzte aristokraziaren manerak izan, eta gainera ez zaizkie bururatzen, ezta desiratzen ere; ez dituzte imajinatzen, eta beraientzat sekula existitu ez balira bezala da.

Ez zaio garrantzi handiegirik eman behar galera horri; baina zilegi da deitoratzea.

Badakit behin baino gehiagotan gertatu dela pertsona berberek izatea ohitura oso bereziak eta sentimendu oso arruntak. Kanpo-itxura handiek sarritan bihotz oso kaskarrak ezkutatzen zituztela ikusi izan da gorteen barruan. Baina, aristokraziaren manerek ez bazuten bertutea gauzatzen, batzuetan bertutea bera apaintzen zuten. Ez zen batere ikuskizun arrunta klase ugari eta ahaltsuarena, zeinen bizitzako kanpo-egintza guztiek azaltzen baitzuten une oro sentimenduen eta pentsamenduen berezko goratasuna, gustuen delikadeza eta erregulartasuna, ohituren jendetasuna.

Aristokraziaren manerek lilura ederrak sortzen zituzten giza izaerari buruz; eta, sarritan koadroa gezurrezkoa izan arren, plazer bikaina sentitzen zen hura mirestean.

XV

Amerikarren seriotasunaz eta zergatik horrek ez dien eragozten sarri arinkeriak egitea

Herrialde demokratikoetan bizi direnak ez dira murgiltzen herriak aristokrazietan izaten dituen dibertimendu inozo, zurrunbilotsu eta zabarretan; umekeriak edo zozoak iruditzen zaizkie. Klase

aristokratikoen jostaketa intelektual eta finen zaletasunik ere ez dute ia azaltzen; zerbait emankorra eta funtsezkoa behar dute beren plazerretan, eta gozamenak nahastu nahi izaten dituzte beren alaitasunarekin.

Gizarte aristokratikoetan, herria gogotsu murgiltzen da alaitasun zirriparratsu eta zaratatsuan, horrek bere zorigaitzen kontenplaziorik ateratzen baitu bat-batean; demokrazietako jendeak ez du atsegin horrela bere baitatik bortizki ateratzea, eta beti gogoz kontra galtzen du bere buruaren kontrola. Arinkeriazko eramanaldi horiek baino nahiago izaten ditu jostaketa serio eta isilak, negozioen antzekoak izanik ez baitu hauek erabat ahantzi beharrik.

Bada amerikarrik, bere lanbidekoek oraindik ere Europako zati handi batean egiten duten bezala, aisialdietan herriko plazan alaiki dantza egitera joan ordez, bakar-bakarrik etxe barruan sartzen dena edatera. Gizon horrek bi plazer ditu aldi berean: bere negozioan pentsatzen du, eta dezentzia osoz mozkortzen da famili giroan.

Uste nuen ingelesena zela munduan zegoen naziorik serioena, baina amerikarrak ikusi ondoren, iritziz aldatu dut.

Ez dut esan nahi tenperamentuak ez duela eragin handirik Estatu Batuetako jendearen izaeran. Hala ere, pentsatzen dut erakunde politikoek handiagoa dutela horretan.

Uste dut amerikarren seriotasuna haien harrotasunetik sortzen dela neurri batean. Herrialde demokratikoetan, behartsuak berak ere oso goian edukitzen du bere buruaren balioa. Atseginez begiratzen dio bere buruari, eta besteek ere begiratzen diotela pentsatzen du gogotsu. Jarrera horrekin, arduraz zaintzen ditu bere hitz eta egintzak, eta ez dio bere buruari aske uzten, falta zaiona aurkitzeko beldurrez. Duin emateko, serio egon behar duela uste izaten du.

Baina beste kausa bat sakonagoa eta ahaltsuagoa ere sumatzen dut, harritzen nauen seriotasun hori amerikarren artean instintiboki sortzen duena.

Despotismoaren menpean, noizean behin alaitasun eroan murgiltzen dira herriak; baina normalean goibel eta beren baitan sarturik egoten dira, beldur direlako.

Monarkia absolutuetan, ekanduak eta ohiturek moderatzen dituztenez monarkia horiek, sarri umore erregular eta alaia erakusten dute herriek, zeren eta, askatasun pixka bat eta aski segurtasun handia dutenez, aparte baitaude bizitzako ardura garrantzitsuenetatik; baina herri aske guztiak serioak izaten dira, izpiritua proiektu arriskutsu edo zailen bati beha-beha izaten dute eta.

Hori horrela da demokrazia bihurturiko herri askeetan, batez ere. Klase guztietan aurkitzen da orduan jende-kopuru itzela gobernu-arazo serioez etengabe arduratzen dena, eta ongizate publikoa gidatzeko asmorik ez dutenak beren aberastasun pribatuak gehitzeaz arduratzen dira oso-osorik. Horrelako herri batean, seriotasuna ez da pertsona batzuen ezaugarria, baizik eta nazio-aztura bilakatzen da.

Antzinako demokrazia txikiez hitz egiten da: hiritarrek arrosakoroekin herriko plazara joan eta denbora gehientsuena dantza eta ikuskizunetan ematen omen zuten. Nik ez dut horrelako errepubliketan Platonenean baion gehiago sinesten; edo, gauzak kontatzen zaizkigun bezala gertatzen baziren, beldurrik gabe esan dezaket ustezko errepublika haiek gureen aldean oso elementu ezberdinez osaturik zeudela, eta hauekin zuten gauza komun bakarra izena zela.

Bestalde, ez da uste izan behar, demokrazietan bizi direnek, beren egiteko guztien erdian, beren buruak errukarritzat dauzkatenik; kontrakoa ikusten da. Beste inork ez du bere egoera horiek baino preziatuago. Bizitza zaporerik gabea irudituko litzaieke, atsekabetzen dituzten kezkak kenduko balitzaizkie, eta beren ardurei atxikiagoak agertzen dira herri aristokratikoak plazerrei baino.

Galdetzen diot neure buruari herri demokratiko horiek, hain serioak izanik, zergatik jokatzen ote duten sarri hain oharkabean.

Amerikarrek, ia beti hain jarrera pausatua eta itxura hotza dutelarik, hala ere, sarritan arrazoiaren mugak gainditzen dituzte bat-bateko grina edo hausnartu gabeko iritzi batengatik, eta zentzugabekeria bitxiak egiten dituzte serio-serio.

Kontraste honek ez gaitu harritu behar.

Bada ezjakintasun-mota bat muturreko publizitatetik sortzen dena. Estatu despotikoetan, jendeak ez daki nola jokatu, ez zaiolako ezer esaten; nazio demokratikoetan, itsumustuan jokatzen du sarri, dena esan nahi izan zaiolako. Lehenengoek ez dakite, eta besteek ahaztu egiten dute. Koadro bakoitzaren ezaugarri nagusiak desagertu egiten zaizkie xehetasun-pilaren erdian.

Harrigarria gertatzen da batzuetan zenbat adierazpen zuhurgabe egiten duen gizon publiko batek estatu askeetan eta, batez ere, estatu demokratikoetan, horregatik arriskuan sartu gabe; aitzitik, monarkia absolutuetan, kasualitatez ihes egindako hitz batzuk aski izaten dira betiko agerian gelditzeko eta erremediorik gabe bidea galtzeko.
Honek aurrekoan du bere esplikazioa. Jendetza handi baten erdian hitz egiten denean, hitz asko ez dira entzuten, edo berehala ezabatzen dira entzuleen oroimenetik; baina jendetza mutu eta mugigaitzaren erdian, txutxumutxurik txikienak ere belarria iristen dira.

Demokrazietan, jendea inoiz ez dago finko; mila ustekabek lekuz aldarazten du etengabe eta ia beti izaten da zerbait ustekabekoa eta, nolabait esateko, bat-batekoa jendearen bizitzan. Horrela, gaizki ikasi dutena egitera behartuta aurkitzen dira sarri, ia ulertzen ez dutenaz hitz egitera, eta zenbait lani ekitera, nahiz eta ikaskuntza luzeak ez dituen horretarako prestatu.

Aristokrazietan, bakoitzak helburu bakar bat du, etengabe lortu nahi izaten duena; baina, herri demokratikoetan, gizakiaren bizimodua konplikatuagoa izaten da; arraroa izaten da pertsona batek ez izatea helburu asko aldi berean, eta elkarrekiko oso helburu arrotzak sarritan. Guztiak ezin dituenez ongi ezagutu, nozio osagabez konformatzen da erraz.

Demokrazietan bizi dena bere beharrek premiatzen ez dutenean, bere desirek premiatzen dute gutxienez; zeren eta, inguratzen duten ondasun guztien artean, ez baitu bat ere ikusten bere irispidetik erabat kanpo dagoenik. Beraz, gauza guztiak presaz egiten ditu, gutxi gora-beherakoarekin konformatzen da, eta sekula ez da unetxo bat baino gehiago gelditzen bere egintzetariko bakoitzaz gogoeta egiteko.

Haren jakinmina aseezina eta erraz asetzeko modukoa izaten da aldi berean, nahiago izate baitu gauza bizkor jakitea, ongi jakitea baino.

Ia ez du astirik, eta laster galtzen du sakontzeko gustua.

Honela, bada, herri demokratikoak serioak izaten dira, beren gizarte- eta politika-egoerak gauza serioez arduratzera eramaten baititu etengabe, eta arinkeriaz jokatzen dute, denbora eta arreta gutxi ematen baitizkiote gauza horietako bakoitzari.

Arreta-ezaren aztura izpiritu demokratikoaren akatsik handienetakotzat jo behar da.

XVI

Zergatik den amerikarren harrokeria ingelesena baino urduriago eta liskartiagoa (D)

Herri aske guztiak bere buruaz harro egoten dira; baina nazio-harrokeria ez da guztietan era berean azaltzen.

Amerikarrek, atzerritarrekiko harremanetan, pazientzia gutxikoak ematen dute kritikarik txikienaren aurrean eta aseezinak laudorioetarako. Gorespenik txikiena ere atsegin dute, eta handienak nekez asetzen ditu; une oro gainean izango dituzue laudorio bila; eta,. ez badiozue haien eskariari amore ematen, beren burua laudatuko dute. Esan liteke, beren merituaz zalantza dutelarik, momentu guztietan begien aurrean eduki nahi dutela deskribapena. Haien harrokeria gutiziatsua ez ezik, urduria eta bekaiztia ere bada. Ez du ezer ematen eta bai etengabe, eskatzen. Eskatzailea eta liskartia da aldi berean.

Esaten badiot amerikar bati bere herrialdea ederra dela, ihardetsiko du: “Egia da, ez dago parekorik munduan!”. Jendeak daukan askatasuna miresten badut, erantzungo dit: “Bai dohain ederra askatasuna! Baina oso herri gutxi dira horretaz gozatzeko duin”. Estatu Batuetako ohitura-garbitasuna azpimarratzen badut, esango dit: “Ulertzen dut beste nazio guztietan ageri den ustelkeriak txunditu duen atzerritarra

harriturik egotea ikuskizun honekin”. Bere burua miresten uzten dut azkenean; baina berriro etortzen da niregana eta ez du alde egiten esan berri diodana errepikatzea lortu arte. Nekez imajina daiteke patriotismo ezerosoago eta berritsuagorik. Ohoratzen dutenak ere nekatzen ditu.

Ez da hori gertatzen ingelesekin. Ingelesak lasai gozatzen du bere herrialdeak bere begietara dituen abantaila benetako edo irudikatuez. Beste nazioei ez badie ezer ematen, eskatu ere ez du ezer egiten berearentzat. Atzerritarren kritikak ez du hunkitzen eta laudorioak ere apenas lausengatzen duen. Mundu osoaren aurrean destainaz eta ezjakintasunez beterik egoten da isil-gordeta. Haren harrokeriak ez du elikatu beharrik; bere kabuz bizi da.

Duela gutxi enbor beretik irtendako bi herri sentitzeko eta hitz egiteko eran elkarren artean hain ezberdinak izatea, hori ohargarria da.

Herrialde aristokratikoetan, handikiek pribilegio neurrigabeak dituzte, eta horietan oinarritzen dute beren harrokeria, eragiten dituzten abantaila txikiez elikatu beharrik gabe. Pribilegio horiek herentziaz iritsi zaizkielarik, nolabait ere beren partetzat dauzkate, edo beren pertsonari berez datxekion eskubidetzat, gutxienez. Beren nagusitasunaren sentimendu baketsua dute; ez zaie bururatze guztiek hautematen dituzten eta inork ukatzen ez dizkien prerrogatibez harrotzerik. Ez zaizkie horietaz hitz egiteko bezain harrigarri gertatzen. Mugigaitz gelditzen dira beren handitasun bakartian erdian, erakusten ibili beharrik gabe mundu guztiak ikusten dituelako ziurtasunaz, eta bertatik inork aterako ez dituelakoan.

Arazo publikoak aristokrazia batek gidatzen dituenean, haren nazio-harrokeriak berez hartzen du forma isil-gorde, axolagabe eta handiusteko hori, eta nazioko beste klase guztiek imitatu egiten dute.

Aitzitik, gizarte-baldintzak oso ezberdinak ez direnean, abantailarik txikienek garrantzia dute. Bakoitzak bere inguruan abantaila oso antzekoak dituen milaka pertsona ikusten duenez, harrokeria zorrotz eta jeloskor bihurtzen da; txikikeriei atxikitzen zaie eta setati defendatzen ditu.

Demokrazietan, gizarte-baldintzak oso mugikorrak direnez, jendeak ia beti berriki lortuak izaten ditu dauzkan abantailak; eta horregatik atsegin mugagabea sentitzen dute guztiei erakutsiz, besteei eta beren buruari ere frogatuz abantaila horietaz gozatzen dutela; eta, edozein momentutan gerta daitekeenez abantaila horiek ihes egitea, erne egoten dira etengabe eta oraindik badituztela ikusarazten saiatzen dira. Demokrazietan bizi direnek beren burua bezalaxe maite dute herrialdea, eta harrokeria pribatuaren azturak nazio-harrokeriara aldatzen dituzte.

Herri demokratikoen harrokeria urduri eta aseezina hain atxikia dago baldintzen berdintasun eta hauskortasunari, ezen nobleziarik sutsuenaren kideek ere grina berbera azaltzen baitute beren bizitzan, zerbait ezegonkor eta eztabaidatua duten zati txikietan.

Klase aristokratikoa nazioko beste klaseen aldean oso ezberdina izaten da beti prerrogatiben hedadura eta betikotasunagatik; baina batzuetan gertatzen da haren kideetako batzuk egunero galdu eta eskura ditzaketen abantaila txiki iheskorrengatik bakarrik bereizten direla beren artean.

Ikusi izan dira aristokrazia ahaltsuko kideak, hiriburu edo gorteren batean elkartuta, modaren kapritxo edo nagusiaren borondatearen menpe zeuden pribilegio hutsalengatik eztabaida bizian. Orduan, demokrazietako jendea mugiarazten duen ume-jelosia berbera erakusten zuten haiek ere elkarreganako, parekideek ukatzen zizkieten abantailarik txikienez jabetzeko sugar berbera, eta gozatzen zituzten guztiak besteei erakutsi behar berbera.

Gortesauei gertatuko balitzaie inoiz nazio-harrokeria izatea, ez dut dudarik herri demokratikoenaren guztiz antzekoa izango luketela.

XVII

Nola den gizartearen itxura Estatu Batuetan asaldatua eta monotonoa aldi berean

Ezerk ez dirudi jakinmina piztu eta elikatzeko egokiagoa Estatu Batuen itxurak baino. Aberastasun, ideia eta legeak etengabe aldatzen dira han. Esan liteke natura mugigaitza bera ere mugikorra dela, hainbesterainoxe eraldatzen baita egunero gizakiaren eskupean.

Luzarora, ordea, gizarte hain asaldatu honek monotonoa dirudi eta, pixka batean begietsi ondoren hain mugikorra den koadro hori, ikuslea aspertu egiten da.

Herri aristokratikoetan, pertsona bakoitza gutxi-asko finko egoten da bere esparruan; baina jendea harrigarriro ezberdina da; grina, ideia, aztura eta gustu ezberdinek ditu. Ezer ez da mugitzen, dena da ezberdin han.

Demokrazietan, aitzitik, pertsona guztiak antzekoak dira eta gutxi gora-behera antzeko gauzak egiten dituzte. Egia da gora-behera handi eta etengabeen menpe daudela; baina zorion eta zorigaitz berak errepikatzen direnez etengabe, aktoreen izena bakarrik da ezberdina, pieza beti berbera da. Gizarte amerikarraren itxura asaldatua da, jendea eta gauzak etengabe aldatzen direlako; eta monotonoa da, aldaketa guztiak antzekoak direlako.

Garai demokratikoetan bizi direnek grina handiak izaten dituzte; baina grina gehientsuenak aberastasunen maitasunean amaitzen dira edo honek sortzen ditu. Hau ez da haien arimak kaskarragoak direlako, baizik eta diruaren garrantzia benetan handiagoa delako garai horietan.

Herrikideak guztiak independenteak eta elkarrekiko axolagabeak direnean, ordainduz bakarrik lor daiteke besteen laguntza; honek mugagabeki ugaltzen du aberastasunaren erabilera eta bere balioa gehitzen du.

Antzinako gauzei atxikiriko prestigioa desagerturik, jatorriak, egoerak edo lanbideak ez dute jada jendea bereizten, edo oso gutxi; ia diruak bakarrik sor ditzake jendearen artean oso diferentzia nabariak eta batzuk besteen gainetik jarri. Aberastasunetik sortzen den bereizketa areagotu egiten da beste guztiak desagertu eta gutxitu ahala.

Herri aristokratikoetan, desiren esparru zabalaren puntu batzuetara bakarrik eramaten du diruak; demokrazietan, badirudi guztietara eramaten duela.

Amerikarren ekintzetan, beraz, aberastasunen maitasuna aurkitzen da, normalean, eragile nagusi edo akzesoriotzat; horrek halako famili jite bat ematen die haien grina guztiei, eta berandura gabe nekagarri bihurtzen du egoera.

Grina beraren betiko itzultze hori monotonoa da, grina horrek bere burua asetzeko erabiltzen dituen prozedura partikularrak ere monotonoak dira.

Estatu Batuetakoa bezalako demokrazia egonkor eta baketsuan –non ezin daitekeen aberats ez gerragatik, ez kargu publikoengatik, ezta konfiskazio politikoengatik ere-, aberastasunen maitasunak batez ere industriarantz bideratzen ditu gizonak. Nolanahi ere, industriak, sarritan hain desordena eta hondamendi handiak eragiten dituenak, ezin du aurrera egin aztura oso erregular eta egintzatxo oso uniformeen segida luzearen laguntzarekin ez bada. Zenbat eta biziagoa grina, orduan eta erregularragoak azturak eta orduan eta uniformeagoak egintzak. Esan daiteke desiren bortxak berak bihurtzen dituela amerikarrak hain metodiko. Arima asaldatzen die, baina bizitza ordenatzen.

Amerikaz esaten ari naizena, gainerantzean, gaur egungo jende gehientsuenari aplikatzen zaio. Barietatea desagertzen ari da giza espeziearen baitatik; jokatzeko, pentsatzeko eta sentitzeko ere berberak aurkitzen dira munduko bazter guztietan. Hau ez da bakarrik herriek beren artean harreman gehiago dutelako eta hobeto kopiatzen diotelako elkarri; baita herrialde bakoitzean kasta, lanbide edo familia baten ideia eta sentimendu partikularretatik jendea gero eta gehiago aldentzean, aldi berean gizakiaren izaeratik hurbilen dagoenera, alde guztietan berbera den horretara, iristen delako ere. Horrela, antzeko bihurtzen dira, elkar ez imitatu arren. Oihan handi batean sakabanaturiko bidaiariak bezala dira, bertako bide guztiek puntu berera eramaten dituztelarik. Guztiek aldi berean begiztatzen badute erdigunea eta harantz bideratzen badituzte urratsak, oharkabean hurbiltzen dira elkarrengana, bilatu gabe, elkar ikusi eta ezagutu gabe; eta azkenean harritu egingo dira leku berean bildu direla ikustean. Beren aztergai eta imitaziogai ez gizaki jakin bat, gizakia bera baizik, hartzen duten herri guztiek azkenean elkarrekin topo egingo dute ohitura berberetan, bidaiariek bidegurutzean bezala

XVIII

Ohorea Estatu Batuetan eta gizarte demokratikoetan [10]

Badirudi bi metodo oso ezberdin erabiltzen dituela jendeak hurkoen ekintzak publikoki epaitzerakoan: mundu osoa zabaldurik dauden bidezkoaren eta bidegabearen nozio sinpleen arabera epaitzen ditu, ala herrialde eta garai jakin batekoak bakarrik diren nozio oso partikularren laguntzaz baloratzen ditu. Sarritan bi erregela horiek ezberdinak izaten dira; batzuetan eraso egiten diote elkarri, baina sekula ez dute erabat bat egiten elkar suntsitzen.

Ohoreak, bere indar handienaren garaian, sinesmenak baino gehiago arautzen du borondatea, eta gizakiei, haren aginduetara zalantzarik eta marmarrik gabe makurtzen badira ere, nolabaiteko sen ilun baina ahaltsu batek sentiarazten die badela lege orokorrago bat, antzinakoagoa eta santuagoa, batzuetan desobeditzen dutena, gero eta hobeto ezagutzen badute ere. Badira ekintzak onest eta desohoragarritzat jo izan direnak aldi berean. Dueluari uko egitea sarri egon da egoera horretan.

Uste dut fenomeno hauek esplika daitezkeela bestela, eta ez pertsona eta herri batzuen kapritxoaren bidez, orain arte egin izan den bezala.

Gizadiak premia iraunkor eta orokorrak sentitzen ditu, lege moralak sortarazi dituztenak, eta lege hauek ez betetzearekin hobena eta lotsa lotu dituzte berez gizaki guztiek, leku eta garai guztietan. Lege horietatik ihes egiteari *gaizki egitea* esan izan diote, eta horietara makurtzeari *ongi egitea*.

Gainera, giza elkarte zabalaren baitan elkarte murritzagoak ezarri dira, herri deitzen direnak, eta, azken hauen erdian, beste batzuk txikiagoak, klase edo kasta deitzen direnak.

Elkarte hauetako bakoitza espezie berezi bat bezala da gizadian; eta, gaizki-masaren aldean funtsezko ezberdintasunik ez badu ere, pixka bat aparte geratzen da eta bere-bereak dituen premiak sentitzen. Premia berezi hauek aldatzen dute nolabait ere eta zenbait herrialdetan giza ekintzak kontsideratzeko era eta beraiei buruzko estima.

Gizadiaren interes orokor eta iraunkorra jendea elkar ez hiltzea da; baina gerta liteke zenbait kasutan herri edo klase baten interes partikular eta momentukoa homizidioa desenkusatzea izatea, baita ohoratzea ere.

Ohorea ez da egoera partikular batean oinarrituriko arau partikular hori baino, zeinen laguntzaz herri edo klase batek gaitzespena edo laudorioa banatzen baitu.

Ezer ez da giza espirituarentzat emankortasun gutxiagokoa ideia abstraktu bat baino. Beraz, banoa, presaka egitateetarantz. Adibide batek argi utziko du nire pentsaera.

Munduan inoiz izan den eta ongien ezagutzen dugun ohore-motarik bereziena aukeratuko dut: ohore aristokratikoa, gizarte feudalaren baitan sortua. Aurrekoaren laguntzaz esplikatu dut, eta aurrekoa, beronen laguntzaz.

Ez dut hemen ikertu nahi izan noiz eta nola sortu zen aristokrazia Erdi Aroan, zergatik zegoen hain sakon banatua nazioaren gainerakotik, zertan oinarritu zen eta zerk finkatu zuen haren boterea. Eraikita aurkitzen dut, eta ulertu nahi dut zergatik kontsideratzen zituen giza ekintza gehienak hain ikuspegi berezitik.

Lehenik harritzen nauena zara da, mundu feudalean ekintzak ez zituztela beti beren balio intrintsekoagatik laudatzen edo gaitzesten, baizik eta batzuetan egile edo xede izandakoaren arabera bakarrik hartzen ziren kontuan, eta hau gizadiaren kontzientzia orokorrari higuingarri gertatzen zaion zerbait da. Plebeioaren kasuan batere axola ez ziren zenbait egintzak desohoratu egiten zuten noblea; beste batzuen izaera aldatu egiten zen, jasaten zituena aristokraziaren baitakoa ala kanpokoa izan.

---

[10] *Ohore* hitza ez da beti zentzu berean hartzen frantsesez. 1ª Lehenik, hurkoengandik hartzen den estima, aintza, begirunea esan nahi du; zentzu honetan esaten da *ohorea konkistatu*. 2.ª Ohoreak, halaber, aintza, estima eta begirune hori lortzen laguntzen duen arau-multzoa esan nahi du. Eta horrela esaten da *pertsona bat beti zorrotz egokitu dela ohorearen legeetara*, edota *ohoreari huts egin diola*. Kapitulu hau idazterakoan, azken zentzu honetan hartu dut beti *ohore* hitza.

Iritzi ezberdin horiek sortu zirenean, noblezia aparteko gorputza zen herriaren erdian, eta bere erretiroko gailur iristezinetatik menperatzen zuen herria. Indarra ematen zion posizio partikular horri eusteko, ez zeukan pribilegio politikoen beharra bakarrik, berak erabiltzeko bertute eta bizioak ere behar zituen.

Bertute edo bizio jakin bat nobleziarena gehiago izatea plebeioena baino, ekintza jakin batek axola ez izatea objektutzat bilaua zuenean, edo gaitzesgarri izatea noblearen kasuan, horra hor sarri arbitrarioa zena; baina pertsona baten ekintzak bere izaeraren arabera ohoretsu edo lotsagarritzat jotzea, hori gizarte aristokratikoaren eraketaren ondorio zen. Izan ere, aristokrazia izan dute herrialde guztietan ikusi da hori. Beraren aztarna bakar bat gelditzen den bitartean, aurkituko dira berezitasun horiek. Neska beltz bat galbidera eramateak apenas kalterik egiten dion amerikarraren ospe onari; harekin ezkontzeak, desohoratu egiten du.

Zenbait kasutan, ohore feudalak mendekua agintzen zuen eta irainen barkazioa gaitzesten; beste batzuetan, nork bere buruari eustea agintzen zuen biziki, eta nor bere buruaz ahaztea manatzen zuen. Ez zuen lege bihurtzen ez gizatasuna, ez eztitasuna, baina bihotz-zabaltasuna goresten zuen; esku-zabaltasuna gehiago preziatzen zuen onegintza baino; jokoan edo gerran aberastea onartzen zuen, baina ez lanean; nahiago zituen krimen handiak irabazi txikiak baino.Haragi-irritsak gutxiago nazkatzen zuen diru-goseak baino; bortxa atsegin zuen sarri, baina azerikeria eta traizioa beti mesprezagarri iruditzen zitzaizkion.

Nozio bitxi horiek ez zituen asmatzaileen kapritxoak bakarrik sortarazi.

Beste guztien buru eta gainetik jartzea lortu duen klaseak, eta maila goren horretan irauteko ahalegin etengabeak egiten dituenak, handitasuna eta distira dituzten bertuteak ohoratu behar ditu bereziki, harrotasun eta boterearen maitasunarekin erraz konbina daitezkeenak. Bertute horiek beste guztien aurretik jartzeko, ez da kontzientziaren berezko ordena iraultzeko beldur. Zenbait bizio ausart eta distiratsu bertute baketsu eta apalen gainetik gogo onez jartzea ere ulertzen da. Nolabait ere, horretara behartzen du bere izaerak.

Bertute guztien aurretik eta haietako askoren lekuan, Erdi Aroko nobleek kuraia militarra jartzen zuten.

Hori ere gizarte-egoeraren berezitasunak derrigorrez sortarazten zuen iritzi berezia zen.

Aristokrazia feudala gerratik eta gerrarako sortua zen, bere boterea armetan aurkitua zuen eta arma bidez eusten zion horri; beraz, ezer ez zuen beharrezkoago kuraia militarra baino; eta normala zen beste guztiaren gainetik gorestea. Beraz, hori kanporantz adierazten zuen guztia, arrazoiaren eta gizatasunaren kaltetan izanda ere, onetsi egiten zuen, baita sarritan agindu ere. Jendearen fantasia xehetasunetan bakarrik aurkitzen zen.

Gizon batentzat masailekoa hartzea ikaragarrizko iraina izatea eta hain arinki jo zuena borroka berezian hil beharra sentitzea, horra hor arbitrarioa; baina noble batek iraina bake-bakean ezin jasan izatea eta borrokaz erantzun gabe jipoia onartzen bazuen ohorea galtzea, hori aristokrazia militarraren printzipioen eta premien ondorio zen.

Puntu bateraino, beraz, egia zen esatea ohoreak ibilera kapritxosoak zituela; baina ohorearen kapritxoak beharrezko zenbait mugaren barruan itxirik zeuden beti. Erregela berezi hau, arbasoek ohorea deitzen zutena, ez zait inola ere lege arbitrarioa iruditzen, eta erraz konprometituko nintzateke haren agindurik inkoherente eta arraroenak gizarte feudalen premia finko eta aldaezinen kopuru txiki batekin erlazionatzera.

Ohore feudala politika-arloan aztertuko banu ere, ez nuke eragozpenik izango bere urratsak esplikatzeko.

Erdi Aroko gizarte-egoera eta erakunde politikoak halako moldekoak ziren, ezen nazio-botereak sekula ez baitzituen hiritarrak zuzenean gobernatzen. Nolabait esateko, nazio-botere hori ez zen existitzen hiritarren begietara; bakoitzak gizon jakin bat bakarrik ezagutzen zuen, berari obeditu behar ziolarik. Eta, oharkabean, pertsona horren bidez lotzen zitzaien beste guztiei. Gizarte feudaletan, jaunaren pertsonaganako leialtasun-sentimenduaren inguruan ardazten zen ordena publiko osoa. Hau suntsitzen bazen, anarkia nagusitzen zen berehala.

Bestalde, buruzagi politikoaganako leialtasun-sentimenduaren balioa egunero preziatzen zuten aristokraziako kide guztiek, haietako bakoitza jaun eta basailu baitzen aldi berean, eta agindu nahiz obeditu beharra baitzeukan.

Jaunari leial izatea, behar izanez gero harengatik sakrifikatzea, haren zori on edo txarrean parte izatea, haren zereginetan –nolanahikoak izanik ere- laguntzea, horiek izan ziren ohore feudalaren lehen aginduak politika-arloan. Basailuaren traizioa oso zorrotza gaitzesten zuen iritzi publikoak. Izen bat bereziki iraingarria asmatu zen horretarako, *felonia* deitu zitzaion.

Aitzitik, antzinako gizarteei bizia eman zien grina baten arrasto gutxi dago Erdi Aroan. Abertzaletasuna esan nahi dut. Abertzaletasun hitza bera ere ez da zaharra gure hizkuntzan[11].

Erakunde feudalek bistatik kentzen zuten aberria; ez zuten hain beharrezko egiten haren maitasuna. Nazioa ahaztarazi egiten zuten pertsona batenganako grina sortaraziz. Horrela, ez da ikusten ohore feudalak inoiz lege estu bihurtu zuenik nork bere herrialdeari leial irautea.

Ezin da esan gure gurasoen bihotzean ez zegoenik aberri-maitasunik; baina nolabaiteko joera ahul eta iluna zen, klaseak suntsitu eta boterea zentralizatu den neurrian argiago eta indartsuago bilakatu dena.

Ongi ikusten da hau Europako herriek beren historiako zenbait gertakariri buruz ematen dituzten aurkako epaietan, epaitzen dituen belaunaldiaren arabera. Borboiko Kondestablea garaikideen begietara ohoregabetzen zuena erregearen aurka armak hartzea zen, batez ere; gure begietara gehien desohoratzen duena bere herrialdearen aurka gerra egitea zen. Guk gure arbasoek beste gaitzesten dugu, baina beste arrazoi batzuengatik.

Nire pentsaera argitzeko ohore feudala aukeratu dut, ohore feudalak ezaugarri markatuago eta hobeak dituelako beste edozeinek baino; beste edonon har nezakeen nire adibidea, baina helburu berera iritsiko nintzatekeen beste bide batetik izanda ere.

Nahiz eta ez ditugun erromatarrak geure arbasoak bezain ongi ezagutzen, hala ere badakigu bazirela haien artean, loria eta desohore kontuan, iritzi bereziak, ongiaren eta gaizkiaren iritzi orokorretatik bakarrik ez zetozenak. Giza ekintza asko ikuspegi ezberdinetatik kontsideratzen zituzten hiritarra edo atzerritarra izan, pertsona libre edo esklaboa izan; zenbait bizio goretsi egiten zen, zenbait bertute beste guztien gainetik jartzen.

“Nolanahi ere, dio Plutarkok Koriolanoren bizitzan, garai hartan balentriak beste bertute guztien gainetik ohoratzen eta estimatzen ziren. Horren fede ematen du *virtus* deitzeak; bertutearen izena bera, genero komunaren izena espezie partikular bati emanez. Era horretan, latinez bertutea esatea balentria esatea zen"” Nork ez du hor munduaren konkistarako osatua zen giza talde berezi haren premia partikularra ikusten?

Nazio guztietan ikusi ahal izango lirateke antzerako gauzak; zeren eta, gorago esan dudan bezala, gizonak talde partikular batean biltzen diren guztietan, ohore bat ezartzen da beraien artean, hau da, beren iritzi-multzoa zer laudatu edo gaitzetsi behar den finkatuz; eta arau partikular hauek taldearen aztura eta interes berezietatik sortzen dira beti.

Hau, neurri batean, gizarte demokratikoei nahiz besteei aplikatzen zaie. Goazen horren froga amerikarren artean aurkitzera[12].

Oraindik aurkitzen dira barreiatuta, amerikarren iritzien artean, Europako antzinako ohore aristokratikoaren nozio solteren batzuk. Iritzi tradizional horiek oso gutxi dira kopuruz; sustrai txikia dute eta indar gutxi. Erlijio bat bezala da: uzten zaio tenpluren batzuk izaten, baina ez da horretan sinesten.

Ohore exotikoaren nozio erdi-ezabatu horien artean, iritzi berriren batzuk agertzen dira, gaur egun ohore amerikarra deituko genukeena osatuz.

---

[11] *Aberri* hitza bera ez da autore frantsesetan XVIII. mendetik aurrera baizik aurkitzen.

[12] Esklabotzarik ez dagoen eskualdeetan bizi diren amerikarrez ari naiz hemen. Horiek bakarrik eman dezakete gizarte demokratiko baten irudi osoa.

Erakutsi dut nola amerikarrek etengabeko joera duten merkataritza eta industriarako. Haien jatorriak, gizarte-egoerak, erakunde politikoek eta bizi direneko lekuak berak alde horretara eramaten ditu halabeharrez. Beraz, gaur egun, ia soil-soilik industria eta merkataritzara emaniko gizartea osatzen dute, herrialde berri eta zabal-zabal batean erdian kokatua, hau ustiatzea izanik bere helburu nagusia. Gaur egun batez ere ezaugarri honek bereizten du herri amerikarra beste guztiengandik.

Beraz, gizarteari ibilera erregularra eman eta negozioa bultzatzera jotzen duten bertute baketsu guztiak bereziki ohoratu behar dituzte horrelako herri batean, eta ezin dira baztertu mesprezu publikoa jasan gabe.

Aitzitik, sarri gizartean distira, baina are sarriago arazoak, sortzen dituzten bertute guztiek beheragoko maila dute herri horren berorren iritzian. Ahantz daitezke herrikideen estima galdu gabe, eta agian estima hori galtzeko arriskua legoke bertute horiek lortuz gero.

Amerikarrek ez dituzte bizoak arbitrariotasun gutxiagoz sailkatzen.
Badira joera batzuk gaitzesgarriak gizadiaren arrazoimen orokor eta kontzientzia unibertsalaren ikuspegitik, baina elkarte amerikarraren premia berezi eta momentukoei egoki datozkienak; honek oso ahul gaitzesten ditu, eta batzuetan goretsi ere bai, aberastasunen maitasuna aipatuko dut bereziki, eta horri atxikiriko bigarren mailako joerak. Bere mendelur duen kontinente zabal jendegabe hura goldatu, emankortu eta eraldatzeko, amerikarrak grina kementsuren baten laguntza behar du egunero; grina hori ezin da aberastasunen maitasuna baino izan; Amerikarrak gutizia bikain eta estimagarritzat dauka, Erdi Aroko gure arbasoek jopuen diru-gosetzat zeukatena; era berean, sumin itsu eta barbarotzat dauka haiek egunero gudu berrietara bultzatzen zituen sugar konkistatzailea eta gerra gogoa.

Estatu Batuetan, aberastasunak oso erraz suntsitzen eta berregiten dira. Herrialdea mugagabea da eta baliabide agortezinez beterik dago. Herriak hazten ari den izaki baten premia eta gurari guztiak ditu, eta, edozelako ahaleginak egin arren, bereganatu ahal dituen baino ondasun gehiagoz inguratua dago beti. Horrelako herri batean beldurgarri dena ez da banako batzuen porrota, azkar konpontzen dena, guztien inaktibitatea eta nagikeria baizik. Industri enpresen ausardia da haren aurrerapen bizkor, indar eta handitasunaren lehen kausa. Amerikarrarentzat industria loteria handi bat bezala da: pertsona-kopuru txiki batek galdu egiten du, baina Estatuak irabazi etengabe; horrelako herriak, beraz, onginahiz ikusi eta ohoratu behar du ausardia industri arloan. Nolanahi ere, enpresa ausart orok berari ekiten dionaren aberastasuna arriskuan jartzen du, baita berataz fidatzen diren guztiena ere. Amerikarrek, merkataritza-ausardia bertute bihurtzen dutenez, ezin dituzte inola ere ausartak gaitzetsi.

Hortik dator Estatu Batuetan hain bihotz-samurtasun berezia izatea porrot egiten duen merkatariaganako: honen ohoreak ez du nozitzen izandako ezbeharraz. Honetan amerikarrak ezberdinak dira, bai Europako herrien aldean, bai gaur egungo nazio merkatari guztien aldean ere, halaber, beren egoera eta premiengatik, ez dute haietako inoren antzik.

Amerikan, munduaren gainerakoan ezagutzen ez den zorroztasunez tratatzen dituzte ohitura-garbitasuna aldatu eta ezkon-lotura suntsitzeko moduko bizio guztiak. Lehen begiratuan, horrek harrigarriro kontrastatzen du beste gai batzuetan duten jasankortasunarekin. Harrigarria gertatzen da herri bat beraren baitan hain moral laxatua eta hain zorrotza aurkitzea.

Gauza horiek ez dira ematen duten bezain inkoherenteak. Estatu Batuetan iritzi publikoak neurriz baino ez du erreprimitzen aberastasunen maitasuna, nazioaren industri handitasun eta oparotasunerako balio baitu; eta bereziki gaitzesten ditu ohitura txarrak, giza espiritua ongizatearen bilakuntzatik desbideratzen baitute, eta familiaren barne-ordena nahasten, negozioen arrakastarako hain beharrezkoa dena. Hurkoen estima izateko, aztura erregularretara makurtu behar dute amerikarrek. Zentzu horretan esan daiteke kastoak izatean datzala haien ohorea.

Ohore amerikarra puntu batean bat dator Europako antzinako ohorearekin: kuraia jartzen du bertute guztien buru, eta hori bihurtzen du gizonarentzat premia moraletako handiena; baina ez du kuraia ikuspegi beretik planteatzen.

Estatu Batuetan gudarako adorea gutxi estimatzen da, ongien ezagutzen eta gehien estimatzen den kuraia portura lehenago iristeko ozeanoren zakarraldiei aurre egitekoa da, basamortuko ezbeharrak eta bakardadea –ezbehar guztiek baino ankerragoa- kexarik gabe jasatekoa, nekez lorturiko aberastasuna bat-batean galtzea ia sentitu gabe gainditzeko behar den kuraia eta berreskuratzeko ahaleginak berehala

sortarazten dituena. Honelako kuraia beharrezkoa da gizarte amerikarraren iraupen eta oparotasunerako batez ere, eta bereziki ohoratzen eta goresten du hark. Ezin hori gabe gelditu, desohorerik gabe.

Azken ezaugarri bat ere aurkitu dut; berak argituko du kapitulu honetako ideia.

Estatu Batuetakoa bezalako gizarte demokratikoan, non aberastasunak txikiak eta ziurgabeak baitira, mundu guztiak lan egiten du, eta lanak edozertara eramaten du. Horrek irauli egin du ohore-puntua eta nagikeriaren kontra zuzendu. du.

Batzuetan aurkitu ditut Amerikan pertsona aberatsak, gazteak, tenperamentuz ahalegin neketsu ororen etsai zirenak, eta lanbideren bat hartzera behartuak. Beren izaerak eta aberastasunak lanik egin gabe egoteko aukera ematen zien; iritzi publikoak, ordea, biziki debekatzen zien, eta obeditu beharrean zeuden. Aitzitik, Europako nazioetan, non aristokraziak oraindik borroka egiten baitu bera arrastaka daraman uholdearen kontra, sarri ikusi ditut pertsonak, beren premia eta gurariek etengabe eztenkatu arren, parekideen estima ez galtzeko lanik egin gabe zeudenak, eta asperdura eta estuasuna lana baino errazago onartzen zutenak.

Hain kontrako diren bi obligazio horietan nork ez ditu bi erregela ezberdin hautematen, nahiz eta biak, bata zein bestea, ohoreak sortarazi?

Gure gurasoek batez ere ohore deitzen zutena ez zen, egia esateko, haren formetako bat baizik. Izen generikoa eman zioten espezie bat bakarrik zenari. Ohorea, beraz, demokrazi mendeetan nahiz aristokrazi mendeetan aurkitzen da. Baina ez da zaila izango erakustea lehenengoetan beste fisionomia bat agertzen duela.

Haren aginduak ezberdinak izateaz gain, urriagoak eta ilunagoak ere badirela ikusiko dugu eta beraren legeei lasaiago jarraitzen zaiela.

Kasta bat herri bat baino askoz egoera bereziagoan egoten da beti. Ez dago ezer apartekoagorik munduan beti familia berberek osaturiko gizarte txiki bat –Erdi Aroko aristokrazia bezalakoa, adibidez- eta bere helburua jakintzargia, aberastasuna eta boterea bere baitan esklusiboki eta herentziaz bildu eta gordetzea duena baino.

Nolanahi ere, zenbat eta apartagoa izan gizarte baten posizioa, are ugariagoak izaten dira haren premia bereziak eta are gehiago hazten dira haren ohorearen nozioak, premia horiei dagozkienak.

Ohorearen aginduak beti izango dira urriagoak kastetan banaturik gabeko herri batean beste edozeinetan baino. Sortuko balira nazio batzuk, zeinetan klaseak aurkitzea zaila izango litzatekeen, ohorea agindu-kopuru txiki batera mugatuko litzateke haietan, eta agindu horiek gero eta gutxiago urrunduko lirateke gizadi osoak onarturiko lege moraletatik.

Beraz, ohorearen aginduak ez dira nazio demokratikoan aristokrazian bezain arraroak eta ugariak izango.

Ilunagoak ere izango dira; hau aurrekoaren ondorio da halabeharrez.

Ohorearen ezaugarriak gutxiago izatean eta ez hain bereziak, sarritan zaila izan behar du bereiztea.

Badira beste arrazoi batzuk oraindik.

Erdi Aroko nazio aristokratikoetan, belaunaldiak alferrik etortzen ziren batzuk besteen segidan. Haietan familia bakoitza pertsona hilezkor eta beti mugiezina bezala zen; ideiak ere ez ziren gizarte-baldintzak baino gehiago aldatzen.

Gizon bakoitzak, beraz, beti gauza berberak zituen begien aurrean, ikuspegi beretik ikusten zituenak; haren begia pixkana-pixkana xehetasunik txikienetan sartzen zen, eta haren pertzepzioa luzarora argi eta zorrotz bihurtzen zen, derrigorrez. Honela, garai feudaletako jendeak oso iritzi apartekoak zituen bere ohoreari buruz, eta gainera iritzi horietako bakoitza oso garbi eta zehatz agertzen zen haren espirituan.

Sekula ezin gauza bera gertatu Amerika bezalako herrialde batean, hiritar guztiak mugitzen baitira han; gizarteak, bera ere egunero aldatzen delarik, premiekin batera aldatzen ditu bere iritziak. Horrelako herrialde batean, erdi-ikusi egiten da ohorearen erregela, baina nekez izaten da astirik geldi aztertzeko.

Gizarte mugigaitza izango balitz ere, halaz guztiz zail izango litzateke han ohore hitzari dagokion zentzua aukeratzea.

Erdi Aroan, klase bakoitzak bere ohorea zuelarik, iritzi bera sekula ez zuen batera jende-kopuru handiak onartzen, eta horrela forma mugatu eta zehatza eman zekiokeen; batez ere, onartzen zutenek, guztiek jarrera identikoa eta oso berezia izanik, berezko joera zutelako beraientzat bakarrik egina zen lege baten aginduetan elkar ulertzeko.

Honela, ohorea kode oso eta zehatz bilakatzen zen, dena aurrez ikusia eta ordenatua zuena, eta giza ekintzetarako arau finko eta beti agerikoa aurkezten zuena. Herri amerikarra bezalako nazio demokratikoan -non gizarte-mailak nahasiak dauden eta gizarte osoak masa bakarra baizik osatzen ez duen, masa honen elementu guztiak analogoak badira ere, erabat antzekoak izan gabe- sekula ezin dira ados jarri ohoreak zehazki zer baimentzen eta zer debekatzen duen erabakitzeko.

Herri horren baitan badira zenbait behar nazional, ohore-kontuan iritzi komunak sortarazten dituztenak; baina horrelako iritziak sekula ez zaizkio aldi berean, era berean eta indar berdinaz aurkezten hiritar guztien espirituari; existitzen da ohorearen legea, baina interpretariak falta zaizkio sarri.

Nahasmena are handiagoa da gurea bezalako herrialde demokratikoan: bertan antzinako gizartea osatzen zuten klaseek –elkarrekin nahastu, bai, baina oraindik bat egitera iritsi gabeek- egunero sartzen dituzte batzuek besteen baitan beren ohorearen nozio ezberdinak, eta sarritan aurkakoak; bertan pertsona bakoitzak, bere kapritxoen arabera, gurasoen iritzietako batzuk baztertu eta beste batzuk gordetzen ditu; horrela, hainbeste neurri arbitrarioren erdian, sekula ezin da ezarri erregela komunik. Orduan ia ezinezkoa izaten da aurrez esatea zein ekintza izango den ohoratua eta zein gaitzetsia. Zorigaiztoko garaiak dira, baina ez dute iraungo.

Nazio demokratikoetan, ohorea, gaizki zehaztua dagoenez, ezin izan inola ere hain ahaltsua, zaila baita ziurtasun eta irmotasunez aplikatzea osagabeki ezagutzen den legea. Iritzi publikoak, ohore-legearen berezko interpretari subiranoa denak, garbi ikusten ez duenez zein aldetara bideratu gaitzespena edo gorespena, zalantzaz ematen du epaia. Batzuetan kontraesanetan ere erotzen da; sarritan mugitu gabe gelditzen da, eta egiten uzten du.

Ohoreak demokrazietan duen ahulezia erlatiboak badu beste hainbat kausa ere.

Herrialde aristokratikoetan, ohore berbera jende-kopuru jakin batek bakarrik onartzen du beti, sarritan talde murritza izaten delarik eta gainerako hurkoengandik banatua betiere. Beraz, haien espirituan, ohorea erraz nahasten eta bat egiten da besteengandik bereizteko dituzten gauza guztien ideiarekin. Beren fisionomiaren ezaugarria dela iruditzen zaie; ohorearen arauak interes pertsonalaren gogo-berotasun osoz aplikatzen dituzte, eta, zilegi bazait honela esatea, grinaz obeditzen diete.

Egia hori argi eta garbi agertzen da Erdi Aroko kronikak irakurtzen direnean, duelu judizialei dagokienean. Hor ikusten denez, nobleak beharturik zeuden beren liskarretan lantzaz eta ezpataz baliatzera; bilauek, berriz, makila erabiltzen zuten beren artean, “kontuan izanik, esaten dute ekanduek, *bilauek ez dutela ohorerik*”. Horrek ez zuen esan nahi, gaur egun imajinatzen den bezala, jende hura mesprezagarria zenik; bakar-bakarrik horrek esan nahi zuen haien ekintzak ez zirela epaitzen aristokraziaren erregela berberen arabera.

Harritzen duena, lehen begiratuan, zera da: ohoreak bere indar guztiaz agintzen duenean, orokorrean oso arraroak izaten direla haren aginduak, eta zenbat eta gehiago urrundu arrazoitik, hobeto obeditzen zaiola ematen duela; hortik ondorioztatu da batzuetan ohorea bere arrarokeriagatik zela, hain zuzen ere, indartsua.

Bi gauza hauek jatorri berbera dute, izan ere; baina bata ez da bestetik ondorioztatzen.

Ohorea arraroa da, pertsona-kopuru txiki batek sentitzen dituen eta bereziak diren premiak errepresentatzen dituen neurrian; eta horrelako premiak errepresentatzen dituelako da indartsua ere. Beraz, ohorea ez da indartsua arraroa delako, baizik eta kausa beragatik da arraroa eta indartsua.

Beste oharpen bat egingo dut.

Herri aristokratikoetan gizarte-maila guztiak dira ezberdinak, baina guztiak dira finkoak; bakoitzak leku bat betetzen du bere eremuan eta ezin da hortik irten, eta bere inguruan ere berean loturik dauden beste batzuen artean bizi izaten da. Beraz, nazio horietan inork ezin du ez ikusia izateko esperantza edo beldurrik izan; ez dago pertsonarik hain behean kokaturik bere antzezlekua ez duenik, eta bere iluntasunagatik gaitzespenari edo gorespenari ihes egin behar dionik.

Estatu demokratikoetan, aitzitik, non hiritar guztiek bat egiten duten jendetza berean eta etengabe asaldatzen diren bertan, iritzi publikoak ez du nori heldu; haren xedea desagertu egiten da une oro, eta ihes egiten dio. Han ohorea inoiz ez da izango hain aginkoi eta premiatsua; zeren eta ohoreak publikoaren bistan bakarrik jokatzen baitu, bertute hutsak ez bezala, hau bere baitatik bizi baita eta bere testigantzaz asetzen.
Irakurleak ongi ulertu badu aurreko guztia, ulertuko zuen badela harreman estu eta beharrezkoa gizarte-baldintzen ezberdintasunaren eta guk ohorea deitu dugunaren artean, oker ez banago, oraindik garbi adierazia izan ez dena. Beraz, azken ahalegin bat egin behar dut hori argitzeko.

Nazio bat aparte kokatzen da gizadian. Giza espezieari datxezkion premia orokor batzuez gain, nazio horrek bere interes eta premia partikularrak ditu. Berehala ezartzen dira haren baitan, gaitzespen eta gorespen kontuan, bere-berea izango duen iritzi-multzoa, hiritarrek “ohorea” deitzen dutena.

Nazio horren berorren baitan, kasta bat ezarriko da, beste klase guztietatik banatzean, premia partikularren beharra sortzen duena, eta hauek, beren aldetik, iritzi bereziak sortarazten dituzte. Kasta honen ohorea, nazioaren nozio berezien eta are bereziagoak diren kasta-nozioen osaketa bitxia, imajina daitekeen bezainbat urrunduko da jendearen iritzi sinple eta orokorretatik. Iritsi gara muturreko puntura, egin dezagun berriro atzera.

Gizarte-mailak nahastu egiten dira, pribilegioak abolitu. Nazioa osatzen dutenak berriro antzeko eta berdinak direnez, beren interes eta premiek bat egiten dute, eta kasta bakoitzak ohorea deitzen zituen nozio berezi guztiak desagertu egiten dira segidan; ohorea ez da jada nazioaren beraren premia partikularretatik baizik sortzen; bere indibidualitatea errepresentatzen du herrien artean.

Azkenik, zilegi balitz uste izatea arraza guztiak batu egingo direla eta munduko herri guztiak interes eta premia berak izatera iritsiko direla eta batzuk besteengandik ez dituela inolako ezaugarrik bereiziko, orduan ez litzaieke batere balio konbentzionalik emango giza ekintzei; guztiek ikuspegi berberetik aztertuko lituzkete; gizadiaren premia orokorrak, kontzientziak pertsona bakoitzari azaltzen dizkionak, izango lirateke neurri komuna. Orduan, ez lirateke mundu honetan ongiaren eta gaizkiaren nozio sinple eta orokorrak baino aurkituko, eta horiei atxikiko litzaizkieke, berezko eta beharrezko loturaz, gorespen edo gaitzespenaren ideiak.

Honela, nire pentsamendua formula bakar batean laburtzeko, gizakien diferentzia eta desberdintasunek sortu dute ohorea; ahuldu egiten da ezberdintasun horiek ezabatu ahala, eta beroriekin desagertuko litzateke.

XIX

Zergatik dagoen Ameriketan hainbeste gutiziatsu eta hain gutizia handi gutxi

Estatu Batuetan harritzen duen lehen gauza beren jatorrizko egoeratik irten nahi dutenen kopuru ugaria da; eta bigarrena, gutiziaren mugimendu unibertsal horren erdian sumatzen diren gutizia handien kopuru txikia. Ez dago amerikarrik handinahiak irensten ez duenik; baina itxaropen handi-handirik duenik, edo oso gora jo nahi duenik ez da ia inor ikusten. Guztiek ondasunak, ospea eta boterea lortu nahi dituzte etengabe; baina gauza horiek gutxik planteatzen dituzte eskala handian. Eta hori harrigarria gertatzen da lehen begiratuan, ez baita ezer ikusten Amerikako ohituretan, ez legeetan, desirak mugatu eta alde guztietarantz hedatzea eragotziko dienik.

Zaila dirudi gizarte-baldintzen berdintasunari egoztea gauzen egoera berezi hau; zeren eta, berdintasun hori berori gure artean ezarri zen momentuan, gutizia ia mugagabeak sortarazi baitzituen berehala. Hala ere, uste dut amerikarren gizarte-egoeran eta ohitura demokratikoetan bilatu behar dela, batez ere, aurreko horren zergatia.

Iraultza orok areagotu egiten du jendearen gutizia. Eta hori aristokrazia botatzen duen iraultzaz da, batez ere, egia.

Jendea ospe eta boteretik banatzen zuten hesi zaharrak bat-batean erortzen direnean, gorako mugimendu indartsu eta unibertsala gertatzen da luzaroan gutiziaturiko handitasun horietarantz, azkenean aukera baitute horietaz gozatzeko. Arrakastaren lehen beroaldi horretan, ezer ez zaio ezinezkoa iruditzen inori. Gurariek mugarik ez izateaz gain, horiek asetzeko ahalmenak ere ez du ia. Ekanduen eta legeen berriztapen orokor eta bat-bateko horren erdian, gizaki guztien eta arau guztien nahasmen zabal horretan, hiritarrak sekula entzungabeko bizkortasunez igotzen eta erortzen dira, eta boterea hain arin igarotzen denez eskuz esku, inork ez du etsi behar berak ere eskuratzeaz.

Bestalde, gogoratu beharra dago aristokrazia suntsitzen dutenak haren legepean bizi izan direla; ikusi izan dituzte haren distirak, eta berak sorturiko sentimendu eta ideiak barneratuak dituzte, oharkabean. Aristokrazia desegiten den momentuan, beraz, haren espirituak jendemasaren gainean jarraitzen du oraindik, eta haren joerak luzaroan gordetzen dira garaitua izan ondoren.

Horregatik, iraultza demokratikoak iraun bitartean, gutiziak oso handiak izaten dira beti; eta bukatu eta denboraldi bat geroago ere izango dira oraindik.

Ikusi behar izan dituzten aparteko gertakarien oroitzapena ez da egun batean ezabatzen gizakien oroimenetik. Iraultzak sorturiko grinak ez dira berarekin batera desagertzen. Ezegonkortasunaren sentimendua betikotu egiten da ordenaren erdian. Arrakasta erraza delako ideiak, sortarazi zuten gora-behera bitxiek baino luzaroago irauten du. Gurariek oso zabalak izaten jarraitzen dute, horiek asetzeko baliabideak egunero gutxituz doazen bitartean. Aberastasun handien gustuak iraun egiten du, nahiz eta aberastasun handiak oso bakanak bilakatu, eta alde guztietan pizten dira proportziorik gabeko eta zoritxarreko gutiziak, ezkutuan eta emaitzarik gabe bihotza erretzen dutenak.

Poliki-poliki, ordea, borrokaren azken arrastoak ezabatu egiten dira; aristokraziaren hondarrak ere, desagertu. Ahaztu egiten dira haren erorketarekin batera izan ziren gertakari handiak; atsedena etortzen da gerra ostean, arauaren agintea birsortzen da mundu berriaren baitan; gurariak baliabideen proportziozko bihurtzen dira; premiak, ideiak eta sentimenduak kateatu egiten; gizakiak berdintzera iristen dira: finkaturik dago azkenik gizarte demokratikoa.

Egoera iraunkor eta normal horretara iritsitako herri bat hartzen badugu aztergai, ikusi berri dugunaren aldean oso bestelako ikuskizuna agertuko digu, eta erraz ohartuko gara, gutizia handitu egiten bada gizarte-baldintzak berdindu ahala, izaera hori galdu egiten duela berdinak direnean.

Aberastasun handiak banatu eta zientzia zabaldu egiten denez, inor ez da batere jakintzargi edo ondasunik gabe gelditzen; klaseen pribilegioak eta ezintasunak abolitzean, eta gizakiak mugitu gabe edukiarazten zituzten lokarriak betiko apurtzean, aurrerabidearen ideia agertzen zaio bakoitzaren espirituari; gora egiteko gogoa sortzen da aldi berean bihotz guztietan; bakoitzak bere lekutik irten nahi du. Gutizia da sentimendu unibertsala.

Baina baldintza-berdintasunak hiritar guztiei baliabideren batzuk ematen badizkie, aldi berean eragotzi egiten du inork oso baliabide zabalak izatea; eta horrek halabeharrez muga aski estuetan ixten ditu gurariak. Herri demokratikoetan, gutizia sutsu eta iraunkorra izaten da, beraz; baina normalean ezin du oso gora jo; eta eskueran ikusten diren gauzatxoak gogo beroz irrikatzen ematen da eskuarki bizitza.

Demokrazietako gizonak gutizia handitik ez ditu, batez ere, beren aberastasunaren urritasunak desbideratzen, hobetzeko egunero egiten duten ahalegin bortitzak baizik. Erdipurdiko gauzak egiteko indar guztiak erabiltzera behartzen dute arima, eta horrek haien ikuspegia mugatzen du laster eta boterea mugatzen. Haiek izan litezke behartsuago eta, hala ere, askoz handiago.

Demokraziaren baitan aurkitzen den hiritar aberatsen kopuru txikia ez da arau horrekiko salbuespen bat. Aberastasun eta botererantz mailaka igotzen denak lan luze horretan zuhurtzi eta moderazio-azturak bereganatzen ditu, gero utzi ezin dituenak. Haren arima ez da pixkanaka zabaltzen, etxea bezala.

Antzeko zerbait esan daiteke gizon horren berorren semeez. Egia da hauek goi-mailan jaio direla, baina gurasoak apalak izan ziren; sentimendu eta ideia batzuen artean haziak dira, eta geroago zail gertatzen zaie horietatik libratzea; eta pentsatu behar da aitaren joerak eta ondasunak heredatuko dituztela aldi berean.

Aitzitik, gerta daiteke aristokrazia indartsu baten kimurik pobreenak gutizia handia agertzea, bere arrazaren iritzi tradizionalek eta bere kastaren espiritu orokorrak oraindik aldi batez eusten diotelako bere aberastasunaren gainetik.

Demokrazi garaietako jendea gauza handiak gutiziatzen erraz hastea beste zerbaitek ere eragozten du: beraien ustez, lortzeko egoeran egon aurretik pasatu behar den denborak. “Abantaila handia da –zioen Pascalek- hemezortzi edo hogei urterekin pertsona batek lortzea beste batek berrogeita hamarrekin duen egoera; nekerik gabe irabazitako hogeita hamar urte dira”. Hogeita hamar urte horiek normalean falta egiten zaizkie demokrazietako gutiziei. Berdintasunak, edozertara iristeko ahalmena uzten diolarik bakoitzari, bizkor haztea eragozten du.

Gizarte demokratikoan, beste edonon bezala, aberastasun handien kopuru mugatua bakarrik egin daiteke; eta horietara doazen bideak hiritar guztientzat bereizketarik gabe zabalik daudenez, beharrezkoa da guztien aurrerapena mantsotzea behintzat. Izangaiek gutxi gora-behera antzekoak ematen dutenez, eta gizarte demokratikoen lege gorena den berdintasunaren printzipioa hautsi gabe haien artean aukeratzea zaila denez, agertzen den ideia guztiak pauso berean ibilaraztea da, eta guztiei proba berak pasaraztea.

Beraz, jendea elkarren antzekoago bihurtu ahala, eta berdintasunaren printzipioa erakundeetan eta ohituretan baketsuago eta sakonkiago sartu ahala, aurrerapenaren arauak zurrunago bihurtzen dira, aurrerapena mantsoago; handitasun-maila batera bizkor iristeko zailtasuna areagotu egiten da.

Pribilegioaren gorrotoz eta aukeraren zailtasunagatik, pertsona guztiak, beraien tamaina gora-behera, galbahe beretik pasatzera behartzen dira, eta atariko ariketa txiki ugari egitera behartzen dira guztiak bereizketarik gabe, horietan gaztetasuna galdu eta irudimena itzaltzen zaielarik; eta, horrela, etsi egiten dute eskaintzen zaizkien ondasunak inoiz bete-betean gozatu ahal izateaz; eta, azkenean, aparteko gauzak egin ahal izatera iristen direnean, galdua dute horretarako gustua.

Txinan, non baldintza-berdintasuna oso handia eta oso antzinakoa baita, pertsona bat funtzio publiko batetik bestera lehiaketa jasan ostean bakarrik igarotzen da. Proba hori haien karrerako urrats bakoitzean aurkitzen da, eta, ideia hori hain sartua dagoenez ohituretan, gogoan dut Txinako eleberri bat irakurri izana, non heroiak, gora-behera askoren ondoren, azkenean bere maitalearen bihotza hunkitzen baitu proba on bat eginez. Horrelako giro batean nekez har dezakete arnasa gutizia handiek.

Politikaz esaten ari naizena gauza guztietara hedatzen da; berdintasunak ondorio berberak eragiten ditu alde guztietan; jendearen mugimendua arautu eta atzeratzeaz legea arduratzen ez den tokian, konkurrentziak egiten du hori.

Ongi ezarririko gizarte demokratikoan, igoera handi eta bizkorrak gutxi izaten dira; hauek arau komunarekiko salbuespenak izaten dira. Haien berezitasunak ahantzarazten du beraien kopuru txikia.

Demokrazietako gizonak azkenerako gauza horiek guztiak sumatzen ditu; luzarora, ohartzen dira legegileak mugagabeko alorra zabaltzen duela beraien aurrean, eta alor horretan guztiek eman ditzaketela urrats batzuk, baina inor ezin daitekeela harrotu bizkor ibiltzeaz. Beren artean eta beren gurarien xede zabal eta azkenaren artean, bitarteko hesi txiki ugari ikusten dituzte, astiro-astiro igaro behar dituztenak; ikuspegi honek aurrez nekatzen du haien gutizia, eta geldiarazi egiten du. Beraz, uko egiten diete urrutiko eta dudazko itxaropen horiei, beraiengandik hurbil gozamen apalago eta errazagoak bilatzeko. Legeak ez du haien horizontea mugatzen, haiek berek murrizten dute.

Esan dut gutizia handiak urriagoak zirela demokrazi mendeetan aristokrazi mendeetan baino; gainera, berezko eragozpen horiek gorabehera, hala ere sortu egiten badira, beste fisionomia bat izaten dute.

Aristokrazietan, handinahitasunaren lasterketa zabala izaten da sarri, baina muga finkoak izaten ditu. Herrialde demokratikoetan, alor estuan mugitzen da normalean, baina hortik irteten bada, ezerk ez duela mugatzen esan liteke. Gizakiak ahul, isolatu eta mugikorrak direnez, aurrekariek indar gutxi eta legeek iraupen laburra dutenez, berritasunen aurkako erresistentzia motela izaten da eta gizarte-gorputzak sekula ez du ematen oso zuzen dagoenik, ezta oso irmo ere bere oinarrian. Horrela, gutiziatsuek inoiz boterea beren esku izaten badute, edozertara ausart daitezkeela uste dute; eta ihes egiten dienean, berehala pentsatzen dute Estatua iraultzea, berreskuratzeko.

Honek izaera bortitz eta iraultzailea ematen dio gutizia politiko handiari, nekez ikusten dena maila berean gizarte aristokratikoetan.

Zuhurtasun handiko gutizia txiki asko, beraien erdian noizbehinka sortzen direlarik gaizki erregulaturiko desira handiren batzuk: horra hor normalean nazio demokratikoek erakusten duten koadroa. Apenas aurkitzen den beraietan gutizia proportzionatu, neurritsu eta zabalik.

Erakutsi dut beste nonbait berdintasunak zien indar ezkutuz nagusiarazten zuen giza bihotzean gozamen materialen grina eta orainaren maitasun esklusiboa; joera ezberdin hauek nahastu egiten dira gutiziaren sentimenduan, eta, nolabait esateko, beren kolorez tintatzen dute.

Pentsatzen dut demokrazietako gutiziatsuak beste guztiak baino gutxiago arduratzen direla etorkizunaren interes eta epaiez: soilik oraingo momentuaz kezkatzen dira, eta horrek bereganatzen ditu. Eginkizun asko bukatzen dute bizkor, monumentu oso iraunkorrak eraiki ordez; arrakasta maiteago dute aintza baino. Obedientzia da, batez ere, jendeari eskatzen diotena. Agintea da nahi dutena, ororen gainetik. Haien ohiturak ia beti beraien egoera-mailaren azpian gelditzen dira; eta horren ondorioz, sarri oso gustu arruntak izaten dituzte aparteko aberastasunaren erdian, eta ematen du plazer txiki eta zabarrak errazago eskuratzeko bakarrik hartzen dutela aginte subiranoa.

Uste dut gaur egun beharrezkoa dela gutiziaren sentimendua garbitu, arautu eta proportziozko bihurtzea, baina oso arriskutsua litzatekeela pobretu nahi izatea eta neurriz kanpo eustea. Lehenik ertzetako mugak jartzen ahalegindu behar da, gaindiezinak izango direnak; baina berorren garpena ere ez da gehiegi oztopatu behar onarturiko mugen barruan.

Aitor dut gizarte demokratikoetan beldur gutxiago ematen didala ausardiak desiren kaskartasunak baino; eta beldurgarriena zera iruditzen zait: bizitza pribatuko okupazio txiki etengabeen erdian, goranahiak bere bulkada eta handitasuna galtzea: aldi berean giza grinak ez apaltzea eta beheratzea, horrela egunetik egunera gizarte-gorputzaren ibilera lasaiagoa eta apalagoa izan dadin..

Pentsatzen dut gizarte berri hauetako buruzagiek oker jokatuko luketela hiritarrak zoriontasun uniformeegi eta baketsuegian lotan eduki nahi izango balituzte, eta on dela batzuetan eginkizun zail eta arriskutsuak ematea, gutizia mailaz igo eta antzezleku berria eskaintzeko.

Moralistak etengabe kexatzen dira gure garaiko bizio kutuna harrokeria izateaz.

Hori egia da zentzu batean. Egia esateko, ez dago pertsonarik auzokoa baino gehiago balio duela uste ez duenik eta bere nagusiari obeditzea onartuko duenik; baina hau zeharo faltsua da beste zentzu batean; zeren eta, hala ere, pertsona horrek berorrek –ez menpekotasuna, ez berdintasuna jasan ezin duenak- bere burua gutxiesten baitu, plazer arruntez bakarrik gozatzeko egina delakoan. Desira kaskarretan gelditzen da gogotsu, eginkizun handiei ekitera ausartu gabe. Apenas imajinatu ere egiten dituen.

Inola ere uste izan gabe gure garaikideei apaltasuna gomendatu beharko litzaiekeenik, beren buruaz eta espezieaz ideia zabalagoa ematen ahalegindu nahi nuke; apaltasuna ez zaie batere osasungarri; nire iritziz, harrotasuna da gehien falta zaiena. Nik gogotsu aldatuko nituzke gure bertute txikietako batzuk bizio horren truke.

XX

Enplegu publikoen negozioa zenbait nazio demokratikotan

Estatu Batuetan hiritar batek, jakintzargi eta baliabide batzuk dituen momentuan, aberastu egin nahi izaten du merkataritzan eta industrian, edota basoz estalitako landa bat erosi eta pionero bihurtzen da. Estatuari eskatzen dion guztia bere lanean eragozpenik ez jartzea eta emaitza ziurtatzea izaten da.

Europako herri gehientsuenetan, gizon bat bere indarra sentitzen eta bere gurariak zabaltzen hasten denean, lehenengo bururatzen zaiona enplegu publikoa lortzea izaten da. Ondorio ezberdin horiek, kausa beretik irtenak, une batez hemen gelditzea merezi dute azter ditzagun.

Funtzio publikoak gutxi direnean, gaizki ordainduak eta egonkortasun txikikoak, eta, bestalde, negozio industrialak ugariak eta emankorrak direnean, alde guztietatik industriarantz jotzen dute –eta ez administraziorantz- berdintasunak egunero sortarazten dituen desira berri eta urduriek.

Baina, gizarte-mailak berdintzen diren aldi berean, jakintzargiak osagabe edo espirituak herabe gelditzen badira, edo merkataritzak eta industriak, beren garapenean oztopatuak, aberasteko bide zail eta geldoak bakarrik eskaintzen badituzte, hiritarrek, beren zoria beren kabuz hobetzeaz etsita, estatu-buruarengana jotzen dute zalapartatsu, laguntza eske. Iruditzen zaie altxor publikoaren kontura erosoago bizitzea dela, bide bakarra ez bada ere, gutxienez bide errazen eta guztientzako irekiena, asebetetzen ez dituen egoeratik irteteko: lanpostu publikoak bilatzea bihurtzen da industriarik landuena.

Honela izan behar du monarkia zentralizatu handietan batez ere, non funtzio ordainduen kopurua ikaragarria baita eta funtzionarien existentzia aski ziurtatua; horrela inork ez du enplegu bat lortzeko eta berorretaz, ondare batez bezala, bakean gozatzeko itxaropena galtzen.-

Ez dut esango funtzio publikoen nahi unibertsal eta neurrigabe hori gizarte-gaitz handi bat dela; edo hiritar bakoitzaren baitan, independentzi espiritua suntsitzen duela eta nazioaren gorputz osoan morroi-izaera salkorra hedatzen duela; edo bertute indartsuak itoarazten dituela; ez dut esango ere horrelako industriak emankor ez den jarduera sortzen duela eta herrialdea astintzen duela ernaldu gabe. Hori guztia erraz ulertzen da.

Nik esan nahi dudana da horrelako joera bultzatzen duen gobernuak arriskuan jartzen duela bere lasaitasuna, eta arrisku handian bere bizia ere.

Badakit, gurea bezalako garaian, antzina botereari edukitzen zitzaion maitasuna eta begirunea pixkanaka itzaltzen ari direnean, gobernariei beharrezko irudi dakiekeela gizon bakoitza estuago kateatzea bere interesetik, eta erosoa irudi dakiekeela beraren grinez baliatzea ordenan eta isilpean edukitzeko; baina ezin da luzaroan honela jokatu, eta aldi batez indar-kausatzat har daitekeena luzarora arazo eta ahulezi eragile handi bihurtzen da ziur aski.

Herri demokratikoetan, beste guztietan bezala, enplegu publikoen kopuruak mugak izaten ditu azkenerako; baina, herri horietan berorietan, gutiziatsuen kopuruak ez du mugarik izaten; gizarte-baldintzak berdindu ahala, etengabe hazten da mugimendu gradual eta jarkiezinean; jendea falta denean bakarrik mugatzen da.

Hortaz, gutiziak administraziokoa beste irtenbiderik ez duenean, gobernuak halabeharrez aurkakotasun iraunkorra aurkitzen du azkenerako; zeren eta bere eginkizuna mugagabeki ugaltzen diren desirak baliabide mugatuez asetzea izaten baita. Konbentzitu beharra dago, munduko herri guztien artetik, eusteko eta gidatzeko zailena eskatzaileen herria izaten dela. Buruzagiek eginahalak egin arren, ezingo dituzte inoiz asetu, eta beldur izan behar da beti, kargu bakanteak lortu beharragatik bakarrik, azkenean ez ote duten herrialdearen eraketa irauli eta Estatuaren itxura aldatuko.

Oker ez banabil, gure garaiko printzeak, berdintasunak sortarazten dituen desira berri guztiak berengana erakartzen eta asebetetzen saiatzen direnak, azkenerako damu izango dira horrelako eginkizunetan sartu izanagatik; egun batean konturatuko dira beren agintea arriskatu dutela hain beharrezko bihurtzean, eta zintzoago eta ziurragoa izango zatekeela menpeko bakoitzari bere buruaz baliatzeko artea irakastea.

XXI

Zergatik iritsiko diren bakanak izatera iraultza handiak

Mendeetan zehar kasta eta klase-sistemaren menpe bizi izan den herria gutxi-asko neketsuak diren eraldakuntzen segida luzearen bidez bakarrik iristen da gizarte-egoera demokratikora, eta ahalegin bortitzen eta gora-behera askoren ondoren, berauetan zehar ondasunak, iritziak eta boterea bizkor aldatzen direlarik lekuz.

Iraultza handi hori bukatu eta gero, artean luzaroan irauten dute beroriek sortaraziko aztura iraultzaileek, eta astinaldi sakonak izaten dira jarraian.

Hori guztia gizarte-baldintzak berdintzen diren momentuan gertatzen denez, ondorioztatu behar da badela erlazio ezkuturik eta lotura sekreturik berdintasunaren eta iraultzaren artean, ezin delarik bata existitu besteak sortarazi gabe.

Puntu honetan, arrazoiketa esperientziarekin bat datorrela ematen du.

Gizarte-mailak gutxi gora-behera berdinak diren herri batean, ez dago lokarri nabaririk gizakiak batu eta beren lekuan irmo edukitzen dituenik. Beraietako inork ez du agintzeko eskubide iraunkorrik, ez ahalmenik, eta inor ez dago bere egoeragatik obeditu beharrean ere; baina bakoitzak, jakintzargi eta baliabide batzuen jabe denez, bere bidea aukera dezake eta beste guztiengandik aparte aurrera egin.

Hiritarrak batzuk besteengandik independente bihurtzen dituzten kausa horiek beroriek bultzatzen dituzte egunero desira berri eta urdurietara, eta etengabe akuilatzen dituzte.

Beraz, badirudi normala dela sinestea gizarte demokratikoan ideia, gauza eta gizakiek formaz eta lekuz aldatu behar dutela egunero, eta demokrazi mendeak eraldakuntza bizkor eta etengabeen garaiak izango direla.

Baina horrela al da benetan? Baldintza-berdintasunak, ohikotasunez eta iraunkorki, iraultzetarantz eramaten al du jendea? Printzipio nahasgarriren bat ote du, gizarteari finkatzea eragozten diona eta hiritarrak beren lege, doktrina eta ohiturak etengabe berritzera bultzatzen dituena? Ez dut uste. Gaia garrantzizkoa da; ongi jarrai diezadan erregutzen diot irakurleari.

Herrien itxura aldatu duten iraultza ia guztiak ezberdintasuna finkatzeko ala suntsitzeko egin izan dira. Ken itzazue gizakien asaldura handiak eragin dituzten bigarren mailako kausak, eta ezberdintasunera iritsiko zarete ia beti. Behartsuek aberatsei kendu nahi izan dizkiete ondasunak, edo aberatsak behartsuak kateatzen saiatu izan dira. Beraz, gizarte-egoera bat sortuko bazenute, non bakoitzak zerbait izango lukeen gordetzeko eta gutxi hartzeko, asko egingo zenukete munduko bakearen alde.

Badakit herri demokratiko handietan beti egoten direla hiritar oso behartsuak eta hiritar oso aberatsak; baina behartsuak, nazioaren gehien-gehiengoa izan ordez –gizarte aristokratikoetan beti gertatzen den bezala-, gutxi izaten dira, eta legeak ez ditu lotzen erremediorik gabeko eta herentziazko lazeriaren lokarriekin.

Aberatsak, berriz, banaka batzuk eta ahalgabeak izaten dira; ez dute begirada erakartzen duen pribilegiorik; haien aberastasuna bera, jada ez dagoenez lurrari lotua eta honek irudikatua, ukiezina da eta ikusezina bezala. Jada behartsu-arrazarik ez dagoen bezalaxe, ez dago aberats-arrazarik ere; hauek jendearen baitatik irteten dira egunero, eta bertara itzultzen etengabe. Ez dute, beraz, klase bat osatzen, erraz mugatu eta bipil daitekeenik; eta, bestalde, mila hari ezkuturen bidez herrikideei loturik daudenez, herriak ezin die eraso egin, bere burua harrapatu gabe. Gizarte demokratikoen bi mutur horien artean, ia berdinak diren gizakien kopuru izugarria dago, oso aberats edo behartsu izan gabe, ordena nahi izateko adina ondasun dutenak, baina ez bekaizkeria pizteko beste.

Hauek, berez, mugimendu bortitzen etsai dira; beraien mugiezintasunak geldi edukitzen du beraien gainetik eta azpitik dagoen guztia eta gizarte-gorputza bere oinarrian finkatzen du.

Hauek ez daude konforme bere oraingo zoriaz, eta ez diote berezko ikararik ere iraultzari, beronen harrapakinez gozatuko bailukete, gaitzak jasan beharrik gabe; aitzitik, aberastu egin nahi dute, irrika paregabez; baina hori noren kontura egin jakitean datza arazoa. Etengabe desirak iradokitzen dizkien gizarte-egoera berak beharrezko mugen barnean ixten ditu desira horiek. Aldatzeko askatasun handiagoa ematen dio jendeari eta interes txikiagoa aldaketan.

Demokrazietako jendeak ez du berez iraultzarik nahi izaten, eta horien beldur ere izaten da. gainera.

Ez dago iraultzarik lehendik finkatutako jabetza gutxi-asko mehatxatzen ez duenik. Herrialde demokratikoetan bizi diren gehienak jabeak izaten dira; ez dituzte jabetzak bakarrik; jendeak bere jabetzari baliorik handiena ematen dion egoeran bizi dira.

Gizarte osatzen duten klaseetako bakoitza arretaz aztertzen bada, erraz ikusten da jabetzak sortarazten dituen grinak ez direla beste inon biziago eta setatiagoak klase ertainetan baino.

Sarritan behartsuak apenas arduratzen diren daukatenaz, falta zaienagatik askoz gehiago sufritzen baitute daukaten apurraz gozatzen dutena baino. Aberatsek ase beharreko beste grina asko dute aberastasunarenaz gain, eta, bestalde, aberastasun handiaren erabilera luze eta neketsuak batzuetan haren gozotasunekiko sorgortu bezala egiten ditu azkenerako.

Baina oparotasunetik nahiz lazeriatik urruntasun berdinean bizi denak izugarrizko balioa ematen die bere ondasunei. Oraindik pobreziatik oso hurbil daudenez, hurbiletik ikusten dituzte haren laztasunak eta beldur izaten dira; pobreziaren eta beraien artean ondare txiki bat besterik ez dago, eta hartan finkatzen dituzte beren beldur eta itxaropenak. Une oro gero eta gehiago interesatzen dira berataz, sortarazten dien ardura etengabeagatik, eta berari atxikitzen zaizkio gehitzeko egunero egiten dituzten ahaleginengatik. Zatirik txikiena emateko ideia jasangaitza zaie, eta erabat galtzea zorigaitzik handiena. Nolanahi ere, jabe txiki sutsu eta kezkati horien kopurua etengabe gehitzen du baldintzen berdintasunak.

Honela, gizarte demokratikoetan, hiritarrik gehienek ez dute argi ikusten zer irabaz lezaketen iraultzarekin, eta une oro eta mila eratara sentitzen dute zer gal lezaketen.

Azaldu dut obra honen beste toki batean nola baldintza-berdintasunak berez bultzatzen zituen gizonak industri eta merkataritzako eginkizunetara, eta nola gehitzen eta dibertsifikatzen zuen lur-jabetza; azkenik erakutsi dut nola sortarazten zion bakoitzari ongizatea areagotzeko desira sutsu eta etengabea. Ezer ez dago grina iraultzaileen aurkakoagorik gauza hauek guztiak baino.

Gerta liteke bere azken emaitzagatik iraultza bat industria eta merkataritzarako mesedegarri izatea; baina bere lehen ondorioa industriari eta merkatariei porrot eragitea izango da ia beti, zeren eta, hasieran, kontsumoaren egoera orokorra aldatuko baitu derrigorrez eta produkzioaren eta premien artean zegoen proportzio irauliko baitu momentuz.

Bestalde, ez dakit ohitura iraultzaileen ezer aurkakoagorik dagoen merkataritza-ohiturak baino. Merkataritza grina bortitz guztien etsai da berez. Amore ematea maite du, atsegin ditu konpromezuak eta kontu handiz ihes egiten dio suminari. Egonarria du, malgua da, aierukorra, eta premiarik erabatekoenak hartaratzen duenean bakarrik jotzen du muturreko baliabideetara. Merkataritzak gizonak independente bihurtzen ditu batzuk besteengandik; beste ideia bat ematen die beren balio indibidualaz; beren negozio propioak egin nahi izatera eramaten ditu, eta arrakasta izaten irakasten die; beraz, askatasunerako prestatzen ditu, baina iraultzetatik urruntzen ditu.

Iraultza batean, ondasun higigarrien jabeek beste guztiek baino arrazoi gehiago dute beldur izateko; zeren eta, alde batetik, beraiei jabetza kentzea erraza izaten da sarri, eta, bestalde, jabetza hori erabat desager daiteke edozein momentutan. Beldur izateko motibo gutxien dutenak lur-jabeak dira, beren lurren errenta galtzean, gutxienez lurra bera gordetzea espero baitute, gora-behera guztien artean. Honela, ikusten da batzuek besteek baino beldur handiagoa dietela mugimendu iraultzaileei.

Beraz, ondasun higigarriak ugaldu eta dibertsifikatu ahala eta ondasun horiek dauzkatenak kopuruz ugaldu ahala, herriek joera txikiagoa izaten dute iraultzetarako.

Bestalde, zeinahi izanik gizonek hartzen duten lanbidea eta gozagai dituzten ondasunen mota, badute ezaugarri komun bat.

Inor ez dago erabat pozik egungo bere aberastasunarekin eta guztiak, mila eratara, hori gehitzen saiatzen dira egunero. Beraietako bakoitza bizitzako edozein momentutan aztertzen baduzue, plan berriren batzuez arduratuta ikusiko duzue, bere aisetasuna areagotzea izanik horien helburua; ez iezaiozue hitz egin gizadiaren interes eta eskubideei buruz; momentuz bere etxeko eginkizun txiki horrek bereganatzen ditu bere pentsamendu guztiak, eta zirriparra publikoak beste garai baterako uzteko gogoa sortarazten dio.

Horrek ez die iraultzak egitea bakarrik eragozten, nahi izateko gogoa ere kentzen die. Grina politiko bortitzek erakarpen gutxi dute honela beren arima osoa ongizatearen bila erabili dutenentzat. Arazo txikietan jartzen duten gogo-berotasunak lasaitu egiten ditu handietan.

Egia da, tarteka-marteka, hiritar ekintzaile eta gutiziatsuak sortzen direla gizarte demokratikoetan, eta haien desira neurrigabeak ezin direla asebete ohiko bideari jarraituz. Hauek iraultzak maite eta eskatu egiten dituzte; baina asko kostatzen zaie sortaraztea, aparteko gertakariek ez badiete laguntzen.

Ez da abantailaz borroka egiten norberaren mende eta herrialdeko espirituaren aurka; eta gizon batek, oso ahaltsua izanda ere, nekez parte harrarazten die garaikideei hauen desira eta sentimenduek oro har errefusatu egiten dituzten sentimendu eta ideietan. Ez da, beraz, sinetsi behar, behin baldintza-berdintasunak, egitate zahar eta eztabaidaezin bihurturik, ohituretan bere izaera ezarri duenean, jendeak erraz onartzen duenik menturatan sartzea, zuhurtziarik gabeko buruzagi edo berritzaile ausarten bati jarraituz.

Ez diote ageri-agerian kontra egiten, konbinazio burutsuen laguntzaz edota erresistitzeko aurrez pentsaturiko egitasmoaren bidez. Ez diote kementsu erasotzen, batzuetan txalotu ere bai, baina ez diote jarraitzen. Haren sugarrari beren inertzia kontrajartzen diote ezkutuan; haren joera iraultzaileei, beren interes kontserbadoreak; haren grina abenturariei, beren gustu etxezaleak,; haren jeinuaren noraezari, beren zentzua; haren poesiari, beren prosa. Mila ahaleginekin altxarazten ditu momentu batean, eta laster ihes egiten diote, eta, beren pisuaz herrestatuak bezala, berriro jausten dira. Ahitu egiten da jendetza axolagabe eta distraitu hori animatu nahirik, eta azkenean ezintasunean gelditzen da, ez garaitua dagoelako, bakarrik dagoelako baizik.

Ez dut esan nahi gizarte demokratikoetan bizi direnak berez mugiezinak direnik; aitzitik, uste dut horrelako gizarte batean betiereko mugimendua dagoela, eta inork ez duela atsedena ezagutzen; baina uste dut ia inoiz gainditzen ez dituen muga batzuen artean jarduten duela jendeak gizarte horietan. Bigarren mailako gauzak bariatzen, aldatzen edo berritzen dituzte egunero; kontu handia izaten dute garrantzitsuenak ez ukitzen. Maite dute aldaketa, baina iraultzen beldur dira.

Nahiz eta amerikarrek etengabe aldatu edo derogatu beren legeetako batzuk, inola ere ez dute grina iraultzailerik agertzen. Asaldura publikoa mehatxagarri bihurtzen hastean eta grinek kilikatuen diruditen momentuan zien bizkor gelditzen eta baretzen diren ikusita, erraz ohartzen da iraultzaren beldur direla, zorigaitzik handiena balitz bezala, eta bakoitza prest dagoela bere barnean sakrifizio handiak egiteko iraultza eragoztearren. Munduan inon ez da jabetza-sentimendua aktiboago eta urduriago agertzen Estatu Batuetan baino, eta bertan du gehiengoak ondasunen eraketa zertxobait aldatuz arriskuan jar lezaketen doktrinetarako zaletasunik txikiena ere.

Sarritan ohartu naiz izaeraz iraultzaile diren teoriek, jabetzaren eta pertsonen egoeran erabateko aldaketarik eta batzuetan bat-batekorik gabe ezin direnez gauzatu, askoz eta arrakasta gutxiago dutela Estatu Batuetan Europako monarkia handietan baino. Batzuek horien aldeko badira ere, instintuzko izu-ikaraz errefusatzen ditu masak.

Beldurrik gabe esango dut Frantzian demokratikoak deitu ohi ditugun maxima gehienak proskribitu egingo lituzkeela Estatu Batuetako demokraziak. Erraz ulertzen da hau. Amerikan ideia eta grina demokratikoak dituzte; Europan, oraindik grina eta ideia iraultzaileak dauzkagu.

Amerikan inoiz iraultza handirik izaten bada, Estatu Batuetako lurrean beltzak daudelako sortuko dira horiek; alegia, ez ditu baldintzen berdintasunak eragingo, horien desberdintasunak baizik.

Baldintzak berdinak direnean, bakoitza bere baitan isolatzen da gogotsu eta publikoa ahazten du. Herri demokratikoetako legegileak joera kaltegarri hau zuzentzen saiatuko ez balira edota bultzatu egingo balute, horrek hiritarrak grina politikoetatik desbideratu eta horrela iraultzetatik aldendu egiten dituela pentsatuz, gerta liteke azkenerako berek sortzea eragotzi nahi duten gaitza, eta momentu bat iristea pertsona batzuen grina desordenatuek, gehiengoaren berekoikeria burugabearen eta epelkeriaren laguntzaz, gizartea behartu lezaketena gora-behera bitxiak jasatera.

Gizarte demokratikoetan, gutxiengo txiki batzuek bakarrik desiratzen dituzte iraultzak; baina gutxiengoek egin ditzakete batzuetan.

Nik ez dut esaten nazio demokratikoak iraultzetatik libre daudenik; diodana da nazio horien gizarte-egoerak ez dituela behintzat horietara eramaten, baizik eta urrundu gehiago egiten dituela. Herri demokratikoak, beren kasara utziak, ez dira erraz murgiltzen abentura handietan; oharkabean herrestatzen dituzte iraultzetarantz, jasan egiten dituzte batzuetan, baina ez dituzte berek egiten. Eta gaineratuko dut, jakintzargiak eta esperientzia lortu ahal izan badituzte, iraultzak egiten ere ez dutela uzten.

Ongi dakit gai honetan erakunde publikoek berek ere asko egin dezaketela, aurrera bultza egin edo atzera euts diezaiekete gizarte-egoeratik sortzen diren joerei. Beraz, ez dut esaten, berriro diot, herri bat iraultzetatik libre dagoenik bere baitan baldintzak berdinak direlako arrazoi bakarragatik; baina uste dut, horrelako herri baten erakundeak nolanahikoak izanda ere, iraultza handiak uste baino askoz bortizkeria txikiagokoak eta bakanagoak izango direla bertan; eta erraz begiztatzen dut egoera politiko bat, berdintasunarekin konbinatuz, gizarte geldikorrago bihurtuko lukeena gure Mendebaldean inoiz izan dena baino.

Egitateei buruz esan berri dudana ideiei ere aplikatzen zaie neurri batean.
Bi gauza dira harrigarri Estatu Batuetan: giza ekintza gehienen mugikortasun handia eta zenbait printzipioren finkotasun berezia. Jendea etengabe mugitzen da, giza espirituak ia mugigaitz ematen du.

Amerikako lurretan iritzi bat hedatu eta behin sustraitu ondoren, esan liteke ez dagoela munduan botererik hori erauzteko gai denik. Estatu Batuetan erlijio-, filosofi, moral- eta politika-arloko doktrina orokorrak ez dira aldatzen, edota behintzat lan ezkutu eta sarritan sumagaitzaren ondoren bakarrik aldatzen dira; aurreiritzi zabarrenak berak ere imajinaezineko gelditasunez aldatzen dira hamaika aldiz errepikaturiko gauza eta pertsona arteko igurzketa horien erdian.

Entzuten dut sentimenduz eta pentsaeraz une oro aldatzea dagokiela demokrazien izaera eta azturei. Hori izan daiteke egia nazio demokratiko txikietan, antzinakoak bezalakoetan, haietan guztiak herriko plazan bildu eta hizlari baten gogara mugitzen baitziren gero. Nik ez dut antzeko ezer ikusi gure ozeanoaren beste aldeko ertzetan dagoen herri demokratiko handiaren baitan. Estatu Batuetan harritu nauena zera da: zein nekeza gertatzen den zerturiko ideiaren bati buruz gehiengoa desengainatzea, edota bereganatu duen norbaitengandik ideia hori apartatzea. Idazkiek eta hitzaldiek ez dute horretan arrakastarik izaten; esperientziak bakarrik lortzen du hori; hala ere, batzuetan errepikatu egin behar izaten da.

Hau harrigarria gertatzen da lehen begiratuan, baina azterketa arretatsuagoak esplika dezake.

Ez dut uste imajinatu bezain erraza denik herri demokratiko batean aurreiritziak erauztea, sineskizunak aldatzea, garai batean ezarritakoen ordez printzipio erlijioso, filosofiko, politiko eta moralak jartzea; hitz batean, adimenetan iraultza handiak sarri egitea. Eta ez da giza espiritua geldi egoten delako; etengabe mugitzen da; baina, batez ere, printzipio ezagunen ondorioak mugagabeki bariatzera eta berriak aurkitzera dedikatzen da, eta ez printzipio berriak bilatzera. Arintasunez bihurtzen da bere buruari begira, ahalegin bizkor eta zuzenaren bidez aurrera egin baino errazago; pixkanaka bere esparrua hedatzen du mugimendu txiki etengabe eta oldartsuen bidez; ez du bat-batean desplazatzen.

Eskubidez, heziketaz, aberastasunez berdinak direnek eta, dena hitz batean esateko, antzeko egoeran daudenek ezberdintasun handirik gabeko premia, aztura eta gustuak izaten dituzte. Gauzak ikuspegi beretsutik hartzen dituztenez, haien espirituek ere ideia antzekoetarantz jotzen dute berez, eta, bakoitzak bere garaikideengandik aldendu eta bere ideia propioak zertu ditzakeen arren, azkenerako guztiak bat etortzen dira, jakin gabe eta nahi izan gabe, zenbait iritzi komunetan.

Zenbat eta arretatsuago aztertu berdintasunak adimenean duen eragina, orduan eta gehiago komentzitzen naiz gu ikusten ari garen anarkia intelektuala ez dela, askok uste duten bezala, herri demokratikoen egoera naturala. Uste dut beraien gaztetasunari zor zaion ezbehar berezitzat hartu behar dela areago, eta trantsizio-garai honetan bakarrik agertzen dela, non gizakiek apurtuak baitituzte jada elkarren arteko lokarri zaharrak, eta oraindik oso ezberdinak baitira bere jatorri, heziketa eta ohituretan; horrela, ideia, joera eta gustu oso ezberdinak gorde dituztelarik, jadanik ezerk ez die horiek aitortzea eragozten. Gizonen iritzi nagusiak antzeko bihurtzen dira gizarte-baldintzak antzekotu ahala. Hori iruditzen zait egitate orokor eta iraunkorra; gainerakoa ustekabekoa da eta pasakorra.

Iruditzen zait nekez gertatuko dela, gizarte demokratikoaren baitan, gizon batek, kolpe bakar batean, ideia-sistema bat asmatzea, bere garaikideek onarturikorik oso urruti dagoena; eta, horrelako berritzailerik agertuko balitz, pentsatzen dut nekez lortuko lukeela inork entzutea, eta are gutxiago inork sinestea.

Baldintzak ia berdinak direnean, pertsonak ez du erraz onartzen beste batek esandakora makurtzea. Guztiek oso hurbiletik ikusten dutenez elkar, gauza berak elkarrekin ikasi dituztenez eta bizimodu bera dutenez, berez ez dute izaten beraien arteko bat gidaritzat hartu eta hari itsu-itsuan jarraitzeko joerarik. Antzekoari edo parekideari apenas sinesten zaion bere hitzagatik.

Nazio demokratikoetan ez da zenbait gizabanakoren jakintzargiekiko konfiantza bakarrik ahultzen; beste nonbait esan dudan bezala, edozein gizonek beste guztien gain lor dezakeen nagusitasun intelektualaren ideia orokorra ere berandura gabe iluntzen da.

Jendeak bere artean antz handiagoa duen neurrian, adimenen berdintasunaren dogma pixkanaka adierazten da haien sineskizunetan, eta zailago bihurtzen da berritzailearentzat, nornahi izanda ere, herriaren espirituaren gain botere handia lortu eta horretaz baliatzea. Antzeko gizarteetan, bat-bateko iraultza intelektualak bakanak izaten dira, beraz; zeren eta, munduko historiari begiratu bat ematen bazaio, ikusten da arrazoiketaren indarrak izen baten autoritateak baino gutxiago sortzen dituela giza iritzien aldaketa handi eta bizkorrak.

Ohartu, bestalde, gizarte demokratikoetan bizi direnak ez daudenez inolako lokarriz elkartuak, haietako bakoitza konbentzitu behar izaten dela. Gizarte aristokratikoetan, berriz, aski izaten da batzuen espirituan eragitea; beste guztiek hari jarraitzen diote. Lutero berdintasun-garaian bizi izan balitz eta jaunak eta printzeak ez balitu izan entzule, zailago gertatuko zitzaiokeen Europaren itxura aldatzea.

Demokrazietako gizonak ez daude berez oso konbentzituta beren iritzien ziurtasunaz, ezta oso tinko ere beren sineskizunetan; sarri izaten dituzte zalantzak, bere ikuspegitik inork argitu ezin dizkienak. Horrelako garaietan batzuetan gertatzen da giza espiritua gogoz aldatuko litzatekeela lekuz; baina, ezerk ez duenez indartsu bultzatzen, ezta gidatzen ere, bere buruaren gian kulunkatzen da eta ez da mugitzen[13].

Herri demokratiko baten konfiantza lortu eta gero, artean arazo handia izaten da bere arreta lortzea. Oso zaila izaten da demokrazietan bizi direnei entzunaraztea, berei buruz ez bazaie hitz egiten behintzat. Ez dute entzuten esaten zaiena, beti oso arduraturik ibiltzen baitira egiten dutenaz.

Izan ere, jende astitsu gutxi egoten da nazio demokratikoetan. Horietan mugimenduaren eta zarataren artean igarotzen da bizitza, eta gizonek, hain lanpeturik daudenez zerbait egiten, asti gutxi izaten dute pentsatzeko. Batez ere azpimarratu nahi dudana hau da: okupaturik egoteaz gain, grinaz hartzen dituztela beren okupazioak. Beti dihardute zerbaitetan, eta ekintzetariko bakoitzak zurrupatzen die arima; negozioetan jartzen duten garrak ideiengatik sutzea eragozten die.

Pentsatzen dut oso zaila dela herri demokratiko baten gogo-berotasuna piztea, beren bizitzako eguneroko praktikarekin erlazio nabari, zuzen eta berehalakorik ez deun edozein teoriaren alde. Horrelako herri batek ez ditu erraz abandonatzen bere antzinako sineskizunak. Zeren eta gogo-berotasuna izaten baita

---

[13] Adimenaren iraultza handietarako gizarte-egoerarik mesedegarriena zein den bilatzen badut, gertatzen zait hiritar guztien erabateko berdintasunaren eta klase-banaketa absolutuaren bitarteko punturen batean aurkitzen dela.
Kasta-erregimenaren menpean, jendeak postuz aldatu gabe igarotzen dira belaunaldiak; batzuek ez dute ezer gehiago espero, eta besteek ez dute ezer hoberik espero. Irudimena lokartu egiten da isiltasun eta mugiezintasun orokor horren erdian, eta mugimenduaren ideia bera ere ez da giza espirituan sartzen. Klaseak abolitu direnean eta baldintzak ia berdinak izatera iritsi direnean, gizaki guztiak etengabe astintzen dira, baina horietako bakoitza isolatua, independentea eta ahula da. Azken egoera hau oso ezberdina da lehenengoaren aldean; hala ere, antzekoa da puntu batean. Giza espirituaren iraultza handiak oso bakanak izaten dira bietan.
Baina herrien historiaren bi mutur horien artean, bitarteko aro bat egoten da, garai aintzatsu eta zurrunbilotsua, non baldintzak ez diren adimena lokartzeko bezain finkoak, eta bai aski ezberdinak gizakiek gizakiek elkarren espirituaren gain botere handia zertzeko, eta batzuek guztien sineskizunak aldatu ahal izateko. Orduan sortzen dira erreformatzaile handiak, eta ideia berriek bat-batean aldatzen dute munduaren aurpegia.

irekitako bideetatik kanpo giza espiritua abiarazten duena eta iraultza intelektual handiak nahiz iraultza politiko handiak eragiten dituena.

Honela, herri demokratikoek ez dute ez astirik, ez gusturik, iritzi berrien bila joateko. Nahiz eta zalantzak sortu dauzkatenei buruz, gorde egiten dituzte hala ere, horiek aldatzeko denbora eta azterlan gehiegi beharko bailukete; gorde egiten dituzte, ez ziurtzat dauzkatelako, ezarritzat baizik.

Bada oraindik beste arrazoirik, eta indartsuagorik, herri demokratiko baten doktrinetan aldaketa handia erraz gauzatzea eragozten duenik. Jada adierazi dut liburu honen hasieran.

Horrelako herri baten baitan eragin indibidualak ahulak eta ia ezdeusak badira, gizabanako bakoitzaren espirituan masak zertzen duen agintea oso handia izaten da. Horren arrazoiak eman ditut beste nonbait. Orain esan nahi dudana zera da, okerra litzatekeela pentsatzea hori gobernu-formaren menpe bakarrik dagoela eta gehiengoak bere aginte intelektuala galduko lukeela botere politikoarekin batera.

Aristokrazietan, gizonek beren handitasuna eta indar propioa izaten dituzte sarri. Beren hurkoetako gehienekin kontraesanean aurkitzen direnean beren baitara bihurtzen dira, elkarri eusten diote eta elkar kontsolatzen. Ez da gauza bera gertatzen herri demokratikoetan. Hauetan, arnasten den airea bezain beharrezkoa dirudi onginahi publikoak, eta, nolabait esateko, ez-bizitzea da masarekin desakordioan egotea. Honek ez dauka legeez baliatu beharrik bera bezala pentsatzen ez dutenak makurrarazteko. Aski zaio horiek gaitzestea. Isolamendu eta ezintasunaren sentimenduak berehala abailtzen eta etsiarazten ditu.

Baldintzak berdinak diren kasu guztietan, iritzi orokorrak ikaragarrizko pisua du gizabanako bakoitzaren espirituan; berak biltzen, gidatzen eta zapaltzen du. Honek zerikusi handiagoa du gizartearen eraketarekin lege politikoekin baino. Gizaki guztiak elkarren antzekoago diren neurrian, bakoitza gero eta ahulago sentitzen da guztien aurrean. Besteen gain-gainetik jasotzen eta bereizten duen ezer aurkitzen ez duenez, bere buruaz mesfidatzen da erasotzen diotenean; bere indarrarekiko dudaz gain, bere eskubidea ere dudan jartzen du, eta oker dabilela onartzeko prest egoten da, gehiengoak horrela esaten duenean. Gehiengoak ez dauka behartu beharrik; konbentzitu egiten du.

Gizarte demokratiko baten botereak nolanahi antolatzen eta orekatzen direla ere, oso zaila izango da beti masak errefusatzen duena sinestea, eta hark gaitzesten duena aitortzea.
Honek ikaragarri jokatzen du sineskizunen egonkortasunaren alde.

Iritzi batek, herri demokratiko batean finkatu denean eta gehiengoaren espirituan ezarri denean, gero bere kabuz irauten du eta ahaleginik gabe betikotzen, inork ez baitio eraso egiten. Hasieran faltsutzat errefusatu zutenek azkenerako onartu egiten dute iritzi orokortzat, eta bihotzaren barrenean erasotzen jarraitzen dutenek ez dute ezer agertzen; kontuz ibiltzen dira borroka arriskutsu eta alferrean ez murgiltzeko.

Egia da, herri demokratiko baten gehiengoak iritziz aldatzen duenean, adimen-munduan iraultza arraro eta bat-batekoak eragin ditzakeela bere gogara; baina oso zaila da bere iritzia aldatzea, eta ia hori bezain zaila aldatu dela konstatatzea.

Batzuetan gertatzen da denborak, gertakariek edo adimenen ahalegin indibidual eta solidarioak pixkanaka hautsi edo suntsitu egiten dutela sineskizun bat, kanpora ezer agertu gabe. Ez zaio agerian erasotzen. Jendea ez da biltzen berorri gerra egiteko. Bere jarraitzaileek banan-banan bakarrik uzten dute, zaratarik gabe; baina batzuen batzuek egunero uzten dute bertan behera, azkenean gutxiengoa bakarrik atxikitzen zaiolarik sineskizun horri.

Egoera horretan, nagusi da oraindik.

Etsaiek isilik jarraitzen dutenez, edo beren pentsamenduak ezkutuan bakarrik komunikatzen dituztenez, luzaroan egoten dira iraultza handi bat gauzatu dela ziurtatu ezinik, eta, zalantzaren aurrean, mugitu gabe gelditzen dira. Beha egon eta isilik geratzen dira. Gehiengoak ez du jada sinesten, baina sinesten duen itxurak egiten ditu, eta iritzi publikoaren mamu hutsal hori aski da berritzaileak geldiarazteko, eta isiltasunean eta errespetuan edukitzeko.

Bizitzea egokitu zaigun aro honek jendearen espirituan aldaketarik bizkorrenak zertzen ikusi du. Hala ere, gerta liteke giza iritzi nagusiak laster egonkorragoak izatea gure historiaren aurreko mendeetan baino; garai hori ez da iritsi, baina hurbiltzen ari da agian.

Herri demokratikoen premiak eta berezko joerak hurbilagotik aztertzen ditudan neurrian, konbentzitzen naiz, noizbait berdintasuna era orokor eta iraunkorrean ezartzen bada munduan, iraultza intelektual eta politiko handiak uste baino zailagoak eta bakanagoak bihurtuko direla.

Demokrazietako jendea beti egonezinean, ziurtasunik gabe, irrikatsu, borondatez eta lekuz aldatzeko prest agertzen denez, beren legeak bat-batean abolituko dituztela pentsatzen da, sineskizun berriak onartu eta ohitura berriak bereganatuko dituztela. Ez da pentsatzen berdintasunak jendea aldaketetara eramaten badu, sortarazten dizkion interes eta gustuek egonkortasuna behar dutela asebetetzeko; jendeari bultza egiten dio eta, aldi berean, geldiarazi; akuilatu eta lurrari lotu; desirak pizten dizkio eta indarra mugatzen.

Hori da lehen begiratuan ikusten ez dena. Demokrazian hiritarrak elkarren artean banatzen dituzten grinak beren kabuz agertzen dira. Baina lehen begiratuan ez da ikusten horiei eusten dien eta elkartzen dituen indar ezkutua.

Ausartuko ote naiz esatera inguratzen nauten hondakinen erdian? Etorkizuneko belaunaldientzako gauzarik beldurgarrienak ez zaizkit iraultzak iruditzen.

Hiritarrek etxeko interes txikien esparruan gero eta estuago ixten eta bertan atseden gabe mugitzen jarraitzen badute, pentsa daiteke azkenerako sentiezin bihurtuko direla herriak astindu –baina baita garatu eta berritu- ohi dituzten emozio publiko eta ahaltsu horiekiko. Jabetza hain mugikor bihurtzen ikusten dudanean eta jabetzaren maitasuna hain egonezin eta sutsu, beldurtzen nau pentsatzeak jendea ez ote den iritsiko teoria berri oro arriskutzat hartzera, berrikuntza oro arazo gogaikarritzat, gizarte-aurrerapen oro iraultzarako lehen urrastzat, eta erabat uko egingo ote dion mugitzeari arrakasta eramango duten beldurrez. Beldur naizela aitortu behar dut, azkenean erabat harrapatuko ote dituen oraingo gozamenen maitasun ziztrinak, desagertu egingo ote den beren eta ondorengoen etorkizunarekiko interesa, eta nahiago izango ote duten nagi-nagi beren patuari jarraitu, behar izanez gero patu hori berbideratzeko ahalegin bat-bateko eta kementsua egin baino.

Uste da gizarte berriak itxuraz aldatzen direla egunero, baina ni beldur naiz azkenean ez ote diren aldatu gabe erakunde, aurreiritzi eta ohitura berberetan finkatuegi gelditukо; horrela gizadia gelditu eta mugatu egingo litzateke; espiritua beti bere gainera itzuliko litzateke ideia berririk sortu gabe, gizakia ahitu, mugimendu bakarti eta antzuetan; eta gizadiak, etengabe mugituz, ez luke aurrera egingo.

XXII

Zergatik berez herri demokratikoek bakea nahi izaten duten eta armada demokratikoek gerra

Herri demokratikoak iraultzetatik urruntzen dituzten interes berek, beldur berek, grina berek urrunarazten dituzte gerretatik ere; espiritu militarra eta espiritu iraultzailea aldi berean ahultzen dira eta kausa berberen ondorioz.

Bakezale diren jabeen kopuru beti hazkorra, aberastasun higigarriaren garapena gerrak hain bizkor irensten duena, ohituren mantsotasuna, bihozberatusana, berdintasunak errukirako sortzen duen joera, arma artean sortzen diren emozio poetiko eta bortitzekiko sentigaitz bihurtzen duen buru-hoztasuna, kausa horiek guztiak batzen dira espiritu militarra iraungitzeko.

Nire ustez, onar daiteke arau orokor eta iraunkortzat, herri zibilizatuetan gerra-grinak bakanagoak eta motelagoak izaten direla gizarte-baldintzak berdindu ahala.

Gerra, hala ere, herri guztietan gerta daitekeen zerbait da, herri demokratikoetan nahiz besteetan. Nolanahikoa izanik ere nazio horiek duten bake-zaletasuna, prest egon behar dute gerrari kontra egiteko, edo, beste hitz batzuekin esanda, armada bat edukitzeko.

Zoriak, Estatu Batuetako biztanleen alde hain gauza bereziak egin dituenak, basa eremu baten erdian jarri ditu, non, nolabait esateko, ez duten auzokorik. Milaka soldadu batzuk aski dituzte, baina hau Amerikan ezaugarri bat da, ez demokraziarena.

Gizarte-baldintzen berdintasunak, ohiturek eta hauen ondoriozko erakundeek ez dute herri demokratiko bat armadak eduki beharretik libratzen, eta armada horiek eragin handia zertzen dute beti haien zorian. Beraz, armadak osatzen dituztenen berezko joerak zein diren ikertzea axola zaigu, batez ere.

Herri aristokratikoetan, gizarte-maila jaiotzak bakarrik erabakitzen duenetan batez ere, desberdintasuna armadan nahiz nazioan aurkitzen da; ofiziala noblea da, soldadua jopua. Bata agintzera deitua dago derrigorrez, bestea obeditzera. Armada aristokratikoetan, soldaduaren gutiziak oso muga estuak ditu, beraz.

Ofizialena ere da mugagabea.

Gorputz aristokratiko bat ez da hierarkiaren parte bakarrik; beti eramaten du hierarkia bere baitan ere; osatzen duten kideak elkarren gainean kokatuta egoten dira, aldatzen ez den era jakin batean. Batzuk jaiotzaz erregimentuari agintzeko izaten dira berez, eta beste batzuk, konpainiari; beren itxaropenen puntu goren horietara iritsitakoan, gelditu egiten dira beren kabuz eta pozik gelditzen dira beren zoriarekin.

Lehenik, aristokrazietan bada kausa handi bat ofizialari aurrera egiteko gogoa epeltzen diona.

Herri aristokratikoetan, ofizialak, armadan duen mailaz aparte, goiko maila izaten du gizartean ere; bere ikuspegitik, lehena ez da ia bigarrenaren akzesorio bat baizik izaten; nobleak, armen karrera hartzen duenean, bere gutiziari gutxiago obeditzen dio jaiotzak ezartzen dion nolabaiteko betebeharrari baino. Armadan sartzen bada, bere gaztaroko urte astitsuak ohorez erabiltzeko sartzen da, eta bere etxean eta antzekoen artean bizitza militarraren oroitzapen ohoretsuak eduki ahal izateko; baina helburu nagusia ez da ondasunak, begiramena eta boterea lortzea, abantaila hauek bai baititu berez ere, eta etxetik irten gabe gozatzen du horietaz.

Armada demokratikoetan, soldadu guztiak bilaka daitezke ofizial, eta honek aurrera egiteko gogoa orokortzen du eta ia infinituraino zabaltzen gutizia militarraren mugak.

Bestalde, ofizialak ez du ikusten berez eta derrigorrez ezerk gradu batean gerarazten duenik beste baino gehiago, eta gradu bakoitzak ikaragarrizko balioa du haren ikuspegitik, gizartean duen maila armadan duen mailaren araberakoa izaten baitu ia beti.
Herri demokratikoetan, sarri gertatzen da ofizialak ez izatea beste ondasunik bere soldata baizik, eta ezin du begirunerik espero izan bere ohore militarrengatik baizik. Funtzioz aldatzen den bakoitzean, aberastasunez ere aldatu egiten da, eta beste gizon bat da, nolabait ere. Armada aristokratikoetan akzesorioa zen zerbait, hemen nagusiena, guztia, existentzia bera bilakatu da horrela.

Antzinako monarkia frantsesaren menpean, noblezia titulua bakarrik ematen zitzaien ofizialei. Gaur egun, titulu militarra bakarrik ematen zaie. Lengoaia-formen aldaketa txiki hau aski da adierazteko iraultza handia zertu dela gizartearen eta armadaren eraketan.

Armada demokratikoetan, goranahia ia unibertsala da; sutsua, tematia, etengabea da; beste desira guztiekin hazten da, eta bizitzarekin bakarrik iraungitzen da. Nolanahi ere, erraz ikusten da, munduko armada guztien artean, gorakadak armada demokratikoetan izango direla mantsoenak bake-garaian. Graduazioen kopurua berez mugatua izanik, lehiakideen kopurua ia zenbatezina, eta berdintasunaren lege zorrotza guztien gain egonik, inork ezin du aurrerapen bizkorrik egin, eta asko ezin dira lekuz mugitu. Honela, aurrera egin beharra beste inon baino handiagoa da, baina horretarako erraztasuna txikiagoa.

Armada demokratikoan dauden gutiziatsu guztiek, beraz, sutsu nahi dute gerra, gerrak husten baititu postuak, eta azkenean antzinatasun-eskubidea, demokraziari berezko zaion pribilegio bakarra, hausteko aukera ematen du.

Ondorio bitxi batera iristen gara honela; alegia, armada guztietatik, armada demokratikoak dira gerra sutsuen desiratzen dutenak, eta, herrien artean, herri demokratikoak dira bakea gehien maite dutenak; eta gauza zeharo ezohiko bihurtzen duena zera da, berdintasuna dela aurkako bi ondorio horiek aldi berean eragiten dituena.

Hiritarrek, berdinak izanik, egunero sentitzen dute desira, eta aukera ikusten dute, beren egoera aldatu eta ongizatea areagotzeko. Horrek bakea maitatzera bultzatzen ditu, industriari aurrera eragin eta bakoitzari aukera ematen baitio bere eginkizun txikiak lasai gauzatzeko; eta, bestalde, berdintasun horrek, armen karreran dabiltzanen begietara ohore militarren balorea areagotzean eta ohore horiek guztien eskueran jartzean, gudu-zelaiak ametsarazten dizkie soldaduei. Bi aldeetan, bihotzaren egonezina berdina da, gozamen-zaletasuna ere aseezina bietan, gutizia ere berdina; asetzeko bidea bakarrik da ezberdina.

Nazioaren eta armadaren jarrera aurkako horiek arrisku handiak pasarazten dizkiete gizarte demokratikoei.

Herri batek espiritu militarra galtzen duenean, karrera militarrak berehala uzten dio ohoratua izateari, eta gerra-gizonak funtzionari publikoen azken mailaraino jausten dira. Jadanik gutxi estimatzen dituzte eta ez dituzte ulertzen. Aristokrazi mendeetan ikusten denaren kontrakoa gertatzen da orduan. Armadan ez dira garrantzi handieneko hiritarrak sartzen, arruntenak baizik. Besterik ezin duenak heltzen dio gutizia militarrari. Horrek gurpil zoroa sortzen du eta nekeza da hortik irtetea. Nazioko eliteak baztertu egiten du karrera militarra, karrera hori ez delako ohoretsua; eta ez da ohoretsua, nazioko elitea ez delako jada hor sartzen.

Ez da, beraz, harritzekoa armada demokratikoak sarri egonezinik, marmarti eta kexati samar agertzen badira beren zoriaz, nahiz eta beraien artean egoera fisikoa normalean askoz gozoagoa izan beste guztietan baino, eta diziplina ez hain zurruna. Soldadua posizio kaskarragoan sentitzen da, eta bere harrotasun zaurituak azkenean gerrarako gustua ematen dio –bera beharrezkotzat hartuko duen gerrarako, alegia-, edo iraultza-zaletasuna, iraultzetan, armak eskuetan dituela, espero izaten duelarik ukatzen zaizkion eragin politikoa eta begiramen indibiduala konkistatuko dituela.

Armada demokratikoen osaerak oso beldurgarri bihurtzen du azken arrisku hau.

Gizarte demokratikoan ia hiritar guztiek dituzte iraunarazi nahi dituzten jabetzak, baina armada demokratikoek normalean proletarioak dituzte gidari. Eta hauetako gehienek zer galdu gutxi dute matxinada zibiletan. Nazioaren gehiengoak askoz beldur handiagoa die iraultzei aristokrazi mendeetan baino; armada-buruek, berriz, askoz beldur txikiagoa.

Gainera, lehen esan dudan bezala, herri demokratikoetan hiritarrik aberatsen, eskolatuen eta gaituenak ia sartzen ez direnez karrera militarrean, gertatzen da azkenerako armadak oro har nazio txiki bat osatzen duela aparte, non buru-argitasuna ez den hain zabala eta bai azturak zabarragoak nazio handian baino. Nolanahi ere, zibilizatu gabeko nazio txiki honek dauzka armak, eta berak bakarrik daki horietaz baliatzen.

Izan ere, armadaren izpiritu militar eta zurrunbilotsuak herri demokratikoei pasarazten dien arriskua areagotzen duena hiritarren umore baketsua izaten da; ez dago ezer arriskutsuagorik gerrazale ez den herriaren baitan kokaturiko armada baino; honelakoetan hiritar guztiek lasaitasunari dioten maitasun gehiegizkoak konstituzioa soldaduen menpe jartzen du egunero.

Beraz, oro har esan daiteke, herri demokratikoek beren interes eta joerengatik berez bakerantz jotzen badute ere, beraien armadek gerra eta iraultzetarantz erakartzen dituztela etengabe.

Iraultza militarrak, aristokrazietan ia inoiz beldurgarri ez direnak, beti dira beldurgarri nazio demokratikoetan. Arrisku horiek beraien etorkizunak gorde ditzakeen arriskutsuenen artean jarri behar dira beti; estatu-gizonek horiei erremedioren bat aurkitzen saiatu behar dute atsedenik gabe.

Armadaren gutizia egonezinagatik nazio bat bere baitan atsekabetua sentitzen denean, gutizia ezeroso horri helburutzat gerra ematea izaten da lehen pentsamendua.

Ez dut gaizki-esaka jardun nahi gerraz; gerrak ia beti handitu egiten du herriaren pentsamendua eta bihotza goratzen dio. Kasu batzuetan berak bakarrik geldiaraz dezake berdintasunak berez sortarazten dituen joera batzuen gehiegizko garapena, eta batzuetan beharrezkotzat jo behar da gizarte demokratikoek jasaten dituzten zenbait gaitz zaharren aurrean.

Gerrak abantaila handiak ditu; baina ez da harrotu behar, aipatu berri dudan arriskua gutxitzen duelako. Momentuz bertan behera uzten du arrisku hori, baina are beldurgarriago itzultzen da gero, armadak askoz pazientzia gutxiagoz jasaten baitu bakea gerra dastatu ondoren. Beti aintza nahi duen herriarentzat bakarrik izango litzateke gerra erremedio bat.

Aurreikusten dudanez, nazio demokratiko handien baitan sortuko diren printze gerlari guztiak ohartuko dira errazago zaiela beren armadarekin garaile izatea, garaipenaren ostean armadari bakean biziaraztea baino. Badira bi gauza herri demokratiko batek beti oso nekez egingo dituenak: gerra hastea eta bukatzea.

Alde batetik, gerrak abantaila bereziak baldin baditu herri demokratikoentzat, beste aldetik, zenbait arrisku ere pasarazten die, aristokraziek pasatu behar izaten ez dituztenak, maila berean behintzat. Horietako bi bakarrik aipatuko ditut.

Gerrak armada asetzen badu ere, bestalde gogait eragin eta sarritan etsiarazi egiten dio bere grina txikiak asetzeko egunero bakea behar duen hiritar-kopuru handi horri. Beraz, eragotzi behar duen desordena beste forma batean sortarazteko arriskua du.

Ez dago gerra luzerik herri demokratiko batean, askatasuna arrisku bizian jartzen ez duenik. Hain zuzen ere, arriskua ez da, garaipen bakoitzaren ostean, jeneral garaileak indarrez jabetu ahal izatea aginte subiranoaz, Sila eta Zesar bezala. Arriskua beste era batekoa da. Gerrak ez ditu beti herri demokratikoak gobernu militarraren menpe jartzen; baina herri horietan halabeharrez ikaragarri gehitzen ditu gobernu zibilaren eskurantzak; ia ezinbestean zentralizatzen du honen eskuetan pertsona guztien zuzendaritza eta gauza guztien erabilera. Nahiz eta bat-batean ez eraman bortxaz despotismorantz, azturen bidez eramaten du eztiki.

Nazio demokratikoaren baitan askatasuna suntsitu nahi duten guztiek jakin behar dute hori lortzeko biderik ziur eta laburrena gerra dela. Hau da zientziaren lehen axioma.

Ofizial eta soldaduen gutizia beldurgarri bihurtzen denean, badirudi erremedio bat agertzen dela berez: beraientzako postuen kopurua gehitzea, horrela armada handituz. Honek momentuko gaitza arindu egiten du, baina are arrisku handiagoan jartzen du etorkizuna.

Armada gehitzeak efektu iraunkorra eragin dezake gizarte aristokratikoan, horrelako gizarteetan gutizia militarra gizon-mota bakar batera mugatua baitago, eta, gizon bakoitzarentzat, muga jakin batean gelditzen da; horrela, irits daiteke gutizia hori sentitzen duten guztiak asetzera gutxi gora-behera.

Baina herri demokratiko batean ez da ezer irabazten armada gehituz, zeren eta gutiziatsuen kopurua era armadaren proportzio berean gehitzen baita beti. Enplegu berriak sortuz gurariak asebete dizkiezuen horien lekua laster hartzen du asebete ezin duzuen jendetza berri batek, eta lehenak ere berriro hasten dira kexatzen; zeren eta demokrazia bateko hiritarren artean dagoen izpiritu-asaldura bera agertzen baita armadan ere; hor ez da gradu jakin bat lortu nahi izaten, beti gora egin baizik. Desirak ez dira oso zabalak, baina etengabe sortzen dira berriro. Beraz, armada gehitzen duen herri demokratikoak ez du gerra-jendearen gutizia momentuz baizik baretzen; baina laster beldurgarriago bihurtzen da, sentitzen dutenak ugariago direlako.

Nire aldetik, pentsatzen dut espiritu egonezin eta zurrunbilotsua armada demokratikoen izaerari berari datxekion gaitza dela, eta uko egin behar zaiola sendatzeari. Demokrazietako legegileek ez dute nahi izan behar gerra-jendeari eutsi eta horiek baretzeko indarra duen erakunde militar bat aurkitzea; alferrikako ahaleginetan ahituko lirateke lortu baino lehen.

Armadaren gaitzei ezin zaie armadan bertan sendabidea aurkitu, herrialde baizik.

Herri demokratikoak nahastearen eta despotismoaren beldur dira berez. Instintu horiek joera hausnartu, inteligente eta egonkor bihurtzea bakarrik da kontua. Hiritarrek askatasunaren erabilera baketsu eta onuragarria egiten ikasi eta horren mesedeak sentitu dituztenean, ordenaren maitasun indartsua berenganatu eta beren borondatez erregelaren menpe jarri direnean, hiritar horiek beroriek, armen karreran sarturik, oharkabean eta gogoz kontra bezala, beren aztura eta ohiturak eramaten dituzte armadara. Nazioaren espiritu orokorrak, armadaren espiritu partikularrean sartuz, egoera militarrak sortarazten dituen iritziak eta desirak moderatzen ditu, edo, iritzi publikoaren indar guztiahaldunaren

bidez, zapaldu egiten ditu. Hiritar ilustratu, ordenatu, irmo eta askeak baldin badituzue, soldadu diziplinatu eta esanekoak ere izango dituzue.

Armadaren espiritu zurrunbilotsua zapalduz, nazioaren baitan askatasun zibilaren espiritua gutxitzera eta zuzenbidearen eta eskubideen ideia iluntzera daraman lege oro bere helburuaren aurka joango litzateke. Tirania militarra ezartzen lagunduko luke, eragozten baino askoz gehiago.

Azken finean, eta egiten dena egiten dela, armada handi bat herri demokratikoaren baitan arrisku handia izango da beti; eta arrisku hori gutxiesteko biderik eraginkorrena armada murriztea izango da; baina herri guztiak ezin dira erremedio horretaz baliatu.

XXIII

Zein den armada demokratikoetan klaserik gerlarien eta iraultzaileena

Armada demokratikoari funtsezkoa zaio oso ugaria izatea, bera hornitzen duen herriarekin konparatuz, behintzat; aurrerago aipatuko ditut zergatiak.

Bestalde, demokrazi garaietan bizi direnek apenas aukeratzen duten karrera militarra.

Beraz, herri demokratikoek laster uko egiten diote borondatezko erreklutamenduari, beharturiko zerrendatzera jotzeko. Beren egoeraren premiak behartzen ditu azken bide hori hartzera, eta erraz aurresan daiteke guztiek hartuko dutela.

Zerbitzu militarra derrigorrezkoa izatean, zama hori bereizketarik gabe eta berdin banatzen da hiritar guztien gain. Hau ere herri horien izaeraren eta berorien idien ondorio beharrezkoa da. Gobernuak gutxi gora-behera nahi duena egin dezake, aldi berean guztiengana zuzentzen bada, behintzat; pisuaren desberdintasunak, eta ez pisuak berak, sortzen du gobernuaren aurkako erresistentzia.

Nolanahi ere, zerbitzu militarra hiritar guztientzat komuna izatean, garbi dago bakoitzak urte-kopuru txikia ematen duela soldadutzan.

Honela, gauzen izaerari dagokio armada behin-behineko egoera izatea soldaduarentzat; nazio aristokratiko gehienetan, ordea, egoera militarra soldaduak bizitza osorako hartzen duen edo ezartzen dioten lanbidea izaten da.

Ondorio handiak ditu honek. Armada demokratikoa osatzen duten soldaduen artean, batzuk bizitza militarrari atxikitzen zaizkio; baina gehienek, soldadutzara gogoz kontra eramanak eta beti prest etxera itzultzeko, ez dute beren burua karrera militarrari serioski lotua ikusten eta handik irtetea besterik ez dute buruan izaten. Hauek ez dituzte karrerak sortarazitako premiak berenganatzen, eta beti erdizka bakarrik konpartitzen dituzte grinak. Makurtzen dira beren eginbehar militarretara, baina arimak bizitza zibilean zituen interes eta desirei lotua jarraitzen du. Ez dut, beraz, armadaren espiritua hartzen; baizik eta armadaren baitara gizartearen espiritua eramaten dute, eta han iraunarazten. Herri demokratikoetan, soldadu arruntek jarraitzen dute hiritar-hiritarrenak izaten; nazio-azturek haien gain izaten dute aginte handiena, eta iritzi publikoak beraien gaien botere handiena. Batez ere, soldaduen bidez sarrarazten da armada demokratikoan herriari berari sortarazi zaizkion askatasunaren maitasuna eta eskubideen begirunea. Nazio aristokratikoetan kontrakoa gertatzen da, azkenerako soldaduek ez baitute ezertxo ere amankomunean izaten beren herrikideekin, eta arrotz bezala, eta sarritan etsai bezala, bizi izaten dira haien artean.

Armada aristokratikoetan, ofiziala izaten da elementu kontserbadorea, ofizialak bakarrik gorde baititu lotura estuak gizarte zibilarekin, eta sekula ez du baztertzen lehen edo geroxeago bere lekua berriro bertan hartzeko nahia; armada demokratikoetan, soldadua izaten da, eta oso antzeko arrazoiengatik.

Aitzitik, sarri gertatzen da armada demokratiko hauetan ofizialak zenbait gustu eta desira bereganatzen duela, nazioarenak ez bezalakoak guztiz. Ulergarria da hau.

Herri demokratikoetan, ofizial bihurtzen denak bizitza zibilarekin lotzen zuten lokarri guztiak apurtzen ditu; betiko irteten da handik eta ez du inolako interesik berriro han sartzeko. Benetako aberria armada du, ez baita ezer han daukan milagatik izan ezik; beraz, armadaren zoriari jarraitzen dio, harekin batera

goratzen edo beheratzen da, eta aurrerantzean harengana bakarrik bideratzen du bere itxaropena. Ofizialaren eta herrialdearen premiak oso desberdinak direnez, gerta daiteke gerra sutsu desiratzea edo iraultza lantzen jardutea, hain zuzen ere, nazioaren gurariri biziena egonkortasuna eta bakea diren une berean.

Hala ere, badira kasuak espiritu gerlari eta urduria berarengan moderatzen dutenak. Herri demokratikoetan gutizia unibertsala eta etengabea bada ere, gutxitan izaten da handia, ikusi dugunez. Nazioko bigarren mailako klaseetatik irten eta armadako maila beherenetatik hasita, ofizial-graduraino iristen den gizonak jada emana du ikaragarrizko urratsa. Gizarte zibilaren baitan zeukanaren aldean goragoko esparru batean hanka jartzea lortu du, eta nazio demokratiko gehienek beti besterenganaezintzat joko dituzten eskubideak lortu ditu[14]. Ahalegin handi horren ondoren, geldi geratzen da erraz, eta bere konkistaz gozatzea amesten du. Daukana arriskuan jartzeko beldurrak moteldu egiten du haren bihotzean ez daukana lortzeko gogoa. Haren aurrerabidea geldiarazten zuen oztoporik lehen eta handiena gainditu ondoren, urduritasun txikiagoarekin etsitzen du martxaren geldotasunaz. Gutiziaren epeltze hori areagotu egiten da graduz igo ahala, edozein ustekabetan zer galdu gehiago baitu. Oker ez banago, armada demokratikoetan burua izango da beti gerra-zaletasuna txikieneko partea, baita iraultza-zaletasuna txikienekoa ere.

Ofizialaz eta soldaduaz esan berri dudana ezin zaio aplikatu, armada guztietan bi horien artean egon ohi den klase ugariari; azpiofizialei buruz ari naiz.

Azpiofizialen klase hau, mende honetara arte historian agertu gabea, aurrerantzean bere papera jokatzera deitua dagoela iruditzen zait.

Ofizialak bezalaxe, azpiofizialak ere hautsi egin ditu bere pentsamenduan sozietate zibilarekin lotzen zuten lokarri guztiak; hark bezalaxe, egoera militarra bere karrera bihurtu du, eta, hark baino gehiago agian, alde horretara bakarrik bideratu ditu bere desira guztiak; baina oraindik ez du lortu, ofizialak bezala, goi-mailako postu tinkorik, bertan atsedena eta arnasa eroso hartu ahal izateko, gorago igotzeko zian betiere.

Bere egitekoen izaeragatik beragatik, ezin baititu aldatu, azpiofiziala beharturik egoten da bizimodu ilun, estu, ezeroso eta prekarioa eramatera. Egoera militarraren arriskuak bakarrik ikusten ditu oraindik. Gabeziak eta obedientzia baino ez du ezagutzen, arriskuak baino ere jasangaitzagoak direnak. Are gehiago sufritzen du oraingo ezbeharrekin, bai baitaki gizartearen eta armadaren eraketak horietatik libratzeko aukera ematen diola; izan ere, egun batetik bestera ofizial bilaka daiteke. Agindu egingo du orduan, ohoreak izango ditu, independentzia, eskubideak, gozamenak, bere itxaropenen helburu hori ikaragarria iruditzeaz gain, erdietsi baino lehen ez du ziurtzat jotzen eskuratuko duela. Bere gradu-maila ez da batere kontraerabakiezina; egunero buruzagien arbitrariotasunaren menpe egoten da erabat; diziplinaren premiek horrela izatea eskatzen dute derrigorrez. Hutsegite arin edo kapritxo batek beti galaraz diezaioke momentu batean hainbat urtetako lan eta ahaleginen emaitza. Gutiziatzen duen gradura iritsi arte, ez du ezer lortu. Orduan bakarrik ematen du karreran sartu dela. Gaztetasunak, premiek, grinek, bere garaiko espirituak, itxaropen eta beldurrek horrela akuilatzen duten gizonaren baitan derrigorrez piztu behar gutizia etsia.

Beraz, azpiofizialak gerra nahi du, beti nahi izaten du kosta ahala kosta, eta gerra ukatzen bazaio, arauen aginpidea eteten duten iraultzak desiratzen ditu, iraultzen erdian espero izaten baitu, nahasmendu eta grina politikoez baliatuz, bere aurreko ofiziala ehizatu eta haren lekua hartzea; ezinezkoa ez da berak iraultza horiek sortaraztea, eragin handia baitu soldaduengan jatorri eta azturen komunitateagatik, nahiz eta grina eta desiretan haien aldean oso ezberdina izan.

Okerra litzateke ofizialaren, azpiofizialaren eta soldaduaren joera ezberdin horiek garai edo herrialde jakin bati dagokiola pentsatzea. Aro guztietan eta nazio demokratiko guztietan agertuko dira.

Armada demokratiko orotan, azpiofiziala izango da beti herrialdearen espiritu baketsu eta erregularra gutxien ordezkatuk duena, eta soldadua ongien ordezkatuko duena. Soldaduak nazio-ohituren indarra edo ahulezia eramango du karrera militarrera; nazioaren benetako irudia erakutsiko du. Nazioa ezjakin eta

[14] Hain zuzen ere, ofizialaren posizioa askoz ziurragoa da herri demokratikoetan besteetan baino. Zenbat eta gutxiago balio izan ofizialak bere kabuz, konparazioz orduan eta baliotsuagoa haren gradua, eta orduan eta bidezko eta beharrezkoago iruditzen zaio legegileari berorren gozamena ziurtatzea.

ahula bada, buruzagiek desordenarantz eramango dute soldadua, oharkabean edota gogoz kontra. Nazioa ilustratu eta kementsua bada, soldaduak berak eutsiko die ordenan.

XXIV

Zerk bihurtzen dituen armada demokratikoak beste armadak baino ahulago kanpainan sartzean eta beldurgarriago gerra luzatzen denean

Bakealdi luzearen ondoren kanpainan sartzen den armada orok menperatua izateko arriskua du; luzaroan gerra egin duen armada orok garaitzeko aukera handia du. Egia hau bereziki aplika dakieke armada demokratikoei.

Aristokrazietan egoera militarra karrera pribilegiatua denez, bake-garaian ere ohoratu egiten da. Talentu, jakintzargi eta gutizia handiko gizonek hartzen dute karrera hori; armada nazioaren mailan dago gauza guztietan; gainetik ere bai, sarri.

Herri demokratikoetan, aitzitik, ikusi dugu nazioko elitea poliki-poliki aldendu egiten dela karrera militarretik, begiramena, boterea eta, batez ere, aberastasuna beste bide batzuetatik bilatzeko. Bake luzearen ondoren –eta garai demokratikoetan bekealdiak luzeak izaten dira-, armada gizartea bera baino kaskarragoa izaten da beti. Eta egoera horretan aurkitzen du gerrak; eta, gerrak aldatzen duen arte, arriskua dago herrialdearentzat eta armadarentzat.

Erakutsi dut armada demokratikoetan eta bake-garaian antzinatasunaren legea zela gora egiteko lege nagusi eta zorrotza. Esan dudan bezala, hau ez da armada horien eraketaren ondorio bakarrik, baita herriaren eraketaren ondorio ere, eta beti aurkituko da.

Gainera, herri horietan ofiziala ez duenez ezer bere posizio militarragatik baizik, eta bere begiramen eta aisetasun guztia hortik ateratzen duenez, ez da armadarik erretiratzen edota ez dute baztertzen adinaren azken-azken muga baizik.

Bi kausa horien ondorioz, atsedenaldi luzearen ostean herri demokratiko batek azkenean armak hartzen baditu, armada-buru guztiak zaharrak izaten dira. Ez naiz ari jeneralez bakarrik, baita menpeko ofizialez ere, hauetako gehienak mugitu gabe egon baitira, edo pausoz pauso bakarrik egin baitute aurrera. Armada demokratiko bat bakealdi luzearen ondoren aztertzen bada, ikusiko da harriduraz soldadu guztiak ia haurrak direla eta buruzagi guztiak gainbeheran daudela; horrela, lehengoei eskarmentua falta zaie, eta bigarrengoei, kemena.

Zorigaitzen kausa handia izaten da hau, gerra ongi zuzentzeko lehen baldintza gaztea izatea baita; ni ez nintzen hori esatera ausartuko, garai modernoetako kapitainik handienak esan ez balu.

Bi kausa hauek ez dute ere berean eragiten armada aristokratikoetan.

Horietan antzinatasun-eskubidez baino gehiago jaiotza-eskubidez egiten denez gora, beti aurkitzen da gradu guztietan gazte-kopuru bat, gorputz eta arimaren lehen kemena gerran jartzen duena.

Gainera, herri aristokratikoetan ohore militarrak bilatzen dituztenek gizarte zibilean posizio ziurtatua dutenez, nekez egoten dira zahartzarora arte armadan itxaroten. Gaztaroko urterik indartsuenak arma-karrera eman ondoren, beren kabuz erretiratzen dira etxean igarotzeko gainerako heltzaroa.

Bakealdi luzeak armada demokratikoak ofizial zaharrez betetzeaz gain, gerrarako batere gai egiten ez dituen gorputz- eta espiritu-azturak ematen dizkie ofizial guztiei. Ohitura demokratikoen giro baketsu eta epelean luzaroan bizi izan den hasieran ez da batere gustura egokitzen gerrak ezartzen dituen lan zakar eta eginbehar latzetara. Arma-zaletasuna erabat galtzen ez badu ere, gutxienez garaitzea eragozten dioten bizierak hartzen ditu.

Herri aristokratikoetan, bizitza zibileko biguntasunak eragin txikiagoa du ohitura militarretan, herri horietan aristokraziak zuzentzen baitu armada. Nolanahi ere, aristokraziak, plazerretan murgildua egon arren, beti izaten du ongizateaz gain beste zenbait grina, eta, gogo onez egiten du bere ongizatearen momentuko sakrifizioa beste grina horiek hobeto asetu ahal izateko. (E)

Erakutsi dut nola, armada demokratikoetan, bake-garaian, oso-oso geldi egiten den aurrera. Hasieran pazientzia gutxiz jasaten dute ofizialek egoera hori; asaldatu, kezkatu eta itxaropena galtzen dute; baina luzarora gehienek etsi egiten dute. Gutizia eta baliabide gehien dutenak irten egiten dira armadatik; besteek, beren gustu eta desirak beren zoriaren kaskartasunera egokituz, azkenerako egoera militarra ikuspegi zibiletik kontsideratzen dute. Gehien baloratzen dutena egoera horrek berekin dituen aisetasuna eta egonkortasuna dira; aberastasun txiki horren ziurtasunean oinarritzen dute etorkizunaren irudi osoa, eta horretaz bakean gozatzea besterik ez dute eskatzen.

Honela, bakealdi luzeak armada demokratikoak ofizial zaharrez betetzeaz gain, sarri zaharren joerak ere ematen dizkie oraindik adinik onenean daudenei.

Erakutsi dut, halaber, nola nazio demokratikoetan, bake-garaian, ohore gutxikoa eta gutxi jarraitua izaten den karrera militarra.

Jendearen arbuio hori zama oso astuna da, armadaren espirituan eragiten duena. Arimak abailduta uzten ditu; eta, azkenean gerra iristen denean, ezin dituzte momentu batean beren malgutasuna eta kemena berreskuratu.

Ahultze moralaren horrelako kausarik ez da ematen armada aristokratikoetan. Ofizialak sekula ez dira gutxietsirik egoten ez beren, ez besteen begietara; zeren eta, beren handitasun militarra gora-behera, handiak baitira berez.

Bakearen eragina ere berean sentiaraziko balitz bi armaden gain, hala ere, emaitzak ezberdinak izango lirateke.

Armada aristokratikoko ofizialei, gerla-espiritua eta arma bidez goratzeko desira galdu dituztenean, artean gelditzen zaie beren ordenaren ohorearekiko nolabaiteko begirunea, eta lehenak izan eta jarraibidea erakusteko aztura zaharra. Baina armada demokratikoko ofizialei, gerra-maitasunik eta gutizia militarrik ez dutenean, ezer ez zaie geratzen.

Pentsatzen dut, beraz, bakealdi luzearen ondoren gerrari ekiten dion herri demokratikoak beste edozeinek baino arrisku handiagoa duela garaitua izateko; baina ez du onartu behar zorigaitzek erraz abailaraz dezaten, armada horren aukerak gehitu egiten baitira gerrak iraun ahala.

Gerrak, luzatuz, hiritar guztiak beren lan baketsuetatik atera eta horien eginkizun txikiei porrot eragin dienean, gertatzen da bakea hainbeste balorarazten zieten grina berberak armetarantz bihurtzen direla. Gerra, industria guztiak suntsitu ondoren, bera bihurtzen da industria handi eta bakarra, eta orduan bertara bakarrik bideratzen dira alde guztietatik berdintasunak sortaraziko desira sutsu eta gutiziatsuak. Horregatik, gudu-zelaietara hainbeste kostata eramaten diren nazio demokratiko horiek beroriek, batzuetan, gauza miragarriak egiten dituzte bertan, lortzen bada azkenean armak eskuetan harraraztea.

Gerrak begirada guztiak gero eta gehiago armadarantz erakartzea lortzen duen neurrian, denbora laburrean ospe handiak eta aberastasun handiak sortzen dituen neurrian, nazioko eliteak armen karrera hartzen du; berez ekinzale, harro eta gerlari diren espiritu guztiek, aristokraziak ez ezik, herrialde osoak sorturikoek, alde horretarantz jotzen dute.

Ohore militarren konkurrentzian sartzen direnen kopurua zenbatezina izanik, eta gerrak zakar bultzatzen duenez bakoitza bere lekura, azkenerako jeneral handiak aurkitzen dira beti. Iraultzak herriarengan eragiten duena eragiten du gerra luze batek armada demokratikoaren baitan. Arauak hautsi eta aparteko gizon guztiak agerrarazten ditu. Bakealdian arimaz eta gorputzez zahartu diren ofizialak baztertu egiten dituzte, edo erretiratu edo hil egiten dira. Haien lekuan jadanik gerrak gogorturiko gazte-pila biltzen da, gerrak zabaldu eta sutu dizkielarik desirak. Hauek handi bihurtu nahi dute kosta ahala kosta eta etengabe; atzetik beste batzuk datoz grina eta desira berberak dituztenak; eta hauen atzetik, beste batzuk, armadaren mugak bakarrik dituztenak. Berdintasunak gutiziaren atea zabaltzen die guztiei, eta heriotzak beren aukera ematen die gutizia guztiei. Heriotzak ilarak irekitzen ditu etengabe, postuak husten, karrera itxi eta zabaltzen.

Bada, bestalde, ohitura, militar eta ohitura demokratikoen artean, gerrak agerian jartzen duen erlazio ezkutu bat.

Demokrazietako gizonek gutiziatzen dituzten ondasunak bizkor lortzeko eta horietaz eroso gozatzeko desira grinatsua izaten dute berez. Horietako gehienek gurtu egiten dute ustekabea eta beldur txikiagoa diote heriotzari nekeari baino. Espiritu horrekin jokatzen dute merkataritza eta industrian; eta espiritu horrek berorrek, gudu-zelaietara eramana, bizia gogotsu arriskatzera eramaten ditu, momentu batean garaipenaren saria eskuratu ahal izateko. Ez dago beste handitasunik herri demokratikoaren irudimena gehiago asetzen duenik handitasun militarra baino, lanik gabe eta bizia bakarrik arriskatuz lortzen den handitasun distiratsu eta bat-batekoa.

Honela, interesak eta gustuek gerratik aldendu arren demokraziako hiritarrak, haien arimako azturek gerra ongi egiteko prestatzen dituzte; soldadu on bihurtzen dira erraz, beren negozio eta ongizatetik atera ahal izan dituztenez gero.

Bakea bereziki kaltegarria bada armada demokratikoentzat, beste armadek sekula ez dituzte abantailak ziurtatzen dizkie gerrak; eta abantaila hauek, hasieran oso nabarmenak ez izan arren, luzarora garaipena emango diete derrigorrez.

Herri aristokratiko batek, nazio demokratiko baten aurka borrokan, ez badu lehen kanpainetan suntsitzea lortzen, beti du menperatua izateko arrisku handia.

XXV

Diziplina armada demokratikoetan

Oso iritzi zabaldua da, herri aristokratikoetan, batez ere, demokrazien baitan dagoen gizarte-berdintasun handiak luzarora soldadua ofizialagandik independente bihurtzen duela, eta diziplinaren lokarria suntsitzen duela.

Ez da zuzena. Izan ere, badira bi diziplina-mota, nahastu behar ez direnak.

Ofiziala noblea denean eta soldadua jopua, bata aberatsa eta bestea behartsua, lehena ilustratua eta indartsua eta bigarrena ezjakin eta ahula, erraza da bi gizon horien artean obedientziaren lokarririk estuena ezartzea. Armadan sartu aurretik, soldadua diziplina militarraren menpe egoten da, nolabait ere; edota, hobeto esanda, diziplina militarra gizarte-morrontzaren perfekzionamendua baino ez da. Armada aristokratikoetan, soldadua aski erraz iristen da gauza guztiekiko axolagabe bezala izatera, buruzagien aginduarekiko izan ezik. Pentsatu gabe jarduten du, gogo-berotasunik gabe izaten du arrakasta eta kexatu gabe hiltzen da. Egoera horretan ez da jada gizona, animalia beldurgarri bat baizik, gerrara zuzendua.

Herri demokratikoek ez dute inoiz espero behar beren soldaduen obedientzia itsua, zehatza, etsia eta beti berdina izatea, herri aristokratikoek nekerik gabe ezartzen badiete ere. Gizartearen egoerak ez du horretarako biderik ematen. Beren abantaila naturalak galtzeko arriskuan jarriko lirateke besteak artifizialki lortu nahi izatean. Herri demokratikoetan, diziplina militarrak ez du arimen hegada askea deusezten saiatu behar; gidatzea baino ez du irrikatu behar; berak sorturiko obedientzia ez da hain zehatza, baina bai oldarkor eta inteligenteagoa. Sustraia obeditzen duenaren borondatean bertan datza; ez da haren senean bakarrik oinarritzen, arrazoian baizik; sarritan estuago bihurtzen da bere kabuz, arriskuak beharrezko egiten duen neurrian. Armada aristokratikoaren diziplina erraz laxatzen da gerran, diziplina hori azturetan oinarritzen baita, eta gerrak aztura horiek nahastu egiten baititu. Aitzitik, armada demokratikoaren diziplina sendotu egiten da arerioaren aurrean, orduan soldadu bakoitzak oso garbi ikusten baitu isildu eta obeditu egin behar duela garaitu ahal izateko.

Gerraren bidez gauzarik harrigarrienak egin dituzten herriek ez dute beste diziplinarik ezagutu aipatzen ari naizena baizik. Antzinakoen artean, gizon askeak eta hiritarrak bakarrik onartzen ziren armadetan; haiek gutxi ezberdintzen ziren elkarren artean, eta ohituta zeuden elkar parekide bezala hartzen. Honen ildotik, esan daiteke antzinako armadak demokratikoak zirela, nahiz eta aristokraziatik irten; armada haietan bazen nolabaiteko anaikidetasun familiar bat ofizialaren eta soldaduaren artean. Horretaz konbentzitzeko aski da Plutarkoren *Kapitain handien bizitza* irakurtzea. Bertan soldaduek etengabe eta askatasun handiz hitz egiten diete jeneralei, eta hauek gogo onez entzuten dituzte soldaduek esanak, baita erantzuten ere. Hitz eta exenpluen bidez gehiago gidatzen dituzte, bortxaz eta zigor bidez baino. Buruzagiak adina lagunak direla esan liteke.

Ez dakit soldadu greziar eta erromatarrek inoiz perfekzionatu dituzten errusiarren puntu bereraino diziplina militarreko xehetasun txikiak; baina horrek ez zion eragotzi Alexandrori Asia konkistatzea, eta Erromari mundua.

XXVI

Gogoeta batzuk gerrari buruz gizarte demokratikoetan

Berdintasunaren printzipioa nazio batean bakarrik ez, baizik eta zenbait auzo-herritan aldi berean garatzen denean, gaur egun Europan gertatzen den bezala, herrialde horietan bizi direnak, hizkuntza, usadio eta lege-ezberdintasuna gora-behera, puntu batean antzeko dira, hala ere: guztiak gerraren beldur dira eta bakearen maitasun berbera dute[15]. Gutiziak edo suminak alferrik armatzen ditu printzeak; halako apatia eta onginahi unibertsal batek otzandu egiten ditu, eurek ez nahi izan arren, eta eskuetatik ezpata erorarazten die. Bakanago bihurtzen dira gerrak.

Berdintasunak, zenbait herrialdetan batera garatu ahala, beraietan bizi direnak aldi berean industria eta merkataritzarantz bultzatzen dituen neurrian, ez bakarrik haien gustuak izaten dira antzekoak, haien interesak ere nahastu eta elkarlotu egiten dira, eta horrela ez dago naziorik bere gain erortzen ez den gaitzik besteei jasanarazten dienik, eta guztiek zoritxar handitzat hartzen dute gerra, garaituarentzat bezain handia ia garailearentzat ere.

Honela, alde batetik, zaila da demokrazi mendeetan herriak borrokara eramatea; baina, beste aldetik, ia ezinezkoa da haietako bik beren artean gerra egitea isolatuki. Guztien interesak hain elkarloturik daudenez, beraien iritzi eta premiak hain antzekoak direnez, inor izango litzateke atsedenean egon besteak asaldatuta dabiltzanean. Hortaz, bakanagoak izaten dira gerrak; baina sortzen direnean, eremu zabalagoa dute aurrean.

Auzoko diren herri demokratikoak ez dira puntu bakar batzuetan bakarrik izaten antzeko, esan dudan bezala; azkenerako ia puntu guztietan izaten dute elkarren antza [16].

Nolanahi ere, herrien antzekotasun honek garrantzi handiko ondorioak ditu gerrari dagokionez.

Neure buruari galdetzen diodanean XV. mendeko konfederazio helbetikoak zergatik eragiten ote zien dardar Europako naziorik handien eta ahaltsuenei, gaur egun beraren boterea erlazio zuzen-zuzenean baitago duen biztanleriarekin, konturatzen naiz suitzarrak inguruko guztien antzeko bihurtu direla, eta hauek

---

[15] Europako herriek gerrari dioten beldurra ez da bakarrik beren artean berdintasunak egin duen aurrerapenagatik egin duen aurrerapenagatik; ez dut uste hori azpimarratu behar diodanik irakurleari. Kausa iraunkor horretatik aparte, badira beste batzuk akzidentalak, oso ahaltsuak direnak. Beste guztien aurretik, Iraultzako eta Inperioko gerrek utzitako neke izugarria aipatuko nuke.

[16] Hau ez da gertatzen herriek gizarte-egoera berbera izateagatik bakarrik, baita gizarte-egoera horrek jendea elkar imitatzera eta bat egitera eramaten duelako ere.
Hiritarrak kasta eta klasetan banaturik daudenean, elkarren artean ezberdinak izateaz gain, ez dute antzeko izateko ez gusturik, ez desirarik izaten; aitzitik, bakoitzak gero eta gehiago jotzen du bere iritziak eta aztura propioak aldatu gabe gordetzera, eta bereari eustera. Indibidualitate espiritua oso bizia izaten da.
Herri batek gizarte-egoera demokratikoa duenean –alegia, bere baitan ez dagoenean ez kastarik, ez klaserik, eta hiritar guztiak gutxi gora-behera berdinak direnean jakintzargi eta ondasunetan-, giza espiritua kontrako zentzuan ibiltzen da. Gizakiek elkarren antza izaten dute, eta, gainera, nolabait ere sufritu egiten dute antzeko ez izatearekin. Bakoitza bereiz dezakeena gordetzeko inolako gogorik gabe, hori galtzea besterik ez dute eskatzen masa komunean bat egiteko, beraien begietara horrek bakarrik ordezkatzen baitu zuzenbidea eta indarra. Indibidualitate espiritua ia suntsiturik dago.
Aristokrazi garaietan, berez antzeko direnek beren artean irudizko desberdintasunak sortu nahi izaten dituzte. Demokrazi garaietan, berez antzeko ez direnek antzeko bihurtzea besterik ez dute eskatzen eta elkarri kopiatzen diote; izan ere, pertsona bakoitzaren espiritua herrestan eramaten du gizadiaren mugimendu orokorrak.
Antzeko zerbait gertatzen da herrien artean. Bi herrik izan dezakete gizarte-egoera aristokratiko berbera eta, hala ere, oso ezberdin eta diferente izan, aristokrazi espirituak indibidualizatzera jotzen baitu. Baina bi auzoherrik ezin dute gizarte-egoera demokratiko berbera izan, berehala antzeko iritzi eta ohiturak ere hartu gabe, demokrazi espirituak gizakiak antzeko bihurtzeko joera baitu.

suitzarren antzeko; horrela, kopurua izanik batzuen eta besteen arteko ezberdintasun bakarra, garaipena gudalosterik handienei dagokie derrigorrez. Europan zertzen ari den iraultza demokratikoaren emaitzetako bat gudu-zelai guztietan kopuruaren indarra nagusiaraztea da, eta nazio txiki guztiak handietan sartzera behartzen dituela, edota azken hauen politikan sartzera, gutxienez.

Kopurua izanik garaipenaren faktore erabakigarria, herri bakoitzak ahalegin guztiak egin behar ditu ahalik eta gizonik gehien gudu-zelaira eramateko.

Beste guztiak baino hobeak ziren gudalosteak banderapean bil zitezkeenean, XVI. mendeko oinezko suitzarrak edo zaldun frantsesak adibidez, ez zen beharrezkoa oso armada handiak eratzea; baina ez da hori gertatzen soldadu guztiak antzekoak direnean.

Premia berri hori sortarazten duen kausa berak ematen ditu asetzeko baliabideak ere. Zeren eta, esan dudan bezala, gizon guztiak berdinak direnean, ahulak izaten dira guztiak. Gizarte-boterea berez askoz indartsuagoa da herri demokratikoetan beste inon baino. Herri hauek, gizonezko guztiei armatara dei egiteko desira sentitzen duten aldi berean, jende hori biltzeko ahalmena ere badute; eta ondorioz, berdintasun-mendeetan espiritu militarra itzali ahala armadak hazi egiten direla ematen du.

Mende horietan, gerra egiteko era ere aldatu egiten da kausa berengatik.

Printzea liburuan Makiavelok dio “askoz zailagoa dela printzea eta baroiak buruzagitzat dituen herria menperatzea, printzeak eta esklaboek gidatzen duten nazioa baino”. Inor ez iraintzeko, jar dezagun funtzionari publikoak esklaboen ordez, eta egia handi bat izango dugu horrela, gure gaiari oso aplikagarria.

Herri aristokratiko handi batentzat oso zaila da bere auzokoak konkistatzea, edota haiek bera konkistatzea. Ezin ditu konkistatu, ezin dituelako inoiz bere indar guztiak bildu eta elkartuta luzaroan eduki; eta besteek ezin dute bera konkistatu, etsaiak edonon aurkitzen dituelako geldiarazten duten erresistentzi gune txikiak. Herrialde aristokratikoan egindako gerra herrialde menditsuan egindakoarekin alderatuko nuke; garaituek beti aurkitzen dute aukera posizio berrietan elkartu eta horietan irmo eusteko.

Hain zuzen ere, kontrakoa ikusten da nazio demokratikoetan.

Hauek erraz eramaten dituzte gudu-zelaira beren indar erabilgarri guztiak, eta nazioa, aberats eta kopurutsua denean, erraz bihurtzen da konkistatzaile; baina, inoiz garaitu eta haren lurraldean sartzen badira, baliabide gutxi gelditzen zaio eta, bere hiriburuaz jabetzera iristen badira, nazioa galdurik dago. Azalpen erraza du honek: hiritar bakoitza indibidualki oso isolatua eta ahula izanik, ezin du nork bere burua defendatu, ezta besteei laguntza punturik eskaini ere. Herrialde demokratikoan Estatua bakarrik da indartsua; Estatuaren indar militarra armadaren suntsipenak murriztuta egonik, eta botere zibila hiriburuaren okupazioak geldiarazita, gainerakoa araurik eta indarrik gabeko jendetza besterik ez da, eraso egiten dion indar antolatuaren aurka borrokatu ezin dena; badakit arriskua gutxitu daitekeela askatasuna zabalduz, eta ondorioz erakunde probintzialak sortuz, baina erremedio hau inoiz ez da nahikoa izango.

Biztanleriak ezingo du orduan gerran jarraitu, eta ziur aski ez du horretan saiatu ere egin nahiko.

Nazio zibilizatuek onarturiko nazioarteko zuzenbidearen arabera, gerren helburua ez da partikularren ondasunez jabetzea, soilik botere politikoaz jabetzea baizik. Oso noizean behin eta bigarren helburua lortzeko bakarrik suntsitzen da jabetza pribatua.

Bere armadaren porrotaren ondoren nazio aristokratiko bat inbaditzen dutenean, nobleek, nahiz eta aldi berean aberatsak izan, nahiago izaten dute indibidualki defendatzen jarraitu makurtu baino; zeren eta, garaile herrialdeko nagusi bihurtuko balitz, botere politikoa kenduko bailieke, eta hori maiteago dute beren ondasunak baino ere. Beraz, nahiago dute borroka konkista baino, hau baita zorigaitzik handiena beraientzat, eta berekin erraz eramaten dute herria ere, herria aspaldidanik ohituta baitago beraiei jarraitu eta obeditzera, eta, bestalde, ezer gutxi baitu gerran arriskatzeko.

Gizarte-baldintzen berdintasuna nagusi den nazioan, aitzitik, hiritar bakoitzak parte txiki bat bakarrik izaten du botere politikoan, eta sarritan batere ez; bestalde, guztiak independenteak dira eta badute ondasunik galtzeko; horregatik, beldur txikiagoa diote konkistari eta askoz handiagoa gerrari herri

aristokratikoetan baino. Oso zaila izango da beti herri demokratikoa armak hartzera bultzatzea, gerra haren lurraldera iristen denean. Horregatik da beharrezkoa herri hauei eskubideak eta espiritu politikoa ematea, aristokrazietan nobleei jardunarazten dieten interesetako batzuk hiritar bakoitzari ere sortarazteko.

Nazio demokratikoetako printzeek eta beste buruzagiek oso gogoan izan behar dute hau: askatasunaren grina eta aztura dira abantailaz borroka egin dezaketenak ongizateren aztura eta grinaren aurka. Ezbeharra gertatuz gero, ez dut uste ezer dagoenik konkistatua izateko hobeto prestatua erakunde librerik gabeko herri demokratikoa baino.

Lehen, soldadu gutxirekin ekiten zitzaion gerrari; gudu txikiak egiten ziren, baina setiaketa luzeak. Orain, gudu handiak egiten dira, eta, oztoporik gabe aurrera egin daitekeen momenturik, hiribururantz jotzen da, gerra kolpe bakar batean bukarazteko.

Diotenez, Napoleonek asmatu zuen sistema berri hau. Baina ez zegoen gizon baten esku, zeinahi izanik hori, horrelako sistema bat sortzea. Napoleoni gerra egiteko era bere garaiko gizartearen egoerak erakutsi zion, eta arrakasta izan zuen oso ongi egokitzen zitzaiolako egoera horri eta bera izan zelako praktikan jarri zuen lehena. Napoleon izan zen armadaren buruan hiriburu guztietako bidea egin zuen lehena. Baina gizarte feudalaren porrotak ireki zion bide hori. Pentsa daiteke aparteko gizon hori hirurehun urte lehenago jaio izan balitz, ez zituzkeela emaitza berberak lortuko bere metodoaz, edota, hobeto esanda, beste metodo bat izango zukeela.

Gerra zibilei buruz hitzerdi bat besterik ez dut esango, beldur bainaiz irakurlearen pazientzia agortzeko.

Atzerriko gerrei buruz esan dudan gehiena are arrazoi handiagoz aplikatzen zaie gerra zibilei. Herrialde demokratikoetan bizi direnek ez dute berez espiritu militarrik. Batzuetan, gogoz kontra gudu-zelaira eramaten dituztenean lortzen dute; baina bere kabuz masan altxatzea eta gerraren zorigaitzetara, eta batez ere gerra zibilak ekartzen dituenetara, bere borondatez arriskatzea, hori demokrazietako jendeak hartzen ez duen irtenbidea izaten da. Hiritarrik abenturarienek bakarrik onartzen dute horrelako abenturatan sartzea; biztanleen gehiengoa geldi geratzen da.

Honek zerbait egin nahi balu ere, ez luke erraz lortuko, ez baitu bere baitan antzinako eraginik ongi ezarririk aurkitzen, horietara makurtu nahi izateko, ezta buruzagi ezagunik ere, pozik ez daudenak bildu, arautu eta gidatzeko; ezta botere nazionalaren azpitik kokaturiko botere politikorik ere, jartzen zaion erresistentzia eraginkorki bultzatuko duenik.

Eskualde demokratikoetan, gehiengoaren indar morala ikaragarria da, eta bere esku dituen indar materialak, proportziorik gabeak, printzipioz beraren kontra bil daitezkeenen aldean. Gehiengoaren aulkian esertzen den alderdiak, haren izenean hitz egin eta beraren botereaz baliatzen delarik, une batean eragozpenik gabe menperatzen ditu erresistentzia partikular guztiak. Sortzeko astirik ere ez die uzten; hazia bera suntsitzen du.

Beraz, herri horietan iraultza armaz egin nahi dutenek ez dute beste biderik gobernuaren makina antolatuaz ezustean jabetzea baino, eta hori esku-kolpe batez gerraz baino hobeto egin daiteke; zeren eta, gerra erregular bat dagoen momenturik, Estatuaren ordezkari den alderdiak garaituko duen ziurtasuna izaten du ia beti.

Gerra zibila sor liteken kasu bakarra, armada zatitu eta zati batek erreboltaren alde egin eta besteak leial jarraitzen duenekoa izango litzateke. Armada gizarte txiki bat da, estu-estu lotua eta oso bizia, denbora batez bere buruarekin aski izateko egoeran dagoena. Gerra odoltsua izan liteke, baina ez luzea, zeren eta, altxatu den armadak bere indarrak erakutsi hutsez edo lehen garaipenaz gobernua bereganatuko bailuke eta gerra bukatu egingo bailitzateke; edota, bestela, borrokari ekin, eta Estatuaren indar antolatua oinarritu gabeko armada-zatia bere kabuz sakabanatuko litzateke edo suntsitua izan berehala.

Beraz, onar daiteke egia orokortzat berdintasun-mendeetan gerra zibilak askoz bakanago eta laburragoak izango direla [17].

[17] Noski, banako nazio demokratikoei buruz ari naiz hemen, eta ez nazio demokratiko konfederatuei buruz. Konfederazioetan, botere nagusia beti, fikzioak gora-behera, estatu-gobernuetan egoten denez eta ez gobernu federalean, gerra zibilak atzerri-gerra disimulatuak baino ez dira izaten.

LAUGARREN ZATIA

IDEIA ETA SENTIMENDU DEMOKRATIKOEK GIZARTE POLITIKOAN ZERTZEN DUTEN ERAGINA

Gaizki beteko nuke liburu honen helburua, berdintasunak iradokitzen dituen ideia eta sentimenduak azaldu ondoren, bukaeran ez banu erakutsiko zein den sentimendu horiek eta ideia horiek gizarteen gobernuan zertu dezaketen eragin orokorra.

Hori lortzeko, emandako urratsetan atzera itzuli beharko dut sarri. Baina irakurleak jarraituko didala espero dut, ezagutzen dituen bideek egia berriren batera eramango dute eta.

I. KAPITULUA

BERDINTASUNAK BEREZ EMATEN DIE GIZAKIEI ERAKUNDE LIBREEN ZALETASUNA

Berdintasunak, gizakiak batzuk besteengandik independente bihurtzen dituelarik, ekintza partikularretan beren borondateari bakarrik jarraitzeko aztura eta gustua harrarazten die. Erabateko independentzia horrek, zeinetaz etengabe gozatzen baitute beren parekideen aurrean eta bizitza pribatuaren erabileran, aginpide oro begi txarrez ikustera eramaten ditu eta askatasun politikoaren ideia eta maitasuna sortarazten dizkie laster. Garai horietan bizi direnak berezko malda batean behera doaz, erakunde askeetarantz daramatzalarik. Har ezazue bat, itsumustuan. Ahal bada, jo ezazue bere jatorrizko joeretara: ohartuko zarete, gobernu ezberdinen artean, lehenengo asmatzen eta gehien preziatzen duena berak buruzagia aukeratu eta egintzak kontrolatzen dituen gobernua dela.

Baldintza-berdintasunak sortzen dituen ondorio politiko guztietatik, independentziaren maitasun hau da begiradak lehenengo erakartzen dituena eta izpiritu beldurtiak gehien izutzen dituena, eta ezin da esan erabat oker dabiltzanik horretan, anarkia beste inon baino beldurgarriagoa baita herrialde demokratikoetan. Hiritarrek elkarren gain inolako eraginik ez dutenez, bakoitza bere lekuan egonarazten duen botere nazionalak huts egiten duen momentuan, ematen du desordenak gainezka egingo duela berehala, eta, hiritar bakoitza bere aldetik aldentzean, gizarte-gorputza bat-batean hauts eginda aurkituko dela.

Hala ere, komentziturik nago anarkia ez dela mende demokratikoek jasan behar duten gaitz nagusia, txikiena baizik.

Izan ere, berdintasunak bi joera sortzen ditu: batak jendea independentziara darama zuzenean eta bat-batean anarkiaraino bultza egin diezaioke; besteak bide luzeago, ezkutuago baina ziurragotik morrontzara darama.

Herriek erraz ikusten dute lehena, eta kontra egiten diote; besteak herrestan eramaten ditu oharkabean; bereziki inporta da agerian jartzea.

Nire aldetik, ez diot inola ere berdintasunari aurpegiratu nahi sortzen duen errebeldia, horrexegatik laudatzen baitut, batez ere. Gizaki bakoitzaren izpiritu eta bihotzaren barrenean independentzia politikoaren nozio ilun eta instintuzko joera hori jartzen duela ikustean miretsi egiten dut, honela erremedioa prestatzen baitio berak sortarazitako gaitzari. Ni alde honetatik atxikitzen natzaio berari.

II. KAPITULUA

HERRI DEMOKRATIKOEN IDEIAK GOBERNU-GAIETAN BOTERE-KONTZENTRAZIOAREN ALDEKOAK DIRA BEREZ

Subiranoaren eta menpekoen artean kokaturiko bigarren mailako botereen ideia berez agertzen zen herri aristokratikoen irudimenean, botere horiek beren baitan zituztelako jaiotzaz, jakintzargiz edo aberastasunez besteen mailatik gorago zeuden pertsona edo familiak, agintzera destinaturik ematen zutenak. Ideia hori berdintasun-mendeetako jendearen izpiritutik kanpo egoten da berez, kontrako arrazoiengatik; artifizialki bakarrik sartu ahal izaten da hor, eta nekez eutsi ahal izaten zaio; aldi berean, pentsatu ere egin gabe zertzen da botere bakar eta zentralaren ideia, hiritar guztiak bere indarrez gida ditzakeena.

Bestalde, politikan, filosofian eta erlijioan bezalaxe, herri demokratikoen adimenak gogotsu hartzen ditu ideia sinple eta orokorrak. Sistema konplikatuek atzera eragiten diote, eta atseginez irudikatzen du nazio handi bat, zeinetan hiritar guztiak eredu bakar baten antzeko eta botere bakar batek gidatuak baitira.

Botere bakar eta zentralaren ideiaren ostean, berdintasun-mendeetan jendearen izpirituari berezkotasun handienaz agertzen zaiona legeria uniformearen ideia da. Bakoitzak ez duenez bere burua auzokoen aldean oso ezberdin ikusten, ez du ulertzen pertsona bati aplika dakiokeen araua zergatik ezin zaien beste guztiei ere berdin aplikatu. Beraz, pribilegiorik txikienek nazka ematen diote haren arrazoimenari. Herri beraren erakunde politikoetan ezberdintasunik txikienek ere mindu egiten dute, eta lege-uniformitatea iruditzen zaio gobernu on baten lehen baldintza.

Aitzitik, arau uniforme baten nozio hori berori, gizarte-gorputzeko kide guztiei berdin ezarria, arrotz gertatzen zaio giza izpirituari aristokrazi mendeetan. Ez du onartzen edota errefusatu egiten du.

Adimenaren joera kontrako horiek azkenerako, batean eta bestean, hain joera itsu eta hain aztura garaitezin bilakatzen direnez, ekintza guztiak gidatzen dituzte, egitate partikularrak gora-behera. Erdi Aroko barietate ikaragarria gora-behera, gizabanako erabat antzekoak aurkitzen ziren batzuetan; horrek ez zuen eragozten legegileak betebehar eta eskubide ezberdinak esleitzea bakoitzari. Aitzitik, gaur egun gobernuak gogor ahalegintzen dira oraindik batere antzik ez duten herriei usadio eta lege berberak ezartzen.

Herri batean gizarte-baldintzak berdindu egiten diren neurrian, gizabanakoek txikiago ematen dute eta gizarteak handiago, edota, hiritar bakoitza, beste guztien antzeko bihurturik, galdu egiten da jendetzan, eta herriaren beraren irudi zabal eta sekulakoa bakarrik ikusten da.

Horrek, berez, demokrazi garaietako jendeari oso iritzi jasoa ematen dio gizartearen pribilegioez eta ideia oso apala gizabanakoaren eskubideez. Erraz onartzen dute bataren interesa oro dela eta bestearena deus ez. Aski gogo onez onartzen dute gizartea ordezkatzen duen botereak askoz ere jakintzargi eta jakinduria gehiago duela osatzen duten gizabanakoetariko edozeinek baino, eta bere eginbeharra, baita bere eskubidea ere, hiritar bakoitzari eskutik heldu eta gidatzea dela.

Gure garaikideak hurbiletik aztertzen baditugu eta beren iritzi politikoen sustrairaino sartzen, aipatu berri ditudan ideietako batzuk aurkituko dira, eta agian harrigarria gertatuko da hain adostasun handia aurkitzea elkarri hain sarri gerra egiten diotenen artean.

Amerikarrek uste dute, estatu bakoitzean, gizarte-botereak herriagandik irten behar duela zuzenean; baina botere hori behin eratuta dagoenean, ez diote, nolabait esateko, mugarik imajinatzen; dena egiteko eskubidea daukala onartzen dute erraz.

Hiri, familia edo gizabanakoei emandako pribilegio bereziei dagokien ideia ere galdua dute. Haien izpirituak sekula ez du pentsatu ezin zaienik lege berbera uniformeki aplikatu estatu bereko zati guztiei eta bertan bizi diren guztiei.

Iritzi horiek beroriek gero eta gehiago ari dira zabaltzen Europan; herri-subiranotasunaren dogma bortizkien ukatzen duten nazioen baitan ere sartzen dira. Hauek, amerikarren aldean, beste jatorri bat ematen diote botereari; baina ezaugarri beretsuekin ikusten dute boterea. Guztietan, bitarteko boterearen nozioa ilundu eta ezabatu egin da. Gizabanako jakin batzuei dagokien eskubidearen ideia bizkor desagertzen da gizakien izpiritutik; gizartearen eskubide ahalguztidunaren eta, nolabait esateko, bakarraren ideiak betetzen du haren lekua. Ideia horiek sustraitu eta hazi egiten dira gizarte-baldintzak berdinago eta jendea antzekoago bilakatzen diren neurrian; berdintasunak sortarazten ditu, eta horiek, berriz, berdintasunaren aurrerapenak bizkortzen dituzte.

Frantzian, non Europako beste edozein herritan baino aurreratuago dagoen mintzagai dudan iraultza, iritzi horiek erabat jabetu dira adimenaz, eta gure alderdien ahotsa arretaz entzuten bada, ikusiko da ez dagoela bakar bat ere onartzen ez dituenik. Gehienek uste dute gobernuak gaizki jokatzen duela; baina guztiek pentsatzen dute etengabe jardun behar duela eta edozertan esku hartu. Elkarri gerra gogorkien egiten diotenek ere bat datoz puntu honetan. Gizarte-boterearen batasuna, ubikuitatea, guztiahala eta arauen uniformitatea dira gaur egun sorturiko sistema politiko guztiak bereizten dituen ezaugarri nagusia. Utopiarik arraroenen barrenean aurkitzen da. Oraindik irudi horiek zertzen ditu giza izpirituak, amets egiten duenean.

Horrelako ideiak espontaneoki zertzen baditu partikularren izpirituak, are errazago agertzen dira printzeen irudimenean.

Europako gizarte-egoera zaharra aldatzen eta desegiten ari den bitartean, subiranoek sineskizun berriak zertzen dituzte beren ahalmen eta betebeharrei buruz; lehen aldiz ulertzen dute eurek ordezkatzen duten botere zentralak bere kabuz, eta plan uniforme baten arabera, arazo guztiak eta gizaki guztiak administra ditzakeela eta administratu behar dituela. Iritzi hau, ausartuko naiz esatera, orain baino lehen Europako erregeek sekula zertu ez dutena, printze horien adimenaren barren-barreneraino sartzen da; eta irmo egoten da bertan beste guztien aldaketaren erdian.

Gure garaiko jendea, beraz, uste baino askoz gutxiago dago zatitua; etengabe eztabaidatzen dute subiranotasuna zein eskutan jarriko duten jakiteko; baina erraz ulertzen dute elkar subiranotasun horren

betebehar eta eskubideei buruz. Guztiek ulertzen dute gobernua botere bakar, bakun, probidentzial eta sortzaile gisa.

Politika-arloan, bigarren mailako ideia guztiak mugikorrak izaten dira; subiranotasunarenak finko, aldagaitz, den bezalako irauten du. Publizistek eta estatu-gizonek hartzen dute, jendetzak irrikaz heltzen dio; gobernatuek eta gobernariek bat eginda, sugar berberaz jarraitzen diote: lehenengo ideia da; berezkoa dela ematen du.

Ez da, beraz, giza izpirituaren kapritxotik sortzen, baizik eta jendearen egungo egoeraren ezaugarri naturala da. (F)

III. KAPITULUA

HERRI DEMOKRATIKOEN SENTIMENDUAK BAT DATOZ BEREN IDEIEKIN BOTEREA KONTZENTRATZERA ERAMATEKO

Berdintasun-mendeetan gizonek erraz zertzen badute botere zentral handi baten ideia, bestalde, ezin da zalantzan jarri beren aztura eta sentimenduek joera berezia sortzen dietela horrelako boterea aintzatetsi eta laguntzeko. Honen frogaketa hitz gutxitan egin daiteke, arrazoi gehienak jadanik eman baitira beste toki batzuetan.

Herrialde demokratikoetan bizi direnak, ez dutenez ez beren gainekorik, ez azpikorik, ezta ohiko eta beharrezko asoziaturik ere, beren baitara itzultzen dira gogotsu eta izaki isolatuki kontsideratzen dituzte beren buruak. Hori luze eta zabal azaltzeko aukera izan dut indibidualismoaz hitz egiterakoan.

Gizon horiek asko kostata aldentzen dira beren arazo partikularretatik arazo komunez arduratzeko; berezko joera, ardura hori interes kolektiboen ordezkari ikuskor eta iraunkor bakarra den Estatuaren esku uztea da.

Ez bakarrik ez dute gauza publikoaz arduratzeko zaletasunik, gainera sarri astia falta izaten zaie horretarako. Bizitza pribatua hain da aktiboa demokrazi garaietan, hain da mugitua, desiraz eta nekez betea, gizon bakoitzari ez baitzaio ez kemenik, ez astirik, gelditzen bizitza politikorako.

Nik ez dut esango joera horiek garaitezinak direnik, nire helburu nagusia liburu hau idazterakoan horiei erasotzea izan baita. Esan nahi dudana da, gaur egun, indar ezkutu batek etengabe garatzen dituela giza bihotzean, eta aski dela ez geldiaraztea bihotz hori bete dezaten.

Era berean izan dut aukera erakusteko nola, ongizatearen maitasun hazkor eta jabetzaren izaera mugikorraren ondorioz, herri demokratikoak desordena materialaren beldur diren. Lasaitasun publikoaren maitasuna da sarri herri horiek gordetzen duten grina politiko bakarra, eta beraien artean aktiboago eta ahaltsuago bilakatzen da, beste guztiak ahuldu eta hiltzen diren neurrian; honek berezko joera bat ematen die hiritarrei botere zentralari eskuduntza berriak etengabe emateko edo hartzen uzteko, iruditzen baitzaie hark bakarrik dituela interesa eta baliabideak beraiek anarkiatik babesteko, bere burua ere babestuz.

Berdintasun-mendeetan inor ez dagoenez behartua bere indarra hurkoari ematera, eta inork ez duenez eskubiderik hurkoagandik laguntza handirik espero izateko, guztiak dira aldi berean independente eta ahulak. Bi egoera hauek -ez direnak ez banatuta, ez bat eginda hartu behar- demokrazietako hiritarrari oso kontrako joerak sortzen dizkiote. Bere independentziak konfiantza eta harrotasunez betetzen du parekideen artean, eta bere ahuleziak inoren laguntzaren beharra sentiarazten dio noizean behin, bere parekideen arteko inorengandik espero ez dezakeena, guztiak ezgai eta hotzak baitira. Egoera horretan, abaildura unibertsalaren erdian bakar-bakarrik goratzen den izaki neurrigabe horrengana zuzentzen du naturalki bere begirada. Bere premiek eta, batez ere, desirek horrengana eramaten dute etengabe, eta ahulezia indibidualaren euskarri bakar eta beharrezkotzat hartzen du azkenerako [18].

---

[18] Gizarte demokratikoetan botere zentralak bakarrik izaten du nolabaiteko egonkortasun bere aulkian eta nolabaiteko iraunkortasuna bere eginkizunetan. Hiritar guztiak etengabe mugitzen eta eraldatzen dira. Nolanahi ere, gobernu ororen izaerari dagokio bere esparrua etengabe handitu nahi izatea. Beraz, oso zaila da luzarora arrakastarik ez izatea, pentsamendu finkoz eta borondate iraunkorrez jarduten baitu posizioz, ideiaz eta gurariz egunero aldatzen den jendearen gain.
Sarritan hiritarrek ere beraren alde lan egiten dute nahi gabe.
Demokrazia mendeak saiakuntza, berrikuntza eta abentura garaiak izaten dira. Beti egoten da horietan jende-kopuru handi bat, hurkoez arduratu gabe aparte gauzatu nahi duten eginkizun zail edo berriren batean murgilduta. Horiek erraz onartzen dute, printzipio orokortzat, botere publikoak ez duela esku hartu behar arazo pribatuetan; baina, salbuespen gisa, bera kezkatzen duen arazo berezian lagun diezaion nahi izaten du haietako bakoitzak, eta gobernuaren ekintza bere aldera erakartzen saiatzen da, beste guztietatik erretiratzea nahi izaten duelarik.
Jendetza handi batek aldi berean ikuspegi berezi hau duelarik gauza-pila bati buruz, botere zentralaren esparrua alde guztietara zabaltzen da igarri gabe, nahiz eta beraietako bakoitzak murriztu egin nahi duen. Beraz, gobernu demokratikoak gehitu egiten ditu bere eskurantzak bere iraupenagatik bakarrik. Denborak

Honek herri demokratikoetan sarri gertatzen dena ulertarazten du: goragokoak oso gogo txarrez jasaten dituztenek nagusia pazientziaz jasaten dute, aldi berean harro eta morroi gisa agertuz.

Gizonek pribilegioari dioten gorrotoa areagotu egiten da pribilegioak bakanago eta txikiago bilakatu ahala; eta horrela, esan daiteke grina demokratikoak are gehiago sutzen direla horretarako motibo gutxien aurkitzen duten garaian. Jadanik eman dut fenomeno honen arrazoia. Ez dago hain ezberdintasun handirik begirada zauritzen duenik baldintza guztiak ezberdinak direnean; baina desberdintasunik txikiena harrigarri gertatzen da uniformitate orokorraren erdian; hori ikustea are jasanezinago bihurtzen da uniformitatea osoagoa den neurrian. Normala da, beraz, berdintasunaren maitasuna etengabe haztea berdintasunarekin berarekin; asebetetzen denean, garatu egiten da.

Gorroto hilezkor eta gero eta sutsuago horrek, herri demokratikoak pribilegiorik txikienen kontra jartzen dituena, bereziki bultzatzen du eskubide politiko guztien kontzentrazio graduala Estatuaren ordezkari bakarraren eskuetan. Subiranoak, derrigorrez eta aurkakotasunik gabe, hiritar guztien gainetik dagoelarik, ez du inoren inbidia sortzen, eta bakoitzak uste du bere parekideei kentzen dizkiela hark ematen dizkion prerrogatiba guztiak.

Demokrazi mendeetako gizonak ikaragarrizko nazkaz baino ez dio obeditzen bere berdina den auzokoari; inola ere ez dio aitortzen berak baino jakintzargi handiagorik duenik; ez da haren justiziaz fido eta jelosiaz ikusten du haren boterea; beldurra dio eta mesprezatu egiten du; gogoko du une oro sentiaraztea biek nagusi berarekiko duten menpekotasun komuna.

Berezko joera horiei jarraitzen dien botere zentral orok berdintasuna maitatzen eta bultzatzen du; zeren eta berdintasunak bereziki errazten du horrelako boterearen ekintza, hedatu eta ziurtatu egiten du.

Era berean, esan daiteke gobernu zentral orok adoratu egiten duela uniformitatea; uniformitateak xehetasun-pila baten azterketa aurrezten dio, horietaz arduratu beharko lukeelarik gizonentzat arau egokia egin beharko balu, gizon guztiak bereizketarik gabe arau beraren azpitik pasarazi ordez. Honela, hiritarrek maite dutena maite du gobernuak, eta haiek gorrotatzen dutena gorrotatzen du naturalki. Sentimendu-elkarte honek -nazio demokratikoetan, pentsamendu bat berean gizabanako bakoitza eta subiranoa etengabe batzen dituenak- beraien artean sinpatia ezkutuko eta iraunkorra ezartzen du. Gobernuari barkatu egiten zaizkio hutsegiteak bere gustuen mesedetan, bere gehiegikeria edo errakuntzen erdian nekez baino ez du galtzen konfiantza publikoa, eta berreskuratu egiten du eskatzen duenean. Herri demokratikoek sarri gorrotatu egiten dituzte botere zentrala daukatenak, baina beti maite izaten dute boterea bera.

Honela, bi bide ezberdinetatik helburu berera iritsi naiz. Erakutsi dut berdintasunak gobernu bakar, uniforme eta indartsuaren pentsamendua sortzen diela gizakiei. Oraintxe azaldu dut horren zaletasuna ematen diela; beraz, horrelako gobernu baterantz jotzen dute gaur egungo nazioek. Beren izpiritu eta bihotzaren berezko joerak horretarantz daramatza, eta aski zaie ez gelditzea bertara iristeko.

Pentsatzen dut, datozen demokrazi mendeetan, banakoen independentzia eta askatasun lokalak artearen emaitza izango direla beti. Zentralizazioa izango da gobernu naturala. (G)

IV. KAPITULUA

ZENBAIT KAUSA PARTIKULAR ETA AKZIDENTAL HERRI DEMOKRATIKOA BOTEREA ZENTRALIZATZERA EDO HORRETATIK URRUNTZERA ERAMATEN DUTENAK

Nahiz eta herri demokratiko guztiak instintiboki botere-zentralizaziorantz eramanak izan, ez dute guztiek era berean egiten. Gizarte-egoeraren berezko ondorioak garatu edo murriztu egiten dituzten zirkunstantzia partikularren arabera dago hori. Zirkunstantzia hauek asko dira; batzuk bakarrik aipatuko ditut nik.

Berdin izatera iritsi baino lehen luzaroan aske izan direnen artean, askatasunak emandako joerak berdintasunak iradokitzen dituen joeren aurka borrokatzen dira neurri bateraino; eta, haien artean botere zentralak pribilegioak gehitzen dituen arren, pertsona partikularrek sekula ez dute erabat beren independentzia galtzen.

Baina berdintasuna askatasuna inoiz ezagutu ez duen edo aspaldidanik ezagutzen ez duen herri batean garatzen denean, Europako kontinentean ikusten den bezala, nazioaren antzinako azturak bat-batean eta halako erakarpen natural baten bidez gizarte-egoerak sortarazten dituen aztura eta doktrina berriekin konbinatzen direlarik, botere guztiek beren kabuz erdirantz egiten dutela ematen du; bizkortasun harrigarriz metatzen dira bertan, eta Estatua kolpean iristen da bere indarraren goren mugara, eta pertsona partikularrak une batean jausten dira ahuleziaren azken mailaraino.

Duela hiru mende, Mundu Berriko basa eremuetan gizarte demokratiko bat sortzera joan ziren ingelesak, guztiak ohituta zeuden ama aberrian arazo publikoetan esku hartzen; ezagutzen zuten epaimahaia;

---

bere alde egiten du; ustekabe guztiek mesede egiten diote; grina indibidualek lagundu egiten diote, oharkabean bada ere, eta gizarte demokratikoa zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta zentralizatuago bihurtzen dela esan daiteke.

bazuten adierazpen eta prentsa-askatasuna, gizabanakoen askatasuna, zuzenbidearen ideia eta horretaz baliatzeko usadioa. Erakunde aske eta ohitura indartsu horiek Ameriketara eraman zituzten, eta beroriek babesa eman zieten Estatuaren abusuen kontra.

Amerikarren artean, askatasuna da antzinakoa; konparazioz berdintasuna da berria. Kontrakoa gertatzen da Europan, non berdintasuna -botere absolutuak sarrarazia erregeen begiradapean- sartua baitzen herrien azturetan askatasuna haien ideietan baino askoz lehenago.

Esan dut, herri demokratikoetan, gobernua ez zitzaiola giza izpirituari naturalki agertzen botere bakar eta zentralaren forman baizik, eta bitarteko botereen nozioa ez zuela ezagutzen. Hau berdintasunaren printzipioa iraultza bortitzaren laguntzaz garaitzen ikusi duten nazio demokratikoei aplika dakieke, batez ere. Arazo lokalak zuzentzen zituzten klaseak ekaitz horretan bat-batean desagertzean, eta geratzen den masa nahasiak oraindik ez duelarik arazo horien administrazioa bere esku hartu ahal izateko ez antolamendurik, ez azturarik, ematen du Estatua bera bakarrik ardura daitekeela gobernuaren xehetasun guztiez. Zentralizazioa nolabait ere beharrezko egitate bihurtzen da.

Ez dago Napoleon ez laudatu, ez errudun jo beharrik, administrazio-botere ia guztiak bere eskuetan bakarrik biltzeagatik; zeren eta, nobleziaren eta goi-burgesiaren bat-bateko desagerpenaren ondoren, botere horiek beren kabuz iritsi baitzitzaizkion; ia hartzea bezain zaila gertatuko zitzaiokeen errefusatzea. Horrelako beharrik sekula ez dute sumatu amerikarrek; iraultzarik izan gabe eta hasieratik beren burua gobernatu zutelarik, inoiz ez diote Estatuari, ezta momentu batean ere, tutore izateko ardurarik eman behar izan.

Honela, herri demokratiko batean zentralizazioa ez da berdintasunaren aurrerapenaren arabera bakarrik garatzen, baita berdintasun hori ezartzeko moduaren arabera ere.

Iraultza demokratiko handi baten hasieran, eta klase ezberdinen arteko gerra sortu berria denean, administrazio publikoa gobernuaren eskuetan zentralizatzen ahalegintzen da herria, arazo lokalen zuzendaritza aristokraziari kentzeko. Aitzitik, iraultza horren bukaera aldera, aristokrazia menperatua izaten da normalean arazo guztien zuzendaritza Estatuari ematen saiatzen dena, herriaren tirania xeheari, bere parekide eta sarritan nagusi ere bilakatu den horri beldur baitio.

Honela, beti ez du hiritar klase berberak jarduten boterearen prerrogatibak hazten; baina, iraultza demokratikoak iraun bitartean, beti izaten da nazioan kopuruz edo aberastasunez ahaltsu den klase bat, bere grina berezi eta interes partikularrengatik administrazio publikoa zentralizatzera jotzen duena, auzokoaren gobernuari dion gorrotoaz aparte, hau sentimendu orokor eta iraunkorra baita herri demokratikoetan. Ikus daitekeenez, gaur egun Ingalaterrako behe-klaseak dira beren indar guztiaz lan egiten dutenak independentzia lokala suntsitzeko eta zirkunferentziaren puntu guztietako administrazioa erdira eramateko; goi-klaseak, berriz, administrazio horri antzinako mugetan eusten ahalegintzen dira. Egunen batean guztiz kontrako zerbait ikusiko dugula esatera ausartzen naiz.

Aurretik esandakoak ongi ulertarazten du, gizarte-lan luze eta neketsuaren bidez berdintasunera iritsi den herri demokratiko batean, gizarte-botereak zergatik izan behar duen beti indartsuagoa eta gizabanakoa ahulagoa, hasieratik hiritarrak beti berdinak izan dituen gizarte demokratiko batean baino. Horixe da amerikarren kasuak frogatu duena.

Pribilegioek sekula ez dituzte banatu Estatu Batuetan bizi direnak; inoiz ez dute ezagutu behekoaren eta nagusiaren arteko harremanik, eta batak besteari ez dionez ez beldurrik, ez gorrotorik, sekula ez dute beren arazoen xehetasunak gidatzeko subiranoari deitu beharrik ezagutu. Amerikarren destinoa berezia da: Ingalaterrako aristokraziatik eskubide indibidualen ideia hartu dute, baita askatasun lokalen gustua ere; eta bata nahiz bestea gorde ahal izan dituzte, ez dutelako aristokraziaren kontra borrokatu beharrik izan.

Garai guztietan, jakintzargiek gizakiei beren independentzia defendatzeko balio badiete, hori batez ere demokrazi mendeetan da egia. Gizon guztiak antzekoak direnean, erraza da gobernu bakar eta ahalguztiduna eratzea; aski dira berezko joerak. Baina jendeak adimen, jakintza eta arte handia behar ditu, zirkunstantzia berberetan, bigarren mailako botereak antolatu eta mantentzeko, eta, hiritarren independentziaren eta ahulezia indibidualaren erdian, elkarte askeak sortzeko, ordena suntsitu gabe tiraniaren kontra borrokatzeko egoeran egongo direnak.

Beraz, botere-kontzentrazioa eta morrontza indibiduala gehitu egingo dira nazio demokratikoetan, ez berdintasunaren proportzioan bakarrik, baita ezjakintasunaren arabera ere.

Egia da, ilustrazio gutxiko mendeetan, gobernuak ez duela sarri jakintzargirik izaten despotismoa perfekzionatzeko, eta hiritarrek ere ez berorri ihes egiteko. Baina efektua ez da berdina bi aldeentzat.

Oso zabarra izan arren herri demokratiko bat, gidatzen duen botere zentrala inoiz ez da batere jakintzargirik gabea izaten, erraz erakartzen baitu beregana herrialdean dagoen apurra, eta, behar izanez gero, kanpora joaten da bila. Demokratikoa izateaz gain ezjakina den nazioan berehala azalduko da ezberdintasun harrigarria subiranoaren gaitasun intelektualaren eta menpekoetako bakoitzarenaren artean. Ondorioz, erraz biltzen dira botere guztiak haren eskuetan. Estatuaren administrazio-boterea etengabe hedatzen da, bera bakarrik baita administratzeko behar hainbat trebea.

Nazio aristokratikoek, gutxi ilustraturik egon arren, ez dute inoiz ikuskizun hori ematen, jakintzargiak aski berdin banaturik egoten baitira printzearen eta hiritar printzipalen artean.

Gaur egun Egipton erreinatzen duen patxak herrialde horretako jendea oso pertsona ezjakinez eta oso berdinez osatua aurkitu du, eta Europako zientziaz eta adimenaz baliatu da gobernatzeko. Honela, subiranoaren jakintzargi partikularrak menpekoen ezjakintasun eta ahulezia demokratikoarekin konbinatuz, kosta gabe lortu da zentralizazioaren goren muga, eta printzeak herrialde hori bere fabrika bihurtu ahal izan du eta biztanleak bere langile.

Uste dut botere politikoaren zentralizazio gorenak gizartea indargabetzen duela azkenerako, eta, honela, gobernua bera ahultzen luzarora. Baina ez dut ukatzen gizarte-indar zentralizatu bat ez dagoenik eginkizun handiak, momentu eta puntu jakin batean, erraz gauzatzeko egoeran. Hori, batez ere, gerran da egia, non arrakasta askoz gehiago baitatza baliabide guztiak puntu jakin batera azkar eramateko erraztasunean, baliabide horien kopuruan baino. Beraz, herriek, batez ere, gerran sentitzen dute botere zentralaren prerrogatibak gehitzeko desira eta, sarri, beharra. Jeinu gerlari guztiek zentralizazioa maite dute, beren indarra areagotzen baitu, eta jeinu zentralizatzaile guztiek gerra maite dute, nazioak botere guztiak Estatuaren eskuetan jartzera behartzen ditu eta. Honela, jendea Estatuaren pribilegioak etengabe ugaltzera eta pertsona partikularren eskubideak murriztera daraman joera demokratikoa askoz bizkorragoa eta jarraituagoa da herri demokratikoetan beste guztietan baino, herri horiek, beren egoeragatik gerra handi eta ugarien menpe daudelarik, beren existentzia sarri arriskuan izan baitezateke.

Esan dut desordenaren beldurrak eta ongizatearen maitasunak oharkabean eramaten dituela herri demokratikoak gobernu zentralaren eskurantzak gehitzera, botere hori iruditzen baitzaie behar hainbat indartsu, buruargi eta egonkorra den bakarra anarkiaren aurka babesteko. Apenas dudan erantsi beharrik gizarte demokratiko baten egoera nahasi eta kili-kolozko bihurtzera eramaten duten zirkunstantzia partikular guztiek areagotu egiten dutela joera orokor hori eta, gero eta gehiago, pertsona partikularrak beren eskubideak lasaitasunaren menpe sakrifikatzera eramaten dituela.

Herri bat inoiz ez da botere zentralaren eskurantzak gehitzeko hain prest egoten iraultza luze eta odoltsutik irtetean baino -ondasunak lehen zeuzkatenen eskuetatik kendu ondoren, sineskizun guztiak astindu, eta nazioa gorroto sutsuz, interes kontrajarriz eta aurkako fakzioz bete duen iraultzatik irtetean, alegia-. Lasaitasun publikoaren gustua grina itsu bilakatzen da orduan, eta gerta liteke hiritarrek ordenaren maitasun oso desordenatua irrikatzea.

Oraintsu aztertu ditut hainbat gora-behera, guztiak ere boterearen zentralizazioa bultzatzen dutenak. Baina ez dut oraindik nagusienaz hitz egin.

Herri demokratikoetan arazo guztien zuzendaritza subiranoaren esku jar dezakeen kausa akzidental horietako lehena, subirano horren berorren jatorria eta bere joerak dira.

Berdintasun-mendeetan bizi direnek berez maite izaten dute botere zentrala eta gogotsu zabaltzen dituzte berorren pribilegioak; baina botere horrek beraien interesak zintzo ordezkatzera eta beraien joerak zehazki erreproduzitzera iristen bada, orduan berarengan jartzen duten konfiantza ia mugagabea izaten da, eta ematen duten guztia beren buruari ematen diotela uste dute.

Administrazio-botereak erdirantz erakartzea zailagoa eta mantsoagoa izango da oraindik antzinako ordena aristokratikoari nolabait loturik dauden erregeekin printze berriekin baino, beren egintzen seme, eta beren jaiotza, aurriritzi, sen eta azturek berdintasunaren kausarekin askaezinki lotuta ematen dutelarik. Ez dut esan nahi jatorri aristokratikoko printzeek, demokrazi mendeetan bizi direnek, ez dutenik zentralizazioa bilatzen. Uste dut beste guztiak bezain arduratsu saiatzen direla horretan. Beraientzat, alde horretan daude berdintasunaren abantailak; baina horien erraztasunak txikiagoak dira, hiritarrek, beren desiren aurretik naturalki joan ordez, sarritan nekez bakarrik onartzen baitute hori. Gizarte demokratikoetan, subiranoa zenbat eta gutxiago izan aristokrata, orduan eta handiagoa izango da beti zentralizazioa: horra hor erregela.

Errege-arraza zahar batek aristokrazia bat gidatzen duenean, subiranoaren aurriritzi naturalak guztiz bat datozelarik nobleen aurriritzi naturalekin, gizarte aristokratikoei datxezkien bizioak aske garatzen dira eta ez dute beren erremedioa aurkitzen. Kontrakoa gertatzen da adar feudal baten kimua herri demokratiko baten buru jarria dagoenean. Printzea bere heziketa, aztura eta oroitzapenengatik baldintza-ezberdintasunak sortarazitako sentimenduetarantz makurtzen da egunero; eta herriak, bere gizarte-egoeragatik, berdintasunak sortarazten dituen ohituretarantz jotzen du etengabe. Orduan, hiritarrak botere zentralari eusten saiatzea sarri gertatzen da, tiranikoa baino aristokratikoa izateagatik gehiago; eta beren independentziari irmo eusten diotela, ez bakarrik aske izan nahi dutelako, baizik eta berdinak izaten jarraitu nahi dutelako, batez ere.

Herri demokratikoaren buruan jende berria jartzeko, antzinako errege-familia bat eraisten duen iraultzak ahul dezake momentuz botere zentrala; baina, oso anarkikoa iruditu arren hasieran, zalantzarik gabe aurresan daiteke botere horren prerrogatibak hedatu eta ziurtatzea izango dela azken emaitza eta derrigorrezkoa.

Gizarte demokratikoan botere publikoa zentralizatzera iristeko behar den lehenengo baldintza eta, nolabait ere, bakarra berdintasuna maitatzea da edo sinestaraztea. Honela, despotismoaren zientzia, antzina hain konplikatua, sinplifikatu egiten da: printzipio bakar batera murrizten da, nolabait esateko.

V. KAPITULUA

GAUR EGUNGO NAZIO EUROPARREN ARTEAN BOTERE SUBIRANOA HAZI EGITEN DA SUBIRANOAK HAIN EGONKORRAK EZ IZAN ARREN

Aurrekoaz hausnarketa egiten bada, harrigarri eta ikaragarri gertatzen da ikustea Europan nola dagoen dena botere zentralaren prerrogatibak mugagabeki haztera, eta banakoen bizitza egunetik egunera ahulago, menpekoago eta prekarioago bihurtzera bideratua.

Europako nazio demokratikoek amerikarrak botere-zentralizaziorantz eraman ohi dituzten joera orokor eta iraunkor guztiak dauzkate, eta, gainera, amerikarrek ezagutzen ez dituzten bigarren mailako kausa akzidental askoren menpe daude. Esan liteke berdintasunerantz ematen duten urrats bakoitzak despotismorantz hurbiltzen dituela.

Aski da geure inguruari eta geure buruari begiratzea horretaz komentzitzeko.

Gurearen aurreko aristokrazi mendeetan, Europako subiranoak beren botereari zegozkion hainbat eskubidez jadanik gabetuak zeuden edo beraiek ari ziren lagatzen. Oraindik ehun urte ez direla, Europako nazio gehienetan pertsona partikularrak edo gorputz ia independenteak zeuden justizia administratu, soldaduak bildu eta mantendu, zergak bildu eta sarritan legea egin edo garatu ere egiten zutenak. Estatuak beretzat bakarrik hartu ditu alde guztietan botere subiranoaren berezko eskurantza horiek; gobernuari dagokion guztian, ez du bitartekaririk jasaten bere eta hiritarren artean, eta bere kabuz gidatzen ditu arazo orokorretan. Ez noa inola ere botere-kontzentrazio hori gaitzestera; hori erakustera mugatzen naiz.

Garai berean, bigarren mailako botere asko zen Europan, interes lokalak ordezkatu eta arazo lokalak administratzen zituztenak. Jada desagertu dira autoritate lokal horietako gehienak; guztiek desagertzera edota menpekotasunik erabatekoenean erortzera jotzen dute bizkor. Europako mutur batetik besteraino, jauntxoen pribilegioak, hirien askatasunak, administrazio probintzialak suntsituta daude edota suntsitu egingo dituzte.

Azken mende erdian Europak iraultza eta kontrairaultza asko izan du, kontrako zentzuan astindu dutelarik. Baina mugimendu hauek guztiak puntu batean dira antzeko: guztiek apurtu edo suntsitu dituzte bigarren mailako botereak. Nazio frantsesak konkistaturiko herrialdeetan abolitu ez zituen pribilegio lokalak, menperatu duten printzeen ahaleginpean erori dira azkenean. Printze horiek Iraultzak berorien herrialdeetan sorturiko berritasun guztiak errefusatu dituzte, zentralizazioa izan ezik: Iraultzatik onartu nahi izan duten gauza bakarra da.

Azpimarratu nahi dudana zera da: gure garaian klase, korporazio eta gizakiei elkarren segidan kendu zaizkien eskubide horiek guztiek ez dutela balio izan bigarren mailako botere berriak oinarri demokratikoagoan eraikitzeko, baizik eta subiranoaren eskuetan bildu direla alde guztietatik. Nonahi Estatua gero eta gehiago iristen da bere kabuz hiritarrik apalenak ere zuzentzera, eta bakoitza arazorik txikienetan ere berak bakarrik gidatzera [19].

Antzinako Europan karitatezko establezimendu gehienak partikularren edo korporazioen esku zeuden; gehixeago edo gutxixeago, subiranoaren menpe jausi dira guztiak eta, hainbat herrialdetan, berak zuzentzen ditu. Estatuak ia bakarrik ekin dio gose direnei ogia emateari, gaixoei laguntza eta babesa, langabeei zeregina; ezbehar guztien konpontzaile ia bakarra bihurtu da.

Hezkuntza, baita karitatea ere, gaur egungo herri gehientsuenetan arazo nazional bilakatu da. Estatuak hartzen eta sarritan kentzen du haurra amaren besoetatik bere agenteei emateko; bera arduratzen da

---

[19] Gizabanakoa gizartearen aurrean pixkanaka ahultzen hau mila eratara azaltzen da. Besteak beste, testamentuei buruzkoa aipatuko dut nik.

Herrialde aristokratikoetan, normalean begirune sakona izaten zaio gizakien azken borondateari. Hau, batzuetan, superstizioraino iristen zen Europako antzinako herrietan: gizarte-botereak, hilzorian zegoenaren kapritxoak eragotzi ordez, txikienari ere bere indarra ematen zion; betiko ahalmena ematen zion horrela.

Bizidun guztiak ahulak direnean, hildakoen borondateari begirune gutxiago izaten zaio. Oso esparru estua markatzen zaio, eta, hortik irteten bada, subiranoak deuseztu edo kontrolatu egiten du. Erdi Aroan testamentu egiteko ahalmenak ez zuen mugarik, nolabait esateko. Gaur egungo frantsesen artean ezin da ondarea seme-alaben artean banatu Estatuak esku hartu gabe. Bizitza osoa zuzendu ondoren, azken egintza ere arautu nahi du.

belaunaldi bakoitzari sentimenduak sortarazteaz eta ideiak emateaz. Uniformitatea nagusitzen da ikasketetan gainerako guztian bezala; dibertsitatea, askatasuna bezalaxe, egunetik egunera desagertzen da.

Beldurrik gabe aurrera dezaket, gaur egungo nazio kristau gehientsuenetan, katoliko nahiz protestanteetan, erlijioa gobernuaren esku erortzeko arriskuan dagoela. Subiranoak ez daude oso gogotsu dogma eurek finkatzeko, baina esplikatzen duenaren borondateaz gero eta gehiago jabetzen dira: kleroari jabetzak kentzen dizkiote, soldata esleitzen diote, apaizak daukan eragina desbideratu eta beren probetxurako bakarrik erabiltzen dute; beren funtzionarioetako bat bihurtzen dute, eta sarritan beren zerbitzarietako bat, eta berarekin gizaki bakoitzaren arimaren barren-barreneraino sartzen dira[20].

Baina hau koadroaren alde bat baino ez da.

Oraintxe ikusi dugun bezala, subiranoaren boterea hedatu egin da antzinako botereen eremu osoan; baina hau ez da aski berari eusteko; gainezka egiten dio alde guztietatik eta orain arte gizabanakoaren independentziari gordetzen zitzaion esparrura zabaltzen da. Lehen gizartearen kontroletik erabat ihes egiten zuen ekintza-pila bat berorren menpe dago gaur egun, eta horien kopurua hazi egiten da etengabe.

Herri aristokratikoetan, nazio-interesarekin harreman zuzen eta nabaria zuen guztian, gizarte-boterea hiritarrak zuzendu eta gainbegiratzera mugatzen zen normalean; bere nahierara uzten zituen gogotsu gainerako guztian. Herri horietan, bazirudien gobernuak ahaztu egiten zuela sarri, gizabanakoen hutsegite eta miseriek puntu batean arriskuan jartzen dutela ongizate unibertsala, eta partikular baten porrota galarazteak arazo publiko izan behar duela batzuetan.

Gure garaiko nazio demokratikoek kontrako gehiegikeriarantz jotzen dute.

Nabaria da gure printzeetako gehienek ez dutela herri osoa zuzendu nahi bakarrik; esan liteke beren menpekoen ekintza eta destino indibidualaren arduradun jotzen dutela beren burua, horietako bakoitza bizitzako hainbat egintzatan gidatu eta ilustratzeari ekin diotela, eta, behar izanez gero, baita zoriontsu bihurtzeari ere, nahiz eta gogoz kontra izan.

Beren aldetik, partikularrek gero eta gehiago hartzen dute gizarte-boterea ikuspegi beretik; beren premia guztietan, laguntzera deitzen diote printzeari, eta une oro harengan finkatzen dute begirada, irakasle edo gidari batengan bezala.

Ez dago Europan herrialderik non administrazio publikoa ez den zentralizatuago bakarrik bilakatu, baita ikertzaileago eta zehatzago ere; alde guztietan garai batean baino aurrerago sartzen da arazo pribatuetan; bere erara ekintza gehiago arautzen du, eta ekintza txikiagoak; eta egunero gizabanako bakoitzaren ondoan, inguruan eta gainetik ezartzen da gero eta gehiago, lagundu, aholkatu eta behartzeko.

Antzina, subiranoa bere lurren errentatik bizi zen edo zergen emaitzatik. Gaur egun, boterearekin batera premiak ere hazi zaizkionean, ez da gauza bera gertatzen. Antzina printzeak zerga berri bat ezartzen zuen zirkunstantzia berberetan; gaur egun mailegura jotzen da. Poliki-poliki, Estatua aberats gehienen zordun bihurtzen da honela, eta kapitalik handienak biltzen ditu bere eskuetan.

Beste era batera erakartzen ditu txikienak.

Jendea elkarrekin nahastu eta baldintzak berdindu ahala, behartsuak baliabide, jakintzargi eta desira handiagoak ditu. Bere zoria hobetzea bururatzen zaio, eta hori aurrezki bidez lortzen saiatzen da. Beraz, aurrezkiak kapital txikiak mugagabeko kopuruan sortarazten ditu egunero, lanaren ondoriozko emaitza geldoak; etengabe hazten dira. Baina gehienak emankortasunik gabe geldituko lirateke, sakabanaturik jarraituz gero. Honek erakunde filantropiko bat sortarazi du, laster bihurtuko dena, oker ez banago, gure erakunde politiko handienetako bat. Pertsona karitatetsu batzuei behartsuaren aurrezkia bildu eta hori erabiltzea bururatu zaie. Herrialde batzuetan, onegintzazko elkarte horiek erabat aparte gelditu dira Estatutik; baina, ia guztietan, Estatuarekin bat egitera jotzen dute nabarmen, eta herrialde batzuetan gobernuak ordeztu ere egin ditu, honek hainbat milioi langileren eguneroko aurrezkia leku bakar batean zentralizatzeko eta bere eskuez bakarrik baliarazteko eginkizun itzelari ekin diolarik.

Honela, Estatuak beregana erakartzen du aberatsen dirua mailegu bidez, eta aurrezki-kutxen bidez bere nahierara erabil ditzake behartsuaren diruak. Beraren ondora eta eskuetara, etengabe iristen zaizkio herrialdeko aberastasunak; zenbat eta handiagoa izan baldintzen berdintasuna, are gehiago metatzen dira; zeren eta, nazio demokratiko batean, Estatuak bakarrik sortzen baitie konfiantza partikularrei, nolabaiteko indarra eta iraunkortasuna berak bakarrik dituela iruditzen zaie eta [21].

---

[20] Botere zentralaren eskurantzak gehitu ahala, berorren ordezkari diren funtzionarien kopurua ere hazi egiten da. Nazio bat osatzen dute nazio bakoitzean, eta, gobernuak bere egonkortasuna ematen dienez, gero eta gehiago aristokraziaren lekua hartzen dute haietako bakoitzean.
Europan, ia alde guztietan, bi eratara nagusitzen da subiranoa: bere agenteei dien beldurragatik menperatzen du hiritarren zati bat, eta bere agente izatera iristeko duen itxaropenagatik beste zatia.

[21] Alde batetik, ongizatearen gustua etengabe gehitzen da, eta gobernua gero eta gehiago jabetzen da ongizatearen sorburu guztiez. Hortaz, jendea bi bidetatik doa morrontzarantz. Ongizatearen gustuak gobernuan sartzetik aldentzen du, eta ongizatearen maitasunak gero eta mendekotasun estuagoan jartzen du gobernariekiko.

Honela, subiranoa ez da mugatzen aberastasun publikoa zuzentzera, aberastasun pribatuetan ere sartzen da; hiritar bakoitzaren buru da eta sarritan nagusi ere bai, eta, gainera, beraren intendente eta kutxazain ere bihurtzen da.

Botere zentralak berak bakarrik betetzen du antzinako botereen esparru osoa, zabaldu eta gainditu ere egiten du; baina gainera beste garai batean baino arintasun, indar eta independentzia handiagoz egiten du.

Gure garaian Europako gobernu guztiek miragarriro perfekzionatu dute administrazio-zientzia; gauza gehiago egiten dituzte, eta gauza bakoitza ordena eta arintasun handiagoz eta gastu txikiagoz egiten dute; ematen dute etengabe aberasten direla pertsona partikularrei kendu dizkieten jakintzargi guztiez. Egunero, Europako printzeek gero eta menpekotasun handiagoan dauzkate beren delegatuak, eta metodo berriak asmatzen dituzte hurbilagotik gidatzeko eta neke txikiagoz zaintzeko. Ez zaie aski arazo guztiak beren agenteen bidez gidatzea, beren agenteen portaera arazo guztietan zuzentzen saiatzen dira; honela, administrazio publikoa ez dago boterearen beraren menpe bakarrik; leku bat berean ixten da gero eta gehiago, eta esku gutxiagotan biltzen da. Gobernuak bere ekintza zentralizatzen du bere prerrogatibak gehitu ahala: bere indarraren kausa bikoitza.

Botere judizialak Europako nazio gehientsuenetan lehen zeukan eraketa aztertzen denean, bi gauza gertatzen dira harrigarri: botere horren independentzia eta bere eskurantzen hedapena.

Justizi epaitegiek partikularren arteko liskar gehientsuenak erabakitzen zituzten; kasu askotan, arbitroarena ere egiten zuten gizabanakoaren eta Estatuaren artean.

Hemen ez dut hitz egin nahi herrialde batzuetan auzitegiek usurpaturiko eskurantza politiko eta administratiboez, guztietan zeuzkaten eskurantza judizialez baizik. Europako herri guztietan, eskubide indibidual asko zegoen eta dago oraindik, gehienak jabetzaren eskubide orokorrari buruzkoak, epailearen zaintzapean zeudenak eta epaile horren baimenik gabe Estatuak hautsi ezin zituenak.

Botere erdi-politiko horrek bereizten zituen Europako auzitegiak beste guztietatik, herri guztiek izan baitituzte epaileak, baina guztiek ez dizkiete epaileei pribilegio berberak eman.

Aske deitzen diren Europako nazio demokratikoetan, baita besteetan ere, zer gertatzen den aztertzen badugu orain, ikusten da alde guztietan, auzitegi horien ondoan, menpekoago beste batzuk sortu direla, eta horien helburu berezia administrazio publikoaren eta hiritarren artean sor daitezkeen auzi-liskarrak erabakitzea dela, salbuespen modura. Antzinako botere judizialari bere independentzia uzten zaio, baina jurisdikzioa murriztuta, eta gero eta gehiago jotzen da bera interes partikularren arteko arbitro bakarrik izatera.

Auzitegi hauen kopurua etengabe hazten da, eta eskurantzak gehitzen. Gobernuak, beraz, gero eta gehiago ihes egiten dio bere borondate eta eskubideak beste botereren batek berresteko obligazioari. Epailerik gabe bizi ezin denez, gutxienez, berak aukeratu nahi izaten ditu bere epaileak eta beti bere esku eduki, hau da, beraren eta partikularren artean, justiziaren irudia jartzen du oraindik justizia bera baino gehiago.

Honela, Estatuari ez zaio aski arazo guztiak beregana erakartzea; gainera, gero eta gehiago, guztiak bere kabuz erabakitzera iristen da, kontrolik gabe eta errekurtsorik gabe [22].

Europako nazio modernoetan bada kausa handi bat, adierazi berri ditudan guzti hauetaz aparte, subiranoaren ekintza etengabe zabaltzen edo beraren prerrogatibak gehitzen laguntzen duena; ez zaio behar hainbat arreta jarri. Kausa hau industriaren garapena da, berdintasunaren aurrerapenek bultzatzen dutena.

Industriak normalean jende-multzoa metatzen du leku berean; beraien artean harreman berri eta konplikatuak ezartzen ditu. Oparotasun eta lazeriazko alternatiba handi eta bat-batekoen arriskupean jartzen ditu, eta horietan mehatxupean egoten da lasaitasun publikoa. Gerta liteke azkenean neke horiek berorietaz profitatzen direnen edo horietan dihardutenen osasuna edo bizia ere arriskuan jartzea. Honela, klase industrialak beste klaseek baino premia handiagoa du arautua, zaindua eta eutsia izateko, eta normala da gobernuaren eskurantzak berarekin batera haztea.

Egia hau orokorki aplika daiteke; baina hona hemen zer dagokien berezikiago Europako nazioei.

Gurearen aurreko mendeetan, aristokrazia zen lurraren jabe, eta defendatzeko egoeran zegoen. Beraz, jabetza higiezina bermez inguratua zegoen, eta hori zeukatenek independentzia handia zuten. Horrek betikotu diren lege eta azturak sortu zituen, nahiz eta lurrak zatitu eta nobleek porrot egin; eta, gaur egun ere, onibarren jabeak eta nekazariak dira hiritar guztien artean gizarte-boterearen kontroletik errazen ihes egiten dutenak.

---

[22] Honi dagokionez, sofisma bitxi bat gertatzen da Frantzian. Administrazioaren eta partikular baten artean prozesu bat sortzen denean, horren azterketa ez da ohiko epailearen esku uzten, eta, diotenez, administrazio boterea botere judizialarekin ez nahastearren egiten da hori. Gobernuari aldi berean epaitzeko eta administratzeko eskubidea ematea bi botere horiek nahastea, eta erarik arriskutsuen eta tiranikoenean nahastea, izango ez balitz bezala.

Aristokrazi mende horietan, non aurkitzen baitira gure historiaren sorburu guztiak, jabetza higigarriak garrantzi txikia zuen, eta hori zeukatenak mesprezatuak eta ahulak ziren; industriariek aparteko klasea osatzen zuten mundu aristokratikoaren erdian. Zaindaritza ziurtaturik ez zutenez, ez zeuden babestuta eta ezin zuten beren burua babestu.

Hortaz, jabetza industriala, jabetzak oro har bezalako begiramendurik merezi ez zuena eta garantiarik behar ez zuena, izaera partikularreko ondasuntzat hartzea aztura bihurtu zen; baita industriariak gizarte-ordenan aparteko klase txiki bat bezala hartzea ere, hauen independentziak balio txikia izanik printzeen grina arautzailearen menpe uztea komeni zelarik. Izan ere, Erdi Aroko kodeak zabaltzen badira, harrigarria gertatzen da ikustea, independentzia indibidualaren mende haietan, industria erregeek arautzen zutela etengabe, bere xehetasunik txikienetan ere; puntu horretan, izan zitekeen bezain aktibo eta zehatza da zentralizazioa.

Geroztik, iraultza handia gertatu da munduan; jabetza industriala, orduan hazi bat besterik ez zena, garatu egin da eta Europa osoa betetzen du; klase industriala hedatu egin da, beste guztien hondakinez aberastu da; kopuruan, garrantzian, aberastasunean hazi da; etengabe hazten da; beraren parte ez diren gehientsuenek, alderen batetik gutxienez, badute loturarik berarekin; aparteko klase bat izan ondoren, klase nagusia izateko egoeran dago, eta klase bakarra, nolabait esateko; hala ere, antzina sortarazitako ideia eta aztura politikoek iraun egiten dute. Ideia eta aztura horiek ez dira aldatu, zaharrak baitira, eta gainera harmonia osoan daude gaur egungo jendearen ideia berri eta aztura orokorrekin.

Jabetza industrialak ez ditu, beraz, bere eskubideak bere garrantziarekin gehitzen. Klase industrialak, ugariago bihurtzean, ez du bere menpekotasuna gutxitzen; aitzitik, esan liteke bere baitan daramala despotismoa eta hau berez hedatzen dela hura garatu ahala [23].

Nazioak, industrialago bihurtu ahala, errepide, kanal, portu eta izaera erdi-publikoa duten beste lan batzuen premia handiagoa sentitzen du, lan hauek aberastasuna lortzea errazten dutelarik; eta demokratikoagoa den neurrian, partikularrek zailtasun handiagoa dute horrelako lanak egiteko, eta Estatuak erraztasun handiagoa. Ez naiz beldur esateko gure garaiko subirano guztien joera nabaria dela eurak bakarrik arduratzea horrelako eginkizunak gauzatzeaz; horrela, gero eta menpekotasun handiagoan edukitzen dute jendea.

Bestalde, Estatuaren boterea hazi eta premiak gehitu ahala, gero eta industri produktu gehiago kontsumitzen du berak ere, normalean bere artisautegi eta manufakturetan egiten dituenak. Honela, erresuma bakoitzean, subiranoa bilakatzen da industriarietako handiena; erakarri eta bere zerbitzura edukitzen du injineru, arkitekto, mekanikari eta artisauen kopuru izugarria.

Ez da bakarrik industriarietako lehena, baizik eta gero eta gehiago beste guztien buru, edo areago, nagusi izatera jotzen du.

Hiritarrak berdinago bilakatzean ahulago bihurtu direnez, ezin dute ezer egin industrian elkartu gabe; nolanahi ere, botere publikoak naturalki bere kontrolpean jarri nahi ditu elkarte hauek.

Aitortu beharra dago elkarteak deritzen izaki kolektibo moduko horiek indartsuago eta beldurgarriago direla gizabanako hutsa izan daitekeena baino, eta hauek baino erantzukizun txikiagoa dutela beren egintzengatik; hortik ondorioztatzen da arrazoizkoa bide dela elkarteetako bakoitzari gizarte-boterearekiko independentzia txikiagoa uztea partikular bati utziko litzaiokeena baino.

Subiranoek are joera handiagoa dute horrela jokatzeko, beren gustuak ere bat datozelako horrekin. Herri demokratikoetan hiritarren erresistentzia botere zentralarekiko elkartze bidez bakarrik eman daiteke; horregatik, azken honek gogo txarrez bakarrik ikusten ditu bere eskupean ez dauden elkarteak; eta oso ohargarria da, herri demokratiko horietan, hiritarrek sarri hartzen dituztela elkarte horiek, hain beharrezko zaizkienak, beldur eta jelosiazko sentimendu ezkutuz, beroriek defendatzea eragozten dielarik. Sozietate

---

[23] Honen alde zenbait gertakari aipatuko dut. Meategietan aurkitzen dira aberastasun industrialaren berezko sorburuak. Europan industria garatu, meategietako emaitza interes orokorrago bihurtu eta berorren ustiapen egokia berdintasunak dakarren ondasun-banaketagatik zailago bihurtu de neurrian, subiranorik gehienek meategien jabe izateko eta lanak gainbegiratzeko eskubidea eskatu dute; hau sekula gertatu gabea zen beste mota bateko jabetzekin.

Meategiak, beste ondasun higiezinek zituzten obligazio berberen menpeko eta garantia berberez hornituriko jabetza indibidualak izanik, aginte publikoaren menpe jarri ziren horrela. Estatuak ustiatzen ditu edo egiten du emakida; jabeak erabiltzaile bihurtzen dira; beren eskubideak Estatuak emandakoak dira, eta, gainera, Estatuak erreibindikatzen du ia alde guztietan horiek zuzentzeko ahalmena; xedapenak ematen dizkie, metodoak ezartzen dizkie, zaintzapean eduki ohi ditu, eta, kontra egiten badiote, epaitegi administratibo batek eskubideak kentzen dizkie, eta administrazio publikoak beste batzuei ematen haien pribilegioak; horrela, gobernuak ez dauzka meategiak bakarrik, meatzariak ere bere esku ditu.

Hala ere, industria garatu ahala, antzinako meategien ustiakuntza areagotu egiten da. Berriak irekitzen dira. Meategietako biztanleak zabaldu eta ugaritu egiten dira. Egunero, subiranoek gure oinpean hedatzen dute beren aginterria eta beren zerbitzariekin jendeztatzen dituzte.

partikular txiki hauen botere eta iraupenak, ahulezia eta ezegonkortasun orokorraren erdian, harritu eta kezkatu egiten ditu, eta horietako bakoitzak bere berezko ahalmenez egiten duen erabilera askea ia-ia pribilegio arriskutsutzat jotzen dute.

Gaur egun sortzen diren elkarte hauek guztiak, bestalde, beste hainbat pertsona berri bezala dira, zeinen eskubideak ez baititu denborak finkatu, eta eskubide partikularren ideia ahula den eta gizarte-boterea mugagabea den garaian sartzen baitira munduan; ez da harritzekoa jaiotzerakoan beren askatasuna galtzea.

Europako herri guztietan bada zenbait elkarte, Estatuak estatutuak aztertu eta sortzea baimendu ondoren bakarrik eratu daitezkeenak. Horietako hainbatetan, ahaleginak egiten dira arau hori elkarte guztietara hedatzeko. Erraz ikusten da nora eramango lukeen horrelako helburu baten arrakastak.

Subiranoak inoiz izango balu edonolako elkarteak zenbait baldintzarekin baimentzeko eskubide orokorra, luzarora gabe eskatuko luke gainbegiratu eta gidatzeko eskubidea ere, berak ezarritako arautik aldendu ez daitezen. Era horretara, Estatuak, elkartu nahi duten guztiak bere menpe jarri ondoren, aurrez elkartuta dauden guztiak ere jarriko lituzke bere menpe, hau da, gaur egun bizi diren ia guztiak.

Honela, subiranoak gero eta gehiago jabetzen dira eta beren erabilerarako hartzen dute industriak gure garaiotan munduan sortzen duen indar berri horren parterik handiena. Industriak gobernatzen gaitu gu, eta haiek industria gobernatzen dute.

Hain garrantzitsua iruditzen zait esan berri dudan guztia, neure pentsamena ahalik eta ongien adieraztearren ilundu ez ote dudan beldurrak kezkatzen bainau.

Beraz, irakurleari iruditzen bazaio neure hitzak indartzeko aipaturiko adibideak ez direla nahikoa edo gaizki aukeratu ditudala; pentsatzen badu nonbait exageratu egin ditudala gizarte-boterearen aurrerapenak eta, aitzitik, neurriz kanpo murriztu dudala oraindik independentzia indibiduala mugitzen den esparrua, une batez liburua uzteko erregutzen diot eta bere kasa hausnartzeko erakutsi nahi izan dizkiodan gaiak. Arretaz azter dezala gure artean eta gugandik kanpo egunero gertatzen dena; galdegin diezaiela auzokoei; azkenik begira diezaiola bere buruari; oso oker ibili naiz bera, gidarik gabe eta beste bide batzuetatik, neuk eraman nahi izan dudan puntu berera iristen ez bada.

Ohartuko da, igaro berri den mende erdian, zentralizazioa edonon hazi dela mila eratara. Gerrak, iraultzak, konkistak haren garapenerako izan dira; gizaki guztiek lan egin dute haren hazkunderako. Denboraldi horretan, gizonak bizkortasun harrigarriz txandakatu direlarik arazoen zuzendaritzan, beren ideia, interes eta grinak mugagabeki aldatu dira; baina, nolabait ere, guztiek nahi izan dute zentralizatu. Zentralizaziorako joera izan da puntu mugigaitz bakarra beren bizitza eta pentsamenduen mugikortasun ikaragarriaren erdian.

Eta irakurlea, giza arazoen xehetasun hori aztertu ondoren, koadroa bere zabaltasun osoan ikusi nahi duenean, harrituta gelditukо da.

Alde batetik, dinastiarik irmoenak koloka edota suntsituta daude; alde guztietatik herriek ihes egiten diote beren legeen aginteari; beren jaun edo printzeen aginpidea suntsitzen edo mugatzen dute; iraultzan ez dauden nazio guztiek egonezinik eta asaldatuta ematen dute gutxienez; errebolta-izpiritu berberak eragiten die. Eta, bestalde, anarki garai honetan eta hain bihurri diren herri horietan, gizarte-botereak etengabe hazten ditu bere prerrogatibak; zentralizatuago, aktiboago, absolutuago, hedatuago bilakatzen da. Hiritarrak administrazio publikoaren kontrolpean erortzen dira une oro; sentitu gabe, eta oharkabean bezala, egunero beren independentzia indibidualaren zati berriren batzuk sakrifikatzera eramaten dituzte, eta noizean behin tronuren bat iraultzen eta erregeak hankazpiratzen dituzten horiek beroriek gero eta gehiago makurtzen dira, erresistentziarik gabe, funtzionariren baten gurariric txikienetara.

Honela, bada, gaur egun bi iraultza zertzen direla ematen du, elkarren kontra: batak boterea ahultzen du iraunkorki, eta besteak indartu etengabe. Gure historian beste inoiz ez da agertu ez hain ahul, ez hain indartsu.

Baina, azkenik, munduaren egoera hurbilagotik aztertzeari ekiten zaionean, ikusten da bi iraultza hauek estu-estu loturik daudela elkarri, sorburu bera dutela eta, bide ezberdinak egin ondoren, azkenean leku berera eramaten dutela jendea.

Beldurrik gabe errepikatuko dut azken aldiz, liburu honetako beste hainbat lekutan dagoeneko esan edo adierazi dudana: kontuz ibili behar da ez nahasteko berdintasunaren egitatea bera eta hori gizarte-egoeran eta legeetan sartzen duen iraultza; hortxe dago, hain zuzen, harritzen gaituzten fenomeno ia guztien arrazoia.

Europako antzinako botere politiko guztiak, handienak nahiz txikienak, aristokrazi mendeetan sortu ziren, eta gutxi-asko ezberdintasunaren eta pribilegioaren printzipioa ordezkatzen edo defendatzen zuten. Gero eta handiagoa zen berdintasunak sortutako premia eta interes berriak gobernuan nagusiarazteko, gaur egungo gizonei beharrezkoa gertatu zaie antzinako botereak irauli edo bortxatzea. Honek iraultzak egitera eraman ditu eta beraien arteko askori desordena eta independentziaren gustu basatia sentiarazi die, iraultza guztiek, zeinahi helburu dutelarik ere, beti sortarazten dutena.

Ez dut uste eskualde bakar bat egongo denik Europan, non berdintasunaren garapenak ez dituen aurretik edo atzetik aldaketa bortitzen batzuk izan jabetzaren eta pertsonen egoeran, eta aldaketa hauek ia guztiak anarkia eta libertinaje handiarekin egin izan dira, nazioan gutxien zibilizaturiko zatiak gehien zibilizatuaren aurka egin izan baititu.

Hortik sortu dira gorago erakutsi ditudan kontrako bi joerak. Iraultza demokratikoa bete-betean zegoen bitartean, honen aurka borrokatzen ziren antzinako botere aristokratikoak suntsitu nahian zebiltzanak independentzi izpiritu handia agertzen zuten, eta, berdintasunaren garaipena osoagoa bilakatu ahala, berdintasun honek beronek sortarazten dituen joera naturaletara abandonatzen ziren pixkanaka, eta gizarte-boterea indartzen eta zentralizatzen zuten. Askeak izan nahi zuten berdinak izatera iristeko eta, berdintasuna askatasunaren laguntzaz gehiago ezarri ahala, zailago bihurtzen zitzaien askatasuna lortzea.

Bi egoera horiek beti ez dira elkarren segidakoak izan. Gure arbasoek erakutsi dute herri batek nola antola zezakeen bere baitan ikaragarrizko tirania nobleen aginpidetik ihes egin eta errege guztien botereari desafio egiten zion une berean, munduari aldi berean erakutsiz independentzia konkistatu eta galtzeko era.

Gure garaiko jendeak ikusten du antzinako botereak behera datozela alde guztietatik; antzinako eragin guztiak hiltzen ari direla ikusten du, antzinako hesi guztiak erortzen; horrek iaioenen irizmena ere nahastu egiten du; beraien aurrean zertzen ari den iraultza harrigarriari bakarrik jartzen diote arreta, eta uste izaten dute gizadia anarkian eroriko dela betiko. Iraultza horren azken ondorioetan pentsatuko balute, beste beldur batzuk izango lituzkete agian.

Niri dagokidanez, aitor dut ez naizela batere fido nire garaikideei bultza egiten dien askatasun-izpirituaz; gaur egungo nazioak zurrunbilotsuak direla ikusten dut garbi, baina ez dut ikusten argi liberalak direnik, eta beldur naiz, tronuak koloka jartzen dituzten astinaldi horietatik irtetean, subiranoak ez ote diren inoiz baino ahaltsuago izango.

VI. KAPITULUA

ZER-NOLAKO DESPOTISMOAREN BELDUR IZAN BEHAR DUTEN NAZIO DEMOKRATIKOEK

Estatu Batuetan egindako egonaldian ohartu nintzen amerikarrenaren antzeko gizarte-egoera demokratikoak erraztasun bereziak eskain zitzakeela despotismoa ezartzeko, eta Europara itzultzean ikusi nuen gure printzeetako gehienak zenbat baliatu ziren jadanik gizarte-egoera horrek berorrek sortarazitako ideia, sentimendu eta premiez, beren boterearen esparrua hedatzeko.

Horrek eraman ninduen sinestera kristau-nazioek agian antzinako herrietako batzuek lehenago jasan zutenaren antzeko zapalkuntzaren bat jasango zutela azkenerako.

Gaiaren azterketa zehatzagoak eta bost urteko hausnarketa berriek ez dute nire beldurra gutxitu, baina bai objektua aldatu.

Iragan mendeetan sekula ez da ikusi hain subirano absolutu eta ahaltsurik aginterri handi baten zati guztiak, bere kabuz eta bigarren mailako botereen laguntzarik gabe, administratzeari ekin dionik; ezta bere menpeko guztiak arau uniforme baten xehetasunetara bereizketarik gabe makurrarazten saiatu denik, edo bakoitzaren ondoraino jaitsi denik agindu eta gidatzeko ere. Horrelako eginkizun baten ideia sekula ez du izan giza izpirituak, eta, norbaiti bururatu ere egin balitzaio, jakintzargien eskasiak, administrazio-prozeduren inperfekzioak eta, batez ere, baldintzen ezberdintasunak sorturiko oztopo naturalek laster eragotziko zioketen hain proiektu zabala gauzatzea.

Ikusten da zesarrek botere handiena izan zuten garaian, mundu erromatarrean bizi ziren herriek artean bazituztela ekandu eta ohitura ezberdinak. Nahiz eta monarka beraren menpe egon, probintzia gehienak aparte administratuak zeuden; udalerri ahaltsu eta aktiboz beteak zeuden, eta, aginterriko gobernu osoa enperadorearen eskuetan bakarrik egon arren, eta, behar izanez gero, gauza guztien arbitro beti bera izan arren, gizarte-bizitzako eta gizabanakoaren bizitzako xehetasunek normalean ihes egiten zuten haren kontrolpetik.

Egia esateko, botere neurrigabe eta kontrapisurik gabea zuten enperadoreek, eta horrek beren joera bitxietara aske makurtzeko aukera ematen zien, eta joera horiek asetzeko Estatuaren indar osoa erabiltzeko ere bai; sarritan abusatu egiten zuten botere horretaz hiritar bati arbitrarioki ondasunak edo bizitza kentzeko; haien tiraniak ikaragarri pisatzen zuen batzuen gain, baina ez zen askorengana zabaltzen; garrantzizko gai handi batzuetara mugatzen zen, eta gainerakoez ahazten; bortitza eta murritza zen.

Badirudi, gaur egungo nazio demokratikoen artean despotismoa ezartzera iritsiko balitz, beste ezaugarri batzuk izango lituzkeela: zabalagoa eta gozoagoa izango litzateke eta atsekabetu gabe doilortuko lituzke gizakiak.

Ez dut zalantzarik, gureak bezalako jakintzargi- eta berdintasun-mendeetan, subiranoak errazago iritsiko liratekeela botere publiko guztiak beren eskuetan bakarrik biltzera eta maiztasun handiagoz eta sakonkiago sartuko liratekeela interes pribatuen esparruan, antzinako haietako inork inoiz egin ahal izan zuen baino. Despotismoa errazten duen berdintasun horrek berorrek, ordea, eztitu ere egiten du; ikusi dugu nola, gizakiak antzekoago eta berdinago diren neurrian, ohitura publikoak gizatiarrago eta gozoago bilakatzen diren; ezein hiritarrek ez badu ez botere handirik, ez aberastasun handirik, tiraniari okasioa eta jokalekua falta izaten zaizkio, nolabait ere. Aberastasun guztiak erdipurdikoak direnez, grinak ere neurritsuak izaten dira berez, irudimena mugatua, plazerrak xumeak. Moderazio unibertsal horrek moderatu egiten du subiranoa bera eta muga batzuen barruan eusten dio beraren desiren bulkada desordenatuari.

Gizarte-egoeraren izaeratik ateratako arrazoi horietaz aparte, nire arlotik kanpo harturiko beste asko ere erantsi ahal izango nituzke; baina neure buruari ezarri dizkiodan mugen barnean gelditu nahi dut.

Gobernu demokratikoak bortitz eta anker izan daitezke giro bero eta arrisku handiko zenbait momentutan; baina krisi horiek bakan eta igarokorrak izango dira.

Gaur egungo jendearen grina txikietan pentsatzen dudanean, bere ohituren biguntasunean, bere jakintzargien hedaduran, bere erlijioaren garbitasunean, bere moralaren gozotasunean, bere aztura saiatu eta ordenatuetan, bizioan nahiz bertutean ia guztiek izaten duten moderazioan, ez naiz beren buruzagiengan tiranoak aurkituko dituzten beldur, tutoreak baizik. (H)

Pentsatzen dut, beraz, herri demokratikoak mehatxatzen dituen zapalkuntza-mota ez dela izango munduan orain arte izan den ezeren antzeko; gure garaikideek ez dute horren irudirik beren oroitzapenetan aurkituko. Neuk ere alferrik bilatzen dut neuregan horretaz dudan ideia zehazki erreproduzitu eta bere baitan hartuko duen adierazpide bat; despotismo eta tiraniaren hitz zaharrak ez dagozkio ongi. Gauza berria da; beraz, definitzen saiatzea komeni da, ezin baitut izendatu.

Despotismoa munduan zein ezaugarri berrirekin sor ote daitekeen imajinatu nahi badut, antzeko eta berdinak diren gizonen kopuru zenbatezina ikusten dut, atsedenik gabe beren gain biraka dabiltzanak plazer txiki eta arrunten bila, hauekin betetzen dutelarik arima. Horietako bakoitza, aparte erretiratua, arrotz da beste guztien destinoarekiko. Seme-alaba eta lagun partikularrek osatzen dute beretzat gizadi osoa; gainerako herrikideei buruz, beraien ondoan dago, baina ez ditu ikusten; ukitu egiten ditu eta ez ditu sentitzen; beregan eta beretzat bakarrik bizi da eta, oraindik familia gelditzen bazaio ere, gutxienez esan daiteke jadanik ez duela aberririk.

Haien gainetik botere ikaragarri handi eta jagolea ageri da, bera bakarrik haien gozamena ziurtatu eta haien zoria zaintzeaz arduratzen dena. Absolutua da, zehatza, erregularra, aurrikuslea eta gozoa. Aitaren boterearen antza izango luke, gizonak heltzarorako prestatzea izango balu helburu; aitzitik, ez irteteko moduan haurtzaroan finkatzea baino ez du bilatzen; atsegin du hiritarrek gozatzea, gozatzeaz baino ez pentsatzekotan. Haien zorionerako lan egiten du gogotsu; baina beraien agente eta arbitro bakarra izan nahi du; haien segurtasunaz arduratzen da, premiak aurrikusi eta ziurtatzen ditu, plazerrak errazten ditu, arazo nagusiak gidatzen, industria zuzentzen, oinordetzak arautzen eta ondareak banatzen; zergatik ezin die erabat kendu pentsatzeko eragozpena eta bizitzeko nekea?

Honela egunero alferrikakoago eta bakanago bihurtzen du erabakimenaren erabilera; honela, gero eta espazio txikiagoan ixten du borondatearen ekintza, eta poliki-poliki hiritar bakoitzari bere buruaren erabilera ere kentzen dio. Berdintasunak gauza horietarako guztietarako prestatu du jendea, horiek sufritzeko prestatu du eta sarri baita onuragarritzat hartzeko ere.

Horrela, txandaka bere esku ahaltsuetan gizabanako bakoitza hartu ondoren eta bere gisara modelatu ondoren, subiranoak gizarte osoaren gain zabaltzen ditu bere besoak; gainazala arau txiki konplikatu, zehatz eta uniformeen sare batez estaltzen du, horietan zehar izpiriturik orijinalenek eta arimarik kementsuenek ere ezin dutelarik aurrera egin masaren aurrera pasatzeko; ez ditu borondateak apurtzen, baina bigundu egiten ditu, makurrarazi eta gidatu; nekez behartzen du jardutera, baina etengabe kontra egiten dio jarduteari; ez du suntsitzen, baina sortzea eragozten du; ez du tiranizatzen, baina bai gogait eragiten, zapaltzen, ahultzen, iraungitzen, aberetzen, eta azkenean nazio bakoitza abere-talde herabe eta langile izatera mugatzen du, gobernua izanik aberezaina.

Beti pentsatu izan dut pintatu berri dudan morrontza-mota hori, arautu, gozo eta baketsua, uste baino hobeto konbina daitekeela askatasunaren kanpo-formetako batzuekin, eta ez litzaiokeela ezinezkoa gertatuko herriaren subiranotasunaren gerizpean bertan ezartzea.

Bi grina etsaik etengabe nekatzen dituzte gure garaikideak: gidatuak izateko premia eta aske irauteko gogoa sentitzen dituzte. Kontrako joera hauetako bat ere suntsitu ezin dutenez, aldi berean biak asetzen ahalegintzen dira. Botere bakar, jagole, ahalguztiduna imajinatzen dute, baina hiritarrek aukeratua. Zentralizazioa eta herri-subiranotasuna konbinatzen dituzte. Horrek nolabaiteko atsedena ematen die. Tutelapean egoteaz kontsolatzen dira, pentsatuz eurek aukeratu dituztela beren tutoreak. Gizabanako bakoitzak jasan egiten du lotua izatea, ikusten baitu katearen muturra daukana ez dela pertsona bat, ez klase bat, herria bera baizik.

Sistema honetan hiritarrak une batez menpekotasunetik irteten dira beren nagusia seinalatzeko, eta berriro itzultzen dira bertara.

Gaur egun, jende asko oso erraz moldatzen da administrazio-despotismoaren eta herri-subiranotasunaren arteko konpromezu horretara, eta gizabanakoen askatasuna behar hainbat bermatua dutela uste dute nazio-botereari entregatzen diotenean. Hori ez zait aski. Nagusiaren izaera askoz gutxiago axola zait obedientzia baino.

Ez dut ukatuko, hala ere, antzeko eraketa bat askoz ere hobea iruditzen zaidala, botere guztiak kontzentratu ondoren gizon edo gorputz arduragabe baten esku utziko lituzkeena baino. Despotismo demokratikoak har litzakeen forma guztietatik, ziur aski hau izango litzateke okerrena.

Subiranoa hautazkoa denean edota benetan hautazkoa eta independentea den legebiltzar batek hurbiletik zaindua, gizabanakoei jasanarazten dien zapalkuntza handiagoa izaten da batzuetan; baina degradazio gutxiagokoa da beti, zeren eta, hiritar bakoitzak, gogait eragin eta ezintasunera murrizten dutenean, imajina baitezake, obeditzerakoan, bere buruaren menpe bakarrik jartzen dela, eta bere nahikundeetako bati sakrifikatzen dizkiola beste guztiak.

Ulertzen dut, halaber, subiranoak nazioa ordezkatu eta bere menpe hartzen duenean, hiritar bakoitzari kentzen zaizkion indar eta eskubideek ez diotela estatu-buruari bakarrik balio, Estatuarentzat berarentzat ere probetxugarri baitira, eta ulertzen dut partikularrek ere ateratzen diotela fruituren bat publikoaren mesedetan beren independentziaz egin duten sakrifizioari.

Beraz, herrialde oso zentralizatuan nazio-ordezkaritza sortzea zentralizazio gorenak eragin dezakeen gaitza gutxitzea da, baina ez suntsitzea.

Ongi ikusten dut, horrela, eskuhartze indibiduala gorde egiten dela arazorik garrantzitsuenetan; baina ez da gutxiago kentzen arazo txiki eta partikularretatik. Ahaztu egiten da batez ere xehetasunetan dela arriskutsua gizonak jopu bihurtzea. Nire aldetik, askatasuna beharrezkoagotzat joko nuke gauza txikietan handietan baino, pentsatuko banu inoiz ziur egon daitekeela bataz, bestea izan gabe.

Menpekotasuna arazo txikietan agertzen da egunero eta hiritar guztiengan sentiarazten da bereizketarik gabe. Ez ditu etsitzen, baina etengabe nahigabetzen ditu eta beren borondatearen erabilerari uko egitera eramaten ditu. Pixkanaka haien izpiritua iraungitzen du eta arima ahultzen, baina obedientziak -zirkunstantzia oso larri baina oso bakanetan eman behar dena- oso noizean behin erakusten du morrontza eta gizon jakin batzuen gain bakarrik botatzen du bere zama. Alferrik emango diezue hiritar horiei -botere zentralarekiko hain menpeko bihurtu dituzuenei- lantzean behin botere horren ordezkariak aukeratzeko ardura; beren aukeramenaren erabilera hain garrantzitsu baina hain labur eta bakan horrek ez du eragotziko beren kabuz pentsatu, sentitu eta jarduteko ahalmena poliki-poliki galtzea, eta honela pixkanaka gizatasun-mailaren azpitik erortzea.

Gaineratzen dut laster bihurtuko direla geratzen zaien pribilegio handi eta bakana zertzeko ezgauza. Administrazioaren esparruan despotismoa areagotzen zuten aldi berean esparru politikoan askatasuna sartu duten herri demokratikoak berezitasun oso bitxietara eramanak izan dira. Zentzu hutsa besterik behar ez duten arazo txikiak gidatu behar badira, hiritarrak horretarako gai ez direla iruditzen zaie; estatu osoko gobernua bada kontua, prerrogatiba handiak ematen dizkiete hiritar horiei; alternatiboki subiranoaren jostailu eta beraren nagusi dira, erregeak baino gehiago eta gizakiak baino gutxiago. Aukeraketa-sistema guztiak agortu ondoren, komeni zaien bat aurkitu gabe, harritu egiten dira eta bila segitzen, seinalatzen duten gaitza herrialdearen egituraketan hautesleriagan baino askoz gehiago ez balego bezala.

Egia esateko, zaila da ulertzea beren buruak gidatzeko azturari erabat uko egin diotenek nola asma dezaketen beren gidariak ongi aukeratzen; eta ezin da sinetsi gobernu liberal, kementsu eta zuhurrik inoiz irten daitekeenik zerbitzari-herri baten sufragioetatik. (I)

Konstituzio bat, bere buruan errepublikarra eta beste zati guztietan ultramonarkikoa litzatekeena, munstro efimeroa iruditu izan zait beti. Gobernarien bizioak eta gobernatuen inozokeriak laster eramango lukete hondamendira; eta herriak, bere ordezkariez eta bere buruaz nekatuta, erakunde askeagoak sortuko lituzke edota nagusi bakar baten oinetan etzatera itzuliko litzateke laster.

VII. KAPITULUA

AURREKO KAPITULUEN JARRAIPENA

Baldintzak berdinak dituen herri batean beste batean baino errazagoa iruditzen zait gobernu absolutu eta despotikoa ezartzea, eta horrelako gobernu bat inoiz antzeko herri batean ezarriko balitz, pentsatzen dut ez lituzkeela gizakiak zapaldu bakarrik egingo, luzarora baita gizatasunaren ezaugarri nagusienetako batzuk kendu ere bakoitzari.

Beraz, aro demokratikoetan despotismoari beldur berezia izan behar zaiola iruditzen zait.

Uste dut edozein garaitan maitatuko nukeela askatasuna, baina adoratzeko joera dut bizi dugun garai honetan.

Bestalde, komentziturik nago sartzen ari garen mende hauetan autoritatea pribilegioaren eta aristokraziaren gain oinarritzen ahalegintzen direnek porrot egingo dutela. Autoritatea erakarri eta klase bakar baten baitan eduki nahi dutenek porrot egingo dute. Gaur egun ez dago subiranorik menpekoen arteko bereizketa iraunkorrak berrezarriz despotismoa sortzeko behar hainbat iaio eta indartsurik; ez dago ere legegilerik behar hainbat jakintsu eta ahaltsurik erakunde askeak mantentzeko egoeran dagoenik, ez badu berdintasuna lehen printzipio eta ikurtzat hartzen. Beraz, gure garaikide guztiek, beren hurkoen independentzia eta duintasuna sortu edo ziurtatu nahi badute, berdintasunaren adiskide agertu behar dute; eta horrelako itxura emateko modu duin bakarra benetan horrelakoa izatea da: beren zeregin santuaren arrakasta horren arabera dago.

Honela, kontua ez da gizarte aristokratikoa berreraikitzea, baizik eta askatasuna sortaraztea Jainkoak biziarazten digun gizarte demokratikoaren baitan.

Lehenengo bi egia hauek sinpleak, argiak eta emankorrak iruditzen zaizkit, eta berez naramate hausnartzera zelako gobernu askea ezar ote daitekeen zirkunstantziak berdinak dituen herri batean.

Nazio demokratikoen eraketatik eta beraien premietatik ondorioztatzen da, horrelakoetan, subiranoaren botereak uniformeago, zentralizatuago, hedatuago, sarkorrago eta ahaltsuagoa izan behar duela beste edonon baino. Horietan gizartea aktiboago eta indartsuagoa da berez, gizabanakoa menpekoago eta ahulagoa; batak gehiago egiten du, besteak gutxiago; hori ezinbestekoa da.

Ezin da espero izan, eskualde demokratikoetan, independentzia indibidualaren esparrua aristokrazi herrialdeetan bezain zabala izango denik inoiz. Baina hori ez da desiragarria ere, zeren eta, nazio aristokratikoetan, gizartea gizabanakoari sakrifikatzen baitzaio sarri, eta gehiengoaren oparotasuna batzuen handitasunari.

Beharrezko eta desiragarria da aldi berean herri demokratiko bat gidatzen duen botere zentrala aktiboa eta ahaltsua izatea. Ez da ahul edo nagi bihurtu behar, bere malgutasun eta indarraz abusa dezan eragotzi baizik.

Aristokrazi mendeetan pertsona partikularren independentzia ziurtatzen zerak laguntzen zuen gehien, subiranoa ez zela hiritarrak gobernatu eta administratzeaz arduratzen; ardura hori neurri batean aristokraziako kideei utzi behar izaten zien; horrela, gizarte-botereak, beti zatiturik egotean, sekula ez zuen osorik eta era berean bere pisua jartzen pertsona bakoitzaren gainean.

Subiranoak ez zuen dena bere kabuz egiten, eta, gainera, haren ordez jarduten zuten funtzionari gehienak, beren boterea jaiotzaz lortzean eta ez subiranoagandik, ez zeuden etengabe haren esku. Ezin zituen une oro sortu edo suntsitu bere kapritxoen arabera, ezta guztiak uniformeki makurrarazi ere bere nahirik txikienetara. Honek are gehiago bermatzen zuen oraindik partikularren independentzia.

Ulertzen dut ongi gaur egun ezin dela bitarteko horretaz baliatu, baina horren ordezko prozedura demokratikoak ikusten ditut.

Korporazio edo nobleei kentzen zaizkien administrazio-botere guztiak subiranoari bakarrik eman ordez, zati bat aldibaterako hiritar hutsez osaturiko bigarren mailako gorputzei eman dakieke; honela, partikularren askatasuna ziurragoa izango da, beren berdintasuna txikiagoa izan gabe.

Amerikarrek, gu baino gutxiago arduratzen direlarik hitzengatik, konderri izena gorde dute beren administrazio-barrutietako handienarentzat; baina konderriaren ordez batzar probintziala jarri dute neurri batean.

Oso erraz onartuko dut, gurea bezalako berdintasun-garaian, bidegabea eta zentzugabea litzatekeela herentziazko funtzionariak ezartzea; baina ezerk ez du eragozten, neurri batean, horien ordez hautazko funtzionariak jartzea. Hautapena espediente demokratikoa da, botere zentralaren aurrean funtzionariaren independentzia ziurtatzen duena, herentziak herri aristokratikoetan egin dezakeena baino gehiago.

Herrialde aristokratikoak pertsona aberats eta eragin handikoz beterik daude, beren buruekin aski izaten dakitenak, eta erraz zapaltzen ez direnak, ezta ezkutuan ere; hauek moderazio eta neurrizko aztura orokorretan eusten diote botereari.

Ongi dakit herrialde demokratikoetan ez dela berez horrelako jenderik agertzen, baina sor daiteke antzeko zerbait artifizialki.

Benetan uste dut ezin dela munduan berriro aristokraziarik sortu; baina pentsatzen dut hiritar soilek, elkartuz, oso izaki oparo, eragin handiko eta indartsuak eratu ditzaketela; labur esanda, pertsona aristokratikoak.

Honela, aristokraziaren abantaila politiko handienetako batzuk lortuko lirateke, beraren bidegabekeria eta arriskurik gabe. Elkarte politiko, industrial, komertzial edo baita zientifiko eta literario bat ere hiritar ilustratu eta ahaltsu bat bezala da, nahierara makurrarazi ezin dena, ezta ezkutuan zapaldu ere, eta, boterearen exigentzien kontra bere eskubide partikularrak defendatzean, askatasun komunak salbatzen dituena.

Aristokrazi garaietan, pertsona bakoitza estu-estu lotua dago beti bere herrikideetako zenbaiti, eta ezin zaio berari eraso egin besteak laguntzera etorri gabe. Berdintasun-mendeetan, gizabanako bakoitza isolatua dago berez; ez du herentziazko lagunik laguntza eskatu ahal izateko, ezta klaserik ere sinpatia

ziurtatuko dionik; erraz uzten da aparte eta zigorgabe hankazpiratzen. Gaur egun, zapaldua den hiritarrak bide bakarra du bere burua babesteko: nazio osoarengana zuzentzea eta, honek entzungor egiten badio, gizadiagana; hori egiteko bide bakarra dago, prentsa. Honela, prentsa-askatasuna askoz ere baliotsuagoa da nazio demokratikoetan beste guztietan baino; berak bakarrik sendatzen ditu berdintasunak sor ditzakeen gaitzik gehienak. Berdintasunak isolatu eta ahuldu egiten ditu gizakiak; baina prentsak bakoitzaren ondoan oso arma ahaltsua jartzen du, ahulenak eta isolatuenak ere erabil dezakeena. Berdintasunak hurbilekoen laguntza kentzen dio gizabanako bakoitzari, baina prentsak herrikide eta lagunurko guztiei laguntza eskatzeko aukera ematen dio. Inprimategiak berdintasunaren aurrerapena lastertu du eta bere zuzentzailerik onenetakoa da.

Pentsatzen dut aristokrazietan bizi direnak, behar izanez gero, bizi daitezkeela prentsa-askatasunik gabe, baina eskualde demokratikoetan bizi direnek ezin dute hori egin. Hauen independentzia pertsonala bermatzeko, ez naiz fido batzar politiko handiez, parlamentu-prerrogatibez eta herri-subiranotasunaren aldarrikapenaz.

Gauza hauek guztiak, puntu bateraino, bat datoz morrontza indibidualarekin; baina morrontza hori ezin da erabatekoa izan prentsa askea bada. Prentsa da, izatez, askatasunaren tresna demokratikoa.

Antzeko zerbait esango dut botere judizialaz.

Funtsezkoa zaio botere judizialari interes partikularrez arduratzea eta aurrean jartzen zaizkion gauza txikietara bere begirada gogotsu zuzentzea; botere horren mamiari dagokio, halaber, zapalduta daudenen laguntzara bere kabuz ezin joan izatea, baina beraien arteko apalenaren esanetara etengabe egotea. Honek, oso ahula izan arren, beti behartu dezake epailea bere kexa entzutera eta erantzutera. Botere judizialaren izaerari dagokio hori.

Horrelako boterea, beraz, bereziki aplikagarria da askatasunaren premietara, subiranoaren begia edo eskua giza ekintzen xehetasunik txikienetan etengabe sartzen den garaian, partikularrak, ahulegiak izanik beren burua babesteko, isolatuegi baitaude hurkoen laguntza jaso ahal izateko. Epaitegien indarra izan da beti independentzia indibidualari eskain dakiokeen bermerik handiena, baina hau demokrazi mendeetan da egia, batez ere; honelakoetan, eskubide eta interes partikularrak beti egoten dira arriskuan, botere judiziala hazten ez bada eta, baldintzak berdindu ahala, zabaltzen ez bada.

Askatasunarentzat oso arriskutsu den zenbait joera sortzen die berdintasunak gizakiei, legegileak beti erne egon behar duelarik horiekiko. Garrantzitsuenak bakarrik gogoraraziko ditut.

Demokrazi mendeetan bizi direnek ez dute erraz ulertzen formen baliagarritasuna; berezko destaina sentitzen dute horiekiko. Aipatu ditut horren arrazoiak beste nonbait. Formek mesprezua pizten diete, eta sarritan gorrotoa. Normalean gozamen erraz eta oraingoetara bakarrik jotzen dutenez, sutsu oldartzen dira beren desira-gaietako bakoitzera; atzerapenik txikienak etsigarri gertatzen zaizkie. Tenperamentu horrek, bizitza politikora eramana, egunero beren egitasmoren batean atzeratzen edo geldiarazten dituzten formen aurka jarrarazten ditu.

Demokrazietako jendeak formetan aurkitzen duen eragozpen hori da, hala ere, azken hauek askatasunarentzat hain mesedegarri bihurtzen dituena, bere meritu nagusia hesi izatea delarik indartsu eta ahularen, gobernari eta gobernatuaren artean, kenduz bati eta emanez besteari nork bere burua ezagutzeko denbora. Are beharrezkoagoak dira formak subiranoa aktiboago eta ahaltsuagoa eta partikularrak nagiago eta ahulagoak diren neurrian. Honela, herri demokratikoek formen premia handiagoa dute berez beste herriek baino, eta berez gutxiago errespetatzen dituzte. Benetako arreta merezi du honek.

Ez dago ezer kaskarragorik gure garaikideetako gehientsuenek forma-arazoekiko duten destaina harroa baino; zeren eta forma-arazo txikienek orain arte sekula izan ez duten garrantzia hartu baitute gaur egun. Gizadiaren interes handienetako batzuk berari atxikiak daude.

Iruditzen zait aristokrazi mendeetan bizi ziren estatu-gizonek batzuetan zigorgabe mespreza bazitzaketen formak eta berauen gainetik altxatu sarritan, gaur egungo herriak gidatzen dituztenek begirunez hartu behar dutela horietako txikiena ere eta ez baztertu ezinbesteko premiak horretara behartzen dituenean izan ezik. Aristokrazietan formen superstizioa zegoen; guk beraien kultu ilustratu eta hausnartua izan behar dugu.

Beste joera bat oso naturala herri demokratikoetan, eta oso arriskutsua, eskubide indibidualak mesprezatzera eta kontuan gutxi hartzera eramaten duena da.

Orokorrean, jendea eskubide bati atxikitzen zaio eta bere garrantziaren edo hartaz egin duten erabilera luzearen arabera agertzen diote begirunea. Herri demokratikoetan aurkitzen diren eskubide indibidualak normalean garrantzi txikikoak dira, oso berriak eta oso ezegonkorrak; honen eraginez sarritan eragozpenik gabe sakrifikatzen dira eta bihotz-zimikorik gabe hausten dira ia beti.

Nolanahi ere, gizabanakoen eskubideekiko, jendeak berezko mesprezua zertzen duen aldi berean eta nazio beretan, gizartearen eskubideak naturalki hedatzen eta sendotzen dira; alegia, jendea gutxiago atxikitzen zaie eskubide partikularrei, geratzen den apurrari eutsi eta defendatzea beharrezkoen litzatekeen momentuan.

Askatasunaren eta giza handitasunaren benetako adiskideek bizi ditugun garai demokratikoetan egon behar dute, batez ere, tinko eta gizarte-botereak gizabanako batzuen eskubide partikularrak arinkeriaz bere proiektuen egikaritza orokorragatik sakrifika ditzan eragozteko prest. Honelako garaietan ez dago hiritar hain ilunik zapaltzen uztea oso arriskutsu ez izateko bezalakorik, ezta hain garrantzi gutxiko eskubide indibidualik ere, zigorgabe arbitrariotasunera laga daitekeenik. Arrazoia sinplea da: gizabanako baten eskubide partikularra, horrelako eskubideen garrantziaz eta santutasunaz giza izpiritua blai dagoenean hausten bada, bipildutakoari bakarrik egiten zaio kalte; baina horrelako eskubide bat gaur egun hausteak nazio-ohiturak sakon usteltzea esan nahi du eta gizarte oso-osoa arriskuan jartzea; zeren eta horrelako eskubideen ideiak berak aldatzera eta galtzera jotzen baitu gure artean.

Badira aztura batzuk, ideia eta bizio batzuk, iraultza-egoerari dagozkionak, eta iraultza luze batek derrigorrez sortarazi eta orokortzen dituenak, nolanahikoak izanik, bestalde, horien izaera, xedea eta jokalekua.

Edozein nazio denbora laburrean buruzagiz, iritziz eta legez hainbat aldiz aldatu denean, nazio hori osatzen dutenek mugimenduaren gustua hartzen dute eta indarraren laguntzaz mugimendu guztiak bizkor zertzera ohitzen dira. Orduan naturalki zertzen dute formen mesprezua, egunero ikusten baitute horien ezintasuna, eta pazientzia gutxiz jasaten dute arauaren agintea, hainbat aldiz ikusi dutelarik hautsia beren aurrean.

Ekitatearen eta moralaren nozio arruntak aski ez direnez iraultzak egunero sortarazitako berrikuntza guztiak azaldu eta justifikatzeko, gizarte-onuraren printzipioari heltzen zaio, premia politikoaren dogma sortzen da, eta interes partikularrak eskrupulurik gabe sakrifikatu eta eskubide indibidualak hankaperatzeko ohitura hartzen da gogotsu, proposaturiko helburu orokorra bizkorrago lortu ahal izateko.

Aztura eta ideia horiek -nik iraultzaileak deituko nituzkeenak, iraultza guztiek sortzen baitituzte- aristokrazien baitan nahiz herri demokratikoen artean ikusten dira; baina aristokrazietan sarri ez dira hain ahaltsuak izaten eta bai iraupen laburragokoak beti, aurkako zaizkien aztura, ideia, akats eta oztopoak aurkitzen baitituzte horietan. Beren kasa desagertzen dira iraultza bukatu ondoren, eta nazioa antzinako ibilera politikoetara itzultzen da. Beti ez da horrela gertatzen herrialde demokratikoetan, non beti baita beldur izatekoa joera iraultzaileak, iraungi gabe eztitu eta erregularizatzean, ez ote diren pixkanaka gobernu-ohitura eta administrazio-aztura bihurtuko.

Ez dut ezagutzen herrialderik iraultzak arriskutsuago direnik herrialde demokratikoetan baino, zeren eta, beti ezinbestean sortzen dituzten gaitz akzidental eta igarokorrez aparte, beti izaten baitute gaitz iraunkorrak eta, nolabait esateko, betikoak sortzeko arriskua ere.

Uste dut badirela erresistentzia zintzoak eta altxamendu legitimoak. Beraz, ez dut esaten, era absolutuan, garai demokratikoetako gizonek ez dutenik inoiz iraultzarik egin behar; baina uste dut arrazoi dutela horretan hasi aurretik beste guztiek baino zalantza gehiago izaten badute, eta hobe dutela oraingo egoeraren ezerosotasun asko pairatzea hain erremedio arriskutsura jotzea baino.

Ideia orokor batekin bukatuko dut, honek bere baitan hartzen dituelarik ez bakarrik kapitulu honetan adierazitako ideia partikular guztiak, baita liburu honek azalgai dituen gehientsuenak ere.

Gurearen aurreko aristokrazi mendeetan, partikular oso ahaltsuak zeuden eta gizarte-aginpide oso ahula. Gizartearen beraren irudia iluna zen eta hiritarren gain agintzen zuten botere guztien artean galtzen zen etengabe. Garai hartako jendearen ahaleginik nagusiena gizarte-boterea handitu eta indartzera zuzendu behar izan zen, bere prerrogatibak hazi eta ziurtatzera eta, aitzitik, gizabanakoen independentzia muga estuagoetan ixtera eta interes partikularra interes orokorraren menpe jartzera.

Gaur egungo jendeari beste arrisku eta ardura batzuk dagozkio.

Nazio moderno gehienetan, subiranoa, zeinahi izanik berorren jatorri, eraketa eta izena, ia ahalguztidun bilakatu da, eta partikularrak, gero eta gehiago, ahuleziaren eta menpekotasunaren azken mailan jausten dira.

Dena ezberdin zen antzinako gizarteetan. Batasuna eta uniformitatea ez ziren inon aurkitzen. Gure gizarteetan, berriz, dena oso antzeko bilakatzea da mehatxua, eta horrela gizabanako bakoitzaren irudi partikularra erabat galduko da laster fisionomia komunean. Gure arbasoak beti prest zeuden ideia honetaz abusatzeko -eskubide partikularrak errespetagarri direla- eta guk berezko joera dugu beste hau exageratzeko -gizabanako baten interesak hainbaten interesaren aurrean makurtu behar duela beti-.

Politika-mundua aldatu egiten da; aurrerantzean erremedio berriak aurkitu behar zaizkie gaitz berriei.

Hona zer iruditzen zaidan legegilearen lehen helburua, sartzen ari garen aro honetan: gizarte-botereari muga zabalak ezartzea, baina ikusteko modukoak eta mugiezinak; partikularrei zenbait eskubide eman eta eskubide horien gozamen ukaezina bermatzea; gizabanakoari geratzen zaion independentzia, indar eta orijinaltasun apurra gordetzea; gizartearen ondoan altxatu eta beraren aurrean eustea.

Esan liteke gure garaiko subiranoek gizakiekin gauza handiak egitea besterik ez dutela nahi. Gizaki handiak egiteaz gehixeago pentsa dezaten nahi nuke; obrari balio gutxiago eta langileari gehiago ematea, eta etengabe gogoan izatea nazio bat ezin dela luzaroan indartsu izan pertsona bakoitza banaka ahula

bada, eta oraindik ez direla aurkitu, hiritar txepel eta makalez osatuz, herri kementsu bat egin dezaketen gizarte-formak edo konbinazio politikoak.

Gure garaikideen artean bi ideia ikusten ditut, kontrakoak baina biak era berean txarrak.

Batzuek ez dute berdintasunean berak sortarazten dituen joera anarkikoak baizik ikusten. Aukeramenaren beldur dira; beren buruaren beldur dira.

Besteek, gutxiago dira baina ilustratuagoak, beste ikuspegi bat dute. Berdintasunetik abiatuz anarkiara doan bidearen ondoan, aurkitu dute azkenean era geldiezinean jendea morrontzara daraman bidea. Aurrez beren arima makurtzen dute beharrezko morrontza horretara; eta, libre irauteaz etsita, laster agertuko den nagusia gurtzen dute jadanik bihotzondoan.

Lehenengoek arriskutsutzat jotzen dutelako abandonatzen dute askatasuna; bigarrengoek, ezinezkotzat daukatelako.

Azken sineskizun hau izan banu, ez nukeen idatziko irakurri duzuen obra hau; neure hurkoen destinoa ezkutuan deitoratzera mugatuko nintzatekeen.

Argitan jarri nahi izan ditut berdintasunak giza independentziarentzat dakartzan arriskuak, uste sendoa baitut arrisku horiek direla handienak, baita etorkizunak ekar litzakeen guztien artean aurrikusigabeenak ere. Baina ez dut uste gaindiezinak direnik.

Sartzen ari garen demokrazi mendeetan bizi direnek independentziaren gustua dute berez. Jakina, pazientzia gutxiz jasaten dute araua: maiteen duten estatuaren beraren iraunkortasunak ere nekatu egiten ditu. Maite dute boterea, baina hori egikaritzen duena mesprezatu eta gorrotatzera jotzen dute, eta erraz ihes egiten diote eskuetatik beren txikitasun eta mugikortasunagatik.

Joera horiek beti aurkituko dira, gizarte-egoeratik sortzen baitira, eta hau ez da aldatuko. Luzaroan, inolako despotismorik ezarri ahal izatea eragotziko dute, eta gizakien askatasunaren alde borroka egin nahi duen belaunaldi berri bakoitza arma berriz hornituko dute.

Beraz, izan dezagun etorkizunarekiko zain egon eta borrokarazten duen beldur osasungarri hori, eta ez bihotzak abaildu eta ahultzen dituen izuikara bigun eta nagia.

VIII. KAPITULUA

GAIAREN IKUSPEGI OROKORRA

Betiko utzi aurretik egin dudan bidea, azken begirada batez ikusi nahi nituzke Mundu Berriaren ezaugarri guztiak, eta berdintasunak gizakien zorian zertu behar duen eragin orokorra epaitu azkenean; baina horrelako eginkizunaren zailtasunak geldiarazi egiten nau; hain helburu handiaren aurrean, ikusmena lausotzen eta arrazoimena zalantzan sentitzen ditut.

Gizarte berri hori, deskribatzen saiatu naizena eta epaitu nahi dudana, sortu besterik ez da egin. Denborak ez du oraindik horren forma finkatu; bera sortarazi duen iraultza handiak iraun egiten du oraindik, eta, gaur egun gertatzen denagatik, ia ezinezkoa da bereiztea iraultzarekin berarekin zer hilko den eta beraren ondoren zer geratuko den.

Sortzen ari den mundua oraindik erdi-murgildua dago erortzen ari den munduaren hondakinetan, eta, giza arazoek agertzen duten nahasmen izugarriaren erdian inork ezin du esan erakunde zaharretatik eta antzinako ohituretatik zer geratuko den zutik, eta zer desagertuko den azkenerako.

Nahiz eta oraindik oso urruti egon gizarte-egoera, lege, ideia eta giza sentimenduetan zertzen den iraultzaren bukaera, jada ezin dira haren egintzak munduan aurrez ikusi den ezerekin konparatu. Mendez mende antzinaterik urrutienera jotzen badut ere, ez dut ezer ikusten aurrean dudanaren antzekorik. Iraganak ez duenez etorkizuna argitzen, ilunpean ibiltzen da izpiritua.

Hala ere, hain koadro zabal, berri eta nahasiaren erdian, jada sumatzen ditut ageri diren ezaugarri nagusi batzuk, eta adierazi egingo ditut:

On-gaitzak munduan berdintsu samar banatzen direla ikusten dut. Aberastasun handiak desagertu egiten dira; txikien kopurua hazi; gurariak eta gozamenak ugaldu; ez dago jada ez oparotasun apartekorik, ez lazeria erremediaezinik. Handinahia sentimendu unibertsala da, baina handinahi eder gutxi dago. Gizabanako bakoitza isolaturik eta ahul dago; gizartea arina da, aurrikusle eta indartsua; partikularrek gauza txikiak egiten dituzte, eta Estatuak ikaragarri handiak.

Arimak ez dira kementsuak, baina ohiturak gozoak dira eta legediak, gizatiarrak. Nahiz eta sakrifizio handiak, bertute oso jaso, distiratsu eta garbiak gutxi aurkitu, azturak ordenatuak dira, bortxa bakana eta ankerkeria ia ezezaguna. Gizakien bizialdia luzeagoa da, eta beren jabetza, ziurragoa. Bizitzak ez du apaindura handirik, baina eroso eta baketsua da. Plazer gutxi dago oso delikatu edo oso zabarra, gizalege gutxi maneretan eta zakarkeria gutxi gustuetan. Apenas dagoen gizon oso jakintsurik edo herri oso ezjakinik. Jeinu gutxiago aurkitzen da eta jakintzargiak zabalduago. Giza izpiritua gizaki guztien ahalegintxo konbinatuei esker garatzen da, eta ez horien arteko batzuen bulkada ahaltsuagatik. Perfekzio

gutxiago dago, baina emankortasun gehiago obretan. Arraza, klase edo aberri-lotura guztiak laxatu egiten dira; gizadiaren lokarri handia, ordea, estutu.

Ezaugarri hauen guztien artean orokor eta harrigarrien zer iruditzen zaidan bilatzen badut, ohartzen naiz aberastasunetan ikusten dena beste mila eratara ere agertzen dela. Ia mutur guztiak gozatzen eta ahultzen dira; ia tontor guztiak berdintzen dira erdi-mailako zerbaiti leku egiteko, munduan ikusten zena baino aldi berean baxuago eta altuago, distira eta iluntasun gutxiagoko zerbaiti.

Antzeko izakiz osaturiko jendetza zenbatezin horren gain begira ari naiz, eta ezerk ez du ez gorantz, ez beherantz egiten. Uniformitate unibertsal horren ikuskizunak tristetu eta odola gatzatzen dit, eta jada existitzen ez den gizartea gura izateko tentazioa dut.

Mundua gizon oso handiz eta oso txikiz, oso aberats eta oso behartsuz, oso jakintsu eta oso ezjakinez betea zegoenean, bigarrengoengandik kentzen nuen bista lehenengoengan bakarrik jartzeko, eta hauek ematen zidaten atsegin; baina ulertzen dut plazer hori nire ahuleziatik sortzen zela: ezin dudanez aldi berean ikusi inguratzen nauen guztia, horregatik aukeratu eta jar ditzaket aparte, hainbeste gauzaren artean, begiestea atsegin ditudanak. Ez da gauza bera gertatzen Izaki ahalguztidun eta betierekoarekin, beraren begiak gauza guztiak ikusten baititu derrigorrez, eta bereizirik eta aldi berean ikusten gizadi osoa eta gizaki bakoitza.

Naturala da sinestea gizakien egile eta iraunarazle horri gehien atsegin zaiona ez dela batzuen oparotasun berezia, guztion ongizaterik handiena baizik. Niri atzerakada iruditzen zaidana aurrerapena da haren ikuspegitik; niri min egiten didana atsegin du hark. Berdintasuna ez da hain jasoa, agian; baina bidezkoagoa da, eta justizia da haren handitasun eta edertasuna.

Saiatzen naiz Jainkoaren ikuspegi horretan sartzen, eta giza gauzak hortik aztertu eta epaitu nahi izaten ditut.

Oraindik inork ezin du munduan baieztatu, era absolutu eta orokorrean, gizarteen egoera berria antzinako egoera baino hobea denik; baina dagoeneko erraz ikusten da bestelakoa dela.

Badira zenbait bizio eta zenbait bertute nazio aristokratikoen eraketari atxikiak eta, herri berrien jitearen hain kontrakoak izanik, ezin direnak horien baitan sartu. Badira joera onak eta txarrak, lehenengoentzat arrotzak zirenak eta bigarrengoentzat naturalak direnak; ideia batzuk beren kabuz aurkezten zaizkio batzuen irudimenari, eta besteen izpirituak errefusatu egiten ditu. Bi gizadi ezberdin bezala dira, bakoitzak bere abantaila eta eragozpen partikularrak dituelarik, bere-bereak dituen on eta gaitzak.

Beraz, kontuz ibili behar da sortzen ari diren gizarteak ez epaitzeko jada desagertu direnetatik ateratako ideiekin. Bidegabea litzateke hori, gizarte hauek, beren artean oso ezberdinak izanik, konparaezinak baitira.

Ez litzateke askoz zentzuzkoagoa izango arbasoen gizarte-egoeratik datozen bertute partikularrak gure garaiko jendeari eskatzea, zeren eta, gizarte-egoera hori berori erori egin baita eta erorketan nahas-mahasian eraman baititu berekin zeuzkan on eta gaitz guztiak.

Baina gauza horiek oraindik gaizki ulertzen dira gaur egun.

Neure garaikideetako asko ikusten dut antzinako gizartearen eraketa aristokratikotik sortzen ziren erakunde, iritzi eta ideien artean aukeratu nahian; pozik baztertuko lituzkete batzuk, baina gorde egin nahi lituzkete beste batzuk eta berekin ekarri mundu berrira.

Pentsatzen dut horiek lan zintzo baina antzuan galtzen dituztela denbora eta indarrak.

Kontua ez da baldintza-desberdintasunak gizakiei ematen dizkien abantaila bereziak gordetzea, berdintasunak eskain diezazkiekeen ondasun berriak ziurtatzea baizik. Ez dugu geure gurasoen antzeko izatera jo behar, geuri dagokigun handitasun eta zorion-mota lortzen ahalegindu baizik.

Neuri dagokidanez, ibilbidearen azken mugara iritsirik, urrutitik baina guztiak batera ikusten ditut, neure ibilian aparte begietsitako gauza guztiak, eta beldurrez eta itxaropenez betea sentitzen naiz. Arrisku handiak ikusten ditut, uxa daitezkeenak; gaitz handiak, ekidin edo murriz daitezkeenak, eta gero eta uste sendoagoa dut, zintzo eta oparoak izateko, aski zaiela nazio demokratikoei hori nahi izatea.

Badakit nire garaikideetako hainbatek pentsatzen duela herriak inoiz ez direla hemen behean beren buruaren jabe izaten, eta aurreko gertakari, arraza, lurzoru edo klimatik sortzen den ez dakit zer-nolako indar gaindigaitz eta itsuari obeditzen diotela.

Doktrina faltsu eta koldarrak dira horiek, pertsona ahul eta herri txepelak bakarrik sortzen dituztenak. Probidentziak ez du gizadia sortu ez erabat independente, ezta erabat esklabu ere. Berak, egia da, pertsona bakoitzaren inguruan marra gaindiezin bat egiten du, eta ezin da hortik irten; baina berorren muga zabaletan, gizakia ahaltsu eta aske da; gauza bera herriak ere.

Gaurko nazioek ezin dute eragotzi beren baitan baldintzak berdinak izatea; baina beraien esku dago berdintasunak morrontzara ala askatasunera eramatea, jakintzargietara ala barbariara, oparotasunera ala lazeriara.

Oharrak

A - Badira, ordea, merkataritzan sutsu jardun eta industria arrakastaz landu duten aristokraziak. Munduko historian hainbat kasu deigarri izan da. Baina, oro har, esan behar da aristokraziak ez diola mesederik egiten industriaren eta merkataritzaren garapenari. Diruaren aristokraziak bakarrik dira arau honekiko salbuespen.
Hauen artean ia ez dago desirarik, asetzeko aberastasunen beharrik ez duenik. Aberastasunen maitasuna da. nolabait esateko, giza grinen bide handia. Beste guztiak hor bukatzen dira edo zeharkatu egiten dute.
Orduan diru-zaletasuna eta begiramen eta boterearen egarria hain ongi batzen dira arimetan, zail bihurtzen baita bereiztea eta gizakiak handinahiagatik diren gutiziatsuak, ala gutiziagatik diren handinahikoak. Hori gertatzen da Ingalaterran, non aberats izan nahi baita ohoreak lortzeko, eta ohoreak desiratzen baitira aberastasunaren adierazpide bezala. Orduan, mutur guztietatik harrapatua sentitzen da giza espiritua eta merkataritza eta industriarantz eramana, hauek baitira oparotasunera daramaten biderik laburrenak.

Hori, gainerantzean, egitate salbuespenezko eta igarokorra iruditzen zait. Aberastasuna bihurtu denean aristokraziaren seinale bakar, oso zaila da aberatsak bakarrik irautea boterean, beste guztiak baztertuz.

Jaiotzazko aristokrazia eta demokrazia hutsa daude nazioen gizarte- eta politika-egoeraren bi muturretan, erdian diruaren aristokrazia dago; honek badu antzik jaiotzazko aristokraziarekin, pribilegio handiak ematen baitizkio hiritar-kopuru txiki bati; baita demokraziarekin ere, pribilegioak guztiek eskura baititzakete batzuek besteen ondoren; sarritan trantsizio natural bat bezalako zerbait da bi gauza horien artean, eta ezin da esan erakunde aristokratikoen erreinutza bukatzen duen edota demokraziaren aro berria zabaltzen duen.

B – Neure bidaiaren egunkarian ondorengo zatia aurkitzen dut, eta honek garbi erakutsiko du senarrarekin basamortura joan nahi duten Amerikako emakumeek nolako probak jasan behar izaten dituzten sarri. Ezerk ez dio koadro hau gomendagarriago bihurtzen irakurleari bere egia handiak baino.

"...tarteka-marteka luberriak aurkitzen ditugu. Establezimendu hauek antzekoak dira guztiak. Gaur arratsean gelditu gareneko hau deskribatuko dut; beste guztien irudia utziko dit.

Basoetan aurkitu ahala izateko, pioneroak abereen lepotik zintzilikatzen duen zintzarriak oso urrutitik iragarri digu lur landuen hurbiltasuna; laster entzun dugu basoko zuhaitzak eraisten dituen aizkoraren hotsa. Hurbildu ahala, suntsiketa-arrastoek gizaki zibilizatuaren presentzia iragarri digute. Adar ebakiek estaltzen dute bidea; suak erdi-errausturiko edo aizkorak ebakiriko enborrak oraindik zutik daude gure bidean. Geure martxari jarraitu eta baso batera iritsi gara, hango zuhaitz guztiek bat-bateko heriotza izan dutela ematen duelarik; udaren erdian, neguaren irudia baizik ez dute ageri; hurbilagotik aztertuz, ohartzen gara zirkulu sakon bat egin zaiela azalean, eta honek, izerdiaren zirkulazioa eragotziz, ihartarazi egin ditu; jakin dugu normalean horrela hasten dela pioneroa. Lehen urtean ezin dituelarik moztu bere jabetza berrian dauden zuhaitz guztiak, artoa ereiten du beraien adarpean eta, kolpe hilgarria emanez, bere uztari itzala ematea eragozten die. Zibilizazioak basa eremuetan emandako lehen urratsa den soro erabat landugabe horren ondoren, bat-batean jabearen etxola ikusi dugu; gainerakoa baino arduratsuago landuriko lursail baten erdian dago, baina han ere oraindik berdintasunik gabeko borroka darama gizonak oihanaren kontra. Zuhaitzak moztuta daude, baina ez erauzita, enborrak oraindik bertan daude eta lehen itzaleztatzen zuten terrenoa oztopatu egiten dute orain. Hondar ihartu horien inguruan, nahas-mahasian hazten dira eta elkarrekin handitzen lur errebelde eta erdi-basatian garia, haritz-sastrakak, mota guztietako landareak eta edozelako belarrak. Landaretza indartsu eta bariatu honen erdian dago eraikia pioneroaren etxea, edo, herrialde hartan deitzen duten bezala, *log house* delakoa. Inguruko landak bexalaze, basoko egoitza horrek ere egintza berri eta presakakoa adierazten du; luzeran ez zaigu iruditzen hogeita hamar oin baino gehiago izango dituenik, altueran hamabost; hormak, sabaia bezalaxe, arbastatu gabeko zuhaitzez eginak daude, goroldioa eta buztina sartu delarik horien artean, hotzik eta euririk sar ez dadin barrura.

Gaua hurbiltzen ari denez, log house-aren jabeari aterpea eskatzea erabaki dugu.

Gure oinotsak entzutean, basoko hondar artean jolasean zebiltzan haurrek arrapaladan altxatu eta etxerantz ihes egin dute, gizon bat ikusteak izutu balitu bezala; bi txakur handi, erdi-basati, belarri zuzen eta mutur luzekoak, etxolatik irten eta urrumaka etorri dira beren nagusi gazteen etxeratzea babesteko. Pioneroa bera agertu da egoitzako atean; begiratu bizkor eta arakatzailea bota digu, txakurrei barrura

sartzeko keinua egin eta berak erakutsi die bidea, gu agertzeak bere jakinmina edo kezka pizten duenik batere adierazi gabe.

Log house-an sartu gara. Barrualdeak ez ditu Europako laborarien etxolak gogorarazten. Beharrezkoa ez den gauza gehiago aurkitzen da han, eta beharrezko gutxiago.

Leiho bakarra dago, eta bertan muselinazko kortina zintzilika; lur zanpatuaren gainean beheko su handia zirtaka, eraikinaren barrualde osoa argitzen duena; beheko su horren gainean karabina eder bat marraduna, adarzabalaren larrua, arranoaren lumak; tximiniaren eskuinera Estatu Batuetako mapa dago zabalik, haizeak, hormaren zirrikituetatik sartzean, altxatu eta astintzen duena; haren ondoan, gaizki arbastaturiko ohol batez eginiko apalean liburu batzuk daude. Biblia ikusten dut, Miltonen lehenengo sei kantuak eta Shakespeareren bi drama; hormen kontra kutxak daude armairuen ordez; erdian, zabarki landuriko mahai bat, eta haren hankek, oraindik hezea eta azala kendu gabea duen zurez egindakoek, azpiko lurretik zuzenean irteten direla ematen dute; mahai gainean portzelana ingelesezko teontzia, zilarrezko goilareak, kikara koskatu eta egunkari batzuk ikusten ditut.

Egoitza honen nagusiak hazpegi zokotsuak eta gorputzadar meheak ditu, Ingalaterra Berriko biztanlearen bereizgarriak; garbi dago gizon hau ez dela jaioa guk aurkitu dugun bakarlekuan. Bere eraketa fisikoa aski da iragartzeko bere lehen urteak gizarte intelektual baten baitan igaro zituela, eta arraza kezkati, arrazoitzaile eta abenturari horretakoa dela, hotz-hotzean egiten duena grinen berotasunak bakarrik esplikatzen duena, eta basamortua hobeto menperatu eta zibilizatzeko aldi batez bizitza basatian murgiltzen dena.

Pioneroak bere egoitzarantz goazela ikusten duenean, guregana etorri eta bostekoa eskaintzen digu, usadioaren arabera; baina haren aurpegiak zurrun jarraitzen du; lehenengo hitz egiten du munduan zer gertatzen den galdetzeko, eta bere jakinmina asetu duenean, isildu egiten da; pentsa liteke nekatuta dagoela ezbehar eta zaratagatik. Gero geuk galdekatzen dugu bera, eta behar ditugun argibide guztiak ematen dizkigu; ondoren, presarik gabe baina arretatsu, gure beharrak asetzeaz arduratzen da. Onginahizko zainketa horietara emana ikusirik, zergatik sentitzen dugu, nahi gabe ere, gure esker ona izozten dela? Abegi egitean, ematen duelako bere zoriaren eginbehar neketsu bat ari dela betetzen. Bere egoerak ezartzen dion betebeharra ikusten du hor, ez plazerra.

Beheko suaren beste aldean emakume bat dago eserita, belaunetan umetxo bat zabunka duela; buruaz keinu egiten digu bereari jarraituz. Pioneroa bezalaxe, emakume hau ere bizitzako adinik onenean dago, bere itxurak bere maila baino hobea ematen du, bere soinekoak erakusten duenez, oraindik desagertu ez zaion gustua dauka apaingarrietarako; baina bere gorputzadar delikatuek txikiagotuta ematen dute, hazpegiek nekatuta, begiradak ezti eta serioa; bere fisionomia osoan hedatuta etsipen erlijiosoa sumatzen zaio, grinen bake sakona eta ez dakit zelako irmotasun berezko eta lasaia, bizitzako gaitz guztiei beldurrik eta erronkarik gabe aurrre eginarazten diena.

Seme-alabak estutzen zaizkio inguruan; osasuntsuak, zalapartaz eta kemenez beteak; basamortuko benetako seme-alabak dira. Lantzean behin malenkoniaz eta pozez beterik begiratzen die amak; haien indarra eta bere ahulezia ikusiz, pentsa liteke ama ahitu egin dela haiei bizitza ematean eta ez dela damu kosta zaizkionagatik.

Migratzaileak bizi diren etxeak ez du barne-banaketarik, ez mandiorik. Daukan gelaune bakarrean, familia osoak bilatzen du babesa arratsean. Egoitza honek mundu txiki bat osatzen du berak bakarrik. Hostaiazko ozeano baten erdian galduriko zibilizazioaren arka da. Ehun urrats urrutirago, betiko oihanak bere itzala zabaltzen du egoitzaren inguruan, eta bakardadea hasten da berriro.

C – Ez ditu baldintzen berdintasunak gizakiak inmoral eta erlijiogabe bihurtzen. Baina gizakiak berdinak eta aldi berean inmoral eta erlijiogabeak direnean, inmoralitate eta erlijiogabeziaren ondorioak erraz irteten dira kanpora, gizakiek eragin txikia dutelako elkarren gain, eta ez dagoelako gizartearen ordena zaintzeaz ardura daitekeen klaserik. Baldintzen berdintasunak ez du inoiz sortzen ohituren ustelkeria, baina batzuetan agertzen uzten dio.

D- Alde batera uzten badira pentsatzen ez duten eta pentsatzen dutena esatera ausartzen ez diren guztiak, aurkituko da amerikar gehien-gehienek pozik diruditela zuzendari dituzten erakunde politikoei buruz; eta, benetan, pozik daudela uste dut. Iritzi publikoaren jarrera hauek seinaletzat hartzen ditut, baina ez lege amerikarren ontasun absolutuaren frogatzat. Nazio-harrotasunak, legeriek zenbait grina nagusiri

emandako satisfakzioak, ustekabeko gertakariek, bizio oharkabek eta, horrek guztiak baino gehiago, kontrarioei ahoa ixten dien gehiengo baten interesak herri osoa lilura dezakete luzaroan, gizon bat bezalaxe.

Ikus Ingalaterra XVIII mende osoan zehar. Sekula ez du nazio batek konplimendu gehiago banatu; inoiz ez da herri bat bere buruaz pozikago egon; dena ongi zegoen haren eraketan, dena estakurugabea zen han, baita bere akatsik nabarienak ere. Gaur egun, ingeles pila batek eraketa hura mila puntutan akastuna zela frogatzea beste eginkizunik ez duela ematen du. Nork zuen arrazoi, azken mendeko herri ingelesak ala gaur egungo herri ingelesak?

Gauza bera gertatu zen Frantzian. Egia da Luis XIV.aren menpean nazio-masa handia gogo-beroturik zegoela orduan gizartea zuzentzen zuen gobernu-eragatik. Oso oker dabiltza orduko izaera frantsesean abaildura zegoela uste dutenak. Mende hartan zenbait ikuspegitatik egon zitekeen joputzarik Frantzian, baina joputza-espiriturik benetan ez zegoen. Garai hartako idazleek benetako gogo-berotasuna sentitzen zuten errege-boterea beste guztien gainetik altxatuz, eta laboraririk ezkutuena ere poztu egiten zen bere etxolan subiranoaren aintzaz eta pozik hiltzen zen “gora errege!” oihuka. Forma horiek guri higuingarri bihurtu zaizkigu. Nor zegoen oker, Luis XIV.aren garaiko frantsesak edo gaur egungo frantsesak?

Beraz, ez da herri baten jarreretan bakarrik oinarritu behar bere legeak epaitzeko, hauek aldatu egiten baitira mende batetik bestera, goragoko motiboetan eta esperientzia orokorragoan baizik.

Herri batek bere legeekiko azaltzen duen maitasunak gauza bat bakarrik frogatzen du, ez dela presaka ibili behar aldatzeko.

E- Ohar honi dagokion kapituluan arrisku bat azaldu dut nik; beste bat arraroagoa aipatu nahi dut orain, baina, inoiz agertuko balitz, askoz beldurgarriagoa izango litzatekeena.

Berdintasunak gizakiei berez sortarazten dizkien gozamen materialen maitasuna eta ongizatearen gustua, herri demokratiko baten espirituaz jabetu eta erabat betetzera iritsiko balira, nazio-ohituretarako hain antipatiko bihurtuko litzateke espiritu militarra, armadak berak ere agian bakea maitatzera iritsiko bailirateke, nahiz eta interes partikularrak gerra desiratzera eraman. Faunkeria unibertsal horren erdian, soldaduak iritsiko lirateke pentsatzera oraindik ere hobe dela pixkanaka, baina eroso eta ahaleginik gabe, gora egitea bakean, kanpaina-bizitzako neke eta ezbeharren truke gorakada bizkorra erostea baino. Espiritu horretan, armadak gogo-berotasunik gabe hartuko lituzke armak, eta kemenik gabe erabiliko; arerioari aurre egin baino gehiago, arerioagana eramana izango litzateke.

Ez da sinetsi behar armadaren jarrera baketsu honek iraultzetatik urrunduko duenik, zeren eta iraultzek, eta iraultza militarrek batez ere, normalean oso bizkorrak direlarik, arrisku handiak ekartzen baitituzte sarri, baina ez ahalegin luzeak; gerran baino kostu txikiagoaz asetzen dute gutizia; bizia bakarrik arriskatzen dute, eta demokrazietako jendeak atxikimendu txikiagoa dio horri bere aisetasunari baino.

Ez dago ezer arriskutsuagorik herri baten askatasun eta lasaitasunerako gerraren beldur den armada baino, zeren eta, bere handitasuna eta eragina gudu zelaietan bilatzen ez dituenez, beste nonbait aurkitu nahi izaten baititu. Eta gerta liteke armada demokratiko bat osatzen duten gizonek hiritarraren interesak galtzea soldaduaren bertuteak eskuratu gabe, eta armadak gerlari izateari uztea herri-nahasle izateari utzi gabe.

Gorago esan dudana errepikatu dut hemen. Horrelako arriskuentzako erremedioa ez datza armadan, herrian baizik. Ohitura indartsuak gordetzen dituen herri demokratikoak beti aurkituko ditu, behar izanez gero, gerra-ohiturak bere soldaduengan.

F – Batasun-ideiaren handitasuna gizakiek bitartekoetan jartzen dute, Jainkoak xedean; hortik dator handitasunaren ideia honek gu mila txikikerietara eramatea. Gizaki guztiak martxa berean helburu bererantz joanaraztea, horra hor giza ideia bat. Egintzetan aniztasun mugagabea sartzea, baina egintza horiek guztiak mila bidetatik egitasmo handi bat erdiestera eramateko moduan konbinatzea, horra hor jainko-ideia bat.

Batasunaren giza ideia antzua da ia beti, Jainkoarena izugarri emankorra. Gizakiek beren handitasuna erakusten dutela uste dute bitartekoa sinplifikatuz. Jainkoaren xedea da sinplea dena, bere bitartekoak mugagabeki aldatzen dira.

G – Herri demokratiko bat ez dute bere gustuek bakarrik eramaten boterea zentralizatzera; gidatzen duten guztien grinek bultzatzen dute horretara etengabe.

Erraz aurreikus daiteke herri demokratiko batek dauzkan hiritar gutiziatsu eta trebatu guztiek atsedenik gabe lan egingo dutela gizarte-boterearen eskurantzak zabaltzen, guztiek espero baitute egunen batean botere hori gidatzea. Denbora galtzea da horiei frogatu nahi izatea muturrerainoko zentralizazioa kaltegarri izan daitekeela Estatuarentzat, beren buruarentzat zentralizatzen baitute horiek.

Demokrazietako gizon publikoen artean, pertsona oso desinteresatuek edo oso kaskarrek bakarrik nahi izaten dute boterea deszentralizatu. Batzuk oso gutxi dira, eta besteak ez dira gai.

H – Sarri galdetu diot neure buruari zer gertatuko litzatekeen gaur egungo nazioetakoren batzuetan inoiz gobernu militar bat sortuko balitz, ohitura demokratikoen faunkeriaren erdian eta armadaren espiritu urduriaren ondorioz.

Pentsatzen dut gobernua bera ez litzatekeela urrunduko ohar honi dagokion kapituluan marraztu dudan koadrotik, eta ez lituzkeela berrituko oligarkia militarraren ezaugarri basatiak.

Konbentziturik nago kasu honetan nolabaiteko bategitea gertatuko litzatekeela funtzionariaren eta soldaduaren azturen artean. Administrazioak espiritu militarretik zerbait hartuko luke, eta militarrak administrazio zibilaren usadioren batzuk. Horren emaitza aginte erregular, argi, garbi, absolutua litzateke. Herria armadaren irudi izango litzateke, eta gizartea koartel bat bezala gobernatua.

I – Ezin daiteke esan era absolutu eta orokorrean gaur egungo arriskurik handiena libertinaje edo tirania, anarkia edo despotismoa dela. Bata bestea bezain beldurgarria da, eta erraz sor daitezke kausa bakar eta beretik, *apatia orokorretik*, indibidualismoaren emaitzatik, alegia; apatia horri egotzi behar zaio botere exekutiboa, indarren batzuk biltzen dituen egunean, zapaltzeko prest egotea, eta, biharamunean, alderdi batek gizon-mordoska bat jar badezake batailan, hau ere zapaltzaile izateko prest egotea. Ez batak ez besteak ezin dutenez ezer iraunkorrik sortu, arrakasta erraz ematen dienak berak arrakasta hori luzaroan edukitzea galarazten die. Gora egiten dute ezerk ez dielako kontra egiten, eta erori egiten dira ezerk ez dielako eusten.

Anarkia edo despotismoa baino apatia borrokatzea garrantzizkoagoa da, honek bata nahiz bestea sor baitezake ia bereizketarik gabe.